Emeki-emeki berdintasunezko

DANBORRADA RANTZ

Beatriz Moral (koordinatzailea)
Margaret Bullen, Xabier Kerexeta
Savina Lafita, Silvia Loza
Luz Maceira Ochoa

Donostia-San Sebastian 2014
Ikerketa beka:

"1813-2013: Emakumeak nola joan garen eskuratzen gure espazioa Danborradan"

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasun Bulegoa
Negociado de Igualdad

Argitaratzailea:
Donostiako Udala.
Bedintasun Bulegoa

Diseinua eta maketazioa:
Estudio Drom

Inprimaketa:
Gráficas Lizaso

Argitaratze data:
2014ko iraila

Ale kopurua:
350

Lege gordailua:
SS 541/2014

Sarrera 6
Joxemaritar... eta Marijoxetar? 9
Idazlan honi buruz 10
Hizkuntza aldetiko ohartarazpenak 10

Eboluzioa, inboluzioa, re-eboluzioa 14
Eboluzioa 14
Inboluzioa 20
Re-eboluzioa 21

1. atala. Entseguen egunak 24
Urtetik urtera danborrada gehiago, gero eta gehiago dira mistoak 25
Nola izan danborrada baten kide 28
Emakumeen sarbidea festara: hiru adibide, hiru mugarri 29
Erabakitzeko organoak 32
Intendentzia lanak 34

Molto ben trovato!!! Arrakasta baten zergatiak 38
Noiz sortu zen Danborradaren jatorriaren bertsioa? 38
Europako folklorearen joera orokorra 42
Donostiar espezifikotasuna 43
Iturrian zer dago? 44

2. atala Urtarrilak 19 arratsean. Prestaketa lanak 46
Mozorro ala uniforme, inauteri ala jai giroko erritual 48
Rol desberdinak, osaera desberdinak danborradetan 48
Alkatesa, kantinera eta banderaduna 51
Urketaria: emakumeak ehunka festaratu ahal izateko pizgarria 53
Urketaria bai, urketaria ez 57

Iringiletik sukaldarira 62

3. atala. Urtarrilak 19, gauean. Afaria 66
Elkarte gastronomikoak eta Danborrada 67
Afariak eta bazkariak elkarte gastronomikoetan 69
Gaztelubideko afari polemikoa 70
Danborradan bai, afarian ez 73

Marijoxetarrak non dira? 78

4. atala. Urtarrilak 20, gaueko hamabietan. Igoera 80
Ekitaldi enblematiko bat 82
Udaletxe Zaharreko balkoira begira 84
Oholtzari begira 87
Emakumeak oholtzan 88
Emakumeak zuzendari 91

5. atala. Urtarrilak 20. Gau osoan harat-honat 94
Araututako jaia eta araututako gizartea 95
Elkarrekin egon, elkarrekin bizi, botere hartu eta botere eman 97
Kaleetan desfilatzea 100
Ateak ireki ala itxi lehendabiziko danborrada mistoari? 103

Aurkibidea

6. atala. Urtarrilak 20. Ibilbideak egunsentitik gaueko azken ordura arte 106
Zer espero da emakume (danborrari) batengandik? 108
Emakumeak publikoan 111
Danborradek auzotasuna eratzen dute 114
Jai inklusibo bat hiri inklusibo batentzat 115

7. atala. Urtarrilak 20, eguerdiko hamabietan. Haur Danborrada 118
Non dira neskak? 120
Neskek danborrei oihartzun eragiten diete 122
Danborrada ez ofizialak 124
Haur Danborradaren ohorezko karguak 126
Harrobi handia 129

Hamabiak:ordu magikoak 132
Hamabietatik hamabietara hamabietan barrena:
halabeharrez bete-betean asmatu zuen egokitzapen koreografikoa 132
Eta beste hamabiak: eguerdia 135

8. atala. Urtarrilak 20, eguerdian. Urrezko Danborraren entrega 136
Saritutako emakumeak 142
Sari eta omenaldi batzuk 146
Omendutako beste emakume batzuk 148

9. atala. Urtarrilak 20, gaueko hamabietan. Jaitsiera 150
Urketari Nagusi bat Konstituzio plazako oholtzan 152
Diru-laguntzen pizgarria eta berdintasunari buruzko eztabaida 155
Jaitsiera misto egin da... eta Danborrada, berdinzaleago? 158

10. atala. Urtarrilaren 20tik harago 162
Auzo harremanei eustea 163
Donostiako gizartekintza-jardunbideak legitimatzea 165
Udako danborradak 165

Berdintasuneranzko mugarriak 168

Azken gogoetak 170
Festa oso gauza serioa da 170
Aldaketak gizartean, aldaketak Danborradan 171
Danborradak “berez” eboluzionatu al du? 172
Urketariak, estrategia handi bat 172
Urketaria, irtenbide izatetik oztopo izatera? 173
Neskak: konkista isila 173
Danborrada mistoa = berdintasunezkoa? 174
Danborrada parte-hartzailea = berdintasunezkoa? 175
Emakumeek ez al dute saririk merezi? 176
Danborrada: pribatua eta era berean publikoa 176
Danborrada, legetik at? 176
Historia ala mitoa? 177
Konklusio gisa 178

Bibliografia 180

Esker onak 183

Sarrera

Hiria egun handirako prestatzen ari da, jaiegun handirako: San Sebastian da, urtarrilak 20, Danborradaren eguna. Egun batzuk falta badira ere, hasi gara kaleetan festan zehar Sarriegik hartarako konposatutako doinuak entzuten entseguetan, batez ere danborren eta upelen arradak. Izan ere, festa txukun egingo bada, dena prestatu beharra dago: jantziak, danborrak, upelak, interpretazioa, koreografiak... ez da ezer ere ausaz egingo, guztia aldez aurretik erabakia dago. Milaka lagun ari dira urteko jaialdi nagusirako prestaketetan. Eguna hurbildu ahala, kaleak girotzen ari dira gero eta gehiago, eguna badatorrela nabaritzen da, asteak baitira entseguak hasi zirela. Dena prest dago, jaia gain-gainean da. Urtarrilaren 19a bukatzear dago eta hiriak eztanda egin behar du. Balkoiak, leihoak, tabernak... dena da txuri-urdin. Kaleetan soldaduak, sukaldariak, urketariak, danborrak, upelak, suilak, musikariak topatuko ditugu. Nor bere tokira doa, joan ere, handikiro, hunkiturik eta pozarren, 20ari omen egitera.

Erlojuak hamabiak jo ditu. Hilaren 20a hasi orduko hiri osoa danbadaka ari da: danborrek eta upelek Sarriegiren San Sebastian Martxari ekin diote, eta Donostiako bazter guztietan igotzen dira hiriko banderak. San Sebastian eguna abian da, eta azken segundoraino danborrak eta upelak jo eta jo ariko dira. Hiria festa handi bat bilakatu da.

Hamabietatik aurrera, behin festari ekiteko baimena adierazten duen bandera igota, danborradak abiatzen dira kalez kale, hiriari bizitasuna emanez. Danborren eta upelen soinua ia zoko guztietaraino iristen da, Easo Ederreko kale-plazetan sigi-saga mugitzen diren 125 danborradei esker.

Soziedade gastronomikoak, kultur elkarteak, gurasoenak, kirol klubak, tabernak, jatetxeak, hotelak, auzo elkarteak, lagunarteak... dira danborradak sostengatzen eta gauzatzen dituztenak. Izan ere, horixe baitu festak ezaugarri: partaidetza. 2013an 15.000 lagun baino gehiago dira zuzenean parte hartu dutenak.

Danborrada guztiek badituzte danbor-joleen eta upel-joleen konpainia bana, eta azken hau aurrekoa baino jende gehiagok osatzen du. Musika-banda batek jotzen ditu Sarriegi maisuaren doinuak, eta danborrek eta upelek erritmoari eusten diote. Danborrada bakoitzak bere ibilbidea du, besteengandik bereiz; baina osaeran berdintsu aritzen dira denak: danbor nagusia (agintari gorena) buru, ia beti janzkera militarrez, talde osoaren zuzendari; danbor-joleak, normalean eite napoleondarreko soldadu-uniformez jantzita; erdi-erdian, denek ongi entzun dezaten, musikarien banda edo txaranga; upel kaboa, sukaldariz jantzita, upel-joleen zuzendari; eta azkenik, upel-joleak sukaldariz, edota suilarekin urketariak, soldadu zurrun samarrak baino umoretsuago azaltzen direla. Aldeak alde, horrelatsu joaten dira danborradak, txikienek 60 lagun dituztela, eta handienek, 600 lagun.

Baina zergatik soldadu, sukaldari eta urketari? Mitoa eta historia nahasmahasean aurkitzen ditugu halako pertsonaia bitxien jatorrian, hau da, gerora

emandako azalpenean. 1863 arte hiria plaza militarra izan zenez, soldaduen danborrak entzun zitezkeen orain Alde Zaharra eta orduan hiribildua zen Donostia hartan. Edonon bezala, garai hartan jendea iturrietara joan ohi zen urketa. Honaino, historia. Mitoak dioenez, iringile batzuk, goizean goiz ur bila iturrira zihoazela, danborrak entzun eta soinean zeramatzaten upelak jota imintzioka hasi omen zitzaizkien soldaduei, eta handik sortuko ziren gerora sukaldariak. Horrela eman zitzaion zentzua bi konpainiatan banandurik agertzeari, askoz geroago, hasieran inauterietako konpartsa bat baizik ez baitzen Danborrada, danborrarena edozer traste zalapartatsu zerabilena. Urketariak, hots, emakumeak, ez ziren hasieratik egon. Baina emakumeen bateratzea ederki zetorren, urketariaren pertsonaiari esker, jatorriaren mitoarekin; izan ere, jaian zibilen aldeko partaidetza hala justifikatzen bazen, emakumeak iturrira joatea sinesgarria zen -gizonezkoena baino sinesgarriago, egia osoa esatera-, eta jaiaren alderdi zibila areagotu egiten zen haien presentziaz.

Hala jantzita, bada, soldaduek, sukaldariek eta urketariek sekulako burrunbadaz betetzen dute hiria hogeita lau ordutan, danborrez, upelez eta suilez. Danborradak hirian zehar zabaltzen dira eta haien soinua edonora iristen da. Jaian, ordea, badago ordenarik: danborrada bakoitzak arauz desfilatzen du, bere ibilbidean eta bere orduetan. Xehe-xehe antolatutako festa da eta.

20ko eguerdian, aldiz, egunaren dinamika pixka bat aldatzen da ordu batzuetan. Hamabiak puntu-puntuan jota berriro ere, milaka neska-mutiko, gehienbat hiriko ikastetxeetatik etorrita, diziplinatsu biltzen dira Alderdi Ederreko lorategietan, Udaletxearen parean. Haur Danborrada da, jakina. Hemen elkartzen dira, errebista egiten zaie eta denek batera jotzen dute San Sebastian Martxa. Udaletxeko balkoitik, jeneralak (oraintsu arte mutila; orain neska ere izan daiteke) eta "Easo Ederrak", soineko zuriz eta kapa urdinez jantzitako neskatxak, hitz batzuk zuzentzen dizkiete bildutakoei. Berehala Erdialdeko kaleetan barna joateari ekingo diote, desfile bakar batean, konpainien hurrenkera zehatzean. Haurren danbor eta upelek betetzen dute orain soinuz hiriko erdigunea.

Haur Danborrada kalez kale doan bitartean, Udaletxean beste ekitaldi bat egiten ari da, jaiari oso lotua hau ere: Urrezko Danborraren entrega. Hiriaren irudi positiboa zabaltzen edo sendotzen lagundu dutenei ematen zaien aitortza da. Urrezko Danborraren entregaren ekitaldian, San Sebastian Martxa jotzen du Unión Artesanaren danborradak, beteranoena da eta.

Gero, etengabe jarraitzen dute danborradek joka, hiri osoan barrena, harik eta gauerdian, berriro ere hamabietan, ordu horietan joka diharduten danborradek, hogeita lau ordu lehenago igotako bandera jaisteko ekitaldiaren lagun, eguneko martxak azken aldiz jotzen dituzten arte. Bandera jaitsita, jaia amaitu da. Hilaren 20ko hogeita lau orduak ahituta, Danborrada isildu egiten da. Parrandak iraun dezake, baina gaurgero ez da Danborrada.

Joxemaritar... eta Marijoxetar?

Jaia osatzen duten ekitaldi guzti-guztiei emozioa darie... emozioa eta, batez ere, esanahia. Gauza bakar bat ere ez da axolagabe edo halabeharrez egiten. Danborrada urtero-urtero ia beti berdin egiten denez gero, pentsatzekoa da garrantzi handia duela parametro zenbaiten barnean egiteak. Zeren eta, ez da ahaztu behar, festa oso-oso gauza garrantzitsua baita, ezbairik gabe.

Baten batek besterik pentsatuko balu, aski luke ikustea zenbat espazio, zenbat orri betetzen duen bertako (eta bertako hori hiria baino askoz zabalago da aspaldi) komunikabideetan, zenbat diren aktiboki jarduten duten pertsonalitateak, agintariak, nolako jendetza erakar dezakeen. Ausartuko al litzateke inor esatera Danborrada, beste jai askoren antzera, ongi pasatzea beste asmorik ez duen ekitaldi huts eta hutsala dela? Hala balitz, zer axola luke eraketa eta osaera burutik behera erabat aldatuko balitzaizkio? Zalaparta sekulakoa litzateke, ordea, milaka danborrek egiten dutena baino ozenagoa. Zeren eta Danborrada, beste jai askorekin batera, ez baita ekitaldi ludiko soila, askoz inportanteago eta esanahi sakonagoko zerbait baizik. Alegia, jaia baino areago, erritual bat da.

Danborrada "donostiartasunaren" festa handia da, bertakoei nahiz kanpokoei parte hartzera dei egiten dielarik hiriak bere burua ospatzen duenekoa. Ez da azaren azpiko orria, gero! Eta halaxe delako, lehenik eta behin, galdetu beharra dago: herritar guztiek ba al dute tokirik festan? Eta baldin badute ere, pertsona eta talde guztiek berdin parte har dezakete bertan? Eta bakoitzaren partaidetzak zer nolako esanahia azaltzen du?

Eta orduan, emakumeen berri galdetu behar. Agerikoa eta jakina baita festa, urte askoan eta aresti arte, gizonezkoena beste inorena ez dela izan, eta gaur egun ere emakumeen partaidetza mugatua egoten dela. Zergatik, bada, jarraitzen dute emakumeek gizonen pare egon gabe ospatzen donostiartasunaren jai handia, gizonezko herrikideak bezain donostiarrak baldin badira?

Danborradaren ezaugarriek berek egiten dute oso jai parte-hartzaile eta zabala, danborrada bakoitzak erabakitzen duelako nork eta nola parte hartzen duen. Hari esker, emakumeen partaidetza arian-arian eta gatazka handirik gabe gauzatu ahal izan da. Alabaina, bistan da emakumeak festan gizonen protagonismo bera izatetik urrun daudela. Eta koska da, hemen, *desberdintasuna desberdinkeria* ere bilakatzen dela.

Joxemaritar zahar eta gazte, dio San Sebastian Martxaren bertso-lerro batek, gizonak festara deituta. Laster *marijoxetarrak* ere berdin parte-hartzera deituak izango direlakoan gaude gu.

Idazlan honi buruz

Idazlan honetan festa aztertzen dugu, zer esan nahi duen, zer irudikatzen eta ordezkatzen duen, eta zer dakarren bertan emakumeak eta gizonak berdin ez agertzeak. Xehero-xehero miatzen ditugu festa osatzen duten uneak, zergatiak eta nolakoak, eta bakoitzean gizonak eta emakumeak non eta zertan ari diren, eta gauzak horrela izateak zer nolako esanahia duen.

Lana hamar ataletan antolatzen da, lehen prestaketa-lanetatik jaia erabat burutu arte, gehi aurkezpena, konklusioak eta alderdi historikoari erreparatzeko hainbat iruzkin. 2012ko azarotik 2013ko azarora bitarte jasotako informazioan oinarritzen da, elkarrizketak direla, behaketa parte-hartzailea dela, iturri historikoen, bibliografikoen eta hemerografikoen dokumentazioa dela. Iritziak eta testigantzak eman dizkiguten askoren ahotsak eta ikusmoldeak aurkezten ditugu testuan. Danborradan emakumeen partaidetzaren mugarriak, erreferentziazko puntuak identifikatu ditugu, eta festaren une desberdinetan kokarazi ditugu. Lehenik eta behin, esan beharra dago sarritan kontsultatutako iturri guztiak ez direla bat etortzen datuak eta batez ere datak zehazterakoan, batez ere ahoz transmititutakoen artean; areago, tamalez gertakizun asko ez dira dokumentatu, edo utzi duten arrastoa galdu da edo zehaztasun handirik gabe iritsi zaigu. Ikerketa zailtzeaz gain, agian hemen agertu behar lukeen gertaera bat edo beste ez dagoela edo emandako datua oker egon daitekeela aitortzera behartzen gaituzte gabezia horiek. Historia oro har eta nortasun kolektiboarena bereziki jendearen oroitzapen eta kontakizunekin ehuntzen dela jakitun, testu honetan hitz egin dugun jende asko eta askotarikoen lekukotzak eta ikusmoldeak jaso ditugu. Haien hitzak kakotx artean azaltzen ditugu. Batzuen nahia errespetatu aldera, normalean ez ditugu zuzenean izendeituraz identifikatzen. Egia esan, festaren nolakotasun orokorra ulertzeko esanguratsuak diren heinean dakarzkigu paperera, edota pentsamolde zehatz baten adierazgarri, iritzi pertsonaletik harago.

Jaia nola bizitzen den, danborradetan zer gertatzen den eta bertan parte hartzen dutenei zer gertatzen zaien kontatzeko atalen artean, historiari zuzenago heltzen dioten kapituluak ere txertatu ditugu, identifikatzen errazago bestelako tipografiaz. Orainaldian idatzitako kontakizunari eta gaur egungo jaiaren ikuspegiari denborak eman ohi duen perspektiba gehitzen diete, bada.

Hizkuntza aldetiko ohartarazpenak

Ikerketa (behaketa, elkarrizketak, informazio bilaketa, bilerak...) euskaraz zein erdaraz, elkarrizketatutakoen arabera egin denez eta bibliografia eta hemeroteka gehiena erdaraz dagoenez, kakotx arteko pasarte gehienak euskaraz aurkezten ditu euskarazko bertsioak, erdarazko bertsioan erdaraz aurkezten

diren bezala, irakurle bakoitza irakurtzen ari den hizkuntzan eroso senti dadin, jatorrizko testua, lekukotza edo adierazpena ezein hizkuntzatan dagoela ere, non eta oso esamolde adierazkorra ez bada eta itzultzean irakurleak irabazi ez baina galdu egiten ez badu: bere garaiko hizkerari oso lotua delako, edo esapide jatorra, bertsotan...

Halaber, batik bat euskararen kasuan, jatorrizkoa bere horretan aurkeztuko da, eta ez euskara batuan edo grafia normalizatuan, non eta ahozkotik hartu eta bat-batekotasunak berarekin batera ekarri ohi dituen akats ohikoak ez baldin badira, edo grafia ia irakurtezin bihurtu ez bazaio gaurko irakurleari. Hau bereziki gertatzen da euskarazko pasarteak erdarazko testuan txertatu eta gainera jatorrizkoa ez baina beste argitalpen batean transmititua izaten denean; adibidez, z eta s nahastea (hain zuzen, "nahaste" hitza "nazte" agertu izan da) edo bi hitz elkarrekin, edo alderantziz... Halakoetan, berriro ere irakurlearen alde egitearren, gaur egun ulertzeko moduko formula bilatu da, grafia batuan, nahiz eta lokalismoak errespetatu ("dek" eta ez "duk", eta abar).

Termino folklorikoen terminologiaz, aldiz, honako irizpideak darabiltzagu:

"Danborrada", hitz larriz idatzita, jai osoa adierazteko erabiliko da; "danborrada", hitz txikiz idatzita (ez baldin bada puntu baten ondoren, jakina), urtarrilaren 20an kalez kale dabiltzan taldeetako bakoitza da. Halako baten baitan, bina konpainia egoten dira: danbor-joleak eta upel-joleak (suilak barne, baldin badira). Dena den, halako terminologiak maiz nahasi egiten dira, eta askotan, erreferentzia bibliografikoak edo testigantzak agertzean edo deskribapenak egitean, hitzen esanahia apika ez da bat etortzen idazlan honetarako darabilgun irizpidearekin. Berdin esan daiteke "konpainia" hitzarekin, batzuetan sekzioa esateko erabiltzen baita, eta besteetan, danborrada hitzaren sinonimotzat, Haurrenean bereziki.

Upel-joleren sinonimotzat hartzen da "upeldun"; baina "danborrari" hitza ez da danbor-joleren sinonimotzat hartuko, danborradari nola edo hala loturiko edonor aipatzeko baizik, erdaraz "tamborrera", "tamborrero" erabili ohi den gisara.

Danbor nagusia: makilaria da Iparraldeko folklorean. Bistan da frantsesezko "tambour major", gero espainolez "tambor mayor" figura militarretik sortutako pertsonaia folklorikoa dela. Iparraldean ez bezala, Donostian terminologia militarretik hartutako hitzen euskaratzea fenomeno berantiarra denez, gehienetan kalko hutsak edo bestelako zentzuetatik hartutako azepzioak erabiltzen dira. Hortaz, gaur egun zeharo hedatua dagoen "danbor nagusia" formula erabiliko dugu.

Gastadorea: Espainolezko "gastador" edo "zapador" (Iparraldean frantsesezko "sapeur"-etik zapur bilakatuta). "Tambour Major" bezala terminologia militarretik hartutako figura izan arren, figura jatorriz militarrarekin batera "upeldunen gastadore" figura folkloriko hutsa asmatu du festak Donostian.

Upel kaboa: terminologia militarra eta Danborradarena nahasita sortutako izena, figura koreografiko donostiar peto bat izendatzeko. Erdaraz “cabo de barriles” behar lukeen arren, ohikoena da “cabo barriles”, ia-ia hitz bakar baten moduan agertzea, ahozkoan batik bat. Euskaraz ez dugu terminologia argirik aurkitu, euskaldunek berek ere zuzenean erdaraz edo hainbat aldaera baitarabilte: "kabobarrilesa", "kabobarrila", "upel-edo upelen", "upeldunen", "upel-joleen kaboa"... Askotan, “danbor-jole” esan beharrean "danbor" esaten den bezala, "upel-jole" edo "upeldun" esan beharrean ere zuzenean "upel" baizik esaten ez denez, “upel kaboa” lehenetsi dugu. "Barril mayor" terminoa agertzen denean, euskaraz "upel nagusi" terminoa erabiliko dugu.

Iparraldeko folklorean “banderaria” termino arrunta izan arren, Donostian gaur egun euskaraz “banderaduna” erabiltzen da gehienbat. Hortaz, termino hori lehenetsi da "abanderado/a" esateko. Euskaraz generoa markatzen ez den arren, hori azaltzea interesgarria denean, “emakumezko” edo “gizonezko” hitza gehituko da.

Noizbait "urkari" hitza erabili bada ere, "urketari" hitza askoz zabalduago dago (gaztelaniaz "aguadora", eta noizbait "aguadera"), eta ur bila joateko akzioa “urketa” joan esamoldea arrunta izan denez, eta esneketaria lanbidetzat jotzen zenez (bide batez esanda, gehienetan emakumeek egiten zutena, “kalera jaisten” zena ez hain aspaldi arte Donostian), aproposagoa delakoan, lan honetan "urketari" hitza erabiltzen dugu. Figura koreografiko honen sortzaileek ere, Kresala elkartekoek, halaxe darabilte euskaraz. Halaber, "urketari nagusi" erabiliko da halako taldeak -eta batzuetan "upel" edo "danbor-joleak" ere, janzkera gonaduna izanez gero- zuzentzen dituena izendatzeko.

Oharra: 1913ko *Euskal-Erria* aldizkariko J. Bengoechearen “Exposición histórica” erdarazko artikuluan (373. orrialdea) agertzen den "sullabetetzalle" hitza, filologikoki eta historikoki arras interesgarria izan arren, eguneroko erabileran galdutzat har daiteke, eta beraz ezezaguna eta egunerokoan erabili gabea denez gero, ez dirudi praktikan honetarako egokiena.

Bandera igotzeko eta jaisteko ekitaldi ofizialak "Igoera" eta "Jaitsiera", letra handitan, izendatuko ditugu, testuinguruak besterik eskatu ezean, ofizialki euskaraz hala agertzen direlako, nahiz eta euskaraz, ahozkoan bereziki, "Izada" eta "Arriada" hitzak maiz erabiltzen diren, hain zuzen Donostiako San Sebastian egunekoez aritzeko.

Izen-deituren aipamenetan, jatorrizko iturriaren edo elkarrizketatuak berak darabilen grafia errespetatuko da. Izen historikoetan, euskal grafia aipatuko da aldaketa fonetikorik ez dakarren artean: "Sarriegi", adibidez; baina jatorrizkoa errespetatuko da gaur egun behar lukeen grafiak aldaketa fonetikoa balekar: "Baroja" eta ez "Baroxa", adibidez. Aipamen bibliografikoetan jatorrizko grafia errespetatuko da.

Eboluzioa, inboluzioa, re-eboluzioa

Eboluzioa

Emakumeek parte hartzen al zuten XIX.eko danborradetan? Bai, jakina. Baina partaidetza eta berdintasunezko partaidetza ez dira gauza bera. Danborrada batean parte hartzeak bi alderdi ditu: bata, norberak talde baten baitan egiten duena, eta aski izan daitekeena; bestea, taldeaz at dagoen arren (edo dagoelako) Danborrada ikusi, entzun, neurtu, kalifikatu, txalotu edota kritikatu egiten duena. Egin daiteke danborradarik publikorik gabe? Bai. Eta danborrada batzuetan, behintzat pasarte batzuetan hala egiten da, gaueko ordu txikietan hutsik dauden (diruditen) kaleetan adibidez; are gehiago duela mende eta erdi. Baina Danborrada berdina litzateke, danborradak berdinak lirateke publikorik gabe? Ez lukete hein handi batean zentzurik galduko? XXI. mendean, jakina baietz; baina XIX.ean ere bai.

Hona hemen adibide batzuk:

1888an:

A la comparsa seguían
muchos joshemaritarras
de los que pasan la noche
esperando la del alba; [...]
Cien chiquillos, cuatro viejas
y cuatrocientas criadas,
entre rubias y morenas,
entre gordas y delgadas,
formaban la comitiva
que iba cerrando la marcha (Sada, 1977: 51).

1890ean:

Muchas jóvenes madrugadoras [...] circulan para las cinco de la mañana por la Plazuela de Lasala, "escuchando a cada paso las frases a que por su belleza y gracia se hacen acreedoras" (ibid.:54).

1893an:

se prohíba permanecer en la Plaza de la Constitución, a las muchas niñeras que presencian los bueyes con tiernas criaturas en los brazos, porque, de lo contrario, por alguna de estas maritornes, no será difícil que tengamos que sufrir un disgusto (ibid.:60).

Idazlan honen gaia ez bada ere, gogoratu beharra dago Danborradaren konpartsaren eginkizuna soka-muturra iragartzea zela, eta soka-muturra galaraztean (eta ez polemikarik gabe) hartu zuela Danborradak autonomia eta protagonismo sozial eta koreografiko gero eta handigoa.

1896an:

> *Mas quien pudiera volver*
> *otra vez a aquellos tiempos;*
> *y dando con los palillos*
> *fuertes golpes sobre el cuero*
> *cuanto más fuertes mejor,*
> *sobre todo a contrapelo*
> *y danzando una habanera*
> *como ningún habanero;*
> *y mirando a las chiquillas,*
> *con cariño y embeleso,*
> *como así miraban ellas,*
> *a los locos tamborreros (ibid.:66).*

1904an:

> *En este día, Juan Donostiarra no tenía punto de reposo. Muy temprano se vestía de granadero, agarraba el tambor y se pasaba revista al espejo, probando el parche, con un redoble y despertando a sus hijos que, al ver a su padre tan donosamente ataviado, quedaban con tamaña boca abierta (ibid.:88).*

Baietz arropa atondu eta txukun prestatu zuena andrea izan... edo neskameren bat.

Izan ere, sokamuturraren iragarle izatetik "askatuta", goizaldean atera beharrik gabe, bada (askoz geroago bazegoen oraindik "benetako Danborrada" goizeko bostetan ateratzen zela aldarrikatzen zuenik), 1910ean Danborrada, herritarrak esnatu beharrean, oheratzeko tenorera aldatu zen, erretreta modura. Eta ordutegi aldaketaren albo-kalteetariko bat izan zen, hain zuzen, danborrarien inguruan kalejiran zebiltzan neskameek ez zutela joaterik, nagusien etxean afaria zerbitzatu behar izaten zuten eta.

> *Pudo notarse el cambio de hora* (arratseko hamar eta erdietan) *por la falta de elemento femenino: los miembros de esa benemérita institución que son las criadas de servicio, estaban en las cocinas y no corrían, como otras veces, delante de las bandas* (Sada, 1977: 103).

Baina ordurako hasiak ziren emakumeak Danborradan bertan txertatzen, kantinera gisa. Bai eta, 1900etik aurrera, Danborradarekin batera baina partaide baino gehiago osagarri gisa, karroza batean, Easo Ederra ere. Ederra, "bella", "preciosa", "encantadora"... emakumeari omen dagozkion adjektiboak.

Gizonez ari direlarik, "marcial", "apuesto", edo txoro, eta barregarri, gehienez ere dotore... soldaduaren edota sukaldariaren papera nola ulertzen zen, inauteritik erritualeranzko trantsizio prozesuan. Eta, donostiarra, oro har, alaia, musugorria, tripazaina... gizonezkoa, bera baita jaiaren protagonista, emakumeak poliki-poliki integratzen hasiagatik.

Eppur si muove... Egia esan, emakumeak, kantineraz gain soldadu eta danbor-jole ere hasi ziren agertzen Unión Artesanaren eskutik. 1920ko eta 30eko hamarkadak ziren, gizartean hasiak ziren gauzak aldatzen, oso poliki izan arren, eta Danborradak, beste jaiek bezala, ezin utzi ikuskera zabalago hura islatu gabe. Easo Ederrak eta Erreginak hautatzeaz gain, 1932an kaldereroen erregina ez zen mozorroturiko gizonezkoa, Lola Balenciaga emakumea baizik. Gerraren ondoren izan zen beste pare bat (Unión Artesana, 2010: 20).

20ko hamarkada hartan sortutako Loiolatarra elkartea ere, misto sortu zen: emakumeak baziren bazkide fundatzaileen artean eta aktiboki parte hartzen zuten (adibidea: Loiolatarra, 1999: 47; bestela, ikus http://www.loiolatarra.org/47.html).

1936an Euskal Billerak antolatutako haurren danborradan, kantinera eta banderadunaz gain, Laura Idigoras kapitain doa, beste mutil batzuek bestelako paperak egiten dituztelarik (Sada, 1977: 180).

Eboluzioa... baina ez nekerik eta oposiziorik gabea. Arantxa Gurmendik gogoratzen du (*140. Unión Artesana*, 2010: 67), amari entzunda, 1934an Artesanak 30 emakume danbor-jolek osatutako danborrada atera zuela, eta gehitzen du: "Sekulakoak entzun behar izan zituzten eta ez zuten jarraitu". Liburu beraren hurrengo orrialdean 1936an atera zirela dio. Kutxa Fototekan argazkiak 1929an datatuak dira, bonbatxo moduko galtzekin, "tamborreras turcas" omen ziren eta. Sadak (http://www.euskomedia.org/aunamendi/138985/139863) 1928an eta 1936an kokatzen ditu. Agertu zireneko data fidagarriena *El Pueblo Vasco* egunkariak 1929ko apirilaren 2an martxoaren 31ko desfileari buruz argitaratutakoa da. Inauteri giroko desfilea Pazkoko festa bilakatu zen, urte hartako otsailaren 6an Donostiako ohorezko alkatesa izendatutako Maria Cristina erregina ama zendu eta inauteriak bertan behera utzita Garizuma pasa arte itxoin behar izan zen eta. Emakume danborrariak zirela ezin uka, militarrez jantzita, "en traje de zuavos (...) con sus tambores y redobles". San Sebastian egunean ere desfilatzen zuten, ordea? Lagun dituzten gizonezko "soldaduek" Artesanako uniforme berberak daramatzate, alabardak eta guzti (Unión Artesana, 2010: 65 eta 72). Gaur egun "Danborrada" San Sebastian egunekoa baizik ez da, eta inauterien egutegitik erabat at dago; baina orduan ez, alderantziz, San Sebastian eguna inauterien hasierakotzat jotzen zen. Desfile hartan bertan zihoan "la carroza de la popular Euskal-Billera, precedida de los tamborreros chinos". Txinatar danbor-joleon argazki bat ikus daiteke, honako irudi-oin honekin: "La Tamborrada nacerá unida al Carnaval y formará parte de él durante décadas. En la imagen, una comparsa de Euskal Billera" (Gurpegui eta Sada, 2012: 19). Bereizketa garbia frankismoak eragin

zuen, inauteriak debekatu eta Danborrada mota bat lehenetsi zuela, eta ez zuen lortu berehalakoan, hamarkadak behar izan zituen eta. Estornések elkarrizketan esan bezala, gerra ondoren bazegoen oraindik aspaldiko Danborradan ateratako txipiroi edo lanperna mozorroa gorde eta San Sebastian egunean janzten zuenik.

Data mugikor (batetik, urteen dantza; bestetik, San Sebastian egunean zabaltzen zen inauteri sasoiko beste desfileak) hauek adieraz dezakete emakume danbor-joleek hainbat urtetan parte hartu zutela, baina ez segidan, oso gauza arrunta beste danborraden konpainietan, inauterietako konpartsetan, kaldererotan, eta abarretan; edo, besterik gabe, nahasten direla danbor-jole hauek eta segituan aipatuko diren soldaduak ere, emakumeek jokatzen duten paperari garrantzirik eman gabe. Nola edo hala, horrexek berak zerbait esanguratsua adierazten du: haien presentzia ez zela mugarritzat hartu, eta horregatik ez dagoela finko datatzerik. Eta besterik ere adierazten digu: frankismoak eten ez balu, emakume danborrarien edota "soldaduen" presentzia, zuzenean San Sebastian egunekoa ez bazen inauteri giroan ikustera ohituta, ziur aski modu progresibo eta ez traumatikoan txertatu ahal izango zela denboraren poderioz. Dena den, ez berehalakoan, Gurmendik goraxeago gogoratzen duenez: San Sebastian egunean izan, inauterietako beste egun eta ekitaldietan izan, gizon jantzitako emakumeek kritika gogorrak jasotzen ahal zituzten, kaldereroetan ere emakumezko bat erregina ateratzeko ere urteak behar izan zituzten eta; alderantzizkoa, emakumez jantzitako gizonena errazagoa izanda ere ez zegoen gaur egun uste bezain zabaldua, ez behintzat Donostian. Edonola ere, goian aipatutako "zuavo turkiarrek", egun argiz (Artesanaren San Sebastian eguneko danborrada goizeko bostetan ateratzen zen anartean) eta desfile itxuroso batean, honako kritika merezi zuten *El Pueblo Vascon*: "comitiva de muchachas alegres y muy bonitas (...) regocijo de una mañana de sol y alegría". Beharbada, "hitz txikiko danborradatik" abiarazitako prozesua errazagoa izango zatekeen, besteak beste "hitz larriko Danborrada" oraindik sakralizatu gabe zegoelako. Esaterako, askoz geroago eta askoz apalago, 40 urteko etenaldiaren ondoren, udako danborradek ere lagundu duten era berean, ez baitute inoiz inolako kritikarik jaso emakumeak danbor joka agertuagatik ere.

1. Unión Artesanako turkiar danbor-joleak 1929 eta 1936 artean. Iturria: Kutxateka

Hortaz, kritikak kritika, abiarazitako prozesuaren eboluzioa ez jarraitzeko arrazoi nagusia Gerra Zibila izan zen, zeren eta emakumeen presentzia lehenago ere dokumentatua baitago, goian aipatutako danborrariak ez ezik, soldadu gisa ere, San Sebastian egunean bertan, sablea eta guzti, banderaduna (gerora ez bezala, gerra aurretik bandera mutilek eraman ohi zuten), kantinera eta kornetin-jolea barne. Eta uniformez bereizgarriak ziren, ez gizonezkoen "napoleoniko" generikoaz: "simulan ser huestes de Wellington", eta haien izenak ere ematen ditu. Datu deigarria, gero, ustezko askatzaile benetako etsaiaren soldaduarena egitea. Bego horretan, orain harira datorrena honako hau da eta: hurrengo urtean "escoltan la bandera doce arrogantes señoritas mandadas por un capitán". Baina oraingoz gehiago merezi du kasu egitea orduko prentsaren komentarioari: gizonezko soldaduak ez bezala, hauek dira, besteak beste, "bellas", "bonitas", "gentiles", "preciosa", "luce su palmito"... (Sada, 1977: 152) Gizonezkoen ohiko roletan dihardutelarik ere, omen dagokien eitea baizik ez zuten emakumeengan ikusten ahal.

2. "Lord Wellingtonen gudarostea", 1927 eta 1929 artean. Iturria: Kutxateka

Unión Artesanako "Lord Wellingtonen gudarostea":
M.ª Luisa Turrillas, banderaduna. Sabledunak: Hipólita Jaime, Micaela Elvira, Catalina Aizpurua, Pepita Landa, Cándida Soriano, María Gorostola, Ceferina Palmata, Trinidad Landa, M-ª Luisa Gona. Urretavizcaya: kantinera, kornetin-jolea?

Dena den, frankismoak ezabatu zuen, besteak beste, emakumeak poliki-poliki festan irabazten ari ziren espazioa, eta are larriago, hainbeste lotu zituen maskulinitatea eta Danborrada ezen askoz geroago, aurreiritziaren indarra medio, begien bistakoa ere itzuri egiten baitzaio askori, garai hartako irudien irakurketa egindakoan. Kutxa Fototekan, "Celebración de la festividad de San Sebastián. Tamborreros y cantineras de 'La Unión Artesana' en la plaza de la Constitución" izeneko erreportajean azaltzen zaizkigu irudiak (bide batez, batzuk 1927-28an eta beste batzuk 1929an datatuak, sail desberdinekoak seguruenik; kokapena bera, izenburuak iradokiagatik ere, batzuetan bai da Konstituzio plaza, eta beste batzuetan, ez). Eta argi eta garbi agertzen dira kantinera ez diren soldadu sabledunak... hori bai, gonadunak.

Areago, Sadaren eta Gurpeguiren 2012ko liburuan, lehengo lepotik burua: "Las mujeres participaban como cantineras en la Tamborrada de la Unión Artesana", nahiz eta, uniformea besteena ez bezalakoa delako, kantinera primeran bereizten den banderadun, kornetin-jole eta hamar sabledunengandik, gizonezko alabardadunak atzean daudela.

Inboluzioa

Bai, poliki-poliki gauzak aldatzen ari ziren... harik eta Francoren diktadurak lehengoratze politiko, sozial, ekonomiko eta kultural orokor bat inposatu zuen arte. Lehengoratzea? Ez dago inoiz denboran atzean egiterik, baina bai egoerak okertzerik. Eta emakumeenak larriki egin zuen okerrera. Danborradak, nola ez, islatu egin zuen giro berria, ezin bestela. Hain zuzen erritozko festek errealitatea ez baina gizarte-ordena ideal bat islatu (eta islatu ahala indartu) ohi dutelako, emakumearen irudi berria, "tradizionala" omen zena, ez zetorren bat aurreko hamarkadetan zabaltzen hasitako ereduarekin. Eta espazio publikotik, bai eta gizonezkoena beste inorena ez omen zen pribatuetatik ere, desagertu egin zen.

Donostian, milaka emakumezko zigarrogile eta denetariko langileak zituen hiri batean ere, etxekoandre ama izateko hazten omen ziren emakumeak, gehienez egun bateko erregina izan zitezkeenak, betiere gazte eta ezkongabe zirelarik: Easo Ederrak, Reinas de las Fiestas, karrozetan igota... *Excusatio non petita*: 1945ean, Easo Ederraren antolatzaileek diotenez, "no hay que confundir esta elección con esos concursos frívolos de misses o reinas".

Eta kantinerak edota banderadun emakumezkoak ugaltzen hasi ziren danborradetan, kide ezin izan ziren soziedadeen ikur-eramaile. Agian horrexegatik, halako egitekoa "feminizatu ahala", gizonezko banderadunak, "heraldoak" eta antzeko paperak urritu egin ziren.

Ikusle modura edo afarietako mahaikide gisa ere kritikatuak ziren, "desordutan" kalean zebiltzala eta (*La Voz de España*, 1957/01/20).

Ezari-ezarian, zalapartarik gabe, emakumea baztertua geratu da, eta lehenago egindako bideak inoiz jorratu gabea dirudi orain: Loiolatarreko Juanita Gaztañagak zioen bezala, ez zen inoiz bajan eman. Baina urteen poderioz "ez ziguten utzi kuota pagatzen segitzen, eta ohorezko bazkide egin gintuzten. Hara zer titulua!". Elkartea franko aldatu zela eta mutil berri asko sartu zela eta... Alegia, irabazitakoa ez da inoiz behin betiko irabazten, eta berritasunak eta jende gazteagoak ez du zertan bermatzen berdintasunaren aldeko bidea, gainerako faktoreak ere alde ez badaude. Oraindik ere zioen elkarrizketatutako gizonezko batek, berdintasunaz eta Danborradaz ari zela: "mingarria zait dena egina dagoelako irudipena, faltsua delako".

Halaber, Danborradak gordetzen zuen inauteri-kutsu oro ere galdu zen frankismoan: txinatarrak edo turkiarrak, nigromanteak eta aztiak, lanpernak, txipiroiak eta izkirak Danborradan? Bada, bai, inauteria Donostian San Sebastian egunean bertan hasten zen eta. Gerra arte, San Sebastian eguneko desfilean danbor-jole eta upeldunen konpartsa ezinbestekoa zen, eta urte batean "jatorrizkora" itzultzeko saioak porrot egin zuen, 1896an; baina era berean soldadu eta iringileak bestelako osagaiak, militarrak edo fantasia hutsezkoak gehituta, karrozak eta guzti. Adibidez, "soldaduek" margotutako bizar-biboteak zeramatzaten, edo postizoak,

edo aurpegia pailazoen modura pintatuta (adibide bat, Gurpegui eta Sada, 2013, 34-35). Frankismoak inauteriak debekatu zituenez, mozorrotzat har zitekeen oro galarazi zen Danborradan: bizarrak, biboteak, suhiltzaile-kaskoak... Bai eta kalez kale latekin, potekin edo musika-tresna bilakatutako bestelako trasteekin zalapartaka zebiltzanen danborrada informal oro ere, 1960ko hamarkadan orduko prentsak kirtenkeriatzat salatzen zuelarik (*Diario Vasco*, 1962/01/22), inauteri usaina zutelakoan: "La Tamborrada no es un carnaval, advierte la Alcaldía" (*La Voz de España*, 1967/01/19).

Halakoak espazio pribaturako geratu ziren: 1960an, Loiolatarra Elkartekoek afalondoan danborrak (bazkide batek lantegian lortutako talko-ontzi handiak) jotzeari ekin zioten, biboteak, sukaldari gorroak eta txori-gorbatak jantzita. Hurrengo urtean, kalera aterata, zuriz jantzi bai, baina biboterik edo halakorik ez: kalean, danborradak gauza serioa izan behar.

Emakumeek danborraden erakuntzan parte hartzen zuten, antolamenduak lan handia ematen baitu... baina ikusgaitasuna oso paper zehatzetara mugatua zegoen.

Re-eboluzioa

Kresalako emakumeek danborradan parte hartu nahi zutela adierazi orduko, tradizioa, herri baten nortasuna, idiosinkrasia... eta hainbat kontzeptu agertu ziren, aurka azaltzeko. Eta historia, nola ez. Baina nolako historia? Gerra aurreko emakumeena, soldadu nahiz danbor-jole agertutakoena? Izena aldatu arren funtsean iringileen izana mantendu zuten sukaldariena? Frankismoak ezabatutako inauteri giroa berreskuratzekoa? Urteak ez dira debalde pasatzen, eta 1980an Danborrada oso errotua zegoen donostiarren nortasun kolektiboan, nahiz eta artean antolakuntza aldetik soziedadeetan oinarritu, eta soziedadeetan gizonak, eta ez Donostiako guztiak. Gizon haiek ziren espazio publikoa okupatzen zutenak, hiria sinbolizatzen zutenak, eta antzezten zutena ez zen jai hutsa, errito bat baizik. Nola txertatu biribildua, itxia, burutua, "egina" zirudien erritoan emakumeen berdintasunezko presentzia? Nola egin onargarri berritasun bat tradizioan?

Jatorrira jota. Jatorria benetakoa izan, alegiazkoa izan, gutxienekoa zen. Kontua zen sinetsi egiten zela, edo behintzat sinesgarritzat jotzen zela, donostiartasunarekin eta beraz haren iraganean proiektatzen zen irudiarekin bat zetorrelako. "Ez dakigu zer egingo genuen bestela. Zerbait bai, baina ez dakigu zer" diote 1980ko Kresalaren danborrada hartako emakumezko protagonista batzuek. Javier Maria Sadak eskaini zien argudio historikoak ez zuen tatxarik: festaren iturrietara jotzea -hitzez hitz, iturrietara- historiak ematen duen zilegitasuna lortzea zen. Berdin da historiak ez duela zilegitasunik ematen argudiatzea, edo Danborradaren kasuan (gainerako guztietan bezala) diskurtso historikoa "a posteriori" eraiki dela... Historiak garrantzi handia du nortasunean, batik bat kolektiboan.

Danborrada iturri batean hasi zela, militarrei burla edo ez burla baina imitazioa eginda? Eta nor zegoen, bada, iturrietan, emakumeak ez baziren? Etxeetan urik ez zegoenean iturrira ur bila joatea emakumeen lana izan da historikoki. Ba al zegoen urketaririk? Alegia, ur bila joatea lanbide bat zen? Lope de Vegak "moza de cántaro" delakoari antzezlan bat dedikatu zion. Bengoecheak (*Euskal-Erria*, 1913: 278) hala dio: "las características sullabetetzalles, ese gremio de mujeres, de típicas maritornes, que con sus edarras o sullas iban a la fuente" (*ibid*.:278). Suila betetzaile edo urketari haiek, beren buruentzat, senideentzat edo ugazama eta ugazabentzat iturrira ur bila joaten ziren haiek emakumeak izaten ziren. Ziurrenik beste lan askoren artean egiten zuten ur garraioa; baina horrek ez zuen garrantzirik figura bat sortzeko. Iringileak ere ez ziren egun osoan iturrian egongo, eta haien lanaren jardunbide oso puntual batetik figura koreografiko bat sortu zen... non, eta iringilearena donostiar lanbideen arteko bat baldin bazen. Kontuan hartuta inauterietako konpartsa bat "jardineroena" izan zela, harresien barruan estu pilatutako hiribildu batean, baratzerik gabe, lorategirik hain gutxi!. "Valentziar itsuen" konpartsa ez aipatzearren... Kontua da 1980an emakume aitzindari haiek bai heldu ziotela historikoki dokumentatutako lanbide edo behintzat jardunbide bati. Upelarena beharrean suilaren itxura eman musika-tresnari, XIX. mendearen lehen erdialdeko donostiarren janzkerak moldatu... eta badugu figura koreografiko berri bat, bidenabar, historikoki gainerakoak baino dokumentatuagoa.

Halatan, bada, emakume urketarien presentziak areagotu egin du Danborradaren "zilegitasun historikoa"; alegia, areagotu egin du donostiarrengan nortasun kolektiboaren harrotasuna, haiei esker jatorria ("patraña", José María Donosty kronistak zioenez) eta beraz mito fundazionala, historikoki inexistentea, indartu egin delako. Inork ez luke lepoa egingo bertsioaren funts historikoaren alde; baina Danborradaren kontakizunean "hain da logikoa" halako hasiera, iturrira joateko lana festa bilakatzea, soldaduekin deseroso bizi beharrari erpin jostarienetik heltzea, non eta bere burua harro kaskarintzat duen herrian... "Alegiarik gabeko herrialdea hotzak akabatuko luke: Mitorik gabeko herria hilda dago", zioen Georges Dumézil historialari frantsesak.

Eta figurak bere bizitza propioa hartu du. Sortu eta bi urtera hasi ziren urketariak beste danborradetan txertatzen. Eta paradoxa historikoa ere eman da: berdintasunezko partaidetzaren abiapuntua izan den bezala, "historikoa" denez, hainbat pertzepziotan horretara mugatu behar omen du emakumezkoaren paperak. Dena den, eta hori oso donostiarra da, ez dago formula bakar bat denentzat balio duena. Batzuetan urketariek bide egin diete emakumeei beste figuretan txerta daitezen, normalean upeldunen artean, koreografikoki eta kontzeptualki hurbilago daudelako. Beste batzuetan, aldiz, gehienbat danbor-joleetan, historikoki emakumeen eginkizun ez dela izan argudiatuta, zailagotu egin du.

Egia esan, militarrak gizonezkoak izaten ziren (orain aintzat hartu gabe salbuespen ugariak, edo kantinera pertsonaia militarra dela), bai... baina ez gizonezko donostiarrak, kanpotarrak baizik, eta askotan etsaiak. Zergatik da

desegokiago emakumezko danbor-jole bat, frantses, britainiar edo portugaldar militarrarena egiten duen gizonezko donostiarra baino? Biologikoki argi eta garbi afrikar edo asiar gizonezko bati ere aplikatuko genioke halako irizpide ustez historikorik? Erantzuna ez dago historian, bistan da, gizontasunaz eta emakumetasunaz hedatua dagoen irudi sakon eta maiz inkontzientean baizik.

Hori, kontuan hartu gabe erabiltzen diren uniforme klasikoenak (Gaztelubide, Artesana...) ez datozela bat historikoki izandako ezein uniformerekin. Ez da, haatik, pentsatu behar irizpide historiko malguago edo zorrotzago eskatzearenak generoarekin loturik dagoela soilik. Gerra aurreko emakumezko galtzadun danborrari eta gonadun soldaduek segida izan balute, beharbada gerora naturaltasun osoz ikusiko genituzkeen. "Betidanik", "bizitza osoan" ezagututakoa historikotzat jotzea eta nola edo hala justifikatzea oso arrunta da iraganaren herri-pertzepzioan. Danborrada errito bilakatu eta haren balio ustez historikoa areagotu ahala, "betidanikoa" onartu bai baina tradizioan gerora txertatutakoak justifikazio historikoa behar duela ematen du. Danborradan behintzat hala da.

Hasierako soziedadeek ez zuten halako beharrik sentitzen, baina XX.eko 80ko hamarkadan abiarazitako boomarekin batera, batzuek beharra agian ez baina gogoa bai sentitu dutela, eta hain zuzen donostiarrak izan gabe Donostiako festarekin bat egin nahi izan duten "kanpotarrek", sustraiei uko egin gabe hemengo arbolan txertatu nahi izan dutenek jo dute gehien zehaztasun historikora: esaterako, Espai Catalàk, Galiziako Etxeak eta Errioxakoak beren eskualdeekin nola edo hala lotutako uniforme militarrak adoptatu dituzte, eta emakumeenak ere, "regional" deitzen direnetakoak.

Halako kasuetan, segur aski sustraiak ez ahazteko, areago, aldarrikatzeko eta era berean bertakotzeko modua islatzen dute janzkerek. Eta seguruenik barne/kanpo jokoa janzkerara mugatzen delako, koreografiara edo figuretara hedatu gabe. Emakumeen kasuan, donostiarrek berek bilatu behar izan dute bertan errazago onartuak izateko modu bat, guztiz naturalizatu dena.

1. atala
Entseguen egunak

Danborradak danba-danba ari dira, San Sebastian eguna heldu dela iragarle. Urtearen lehendabiziko egunetatik, lehenagotik ez bada, danborradetako kideek berriro ekin diote bildu eta elkarrekin entseguak egiteari. Danborrak eta upelak berriro ari dira jo eta jo, elkarteek dituzten egoitzetan edo hartarako propio utzitakoetan: ikastetxeak, kultur etxeetako aretoak, diskotekak berak ere bihurtzen dira biltoki festa handiaren prestaketetarako.

Entseguek pizten dute jaiaren aurreko egunetako emozioa. Partaide askotarako, aspaldi, ia urtebete lehenago izandako kontaktuak eta harremanak berreskuratzeko abaguneak izaten dira entseguak. Bakoitzak badaki zer egin behar duen. Lehen aldiz danborradan parte hartu behar dutenak ere beste nonbait saiatzen aritu direla ematen du: "Ez da horrela, baina bizitza osoan, txikitatik ikustearen poderioz ikasi egiten duzu", diosku danborrari batek.

Mundu guztia dagokion postuan kokatu da; aurten badago nobedaderik errepertorioan: zortzikoari heltzea zailxeago da. Beharbada 2013an Santesteban "maisubaren" Antzinako Martxa gehitu izanak lan gehixeago eman duelako, bertaratzen direnak inoiz baino gehiago dira. Nahiz eta praktikan entseguetan ez azaltzea ez den zigortzen, zuzendaritzatik behin eta berriro gogoratzen dute etortzearen garrantzia. Aldez aurreko topaketa hauetan bakoitzari okupatuko duen tokia esleitzen zaio, musika-tresnen egoera egiaztatzen da, jantziek behar dituzten ukituak konpontzen dira. Urduritasun zantzuak ere hementxe hasten dira azaleratzen.

Urtetik urtera danborrada gehiago, gero eta gehiago dira mistoak

Urtetik urtera gehitzen dira Danborrada egin nahi duten taldeak. Festa elkarte gastronomikoek antolatzen dutela pentsatu ohi den arren, egia da edozein kultur taldek parte har dezakeela, arautua eta legeztatua egonez gero. Bestelako kolektiboek ere egiten dute; hala nola, kirolzaleek, jatetxe eta tabernek, ikastetxeetako gurasoen edo auzo elkarteek ere beren danborradak eratzen dituzte. Normalean danborrada berri batek aldez aurretik osatutako talde edo elkarte bat izaten du oinarri. Alabaina, badira lehenago erakunde bat ez baina lagun talde hutsa baizik ez eta danborrada bat sortzeko propio bildu diren taldeak ere; esaterako, Baso Etxea, Sheshenarena, Lagun Berriak. Nolanahi dela ere, Danborradan parte hartzea taldearen izaera espazio publikoan hedatzeko, kanpoan proiektatzeko eta lagun giroak eta gizarte-harremanak estutzeko bide izan daiteke.

2013an, makilatxoen soinuak sei talde berri iragartzen ditu; beraz, dagoeneko danborraden kopurua 125 da guztira. Donostia Festak sailak emandako datuen arabera, 112 misto dira, eta 13 maskulino hutsak. Erakundeak festa kudeatzeko

markatutako zazpi barrutietatik hirutan aurkitzen dira 13 hauek: Erdialdean (24 danborradetatik 6 dira danborrada maskulinoak), Alde Zaharrean (23etatik 4) eta Grosen (20etatik 3). Altza-Intxaurrondo, Amara, Antiguo eta Egia-Loiola-Martutene beste lau barrutietako danborrada guztiek osaera mistoa dute egun. Ez da beti horrela izan, duela 35 urte den-denak -orain baino askoz danborrada gutxiago zegoen, dena esatera-, maskulinoak baitziren. Aldaketa 1980an hasi zen.

Urtarrileko lehen asteetan, Euskal Herria kaleko 9.ean, Kresalaren danborradako kideak danborrak, upelak, suilak zokotik ateratzen ari dira berriro, Sarriegiren doinuen entseguak egiteko. Alde Zaharreko danborrada hau aitzindaria izan zen emakumeei toki egiten. 1972an fundatu eta zortzi urtera, 1980an ikusi ahal izan genituen lehendabiziko emakumeak jaian musika-tresnak joka. Ordura arte, banderadun edo kantineraz jantzita baino ez genituen ikusiak. Upela, eta batik bat danborra, tresna sakratutzat zirelakoan, emakumeen eskuek zikinduko ote zituzten edo, sakrilegioa zela ematen zuen.

Jaian toki bat lortzearren, Kresalako emakumeek pertsonaia berri bat sortu zuten, iturrira urketa zihoazen emakumeen irudikapen historikoa oinarri hartuta: urketariaren figura asmatu zuten, bada. Pertsonaia hau gaur egun San Sebastian eguneko festaren osagai errotuenetako bat den arren, agertu orduko mugarri oso inportante bat finkatu zuen, jaiaren bilakabidean eta bereziki emakumeek Danborradan parte hartzeko bidean abiapuntua izan baitzen. Orain ez diogu oratuko mugarriaren testuinguruari, ez eta jaiaren gunean haren agerpenak izan zituen ondorioei ere; baina bai aurreratu behar da emakumeen ez ezik herritar ororen partaidetzan ere festaren lehenagoko eta geroagoko marrarena egin zuela. Eredu bat sorrarazi eta bide berri bat zabaldu zuten, bai danborrada maskulinoak misto bihurtu ahal izateko, bai hasieratik bertatik desfilean emakumeak eta gizonak batera parte hartzeko danborradak sortzeko.

Lehendabiziko esperientziaz geroztik, danborrada mistoen kopuruak gora eta gora egin du. 1998an danborradei emateko diru-laguntzak arautzeko ekimen positiboko politikak hasi zirenez geroztik, eta bereziki 2005eko Berdintasun Legearen baitan, ordura arte emakumeen partaidetza planteatu ere egin ez zuten talde askok osaera mistokoak izatera iragateko aukeraren alde egin zuten.

4/2005 legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa

II. KAPITULUA

KULTURA ETA KOMUNIKABIDEAK

25. artikulua.–

Kultura-jarduerak.

1.– Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonek parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan.

Debekatu egiten da emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.

2.– Kultura-jardueraren batean –hor sartuta jai kutsukoak, artistikoak, kirolekoak, eta euskararen normalkuntzaren arlokoak– sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada, euskal herri-administrazioek ezin izango diote jarduera horri inolako laguntzarik eman, edo administrazio horien ordezkariek ezin izango dute jarduerotan administrazioaren ordezkari gisa parte hartu.

Gaur egun danborrada baztertzaileen kopurua oso-oso txikia da, talde mistoen proportzioa handitzen ari den bitartean. Danborrada mistoen emendatzearen arrazoi nagusia da sortzen diren talde berri ia guztiak misto sortzen direla. Hala eta guztiz ere, gizon eta emakume partaideen kopuruak ez dira berdintsuak, ezta hurrik eman ere: 2013an, 15.193 parte-hartzailetarik, 5.323 emakumezko eta 9.517 gizonezko dira.

Emakumezkoen parte-hartzearen eboluzioa 2000-2013



1. taula. Emakumezkoen parte-hartzearen eboluzioa 2000-2013.
Donostia Festek emandako datuen arabera geuk elaboratutako taula.

Nola izan danborrada baten kide

Danborrada bakoitzak bere irizpideak ditu eskuragarri dituen plazak nork eta nola bete erabakitzeko tenorean, eta alderdi batzuk edo bestetzuk lehenetsiko ditu, nolako erakundea den edo nolako egoeran dagoen. Loiolako Erriberatarren danborradak, adibidez, auzoko bizilagunen danborrada gisa eratu zenez gero, hasieran auzoko zein kanpoko kideei abegi ona egin zien. Behin bilatzen zen gutxieneko kide kopurua bete eta gero, auzokoen arteko jardunbideak eta elkarbizitza sustatu nahian, geratzen ziren plazak auzoan bizi direnei baino ez eskaintzea deliberatu zuten.

Danborrada batzuetan, bultzatzen duen erakundearen kide izatea nahitaezko baldintza da. Beste batzuek, aldiz, bazkide ez direnentzako plaza batzuk erreserbatzen dituzte, gonbidatu gisa parte har dezaten, aldi bateko zein behin betiko. Horrela, bada, lehen maskulino ziren danborrada asko pasatu dira misto izatera, nahiz eta atzean dagoen elkarteak, gastronomikoa izan edo bestelakoa izan, maskulino dirauen. Hartara hainbat modu darabilte; adibidez, bazkideek proposatutako emakumeen artean zozketa eginda, edo proposamena egin dezaketen bazkideen kopuruaren errotazioaz, edo zerrenda irekiak eginez, non bazkideen proposamenek lehentasuna izaten duten. Halako sistemen bitartez, bada, hutsaren hurrengoa izaten dira nolabaiteko ospea edo protagonismoa duten rolak jokatzeko emakumeek dituzten aukerak, aldi bateko plazak izan ohi direlako, normalean urketariarena egiteko, eta halabeharrez hautatu ohi direlako, ez merezimenduz.

Baina emakumeak ez dira “gonbidatu” gisa aritzen danborrada guztietan. Misto askotan emakumeak zein gizonak eskubide osoko kide izaten dira: mistoak eta berdintasunezkoak beraz. Integrazioa, dena den, ez da beti berdin gertatzen.

Emakumeen sarbidea festara: hiru adibide, hiru mugarri

Danborrada bakoitza mundu bat da, eta emakumeek haietan parte hartzeko balia ditzaketen moduak ere ez dira uniformeki gauzatzen. Talde bakoitzak bere formula dauka, eta haien artean denetariko aldaerak dira, erabateko berdintasunezkoengandik historikoki femenino huts (kantinera), edo ia beti femenino (banderadun) beste emakumezkorik onartzen ez dutenenganaino, tartean askotariko egoerak daudela. Danborrada batzuk zeharo baztertzaileak dira (batzuetan kantinerak edota banderaduna ez dituzte erroldatzen ere zenbaki ofizialetarako kideen kopurua seinalatzerakoan). Beraz, Danborradak zerbait baldin badu bereizgarri, horixe du: aniztasuna, zenbat danborrada, festa ospatzeko hainbat era badaudela ia-ia esateraino. Besteak beste, hauxe da San Sebastian jaiaren arrakasta handiaren gakoetako bat, parte hartzeko moduak asko izaki nola edo hala parte hartzeko aukerak zabaldu egiten direlako.

Zenbait danborradatan, sukaldariarena edo soldaduarena egitea da emakumeek lerrokatzeko duten moduetako bat, haientzat pertsonaia berezirik asmatu beharrik gabe.

1982an, Eskaut Giako gizon-emakumeek San Sebastian festara batzea erabaki zuten. Kasu hartan, sukaldari hutsez osatutako danborrada bat zen. Berezitasuna zuten emakumeak berdin-berdin txertatu zituztela danbor edo upel joka, gizonezkoak bezalaxe. Alegia, ez zegoela musika tresnaz edo janzkeraz gizonak eta emakumeak bereizterik. Gaur egun inolako erantzunik merezi ez duen erabaki hura berria eta berritzailea izan zen garai hartan. Izan ere, danborrada hark izaera inklusiboa, barneratzailea du ezaugarri bereizgarri, hasieratik mistoa izateaz gain, bestelako gaitasunak dituzten pertsonek ere desfilatzen baitute bere lerroetan, hiru hamarkada geroago ere festan nekez ikusten den zerbait. Sexu bereizkeriarik gabeko partaidetza mota hau, egun, onartua eta arrunta da, batez ere danborrada sortu berrien artean.

3. Eskaut Gia danborrada (1990). Iturria: http://eskautak.blogspot.com.es

Urtebete geroago, Antiguo auzoan, jai handirako entseguen sasoiari berriro ekin zioten. Urte hartan, ordea, bazegoen berritasunik, danborrei eta upelei suilen soinua ere batu zitzaien eta. Danborrada hura 1896an sortua zen, Donosti Zarra izenez, eta Antiguoko gazteak biltzen zituen. Ordura arte, denak gizonezkoak izan ziren. Frankismoaren garaian, danborrada parrokiatik kudeatu zuten, Los Luises birbataiatuta. 1983an, Kresalaren ereduari jarraiki, danborrada gazteak misto bihurtzea erabaki zuen, emakumeak urketari gisa txertatuta. 34 soineko josi behar izan ziren kaleetara irtetera ausartu zirenentzat, Kresalako aitzindariek egin zuten bezala. Harrez geroztik, taldeak Antiguoko Gazte Danborrada izena hartu zuen, eta halaxe da ezaguna oraindik ere. Danborradaren berezitasuna partaideen adinean datza, 15 eta 30 urte arteko gazteek baino ezin dutelako parte hartu. 2007ra arte, danborrada hartako neskak ez ziren suila jotzen zuten urketariak baizik, baina urte hartatik aurrera danborra jotzen ere hasi dira ateratzen. Danborrada hark "emakumezkoen" jantziak eramatea erabaki dute, eta horrexegatik, janzkera militarrak ere badu bertsio "femeninoa", hots, gonaduna.

4. Antiguoko Gazte Danborrada. Iturria: *Diario Vasco*, 1983/01/21

Antiguoko Gazte Danborradako lehen emakume danborrariak (1983)
Miren Artesano, Amaia Urruzmendi, Koro Astigarraga, Gemma Pausa, Maribel Alberdi, Maite Izquierdo, Maria Antonia Mielgo, Ana García, Mari Carmen Moreno, Susana Villa, Jaione Taberna, Bea Rezusta, Iñake Kortadi, Isabel Zelaia, Garbiñe Amilibia, Koro Egibar, Elena Arija, Arantxa Sarasua, Inés Arija, Arantxa Egibar, Itziar Egibar, Marisa Fernández eta Maite Blanco.

Emakumeek danborrada batean parte hartzeko moduen aniztasunaren hirugarren adibidea Peña Anastasioren kasu bitxia da, bakarra baita bere modalitatean. 1998an, Erdialdean, Peña Anastasioko danborradak berritasun oso berria gehituta ekin zien entseguei: 60 emakume baino gehiago parte-hartzaile sartuta handitu zuen bere formazioa. Baina ez ziren beste danborradetan bezala txertatu, emakume hutsezko danborrada oso bat eratuta baizik, danbor- eta upel-jole, eta, haien buru, danbor nagusi emakumezko bat. Taldea zuzentzeko ardura bere gain hartu zuen lehena Estitxu Eceiza zen, "senior" (gizonezkoen) danborradaren fundatzaile eta danbor nagusiaren biloba; ondoan lagun zuen Txus Moulian upel nagusia, sekzio maskulinoaren upel kaboaren alaba zena.

Garaiko prentsak emakumeek ez beste inork eratutako danborradaren agerpenarenari oihartzun egin zion (*Diario Vasco*, 1998/01/14). Taldea Peña Anastasioren baitan senior danborradaren partaide sortzen bazen ere, sekzio maskulinotik bereiz zihoan, eta, jakina, baita 1986an sortu eta 2010 arte maskulino izandako gazteenetik ere. Sekzio bakoitzak badu jaia guztiz modu autonomoan egiteko behar adina rol. Anastasioko danborradek senideen arteko loturak dituzte ezaugarri: Plácido Eceiza, Anastasio danborradaren fundatzailea, oraingo danbor nagusiaren aita zen, eta emakumezkoen danbor nagusiaren aitona, Danborradaren unibertsoan berebiziko itzala izan zuen pertsonaia izateaz gain.

5. Peña Anastasioko emakumeen danborrada debutaren urtean.
Iturria: *Diario Vasco* (1998/01/21)

Anastasioko hiru sekzioek Erdialdeko kaleetan bereiz desfilatzen duten arren, ibilbidearen toki esanguratsuetan bat egin eta elkarrekin jotzen dute. Sortu zirenean, sekzio guztiek batera desfilatzen zuten, bata bestearen atzetik; baina, azkenean, hain talde handia izaki, ibilbideak bereiztearen alde egin zuten, desfilearen logistika errazte aldera, elkartzeko guneak ibilbidearen puntu batzuetara mugatuta. Entseguetan ere banatzen dira, bi taldeetan, banatu ere: batetik, maskulinoaren gizonezkoak, eta bestetik, emakumezkoena eta gazteena batera. Entsegu orokorrean, aldiz, talde bakarra osatzen dute, burrunbada berean.

Danborra eta upela jotzen duten emakumeen ereduak, bada, ugariak dira. Hemen erakutsitako hiru adibideetan emakumeek musika-tresna biak jotzen dituzte. Baina hau ez da beti horrela izaten. Kasu askotan, emakumeek ez dute danborra jotzerik, batik bat urketariaren janzkera daramatenen danborradetan. Talde batzuei zail egiten zaie emakumea eta soldadu-janzkera bateragarri ikustea, eta beraz danbor joka gizonak baizik ez dira agertzen. Beste danborrada batzuetan, danborra jo dezakete, non eta urketariz jantzita baldin badoaz. Eta badira emakumeak eta gizonak, soldaduz nahiz sukaldariz jantzita, zeinek bere tresna jo eta jo aritzen diren danborradak ere.

Erabakitzeko organoak

Erakunde sortzailearen izaerak eragina du, eragina duenez, antolatzen duen danborradaren nolakoan. Denek izaten dute batzorde antolatzaile bat, eta bere kideak dira erabakiak hartzen dituztenak. Nahiz eta emakumeak 80ko hamarkadan sartzen hasi, asko dira oraindik antolatzeko batzordean gizonak baizik ez dauden taldeak; batik bat, jakina, danborrada maskulinoa denean, elkarte gastronomikoenetan, esaterako.

Organo horietara sarbide edukitzeak garrantzi handia izaten du, erabakiak hortxe hartzen direlako. Paradoxikoki, ordea, festan emakumeen partaidetzaren gaia plazaratzen denean, gutxitan hartzen da aintzat halako erabaki-guneetan egotea, beharbada ikusgaitasunik ez dutelako, kalez kale dabiltzalarik batzorde horien aztarrenik antzematen ez delako. Emakumeak halako esparruetan parte hartzeak ala ez berebiziko garrantzia izango du danborradaren eraketan, haatik.

Nahiz eta teorian zuzendaritzako karguetara iristeko mugarik ez egon, praktikan, eta danborraden arteko aldeak alde, adinak, sexuak, harreman-sareek eta kasu batzuetan posizio sozialak ere eragin handia izaten dute. Antolatzeko batzordeetan emakumeen sarbidea, hein handi batean, erakunde antolatzailearen izaeraren eta bertan parte hartzeko protokoloen menean geratzen da. Elkarte maskulinoetan edo emakume gutxikoetan, emakumeek ezinezko dute, edo oso zail, erabakiak hartzen diren esparruetan sartzea.

Adibidez, Gizartea izeneko elkarte gastronomikoaren danborradaren estatutuek agintzen dute danbor nagusiak, upel kaboak eta elkarteko presidenteak osatu behar dutela batzordea. Halako kasuetan batzordearen partaidetza hertsiki lotua zaio danborradaren eta elkartearen beraren organigrama eta hierarkiari. Beraz, danborrada mistoa balitz ere, agintaritzan aurkitu ohi diren emakumeen kopuru oso urria izaki, antolatzeko batzordeetan emakume partaideak aurkitzeko aukera hutsaren hurrengoa litzateke. Kontrako aldean aurkitzen ditugu batzorde oso ireki eta zabalak, danborradako edozein kidek parte har dezake eta. Halakoetan, jakina mistoez ari garelarik (gaur egun ia denak), emakumeek askoz aukera gehiago dute batzordean parte hartzeko eta ordezkaritzaren %0 gainditzeko. Hori bai, danborradetako batzorde guztien datuak aurkitu ez baditugu ere, badirudi emakumeen partaidetza oso urria dela oraindik orain, baita erakunde mistoek bultzatutako danborrada mistoetan ere.

6. Erdialdeko danborraden batzordearen prentsaurrekoa, 2013ko urtarrilean.
Argazkia: Luz Maceira

Azpimarratzekoa da danborrada baten ospea zenbat eta handiagoa, are ohoretsuagoa izango dela bere batzordean kide jardutea. Bestela esanda, danborrada batzuetan batzordekide izatea, erantzukizuna ez ezik, prestigiozko kargu bat bereganatzeko era bat ere bada, bereziki "gailenekotzat" jo ohi diren danborraden artean.

Loiolako Erriberatarren danborradan, urteak aurrea joan ahala, hartu beharreko erabakien garrantzia eta kopurua urriagoa da. Oinarrizko baliabideak eskuratzea honezkero ez dute kezka-gai: janzkerak, entsegurako lokalak, musika-tresnak, musika-banda, eta abar. Hortaz, gauzatu beharreko lana hasieran baino askoz gutxiago da, ezbairik gabe. Hala eta guztiz ere, zaila izaten da hura egiteko batzorderako boluntarioak aurkitzea. Berriak direlako, auzokoak direlako edo ekonomikoki baliabide gutxikoak direlako danborrada "xumeetako" batzordeetan parte hartzeko erakargarritasuna gutxi izaten denez, boluntarioen kopurua ere urria izaten da, ardurak ez dakarrelako berez ospe gehiagoko danborradetan parte hartuta erdiets litekeen prestigioa.

Kontua da, bultzatzen duten elkarteak direla, festan jokatzen duten papera dela, beteranoak direla, bestelako arrazoiak direla, nolabaiteko estatusa duten danborrada askotako batzordeetan gizonak baino ez direla aurkitzen. Hain zuzen ere, gizonezkoen erakundeetara loturiko danborrada batzuk dira danborrarien munduan postu gorenak okupatzen dituztenak; hala nola, Gaztelubide eta Unión Artesana, nabarmenenak baino ez aipatzearren. Erriberatarrak eta Presentación de María beste muturrean leudeke: biak ala biak mistoak izaki, bultzatzen dituzten erakundeak bezala, emakumeek batzordeetan parte hartzen dute; eta biak talde berri samarrak dira, auzokoak edo ikastetxe apal batekoak, sonarik gabeak, nolabait esatearren.

Intendentzia lanak

Urtarrilaren 12an, arratsaldeko laurak eta hogeian, Amara Berri ikastetxeko ateak parez pare zabaldu dira danborradaren lehen entsegura datozen neska-mutilei harrera egitera. Amekin datoz, eta haietako batzuek konpondu beharreko jantziez beteriko poltsak daramatzate: gaizki hartutako neurriren bat, norbaitek josi beharko duen urraturen edo azpilduraren bat... Hamar minutu falta dira entsegurako eta hiru emakume amekin ari dira, funtzioaren "alboko" gaiez arduratzeko. Lau eta erditan umeak korrika sartzen dira entsegurako atondutako patiora. Emakume batzuek bozgorailuak atera eta estalitako patioaren aldamenetan jarri dituzte; soinu-mahaia erdian paratu dute, ongi entzun ahal dadin. Neska-mutilek lerro bat egin dute, nork bere upela, danborra eta makilatxoak jasotzeko. Aktibitate osoa koordinatzen duen emakumeaz aparte, hiru emakume erne daude, lerroak txukun osa daitezen. Gizon bat ere badago, soinu-mahaiaren arduradun, ikastetxeko danborradaren batzordean dagoen bakarra.

Aurreko pasartean ikusi dugun bezala, badira antolatzeko eta zaintzeko zeregin osagarri batzuk, festaren estatistika ofizialetan agertzen ez diren pertsonak izan arren jaia arrakastaz ospatzeko behar-beharrezkoak direnak. Eta hori haurren danborradetan ez ezik, helduenetan ere gertatzen da, bai mistoetan bai maskulinoetan. Intendentzia lan batzuk zuzenean esleitzen zaizkie antolatzeko batzordeko kide batzuei; baina badira, baita ere, ikusgarritasun gutxiagoko pertsonak, denetarik egiten dutenak. Zeregin batzuk etxean bertan egiten dira: jantziak garbitzea, plantxatzea, prestatzea, konpontzea... eta halakoetan andreak, arrebak, amak, amonak izan ohi dira arduratzen direnak; haiei esker agertzen dira danborradak dotore-dotore. Emakume horiek lan egiten dute festa ahalbidetzeko, baina ez dute nahitaez festaz gozatzen. "Itzalpeko" lan hori beren gain hartzen dute, hurbil zaielako, "tokatzen zaielako", ez haatik inplikazio emozionalik gabe. Zer nolako danborradak lirateke haien laguntzarik gabe? Horrela zioen elkarrizketatutako batek, amonaren "laguntzaz" ari zela:

> *Amona beti dena antolatzen! Beno, laguntzen. Bai egiten duela gauza asko [...], emakumeak asko egiten du festa honen alde, nahiz eta beharbada ez hain ikusgarri... beno, orain gero eta ikusgarriago. [...] Orduan, nik uste dut emakumearen papera danborradan oso inportantea dela.*

Inportantea, bai, baina ezagutza, ikusgaitasun eta balioespen eskasekoa. Horrexegatik izaten da beharrezkoa sarritan emakumeek egiten dituzten lan horiek guztiak argitara ateratzea, plazaratzea. Urtetan eta urtetan, emakume pilak egin dute lan, hirian kalerik kale dabiltzan danborraden garapen egokirako, aitortza handirik gabe, baina.

Intendentziako beste lan batzuk desfilean bertan egiten dira; hala nola, edariz hornitzea formazioko kideei, edo ordezko makilatxoak eramatea. Gizonezkoen danborrada batzuetan, Ollagorrarenean, esaterako, urketariek danborrarientzako edaria upeletan daramatzate, eta Corcones-ean makilatxoak emakumeek daramatzate. Kasu biotan, emakumeek ez dute musika-tresna jotzerik.

7. Ollagorrako urketariak, suiletan xanpaina daramatzatela. Argazkia: Luz Maceira

Emakume eta gizon askoren ahaleginari esker, lana beti egiten da norabide berean: Danborradaren alde baina ez beti era berean. Danborraden arteko aldeak, batzuetan, ia gaindiezinak dira. Eta osaeran, antolaketan, emakumeek parte hartzeko moduetan, erabakitze-esparruetan, eta abarretan hainbesteko aldaerak dira ezen ia ezinezkoa baita denak sailkatzea. Festaren aurreko egunetan, berriz, denak bat datoz gauza batean: denak saiatzen dira entseguetan jaia ezin hobeto gerta dadin.

Urtarrilak 18 ditu, danborrada askorentzako entsegu orokorraren eguna; beraz laster desfilatuko dute hitzordu derrigorrezkoan. Soldaduak, sukaldariak eta urketariak zain daude burrunbadari ekiteko. Entsegu aretoaren inguruko harmailetan arropa konpondu berri batzuk utzi dituzte. Bi orduko entseguaren ondoren, danbor nagusiaren besoek atseden hartu ahal dute, eta, emaitzarekin kontent, konpainia zoriondu du. Egun handia iristear da!

Molto ben trovato!!! Arrakasta baten zergatiak

Noiz sortu zen Danborradaren jatorriaren bertsioa?

Ontzat ematen da lehen Danborrada 1835ean edo 36an izan zela, nahiz eta Eugenio Gabilondok hamarkada bat geroago "jaioarazten" duen (Gurpegui eta Sada, 2013: 19). Ez dago dudarik inauteri garaian eta giroan sortu zela lehen danborrada hura, beste konpartsa batzuk sortu ziren bezala. Diferentzia? Beste konpartsek urte bakarreko edo gutxiko iraupena izaten zutela, eta danborradak, urtero-urtero errepikatuta, irautea lortu zuela. Zer, bada? Zergatik egin zuen aurrera konpartsa hark? Zer zuen berezi? Ezin jakin, erantzun guztiak *a posteriori*, oso *a posteriori* egindako interpretazioetan bilatu behar dira eta.

Interpretazioetan, zenbat eta geroago bilatu zergatia, hainbat eta garrantzi gehiago hartzen du historiak, eta historia esatean, jatorria ulertu behar da, herri-pertzepzioan historia ez delako denboran zehar etengabe aldatzen ari den kontzeptu dinamikotzat hartzen, gerora funtsean mugitzen ez den sorrerazko gertakizuntzat baizik. Paradoxikoa da, zeren eta, pertzepzio herrikoi horretatik ere, historikoki faltsua dela frogatutako jatorria justifikatzeko erabiltzen baita historia. Nolabait esateagatik, inork ez du ziurtatzen jatorria bertsio hartan denik, alderantziz; baina ematen diren datu "historiko" guztiak ustezko jatorri hura sinesgarriago egitera bideratuak daude.

Alegia: goizaldean harresiko ateetara danbor soinuaz zihoazen soldaduen antzera baina jai giroan eta era barregarrian, San Sebastian egunean egunero bezala ogia egiteko ur bila joandako iringileak eta beste hainbat donostiar, iturritik abiatuta, kalez kale zebiltzan, danborrak edo danborrarena egin zezakeen oro, upelak barne, joka ari zirela, betiere sokamuturraren aitzin eta iragarle. Hala izan zen? Behintzat izan zitekeen, sinesgarri da: *se non è vero, è ben trovato.*

Zer zioten protagonistek? Ezer ere ez. Donostian -jakina 1813az geroztik, lehenagoko agiri gehienak suak erre zituelako- ongi samar dokumentatu dira paperean idatzita eragin soziala izan duten gertakizunak, baita folklorikoaek ere. Musikan oso hiri joria izan da, bertsotan oparoa, euskal kulturari izen handiak eman dizkiona, euskaraz, erdaraz edo musika hutsez. Eta haietako batzuek

bete-betean parte hartu zuten Danborradaren eratzean, eta “sortzailetzat” har ditzakegu: Santesteban “maisubaren” dizipulu Sarriegi eta Serafin Baroja ditugu "Donostia bakarra munduan" ezagutarazi duten musikaria eta letragilea, besteak beste. Baina ez ziguten kontatu zer zela eta gonbidatzen gintuzten halako festara. Ziur aski, lehendabiziko danborrada haiek ez zutelako etorkizunean irauteko eta herriko jai nagusia izateko inolako bokaziorik.

Egia esan, lehendabiziko urteak ez ziren samurrak izan, halakoetan gertatu ohi den bezala: Danborradak duda-mudatan bilatzen zuen bere txokoa donostiarren neguko jai-egutegi oparoan, eta Lehenengo Karlistadan (1833-39) edo pixka bat geroago sortutako jaia batik bat Bigarrenaren ondotik (1872-1876) finkatu zen. Alegia, inauteri giroko konpartsa batengandik espero litekeen bezala, ez zen sortu behin betiko erritual urteroko bat izateko, aitzitik ere; baina urtero (edo ia) errepikatzearen poderioz, protagonistak ere errepikatu egiten ziren, eta koreografiak (janzkerak, doinuak, ibilbideak, ordutegiak...) finkatu, edertu, hobetu, osatu, luzatu... egin ziren arian-arian.

Orduan? Jatorriarena? Leonardo Fernández Eleiceguik, José María Donosty zerabilen ezizen esanguratsuaz hiriaren kronista ofizialak, Sadaren *Dos siglos de Tamborrada* liburuaren hitzaurrean kontatzen du nola sortu zen iturriari loturiko bertsio hura XIX. mendearen bukaeran, nola txantxa giroan argitaratu zen bertako egunkari batean urtarrilaren 20an... eta nola haren egileak berak aitortu zuen urte batzuk geroago bertsio hark ez zuela funts historikorik! Areago, “episodio estúpido” eta “patraña-tzat” zeukan, eta “incauto-tzat” haren sinestunak, eta bertsio hura gezurtatu beharrean, behin eta berriro kopiatu eta, areago, xehetasun gero eta gehiagoz hornitu zela zioen. Eta gehitu zuen ez dagoela jakiterik nork, noiz, non eta nolatan sortu zen Danborrada. Sadak izen-deituraz eta dataz zehazten du txantxa, egilea, eta zuzenketa bera, XX. mende hasieran: “Declaro solemnemente que aquel documento histórico fue obra de varios guasones” (Gurpegui eta Sada, 2012: 19). Inozoak, donostiarrak, bertsio hura zabaldu zenean Danborradaren sorkuntza ezagutu zuten batzuk oraindik bizi zirelarik? Eta batez ere: “jaiotza” hura askok eta askok irakurri eta irakurritakoan berehala ontzat hartu, eta halabeharrez gezurtatzen zueneko artikulua inork irakurri edo aintzat hartu ez? Hori bai ez dela oso sinesgarria. Badirudi donostiarrek, sinetsi egin baino, “sinetsi nahi” zutela.

Orduan, jatorriarena? Donostyk berak ematen digu klaberen bat: “gezur guztietan bezala, beharbada badago harengan egiatik zerbait”. Eta esan orduko, bera ere kontraesanean erortzen dela ondoriozta daiteke: kaletar sortu eta gerora militartu zela aitortuagatik ere, jarraian gehitzen du Danborradak, aldaketak aldaketa, “beti gorde izan duela bere aire martziala, eta janzkera militarra, sofistikazio gehiago edo gutxiagokoa”.

“Beti” hitza eta historia nekez uztartzen direla aparte utzita, deigarria da iturriarena eta militarren antzera danbor joka ibiltzearena gezurtzat zuen berberak

ziurtatzea Danborrada dela "una bufonada, una réplica humorística, más que caricaturesca, de las grandes paradas, retretas, marchas, desfiles de tropas que los donostiarras hubieron de presenciar a fines del siglo XVIII y principios del XIX con motivo de las reiteradas ocupaciones de tropas extranjeras de nuestra ciudad". Luze-zabal mintza liteke bufoikeriaren eta karikaturaren arteko aldeaz; baina kasu honetan umoreak iseka kutsurik ez duela iradoki nahi duela dirudi. Ez da munta gutxiko detailea, lehen Danborradek izan zezaketen kutsu kritikoa ezabatzen edo behintzat apaltzen duelako, inauterietan agintariak kritikatzea arrunta izan arren, asmo politikorik edo alternatiborik gabe ere. Dena den, orain esanguratsuagoa da iseka, izatekotan, atzerriko armadei eskainia zatekeela, eta, oharkabean bezala, orain berrehun urteko Donostiara garamatza, Donostiak bere historia luzean zirt edo zart egiteko mugarri guztien artean erabakigarrienera: 1813ko sute, suntsipen eta geroko berreraikuntza, arkitektonikoa ez ezik, hein handi batean soziala ere. Kontuan hartu historikoki sutean bukatutako prozesua Frantziako Iraultzarekin eta Donostiaren kasuan Konbentzioko soldaduek hiria azpiratzearekin abiatu zela. Harrez geroztik, historikoki pairatutako beste suteetan edo setioetan ez bezala, hondamendia bukatutakoan mundua ez zen lehengoratu, garai berri bat hasi baizik. Ez nekerik, zalantzarik eta tentsiorik gabe, Europa osoan ematen ari zen aldaketa, Euskal Herrian ere bere berezitasunekin ematen ari zena, Donostian inon baino argiago eta nabariago gertatzen ari zen.

Noiz dokumentatu da lehen aldiz Danborrada? 1814an, edo sutearen ondorengo urteetan? Ez, askoz geroago, Lehenengo Karlistada puri-purian zegoela, edo politikoki eta militarki tentsio handiko gerraostean. Deigarria da zer garrantzi gutxi ematen zaion halako datuari, hots, Danborrada inauteri giroan ez ezik gerra giroan ere sortu zelakoari. Eta ez zen gerra samurra izan donostiarrentzat: karlisten aldetiko blokeoa, hiria tropez gainezka... horrek zekartzan denetariko oztopo, eragozpen, gastu eta problemekin. Gerrarik gabe ere, Donostia plaza militarra zen, babespean eta era berean hein handi batean militarren agintepean deseroso bizitzera behartzen zuten harresietan itxia. Atzerriko tropak? Orduan bazebiltzan, berriro ere, britainiarrak salbatzaile, ia osorik liberalen alde jarritako Espainiako armadaren laguntzaile; baina ordukoan etsaiak ez ziren frantsesak, karlistak baizik, donostiar batzuk barne. 20 urte geroago, britainiarrek Donostia barrutik kanporantz egiten zuten eraso, bai eta porrot latzak pairatu ere: horra hor Urgulleko "Ingelesen hilerria", orduan sortua. Baina goizaldean eta ilunabarrean ateak zabaltzera eta ixtera joaten ziren militarrak, danborrak eta guzti, ez ziren britainiar haiek, Espainiako Armada Erregularrekoak baizik, eta are nabariagoa da hau lehen data 40ko hamarkadan kokatzen bada.

Inporta al du noren imintziotan (omen) zebiltzan donostiarrak? Inporta al du iturri ondotik abiatu ote ziren? Nongo iturritik? Okinak ala sukaldariak ziren, bertan ur bila joandako neskak ere ba ote zeuden? Orduan, lehen aldiz gertatu zenean, ez zuen batere inporta, ez eta ondorengo hamarkadetan ere. Baina XIX. mendearen bukaeran, hala moduzko arropekin ez baina danborjoleak militarrez uniformatuta, eta "iringileak" upel joka zebiltzalarik; hau da,

Danborrada erritual gisa finkatzen ari zelarik, jatorriak garrantzi handia hartu zuen. Eta erritual bilakatzen ari zela frogatzen du uniforme militarrak erabiltzearen arrakastak: hainbat urtetara Unión Artesanakoek haien ordez "lehengo usadio eta kapritxora" itzuli nahi izan zutenean, donostiarrek ez zuten "atzera begirako" eta beraz jatorrizkoaren berreskurapentzat hartu, gustuko "tradizioa" hausten zuen berrikuntzatzat baizik. Aurrerantzean, urte askoan fantasiazko osagarriei uko egin gabe ere, Danborradaren muina uniforme militarretan eta beren danborretan eta gerora sukaldari bilakatu iringileen upeletan finkatu zen, eta eredu hura hedatu zen auzo eta danborrada berrietara. Prozesu honetarako, ikus Sadaren 2011ko "Danborrada" artikulua Auñamendiren entziklopedian www.euskomedia.org/aunamendi/ee138985.

Dokumentatutako historia errefusatzeko eta mitifikatutako jatorria onartzeko, berriro historiara jo behar da; baina ez xehetasunen historiara, ez koxketako eta kañoietako iturrien arteko txokora, Europaren XIX. mendeko testuingurura baizik. Berriro ere, historiak baino gehiago mitoak dioenez, Danborrada militarrez "jantzi" zen (eta ez "mozorrotu", inauteri giroaz ari bagara ere), 1882an Udalak San Telmon aurkitutako kutxa batzuetako uniforme "napoleonikoak" Artesanakoen esku utzi zituelako. Urtebete lehenago utziak zizkieten 1813an goarnizioak omen zerabiltzan danborrak. Iringileak, ustez jatorrizko Danborradan agertuak, behintzat ofizialki hala jantziak eta upelekin, 1886an sartu ziren. Alegia, kronologian, militartuak lehen agertu ziren, nahiz eta "jatorria" iringileak gabe ezin ulertu. Eta fase berri horretan, aski izan ziren 10 urte, 1892an, Artesanakoek uniformeak utzi eta "lehengo usadiora eta kapritxoz" jantzi izana kritikatuak izateko.

Ez ote gauden, beste behin, gerora egindako interpretazioan... 1813ko suntsiketaren ondoren San Telmoko fraideek komentuaren parte bat kuartel izateko alokatu zuten. 1836an, Mendizabalen desamortizazioa zela eta, fraideak egotziak eta komentuaren jabe Estatua egin zenez, dena erabili zen kuartel gisa. 1913 arte ez zen monumentu izendatu, eta 1928ra arte ez zuen Udalak erosi Udal Museoa hara eramateko. Uniforme "napoleonikoak"? Lehenik eta behin, nekez izango zuen eskura Udalak material militarrik, kontuan hartuta komentua, eta Urgull osoa, militarren esku zegoela. Militarrak izan zirela uniforme zaharrak opari eman zituztenak? Baliteke, zergatik ez. Baina nekez izango ziren Napoleonen armadakoak, haiek Urgull eta harresiak, hots, egitura militarrak, erabili zituztelako, eta ez komentua. Urgulletik San Telmora jaitsi zituztela, auskalo zertarako? Alferreko lana, batik bat gero abandonatuak geratu baziren...

Bestetik, Donostiak plaza militar izaten jarraitu zuen 1863ra arte: horregatik ezin ziren lehenago harresiak eraitsi. Bigarren Karlistadan ere setioa pairatu zuen, eta beraz militartua egon zen. Eta San Telmok eta Urgullek jarraitu zuten militarren menean. Zergatik izango ziren, bada, danbor eta uniforme haiek, "napoleonikoak", sikiera garai berekoak, eta ez geroagokoak? Askoz sinesgarriago litzateke, izatekotan, bi karlistaden artean, uniformeak eiteaz eta funtzionaltasunaz aldatzen ari ziren urteetan, zaharkitutako uniforme eta danbor batzuk izatea

aurkitu eta Danborradarako erabili zirenak, eta ez 70 urte lehenagokoak, besteak beste denbora tarte luze hartan erabili gabe pipiak janda eta ustelduta egongo zirelako. Eta hala ere... arroparen kontserbaziorako bizpahiru hamarkada denbora askotxo izaki.

Aukera guztien artean, interesgarria da, gero, festarekiko lotura Udalarekin egin nahi izatea, eta ez armadarekin. Eta are interesgarriagoa lotzea 1813rekin, eta ez Lehenengo edo Bigarren Karlistadarekin edo harresien eraispenarekin. Danborradaren mitifikazio "historikoa" ulertzeko, Donostiaren izaeran bi eragile folklorikoren bateratzea ulertu behar da: bata, orokorra; bestea, lokala.

Europako folklorearen joera orokorra

Lehenik eta behin, historiaren kontzeptua bera mitifikatu da: Frantziako Iraultzaz geroztiko gizarte modernoetan historia ezinbesteko osagai bilakatzen da herri-nortasunean (2013an abiarazi eta 2016an Kulturaren Hiriburuarekin burutuko den "Bake Ituna" proiektuak hausnarketa mamitsuak egiten ditu gai honen inguruan). Gizarte tradizionaletan denboraren kontzeptua ziklikoa da (zen, Europan behintzat ez baitago gizarte tradizionalik praktikan): eguna/gaua eta urtero errepikatzen den egutegia dira denbora neurtzeko erreferente nagusiak. Denbora lineala apenas agertzen den, eta haren aipamena generikoa da, "gauaren ilunpeetara" garamatzana, mintzatzen direnen errealitatetik guztiz at dagoen zerbait aipatzeko. Barandiarani esker, adibide ugari eta primerakoak ditugu Euskal Herrian eta oro har Pirinioetan, halako pentsamoldeak XX. mendearen erdialdera arte iraun duela jakinarazten digutenak.

Baina XIX.eko Donostia ez zen gizarte tradizional bat. Halakoen arrastorik geratzen bazen, ziur aski 1813ko sute traumatikoak erraustuko zuen. Donostia guztiz zegoen XIX. mendeko korronte berrien artean murgildua, eta donostiar folkloreak nabarmen islatu zuen, eta haren eragina ingurura hedatu zuen XIX. ean eta XX.ean. Armada napoleondarrak, eta haien etsaiak, Europa osoan barrena ibili ziren hara eta hona eta, gerra eta suntsipenaz gain, tokian tokiko adierazpen folklorikoak ere barreiatu eta elkartrukatu zituzten

Halaxe iritsi ziren Euskal Herrira, adibidez, eta beharbada batzuk lehenago, Europako dantzak, gaur egun erabat tradizionalizatuak. Esaterako, Iztueta folkloristak deitoratzen zuen berritasuna eta ondoriozko euskal erroko musikaren desagerpena XIX. mendearen lehen laurdenean finkatu ziren, eta ez ziren beren hartan gelditu, zabaldu eta tradizio berri bihurtu baizik. 1868an beste gipuzkoar batek, Gorosabelek, eraldaketa haren berri ematen digu (bide batez, Ansorenak adibidetzat jartzen du honetaz guztiaz diharduelarik Bigarren Mendeurrenaren webean txertatu artikuluan: ikus http://www.donostia.org):

> *[...] la afición, el gusto y las costumbres se han reformado de una manera bastante radical. Ha dependido esto principalmente de las invasiones francesas de los años 1794, 1807 y 1823, cuyos ejércitos introdujeron en España, y en particular en esta provincia, los valses, contradanzas, rigodones, etc. A estos mismos bailes va sucediendo generalmente lo que a los antiguos de esta provincia en particular, pues han venido otros que los dejan en atraso y fuera de uso, como son los galops, mazurcas, polkas, lanceros, schottich, redowas y otros.*

Gorosabel orokorki ari bazen ere, adibide zehatzak aurkitzeko Danborradaren errepertorioari erreparatzea baizik ez dago. Bigarren Mendeurrena dela eta San Telmo Museoan 2013ko abenduaren 12an egindako kontzertuaren errepertorioa, zentzu horretan, oso didaktikoa da goian aipatutako prozesua ulertzeko.

Folklorearen eragina ez zen dantza, doinu eta erritmo berriak elkartrukatzera mugatu. Armadek berek, beren uniforme ikusgarriekin, beren musika-errepertorio eta taldeekin, beren mugitzeko era bereziekin, eragin handia izan zuten errepertorio koreografiko zaharberrituetan edo berritik sortuetan. Ez luzatzearren, aski da erreparatzea Bidasoaldeko alardeei, hain zuzen bi Karlistaden artean prozesio zaharrak zeharo eraberritu eta koreografikoki armada txiki baten eitea hartzen hasiak baitziren: danbor nagusia eta danborrada, banda, danborrariak eta txilibitariak konpainiako, kantinerak, artilleria eta zalditeria, hatxeroak (gastadoreak Donostiako termologian)... eta prozesu hura azkartu egin zuten 1881etik aurrera... Donostian bezala.

Lapurdi eta Baxenabarreko Bestaberriek ere, erabat erlijiosoak izan arren, berenganatu zituzten Napoleonen armadatan inspiratutako figurak. Inauteriek berek jaso zuten militarren eragina, eta Zuberoako maskaradan, adibidez, “kantiniersa” figura txertatu zen.

Donostiar espezifikotasuna

Baina festarik baldin badago Donostian Napoleonen garaiko armaden eraginpean antolatu denik, ezbairik gabe, horixe Danborrada da. Inauterietako konpartsa sortuta ere, janzkeretan behintzat militarren kutsurik batere gabe sortuta ere, mende erdi geroago uniforme militar zahar batzuk jantzi eta hamarkada bakar batean donostiar historiaren agerpen biziaren adierazle bihurtu zen, donostiarren historia laburbiltzen omen zuen alde militarra eta zibila konpartsa bakar batean bildurik.

Eta hala, anekdota baizik ez omen zena mito fundazional bilakatu zen; areago, donostiarren iruditeria kolektiboan sekulako garrantzia izan zuen gertakizun historikora lerratu zen. Gertakizun hura, jakina, ez zen Danborradaren sorrera,

1813ko sutea baizik; dena den, Danborrada indartu ahala, nola ez lotu Donostian lehenago / ondorengo mugarri historikoarekin, nola ez batu biak? Historia, iragana aztertzen duen ikasketa akademikoa, bat da; historiaren pertzepzioa, herritarrek beren iragan kolektiboaz duten irudikapena, beste bat. Bata, dinamikoa da, fenomenoak etengabeko elkarreraginean eta eraldaketan ulertzen dituena; bestea, estatikoa, gertakizun esanguratsu bat hautatu, gainerako elementuak baztertu eta irudi finko bilakatzen duena.

1813az geroztik, 70 urteetan Donostiak ezagututako eraldaketa askoz ere handiagoa izan zen aurreko mendeetan baino: harresiak eraitsita, "Donostia" izandakoa "Parte Zaharra" izatera pasea zen, eta etengabe hazteari ekin zion; hiriburu izendatu zuten; Madril-Irun N-1en pasabide eta Madril-Hendaia trenbideko geltoki bilakatu zen; merkatari hiria izateari utzi gabe lehen industriak ezagutu zituen, eta batik bat ordura arte pentsa ere ezin litekeen jardunbide ekonomiko bat garatu zuen: turismoa. Hura guztia, ordea, ez zen barne tentsiorik gabe gertatzen ari, bi Karlistada pairatu izanak salatzen duen bezala. Karlistaden eragin belikoa ez zen Napoleonen gerrena bezain larria izan Donostian; baina gerra zibilak gogoratzea ez da inoiz samurra izaten, are gutxiago ondoriozko Foruen galerak karlistak ez ezik liberal asko ere kolpatu zituelako. Bigarren Karlistada itzali berria zenean, garaiko uniformeak ez baina askoz zaharragoak janzteak, europar folklorearen harira bide batez esanda, orainalditik atera eta iraganera, "historiara" zeramatzan donostiarrak, bere tragikoan ere Donostia Europan txertatzen zuen gertakizun batera, eta batez ere, donostiar guztiak batu egiten zituen garai batera.

Iturrian zer dago?

Donostiarren irudipen kolektiboan, bada, Danborradaren sorrera militarren parodia batean kokatzea guztiz logikoa zen. Berdin zion "benetan" hala izan zen ala ez; izan zitekeen, eta gustuko zuten hala sinestea: *se non è vero, è ben trovato*. Gainera, iturriak, "gauzak gertatu ohi diren" tokiak izaten ziren, mota guztietako jendeak biltzeko guneak, baina batez ere jende langile eta xumea, neskak eta mutilak.

Militarrekin, egia esan, hiribildua sortu orduko bizi ziren, beharbada haren fundazioa baino lehen ere bazegoen gaztelu bat Urgullen, edo bestela segituan egin zuten. Baina benetako militarizazioa XVIII. mendearen bukaeran hasi zen, Frantziako Iraultzaz geroztik Donostia frantsesen esku egonda, eta 15 urtera berriro. Orduan abiarazitako garai kalapitatsuak 1813ko abuztuaren 31n jo zuen goia. Eta Donostia guztiz eraberriturik sortu zen, eta bere ahaleginaren ahaleginez.

Donostiarrek bazuten mugarri historiko bat, ospatu ez baina bai gogoratu beharrekoa. Hori bai: esanguratsua da, gero, "Abuztuaren 31" izena ez ziotela kaleari jarri sutearen biharamunean, XIX. mendearen bukaeran baizik, hain zuzen Danborrada eraberritzen/finkatzen ari zen urteetan. Eta urte haiexetan paratu

zuten kale bereko plaka gogoangarria ere, euskaraz eta erdaraz sutearen ondoren lehendabiziko Udaletxearen kokalekua gogoratzen duenekoa.

Badirudi 1813ko tragedia bertatik bertara ezagututakoak zaharraren zaharrez ia denak desagerturik, eta harrotzeko moduko ez ziren bi gerra zibil noziturik, donostiarrek ekin ziotela nortasun kolektiboa berreratzeari, eta egin zuten donostiar kaskarinek zekiten moduan: afarien eta musikaren bidez. Janzkeraz, ustez napoleonikoak ziren uniforme haiek ere ez zuten berregintza historikorik bilatzen, donostiartasunaren eta oro har orduko folklorearen alderdi militarra nabarmen uztea baizik: "Se han modificado, inventado, los trajes más absurdos, pero siempre con aires castrenses" (Sada, 1977: 128).

1913an, Mendeurrenaren karietara, hainbat ekitaldiren artean, soziedadeek antolatutako danborraden elkarretaratzea izan zen, militarrez jantzita: "los figurines que han servido para la confección de uniformes militares de 1813, utilizados en la retreta y tamborradas organizadas con motivo de las fiestas del Centenario", erakusketa historiko bati buruzko artikulu batek dioenez (*Euskal-Erria*, 1913: 371). Hori bai, "militar" haiek *Iriyarena* herrikoia jo zuten (*ibid*.:289). Jakina, 150. urteurrena, 1963an, frankismo betean, Frantzia, Espainia, Portugal eta Erresuma Batuko banda militarrez gain, danborraden elkarretaratze batekin "ospatu" zen. 2013an ere, "benetako militarren" presentziarik gabe ere, hainbat danborrada ibili dira kalez kale abuztuaren 31n.

Eta 2013an ere, azterlan hau bultzatu duen deialdia bera lekuko: "1813-2013: Emakumeak nola joan garen eskuratzen gure espazioa Danborradan". Hots, jatorri historikorik ez duen baina donostiarren pentsamoldean egon dagoen lotura hori, aspaldi honetan, laxatu beharrean gero eta estuago da. Horretan emakumeen parte-hartze gero eta handiagoak badu zerikusirik.

2. atala
Urtarrilak 19 arratsean. Prestaketa lanak

Egunak eta egunak entseguetan eta prestaketetan buru-belarri ibili eta gero, Donostia azken orduen zain dago, irrikatan. Hiria apaindurik dago, festarako giroturik, elkarteak, ikastetxeak, denetariko taldeak azken ukituak ematen ari dira jaiegunaren hogeita lau orduak bete-betean bizitzeko. Batzuk gulak -baten bat, angulak!- erosten ari dira afaltzeko; beste batzuk, jantziaren azpildurak josten, edo azken orduan makilatxoak eta oholtxoak eskuratzen. Etxeetan ilusioa da nagusi, denak prestaketetan joan-etorrietan urduri dabiltzala.

Milaka donostiar ari dira jai giroan bete-betean sartzeko eta egun osoan egoteko gogoz. Urketari izan, soldadu izan, sukaldari izan, banderadun, gastadore, kantinera, danbor nagusi, upel kabo izan, edo publiko gisa ere, kontua da egundoko San Sebastian eguna ospatzea. Gehienek aski dituzte paperezko sukaldari-gorroa eta erritmoa jarraitzeko oholtxoa eta makilatxo parea, gauerditik aurrera jo eta jo aritzeko. Asko ez dira kalera ere irtengo danborrada baten atzetik. Beste askok, ordea, txukun garbitu eta plantxatutako arropa jantziko dute, gau horrexetan bertan edo egun osoan zehar desfilatuko dutelako.

Areago, badago urte berean danborrada bakar batean ateratzea edo paper bakarra jokatzea nahikoa ez duenik. Gizonezkoen danborrada bateko neska banderadun batek dioskunez, beste bietan ere parte hartzen du, bi auzo desberdinetan, upel joka. Hortaz, danborrada bakarrera edo egiteko bakarrera mugatu beharrik ez badago urte berean, are gutxiago bizitza osoan zehar. Badago umetan kantinera, Easo Eder, zaldiko izan dena, eta geroago, suil-, upel-, danbor-jole, bai eta danbor nagusi ere. Hainbeste paper jokatu dutenen kasuak oso gutxi izan arren, danborrada berean edo desberdinetan paper bat baino gehiago jokatu dutenen kopurua ez da txikia.

8. Hiria, festaz jantzia. Argazkia: Luz Maceira

Mozorro ala uniforme, inauteri ala jai giroko erritual

Hamabietan aterako diren danborradetako partaideak prestatzen ari dira, orain arte entseguetarako edo afaltzeko erabilitako lokalean bilduta. Gehienak etxetik datoz behar bezala jantzita, baina beti geratzen dira azken ukituak eta apaindurak: perrexila paparrean, buruko edo lepoko zapia txukun, eta abar. Denak primeran egon behar du, dotore-dotore. Jokatu beharreko rolak desberdinak izanagatik, denak eta batbedera inportanteak dira, eta seriotasunez hartu beharrekoak. Horrexegatik ere, ez da "mozorrotzea" esan ohi, "janztea" baizik. Zeren eta mozorroa inauteriarekin lotzen baita, zorakeriazko parrandarekin. Eta Danborrada, aldiz, gauza serioa da, oso.

Jatorria inauterian dagoela historikoki frogatua egonagatik ere, inauterietatik urruntzeko ahalegina frankismoaren garaian areagotu zen, udal gobernuak ordena, diziplina eta "dekoroa" lehenesten zituelarik. Alkatetzak plazaratzen zituen prentsa-oharretan berariaz debekatzen zen kalean paperezko gorroak, karetak edo inauteri kutsuko ezein elementu baliatzea, Danborradaren "tradiziozko zentzuarekin" bat ez zetozelakoan. Orduko komunikabide zenbaitek ere kritikatzen zituen bat-bateko danborradak: "gamberros empeñados en convertir nuestra fiesta ritual en una parodia de carnaval brasileño" (*Diario Vasco*, 1962/01/22). Aldiz, 1963an Peña Anastasioren danborrada lehen aldiz atera zenean, prentsak laudoriozko harrera egin zion, ikusgarria eta duina, bilatzen zen formalitatearen eredugarri zelakoan.

Rol desberdinak, osaera desberdinak danborradetan

Botak, polainak, jakak, gorroak, mantalak, gorontzak, zapiak, galoiak, uhalak, danborrak, upelak, banderak, laban eta sardeak (halako tamainarekin, ezin sardexka esan, nahiz eta belarretarakoak ez baina jatekoak imitatu), aizkorak eta zerrak, zernahi gauza, betiere pertsonaien janzkeren osagarri. Danborraden osaerak ere ezin konta ahala dira: talde bakoitzak jaia bere erara ulertu eta egituratzen du, bakoitzak bere historia, bere joera ideologikoa edota bere baliabideak dituelako. Hortaz, zilegi da esatea danborrada guztiek ez dituztela berdin irudikatzen pertsonaia berdinak.

Danborradaren unibertsoan dauden pertsonaia guztiak formazio guztietan agertzen ez badira ere, badaude ezinbesteko osagai batzuk danborradatzat hartu ahal izateko: danborrada guztiek banatu behar dute gutxienez, bi sekziotan, bata danborrena da, eta bestea upelena. Danborrak urketariek, sukaldariek edo soldaduek jo ditzaketen arren, ohikoena da azken hauek izatea joleak;

alegia, soldadurik egonez gero, hauek danborra joko dute. Upeletan sukaldariak aurkituko dira, eta batzuetan baita urketariak ere, upel edo suil joka.

Praktikan formazio mota bat baino gehiago egon badago ere, herri-irudimenean egituratzen den formazio ideala bitasunean oinarritzen da: alderdi militarrean eta zibilean. Lehena solemneagoa izan ohi da, uniforme militarra eta hari omen darion seriotasuna nagusi. Talde batzuek berariaz uko egiten diote janzkera militarrari, beren pentsamolde eta jokamoldearekin bat ez datorrelako. Baina gaur egun danborrada gehienek uste dute soldaduek estatus eta nagusigo moduko bat ematen dietela, eta zenbaitek ez dauka halakorik... baliabide ekonomikorik ezean, noiz eskuratuko zain. Komunikabideetan jasotzen denez, talde batzuk soldadu konpainia osatu edo indartu nahian dabiltza, danborradaren sendotzea edo nolabaiteko heldutasun mailara iristea delakoan. Ideia hauek argi eta garbi azalerazten dute nolako balio eta esanahia ematen zaion paperetako bati, hain zuzen ere emakumeek sarbide gutxien duenari.

Soldaduena berdintzeko, haien beste aldean -esapidearen zentzu guztietan, erritualaren alderdi jolasgarriena denez gero-, upel-joleen sekzioa agertzen da, gizarte zibilaren ordezkari. Hortxe haizu da partaideak jostalari agertzea, eta hortxe txertatu da errazen emakumea, urketariaren figuraren bitartez bereziki.

Festaren protagonisten artean, badira besteak baino are arduratsuago eta urduriago prestatzen ari direnak, danbor-, upel- eta suil-joleak zuzendu behar dituzte eta: danbor nagusia, militarrez jantzita (soldaduen konpainiarik baldin badago), danbor-joleen eta talde osoaren zuzendari; eta upel kaboa, sukaldariz jantzia (emakumea bada eta urketariak badaude, urketariz ager daiteke) upel-joleen eta, egonez gero, suil-joleen zuzendari. Urketariek aparteko sekzioa izaten dutenean, urketari nagusia izan ohi dute. Halako kasuetan ez bada, gaur egun gutxi dira zuzendari agertzen diren emakumeak.

Danborrada askok figura osagarriak ere izaten dituzte; hala nola, gastadoreak, bai danborrarienak bai upeldunenak, gehi banderadunak, kantinerak, eta, batek edo bestek, alkatesa, fusilariak, zaldizkoak... Gastadoreek beren lanabesak dituzte ezaugarri, atzetik duten konpainiaren araberakoak betiere: soldaduen buru badoaz, haiek bezala uniformatuta janzten dira eta aizkorak, zerrak, palak, pikotxak daramatzate, militarrek eramaten zituztenen antzera; hobeto esanda, halakoak irudikatzen dituzten zurezko tresna handiak daramatzate. Upeldunen aurrean doazenek antzera egiten dute, baina koilara, laban, sardexka erraldoiekin. Bitasun zibil-militarra indartzen dute, beraz. Jokabide eta koreografia alai samarrekin, kideak zein publikoa animatzen dituzte musikaren erritmoan dantzaka. Hemen ere, badira halako paperetan emakumeak onartzen dituzten danborradak, eta onartzen ez dituztenak.

9. Kondarrak danborradako gastadoreak. Iturria: www.kondarrak.com

10. Gaviota danborradako gastadoreak. Argazkia: Xabier Kerexeta

Zenbakitan emakumeen presentzia urtetik urtera handitzen ari bada ere, eta 2013an danborraden %92 mistoak izan arren, partaideen heren bat baino ez dira emakume, eta oso talde gutxitan irits daitezke edozein postutara berdintasunez. Izan ere, oso talde gutxik onartzen du emakumerik soldadu edo agintari modura. Bestalde, paper batzuk beti edo ia beti emakumeek esklusiban jokatzen dituzte: alkatesa, banderaduna, kantinera eta urketaria.

Alkatesa, kantinera eta banderaduna

Donostia osoan, etxe eta lokal askotan, emakume batzuk makillajeaz eta orrazkeraz apaintzen ari dira, arropak pintxo-pintxo janzten, danborraden aurrean jartzeko eta martxari distira emateko. Ez dute musika-tresna prestatu beharrik, danborra, upela edo suila jotzen ez duten bakanetakoak dira eta. Bestelako eginkizunak dituzte. Banderadunak dira, kantinerak eta alkatesa.

Alkatesa XIX. mendeko inauteriaren pertsonaia batean inspiratua dago. Dotore jantzita dabil, formazioaren buru eta banderadunen lagun, eta agintarien ordezkari da. Emakumeek bestek ez du interpretatzen eta oso danborrada gutxitan aurki daiteke; beraz, ez da inondik inora kantinerena (danborrada gehienetan baitago) edo banderadunarena (denetan baitago) bezain esanguratsua.

Danborrada bakoitzak bere erara konbinatzen ditu banderadunak eta kantinerak. Azken hauek emakumezkoak baizik ez dira; soldaduak dituzten danborradetan agertzen dira, eta haien uniformea ere eite militarrekoa da. Esan beharra dago banderadunena ez dela nahi eta nahi ez emakumezkoen egitekoa, batzuetan gizonezko banderadunak ere ikusten dira eta. Gaur egun, ordea, gutxitan aurkitzen da halakorik. Danborrada guztiek badute banderadunik, banderak identifikatzen eta besteengandik bereizten baitu danborrada bakoitza. Haien janzkerak bat egin ohi du danborradarenarekin: urketari, sukaldari, militar (batzuenak majoretteak dirudite). Bat baino gehiago izan ohi dira, eta bandera txandaka eramaten dutenez, ez dakienak banderadunak eta kantinerak nahas litzake.

Urtetan eta urtetan emakumeek ez zuten banderadun edo kantinera beste betekizunik egiten ahal Danborradan, eta haien presentzia denboraren poderioz aldatu egin da. Gaur egun ez dago kantinerarik danborrada guztietan; beste batzuetan, banderadunarekin nahasten edo konbinatzen da, eta beste batzuetan bai bereizten eta konbinatzen dira biak. Kantinerarena beti emakumezkoen papera izan den bezala, bandera eramatearena da inolako eztabaidarik gabe gizonezkoek zein emakumezkoek bete ahal izan duten bakarra. Banderadun gizonezkoak, arruntak XX. mende hasieran, arian-arian emakumezkoek ordeztu dituzte, hainbesteraino ezen gaur egun gutxi baitira eginkizun horretan diharduten gizonezkoak.

Eta hain dago gaur egun emakumezkoen irudiari atxikia ezen sarritan pentsaezina baitirudi gizonezko banderadun irudikatzea. Danborrada batzuetan aukera hori aintzat hartzeko ere, “aireak eta pentsamoldeak” berritu behar lirateke, elkarrizketatutako banderadunetako batek zioskunez. Beste batzuetan, berriz, ulertzen dute, bandera eramateko emakumerik ezean, gizonezko batek eraman lezakeela, nahiz eta printzipioz emakumezkoen papera dela uste duten.

Eta beste batzuen aburuz, gizonek zein emakumeek bereizketarik gabe egiteko papera da. Hala ere, halakoak praktikan ez dira eztabaidarik gabeak izaten. Argi utzi zuen emakumeen edo gizonezkoen papera dela dioten danborradetako antolatzaile batek:

> *banderadun neska behar dela diote, eta nik ezetz diot: neska izan behar duela? Mutil bat izan daiteke, sukaldariz jantzita, ez du zertan neska behar.*

11. Banderadunak eta kantinerak, 2013. Argazkia: Luz Maceira

Gaztelubiden gizonezko baten esku jarraitzen du, eta halako lana egiteko gizon zein neska boluntario nekez aurkitzen den beste soziedadeetan ez bezala, lehengo ospeari eutsi dionez, bazkideentzat ohore bat da. Horrek beste gai batera garamatza: paper honen gaur egungo balorazio eta ezagutzarenera. XX.eko 80koetan, prentsak banderadunen izenak eta argazkiak agertzen zituen. Ez dirudi, ordea, gaur egun hain balorazio ona duenik. Horregatik, danborrada batzuetan problema bat izaten da estandartea eramateko prest dagoenik bilatzea. Hainbat konponbide aurkitu da. Elkarrizketatutako baten danborradan, esaterako, arazo bakarra honen inguruan izan dute: "Ez dugu banderadun finkorik. Urteroko problema dugu". Konponbidea: paper hori betetzeko prest dagoen gizon edo emakumeari bermatuko zaio datozen urteetan plaza bat izango duela, itxaron beharrik gabe txanda-pasa eginda. Hautagaiak lortzeko beste pizgarri bat hauxe da: prest agertzen denari ekitaldi berezietara joateko aukera eskaintzea, hala nola 2013ko Bigarren Mendeurrenekora.

Banderadunaren paperak badu beste ezaugarri bereizgarririk: egiten dutenak har daitezke danborradaren partaidetzat, edo ez. Adibidez, denek ez dituzte taldeko kideen kopuru ofizialean sartzen (kantinerekin ere gertatu ohi da).

Hortaz, badira eta ez dira taldekide, bereziki emakumezkoa bada gizonezkoen danborrada batean edo gizonezkoen elkarte baten danborrada misto batean. Danborrada bakoitzaren estandartea eramatea garrantzi handiko eginkizuna den arren, beharbada esperientziarik edo prestakuntzarik behar ez duelako, entseguetan ez da beharrezkoa haiek egotea, plaza aldi batekoa da –gazteak izaten dira– eta erraz eta aldiro txandakatzen da. Gaur egun oso femeninoa eta zenbaitentzat "apaingarriegi" den rol honen ezaugarriek, bada, zerikusi gutxi dute gainerakoekin.

Banderadunaren eta kantineraren postuak, behinola, desiragarriak ziren, emakumeek Danborradan parte hartzeko zuten aukera bakarra izaki. Gaur egun, ordea, ez dira bereziki desiragarri, orain emakumeek egin ditzaketen paperak erakargarriagoak dira eta. Dena den, oraindik danborrarekin edo upelarekin ateratzeko adina ez duten nerabe batzuei erakargarri zaie. Hori bai, izatekotan, gutxi izango dira bere burua aurkezteko parada izango dutenak, danborradek, gehienez ere, sei postu eskaintzen dituzte eta.

Urketaria: emakumeak ehunka festaratu ahal izateko pizgarria

Banderadun eta kantinera gutxi batzuk, eta bi mila urketari baino gehiago ari dira azken prestaketetan, zein bere danborradara batu eta Sarriegiren doinuen erritmopean festa egiteko. Danborradarako jantzian, elementurik inportanteenetako bat buruko zapia da, lotzen zaila da eta. Mari Jose Calvok dioenez, Kresalan bazuten abantailarik: dantza-taldea bazutelako bazekiten nola jantzi, zapiaren sekretuak eta guzti:

> *Ongi plantxatua egon behar du; baina, almidoitua, atzeko punta baino ez. Ile luzea baduzu, motots batean bilduko duzu; bestela, ordezko bat egingo duzu aluminiozko paperezkoa, edo algodoizkoa, ez irristatzeko. Punta bi elkarrekin lotu eta hirugarrena alde batetik aterako duzu. Eta beste xehetasun bat, guretzat behintzat: perlazko buru-orratzak eta paparrekoak* (*Diario Vasco*, 2006/01/13).

Figura berria izanagatik, garrantzizko tokia hartu du danborrada misto askotan; areago, festaren iruditerian erabat txertatu da. 2013an, Danborradan parte hartu zuten emakumeen ia %40 urketariak ziren. Baina ez zen beti hala izan. Dena 1979. urtean hasi zen, Kresala kultur elkarteko hainbat emakumek Danborradan zuten partaidetza mugatua onartu ez eta bestelako proposamenari ekin ziotelarik, gizonen pare joz, desfilatuz, jaiaz gozatuz. Gogoratu beharra dago Kresala elkarte misto bat zela, non gizon-emakumeek berdin parte hartzen zuten aktibitateetan... danborradan izan ezik.

Bistan da halako elkarteak giro egokia eskaintzen zuela emakumeek gizonekin berdintasunez danborradan ere parte hartzeko gogoa pitz zedin. Elkarte mistoa eta euskal kulturaren zalea izateaz gain, Kresalak honako xede hau bazuen -web gunean diotenez-: "ikasteko, iritzia emateko edota aurka egiteko gogo biziari erantzun nahian". Haren ariora, antolatu zituzten hitzaldi eta mahai-inguruen artean, "emakumearen aurrerapena", "abortua", "emakumea gizartean" gaiak topa ditzakegu. Diotenez, lehenak "ordenarako deia" erakarri zien gobernuaren aldetik, eta azkenak "lokala gainezka" jarri zuen. Logikoa da, bada, halako giroan, non emakumeak aztergai ez ezik partaide ere baziren, Danborradan gizonezko kideen maila berean jotzeko gogoa piztu izana.

Hau guztia ez zen halabeharrez gertatu 1980ko urteetan. Gogoan izan behar da Kresalako emakumeek, antolatutako talde feminista baten baitan edota halako aldarrikapenak izan zitzakeen ekimen batetik abiatuta jardun ez bazuten ere, hamarkada hartan feminismoaren gorakada handia gertatu zela, irakinaldi moduko bat. Emakume haiek, bada, garaiko giroan bizi-bizi zeuden ideien ariora aritzen ziren; aski da egoitzan bertan antolatzen ziren ekitaldiei erreparatzea.

Kresalako emakumeek hartu zuten bidea folklorea berreskuratzeko eta plazaratzeko talde bati apropos zegokion: aditu batengana jo zuten, emakumeak jaian txertatzeko jakinbideen bila. Aditua Javier Sada zen, hiriko historiari buruz, eta hain zuzen Danborradari buruz, hainbat liburu idatzi zuena. Sada prest agertu zen, bai eta konponbide "historiko" bat proposatu ere: emakumeek danborradetan parte hartzen ahal zuten jaiaren jatorrizko mitoarekin bete-betean bat egiten zuen figura bat interpretatuta; alegia, urketari gisa, iringileak bezala iturrira ur bila joaten ziren eta. Urketariak, beraz, koiunturaz eta gerora emakumeen partaidetza lagundu ez ezik, jatorriaren puzzlea ere osatzen zuen. XIX. mendeko grabatuak erakutsi zizkien, orduko emakume donostiarrak nola janzten ziren ikusita janzkerarako eredugarri balia zitzaten.

Halaxe sortu zen uniforme militarrik eta ohiko sukaldari arroparik gabeko figura femeninoa, balizko kritikari aldez aurretik buru egiten ziona: "Kresalako upel-jole emakumezkoek pentsatu zuten urketariaren jantzia egokiago zela, tradizioaren betebeharrak beteta" (*Diario Vasco*, 1980/01/19). Horrenbestez, emakumeen partaidetzarako balio zuen irizpide historikoa "bat zetorren tradizioarekin" (*Diario Vasco* 1986/01/18). Hain zuzen, justifikatu egiten zuen "tradizioaren ikuspegitik, emakumeen partaidetzaren normaltasuna Danborradan", Jose Ignacio Ansorenak, orduan Kresalako presidenteordeak, gogoratzen duenez (*Diario Vasco*, 2006/01/17).

12. Kresalari janzkeraren eredua eman zion urketari baten ilustrazioa

Danborradaren bertsio herrikoiaren arabera, sukaldariek bezala (alegia, aurreko iringile-okinek bezala), urketariek soldaduen imintzioka jarduten omen zuten, beren ontziak jota. Behin emakumeek ere soldaduen erreplika egiten zutela onartuta, suilaz egingo zuten, hots, etxeetan ura ekartzeko egoten zen ontzi enbor-konikoz. Hala, bada, Kresalako emakumeak izan ziren suila jota kalera atera ziren lehenak.

Maribi Alonsok, aitzindarietako batek, honako hau dio, urketariaren asmakuntzaz: "Orduan gehiago kezkatzen gintuen irudi integratuak, danborradaren esanahiarekiko hausturarik ez irudikatzeak, bestelako kontuek baino" (*Diario Vasco*, 2006/01/15). Alabaina, pertsonaia femenino haren sorkuntzak historiaren baitaratzea bilatzen zuen arren, ez dugu ahaztu behar azken finean erabaki estrategiko bat izan zela: emakumeek parte hartu nahi zuten, eta paper femenino bat bilatzeak polemika gutxiago pizten zuen, "gizonez irteteak baino". Garbi zuten, ordea, alternatiba hura aurkitu ez balute ere, beste bideren bat jorratuko zuketela, nola edo hala, baina parte hartzea zelako nahi zutena.

13. Kresalako urketaria, 1980. Iturria: *Irutxulo*, 2004/01/16

1980ko Danborradaren aurreko hilabeteetan, prestaketa lanek lehenagokoetan baino denbora eta kudeaketa gehiago ekarri zuten: udal baimena lortzeak (berez baimena bazuten, danborrada lehenagotik ateratzen zelako; baina ez zuten berritasuna isilean kudeatu nahi) eztabaidak eta akordio zailak piztu zituen Erakarpen eta Turismo Zentroa (hemendik aurrera: ETZ) erakunde antolatzailearen eta beste danborradetako zuzendaritzen artean. Jarrera defendatu beharra zeukaten, eta hartara, besteak beste, "txosten" erako argudio historikoetara jo zuten. Ansorenak dioenez (*Diario Vasco*, 2006/01/17), "oposizio giro batean", errefusa gutxiagotzeko asmoz, kritikak apaletsi nahi izan zituzten. Orduko alkate Jesus Mari Alkainek eta alkateorde Ramon Labaienek, Kresalako ordezkariek eta Alde Zaharreko danborraden ordezkariek egindako bilera informal batean, argi eta garbi geratu zen emakumeek desfilatzearen aldeko aukerak berdintasunezko partaidetzaren aurkakoei sorrarazten zien nahigabea. Baina soziedade haien presioak ez zuen eragozterik izan Kresalako lehen danborrada mistoaren irteera.

Ezin esan gabe utzi Kresala elkartearen barruan ere polemikak gogor jo zuela. Nahiz eta gehienek beren danborradan emakumeen partaidetzaren alde egin, ebazpenarekin ados ez zegoelako beste danborradara joan zenik ere egon zen.

Danborradan lehen aldiz parte hartu zuten emakume haiek kontatzen dute ahaleginak eta bi egin zituztela deus ere ez uzteko axolagabe. Danborradarako janztean, xehetasunik ñimiñoena ere zaindu zuten, emakumeen partaidetzaren aurkako kritika erreakzionario batzuei erantzuteko: "alprojen gisara narrats joango ginela zioten, eta pintxo-pintxo joan ginen, Kañoietara urketa zihoazen emakume haien antzera" (*Diario Vasco*, 2006/01/13).

Eta hala desfilatu zuten, lehendabizikoz, 1980ko urtarrilaren 20an, goizeko zazpietan. Ziztu batzuk eta harri bat edo beste jaurti bazieten ere, animatzen zituztenen txaloak nagusitu ziren. Aipatutako oposizio giroa eta eztabaida gehiago zetzan, donostiarrengan baino, Alde Zaharreko gastronomikoetan, eta halaxe jakinarazi zieten, Jose Ignazio Ansorenak ziurtatzen duen bezala: "gainera, ohiturazko kortesia, lokalen aurrean pieza bat jotzen zuten danborradei ateak zabaltzekoa, etetea erabaki zuten. Alegia, 'muturren aurrean ixten ziguten atea'" (*Diario Vasco*, 2006/01/17).

Urketaria bai, urketaria ez

Urketariaren figura, bere janzkera, tresna, osagaiak eta guzti, hainbat konpainiak hartu dute gerora. Lehenik eta behin, emakumeek parte hartu behar zutela sinesten zutelako; bigarrenik, "gertakari historikoarekin" bat zetorren paper batean egin behar zutela uste zutelako; eta hirugarrenik, Danborradaren kontakizuna inspiratzen duen garaiko emakumetasuna agertzen duela pentsatzen dutelako.

Gaur egun, Danborradan parte hartzen duten emakume askok begi onez ikusten dute urketariaren rola jokatzea, hiriko pertsonaia historikoa delakoan, eta atsegin dute pentsatzea soldaduei burla egiten zieten iturriko neska eta andreak zirela. Rol enblematikotzat dute, emakume donostiarren sinboloa, zibilaren eta militarraren arteko bitasun horretan gizartearen partaide egiten dituena ez ezik, alderdi zibila bera ere indartzen laguntzen duena.

Hortaz, ez da harrigarri urketariak lehen aldiz Kresalan agertzea, haren danborradak soldadurik ez dauka eta. Mari Jose Calvok, 1980az geroztik Kresalako urketari, azaltzen du, elkarte zibila izaki, danborrada ere zibila nahi zutela: "Ez dugu militarrik ez uniformerik nahi gure jaian. Parranda nahi dugu, algara, iseka, egunerokoan halaxe bizitzen eta biziarazten baitzuten kaskarinek, joxemaritarrek, koxkeroek, ura biltzean, inbaditzaile ziren edo ez ziren soldaduei segika, upelekin eta barrikekin... Gure festaren handiena da herria ordezkatzen dugula. Urketariak, danborrak, upelak... Guk herria ordezkatzen dugu" (*Diario Vasco*, 2006/01/13).

Hortaz, urketariaren figura, emakumezkoa izateaz gain, festa demokratizatzeko ere asmatu zen, antzezpen integratzaileago bat ahalbidetu ez ezik Danborradaren alderdirik alaiena eta festazaleena ere indartu zuen eta. 30 urte geroago, beste ideia bat ere nagusitu da, urketarien egitekoa antzezteak emakumeei justizia egiten dielakoa, beti egon den eta beraz toki bat merezi duen herritarren sektore bati ikusgaitasuna ematea delakoa.

Urketariarena bezalako figura femenino bat gehitzeak, bada, atsegin egiten zion jende askori, emakumeak Danborradan txertatzeak ez baitzekarren paper maskulinotan aritzea. Badirudi pentsaezina zitzaiela gizonez jantziriko emakumeen ideia. Dena dela, baliteke urte haietan janzkera femeninoz ateratzea ere gaur egun uste baino urragarria gertatu izana. Ez da ahaztu behar urte haiexetan Haur Danborradan parte hartzen zuten neskatxak "beren sexuari dagozkion ezaugarriak ezkutatuta" irteten zirela, araudiak agindu bezala; hau da, belarritakoak eta ile luzea ezkutatuta. Aldi berean, ez zitzaion desfilean parte hartzen uzten Los Angeles ikastetxeko haur danborradari, tartean urketariak ere bazeramatzatelako.

Ikusmolde horren arabera, urketariaren pertsonaiak Danborradan leku bat, beren lekua, ahalbidetzen die emakumeei. Elkarrizketatutako baten hitzetan, rol horrekin identifikatuago sentitzen da, femeninoa baita, eta "emakumeago" sentiarazten duela dio. Gainera, urketari batzuek adierazten dute, sukaldarienak ez bezala, haien uniformeak ez direla berdin-berdinak, koloreen konbinazioak egiteko aukera ematen diela, bakoitzak bere egiten duen xehetasunik gehitzeko modua badutela. Hain zehatz, hala dio elkarrizketatutako batek: "danborrada polit geratzen da urketariarekin, bestelako kolorea ematen dio".

Nolanahi ere, emakumeek parte hartzeko pertsonaia femeninoen antzezpena egin behar dutelako usteak badu ondoriorik emakume danborrarien partaidetzan, hauxe izan ohi delako soldaduen konpainian eta oro har gizonezkoen postuetan –adibidez, danbor nagusi– partaidetza ukatzeko erabiltzen den argudioa. Danborrada batzuek, esaterako, Antiguoko Gazte Danborradak, arestian soluziobide bat aurkitu dute egoera honetarako, gainera emakumeek emakumezkoen paperak jokatu behar dituztelako printzipioari uko egin gabe: soldaduaren jantzia feminizatzea. Ramon Labaien (1983 eta 1987 artean, Donostiako alkate) garaiko janzkera militarretan adituari kontsulta egin eta gero, uniformea erabiltzea erabaki zuten; hau da, jaka militarra gehi tolesdun gona zuria galtzaren gainean, jeneral frantses baten emaztearen janzkera erreferentziatzat hartuta, omen (*Diario Vasco*, 2007/01/12). Ez zuten baliatu, ezjakintasunez ziur aski, mende erdi lehenago Wellingtonen soldaduarena egin zuten emakume donostiarren eredua, oroimen kolektiboan galdua. Kresalaren kasuan, esan bezala danborrada zibila izaki, emakumeak danbor-jole gisa integratzeko, eraldaketa bat egin behar izan zen, kasu honetan, tresnarena: upelekin batera zihoan suila "urkedanbor" bilakatu zen, hots, danbor baten partxea daraman suila.

Danborrada misto guztietan ez da urketaria txertatu, eta jarrera hori ere argudiatua dago. Urketaria ikuspegi historiko zehatz batetik edo jaiaren jatorriaren mitoaren aldetik egokitzat jotzen bada ere, hain zuzen horixe bera kuestionatzen da: zer dela eta behar du emakumearen partaidetzak inolako justifikazio historikorik? Izan ere, gizonezkoen paperen zilegitasunaz ez da inoiz dudarik egiten. Zeren eta soldaduak eta sukaldariak gehiago baitira gerora mitifikatutako pertsonaiak, berez historikoak baino, haien jatorria inauterietako konpartsa batean datza eta.

Argudiatu ere argudiatzen da gaur egungo antzezpenak justifikatzeko historian oinarritzea problematikoa dela. Elkarrizketatutako batek dioenaren harira, "badirudi" historian bezala egin behar dela, baina ez da egia: "ez gara erabakitzen ari nor doan gerrara, bizi genuen une bat bizitzen baizik... Orduan, nik uste dut berdin dela gizon batentzat eta emakume batentzat". Logika horren baitan, ez da beharrezkotzat hartzen, ez eta egokitzat ere, gizonen eta emakumeen artean bereizketak egitea, batzuek zein besteek paper bat jokatzen

dutelako, eta beraz zentzurik ez duelako emakumeen partaidetzarako berariaz sortutako paperik jokatu beharrak.

Hala, bada, ezein paper edo kargu eskuratzeko inolako mugarik ez duten taldeetan, jakintzat ematen da mundu guztia rol bat jokatzen ari dela, antzezpen bat dela, performance bat. Ikusmolde horretatik, paperak jokatzeko sexuak axolarik ez duelako argudioa darabilte, eta egon badauden rolak gizonek zein emakumeek berdin joka ditzaketelakoa. Horrexegatik, emakume batzuek sukaldariz edo soldaduz janztea gustuko dute, eta ez dute "emakumez" janzteko inolako beharrik sentitzen.

Azkenik, urketariaren janzkera moldakorra, ikusgarria eta koloretsua dela esan arren, eta baten batek hotzaren kontra oso aproposa dela esanagatik, denak ez daude harekin gustura, oso-oso deserosoa delakoan: hiru gona, gerrikoa estutu, tresna uhalez lotu... "eta komunera joatea korapilatsua da!".

14. Baso Etxea danborradako sukaldariak 2013/01/20. Argazkia: Margaret Bullen

Zorionez, gaur egun emakumeek aukera franko dituzte, eta danborrada batzuetan parte hartu ezin badute ere, edo beste batzuetan urketari gisa baino ezin badute ere, beste askotan gizonezkoen gisara janzten dira, edo askatasunez aukeratzen dute urketari edo sukaldari joatea, bai eta batzuetan soldadu joatea ere. Horixe du Danborradak ezaugarri bereizgarri: oso-oso moldakorra dela; ia-ia esan liteke zenbat danborrada, hainbat interpretazio dituela festak.

Hemen datzan gakoa honako hau da: ea inportantea den edo ez den pertsonaiak eta antzezten dituzten pertsonen sexua bat etortzea. Danborrada guztietan bat etortze hori ez da irizpide bat, eta dikotomia –"nesken eta mutilen

kontzeptu hori", elkarrizketatutako batek dioenez– gainditzearen alde egiten dute, erabat mistoak izatearren. Urketariz jantzitako gizonezkoa ikusteko aukera, berriz, badirudi oraindik urrun dagoela.

Dena prest dago, afaltzeko ordua iritsi zaigu. Oraintxe ikusiko dugu non, norekin eta zer afaltzen duten Danborradan parte hartzen duten emakumeek eta gizonek.

Iringiletik sukaldarira

Ez dago Danborrada ulertzerik sukaldaririk gabe. Jatorriaren kontakizunak dioskunez, eguna argitu aurretik iturrira ur bila zihoazen iringileak izan ziren hasierako danborrada haiek sortzen lehenak... nahiz eta ofizialki militar danborrarien ondoren agertu, 1886an, Danborrada lehen aldiz dokumentatu eta 50 urte geroago. Iringile izatetik sukaldari izaterako prozesua hain omen da "naturala" ezen ez baitago ongi dokumentatua ere (Sadak dioenez, 1910-15 inguruan gertatu zen). Egia esatera, maiz diferentzia gehiago da izendapena itxura baino, denak zuriz jantzita doazela. Gainera, danborradak soziedadeekin estu loturik zeudenez, "logikoa" zen sukaldarien presentzia danborradan. Zergatik ez? Baina esan beharra dago 1836an nekez aurkituko zela sukaldaririk, are gutxiago gizonezkorik, militarrik ez bazen behintzat. Bidenabar, militarrak eta "iringileak" lot zitzakeen aipamen hurbilena da armadarentzako gariaren bilketa eta kudeaketa emakumeen esku geratu ohi zela (Azpiazu, 1995: 123).

Kresalako emakumeek Danborradan ateratzea erabaki zutenean, helburua ez zen berregintza historiko bat egitea, Donostiako jai nagusian zuzenean eta aktiboki parte hartzea baizik. Baina ez dago dudarik historiara jo izanak asko lagundu zuela errezeloak ezabatzen edo behintzat errefusak leuntzen; besteak beste, emakumeei omen dagokien egitekoa "antzeztea" erabaki zutelako.

Iringile edo sukaldariek ez zuten historiaren beharrik, Danborradan txertatu zirenean inolako justifikazio historikorik eskatzen ez zelako: gizonak ziren eta parte hartu nahi zuten, eta listo! Aitzitik ere, lehenago figura koreografiko hura sortu eta txertatu, eta gero bilatu (alegia, "sortu") zitzaion jatorri historiko bat, Danborrada sakralizatu ahala haren dohainak historiaz jantzi nahian.

Zeren eta halako figuren "benetako azterketa historiko" bat egin izan balitz, goian aipatutako Jose Antonio Azpiazuk beste gai batzuk aztertzen ari zela egin bezala, historikoki Antzinako Erregimenean Donostian behintzat, ogia egitearen ardura ia beti eta ia osorik emakumeen esku geratzen zela ondorioztatuko baitzatekeen. Eta okintzan, iturrira joatea munta gutxieneko lana izan ohi zen, edozeinek egiten ahal zuena, eta, bide batez esanda, emakumezkoek egin ohi zutena. XIX.-XX.etako gizonezkoek, aldiz, ez zuten historiaren beharrik Danborradan parte hartzeko. Turismoaz bizitzen hasia zen Donostia hartan bai aurki zitezkeen gizonezko sukaldariak, soziedadeetan aritzen ahal zirenez gain. Eta halako Donostian iringile-sukaldariek izan zezaketen zentzua, bai; baina haien presentzia figura koreografikoa gerora sustraitu zelako zen "historikoa", ez jatorrian zentzua zutelako. Ba al zegoen "fantasiazko janzkeretan" sukaldariarena gogora zezakeen figurarik? Baliteke, eta beharbada horrexegatik agertu eta finkatu zen 1886tik aurrera: baina horrek folklorearen logikara ginderamatzake, ez historiarenera.

Zeren eta folklorea tradizioan oinarritzen baita, eta historia, dokumentatutako eta datatutako gertakarien azterketa akademikoan.

Esana dago Artesanak egin zuela "iraganera" bueltatzeko saio "historizista" bat; hau da, lehengo erako danborrada plazaratzekoa. Eta publikoak oro har gaitzetsi ziola, hamarkada bat aski izana baitzuen berritasunera ohitzeko eta tradiziotzat hartzeko. Tradizioak iraganera begiratu baina oraina irudikatzen duelako, ez iragana. Iturriaren "jatorria" ere agudo hedatu eta barneratu zela ere kontatu da. Tradizioak aurreko belaunalditik hartzen du, bai, baina interesatzen zaiona baino ez, eta orainaldian zentzu bat ematen diona... betiere jakinki aurreko belaunaldiak ere ez duela dena helarazten, eta isiluneak, ezkutaketak eta berrirakurketak ere esanguratsuak direla, batik bat gerrak eta bestelako gertakari traumatikoak nozitu dituzten belaunaldiengan. Luze-zabal jorra liteke gaia, baina astuna litzateke, folklorea zertaz elikatzen den zehazteko historiaren eta tradizioaren arteko aldearen arazo epistemologikoak aurretik ebatzi behar lirateke eta. Hemen Danborradan duen emaitza baino ez zaigu interesatzen orain. Horregatik, askoz bide zuzenagoa da garai hartako beste donostiar bati hitza ematea, literaturaz ari delakoan ere bete-betean laburbiltzen baitu pertzepzio herrikoiaren mekanismoa, historiari erreparatu ustez eta praktikan tradizioa hizpide duela adierazten duelarik. Hala zioen, bada, Pio Barojak, Altzateko jaunaren ahoz: "Euskaldunak hain dira tradizionalak ezen batzuetan baitakite, jakin, zer egin duten beren gurasoek, baina sekula ez zer egin duten beren aitona-amonek".

Alegia, akademikoki aztergai desberdinak izan arren, herri pertzepzioan, eta hain zehatz Danborradaren iruditerian, nahaste-borraste hutsa suertatzen da ustez historiari galdetu eta praktikan (inkontzienteki izanagatik) gaur egungo errealitatearen kezka bati erantzun nahi zaionean. Adibidez, "bibotedun" batek ustezko bazterkeria salatzen duelarik, urketariz atera ezin duela argudiatuta, jakina modu erretorikoan (donostiartasunak zerbait erakutsi badu, hori da danborrada bakoitzak bere burua antolatzen duela eta beraz eskakizuna, zintzoa izatera, parte hartzen duen danborradako zuzendaritzari luzatu beharko liokeela, eta ez at geratzen den ezein partikular edo erakunderi) berdintasunaren aldeko aldarrikapenen kontrakarrean, berriro topatzen ditugu zio historiko eta folklorikoen arteko anabasa. Zeren eta, teorian behintzat, urketariena iringile/sukaldariaren "bertsio femeninoa" izateko sortu bazen, honezkero badauka urketariak bere "bertsio maskulinoa", hain zuzen jatorrizko iringile/sukaldaria. "Ispilu joko" delakoa da, non irudien islek halaber beste irudi batzuk sortzen dituzten. Eta, hori, oso litekeena dela halako "argudioa" darabilen danborradaren baitan "bertsio femeninoa" -urketaria- ez baina "bertsio maskulino" hutsa izatea, edo urketariek aparteko sekzio bat, gero zuzendaritzan tokirik edo ordezkapenik ez duena... Baina hori ikusten ez denez, ez dakusan begiak ez omen du negar hori egiten.

Aztergai interesgarria, oso, bestetarako ez bada, behintzat gure gizartean historiaren balioaz gogoeta egiteko, zilegitasuna beti iraganean gertatutako zerbaitengan bilatu behar dela eta berritasunak berez hoberako ez baina kalterako

direlako ustean sakontzeko, halako pentsamoldea arrunt errotua dago eta. Emakumearen partaidetzari zilegitasuna emateko eta hasierako errefusak leuntzeko urketariaren figura folklorikoa besterik gabe sortu ordez gizonezko parekideen testuinguru "historiko" berean oinarritu behar izan zen, hartara garaiko janzkerak irudikatuz. Hori bai, orain, protagonismoa irabazita guztiz autonomoa denean (hau da, guztiz tradizionalizatu denean, behiala iringileak eta soldaduak bezala), gizonezkoek haren parekiderik ez dutela-eta, kexu, janzkera folklorikorik (funtsean, gona) ez dutelako. Izan ere, zer sortuko lukete Danborradaren historian alderantziz gertatu balitz; hau da, lehenago urketaria eta gerora gizonezkoek parte hartzeko gauza bera egin nahi izan balute? Bada... urketa joaten ziren iringile/sukaldarien janzkera, edo antzeko zerbait! Beharbada horrexegatik ez da garatu emakumeentzat duela hiru hamarkada beste aukera bat izan zitekeena, sukaldari gonadunarena, urketariarena agertu ez balitz segur aski bide egingo zukeena. Ustez historikoak diren ika-mika hauek guztiak non dautza, bada? Bada, XXI. mende hasiera honetako egunerokoan gizon gonadunik ikusten ez dugunez, gure oraingo folklorean ere ez ditugula ikusten, hartara historian halakorik ez zegoela argudiatuta... non eta eskoziar uniformea ez badarama. Orduan bai, historikoki gertatu zirelako. Bestalde, emakume galtzadunak aspaldi ikusten ditugulako, gero eta gutxiago dira sukaldariz edota soldaduz "jantzita" ez baina "mozorrotuta" daudela diotenak.

Horregatik, emakumeei eskatzen zaienean gizonezkoei eskatzen ez zaiena, "koherentzia historikoa", galdera da: non dago koska: historian, tradizioan, folklorean? Ez ote dago oraindik orain indartsu dirauen pentsamendu sexistan, ustez bestelako irizpideak betetzeko eskatzean?

3. atala

Urtarrilak 19, gauean. Afaria

Iberikoak aukeran, urdaiazpiko iberikozko bolobana txanpinoiekin, krabazko arrain-pastela, legatza saltsa berdetan almejekin, azpizuna pikillo piperrekin eta patatazko emultsioarekin, pantxineta eta izozkia. Urtero urtzen zaigu ahoa elkarte gastronomiko batzuek San Sebastian bezperarako prestatzen duten afariaren menua egunkarietan irakurtzean.

Segur aski afari hau da Donostiako elkarteetan egiten den inportanteena, bertan egiten den jai nagusia San Sebastian bezperakoa delako. Festa oparotasun osoz bizitzen dutenen gertakizun gastronomiko honen berri emanda, prentsak oihartzun baten gisara hedatzen du, egun horretan elkarteek protagonizatzen duten toki nabaria islatuz.

Nola liteke afari batek hainbesteko espazio mediatiko betetzea tokiko komunikabideetan? Erantzuna zuzen eman ahal izateko, gauza batzuk aintzat hartu behar ditugu. Elkarteok protagonismo berezia daukate; haiexetan aurkitzen dugu festaren jatorria, orain ezagutzen dugun bezala behinik behin, eta gaur egun sekulako papera jokatzen jarraitzen dute. Horrela, bada, ulergarri da prentsak ematen dien haizea. Afaria (bazkaria, kasu batzuetan) zehatz-mehatz azaltzeak badu zentzurik, egun horretan elkarteek urtero egiten duten gertakizun nagusia izaki. Areago da gertakari horrek izaera ofiziala badu edota hartara garrantzizko pertsonaiak badoaz.

Oturuntza horien garrantzia ulertuko badugu, erreparatu behar diogu elkarte gastronomikoen eta Danborradaren arteko loturari, eta harreman horren eboluzioari.

Elkarte gastronomikoak eta Danborrada

XIX. mendearen bigarren erdialdean Alde Zaharrean sortu eta hedatzen hasi zirenez geroztik, elkarteek sekulako protagonismoa izan dute denetariko festak antolatzen; besteak beste, hortxe topatzen dugu gaur egungo Danborradaren jatorria bera. Garai hartan elkarteek denetariko aktibitateak antolatzen zituzten; hala nola, kulturalak, aisiazkoak, karitatezkoak... Nolabait, orduan instituzioek betetzen ez zituzten arloak jorratzen zituzten. Esaterako, ETZak ez zuen festan parte hartu, ekitaldi batzuk antolatuta, 1929 arte (Gurpegui eta Sada, 2013: 32).

Denborak aurrera egin eta administrazioek arlo horretan ekinbidea hartu ahala, elkarteek bere buruari gehiago erreparatu zioten, eta beren aktibitateak batez ere bazkideei begira egiten zituzten (Aguirre, 2006). Nolanahi ere, XIX. mendearen azken laurdenean eta XX.aren hasierakoan antolatzen zituzten gauzen artean danborrada aurkitzen zen (letra txikitan, bakoitzak berea egiten zuelako, elkarren arteko inolako loturarik gabe), inauteri programaren hasiera emateko asmoz; azkenean, haietako askorentzat urteko ekitaldi nagusia danborrada antolatzea izango zen.

Gaur egun "Danborrada" izenez ezagutzen dugunaren atzean bi elkarte aurkitzen ditugu, betiere inauteriari lotuta: desagertutako La Fraternal eta bizirik dirauen Unión Artesana, eta haiek topatzen ditugu inauteri giroko danborrada haien buru. Gerora, beste elkarteak batu zitzaizkien: Donosti-Zarra (1896-1936), La Nueva Fraternal (1879-1889), La Amistad (1884), Amigos Aurrera (1901), Club Cantábrico (1904-1906), Amistad Donostiarra (1905-1906), Port Arthur (1905-1919), Euskal Billera (1906-1929), Bella Easo (1908), besteak beste. 1908an bost ziren desfilea antolatzen zuten elkarteak: Bella Easo, Sporti Clai, Euskal Billera, Donosti Zarra eta Umore Ona.

Danborrada gehienak Alde Zaharrean pilatzen baziren ere, Antiguon, (Donosti Zarra, 1896az geroztik) eta Grosen (Umore Ona, 1907) ere baziren, eta gero eta gehiago izango ziren batutako elkarteak, eta are inportanteago, gero eta auzo gehiagotan hasi ziren danborradak antolatzen:

- Egian, 1936an, Ur Zaleak
- Antiguon, 13 urte atera gabe egon eta gero, berriro 1943an
- Intxaurrondon 1954an, Artzak Ortzeok elkartearen eskutik
- Ibaetako Danborrada Ibaetan, 1954an
- Loiolan 1960an, Loiolatarra
- Añorga-Txikin 1974an, Atotxa Erreka
- Amara Berrin ere, 1974an, C.D. Donosti
- Larratxon 1983an, Leosiñeta Bertsolari elkartearen danborrada
- Herreran 1984an, Euskal Giroa hasi zelarik
- Martutenen 1990ean, Martuteneko Danborrada

Eta horrela iritsi dira hiriko bazter guztietaraino.

Eboluzio horretan Danborrada poliki-poliki Alde Zaharretik hedatzen ari da, eta, halaber, elkarte gastronomikoak ere ez dira jada festaren protagonista bakarrak. Ez eta Danborrada antolatzen duten bakarrak ere, bestelako taldeek, denetarikoek, bide berari ekin baitiote. Jaia zentzu guztietan handitu eta zabaldu da, eta utzi dio elkarteena soilki izateari.

Ezustekorik eta mugarririk gabeko prozesu horretan, festa autoafirmazio kolektiboaren eta kolektiborako errito bilakatu da. Bi arrazoirengatik: inauteri kutsuko eta jai hutseko eite jostalari eta burlontzia arian-arian galdu duelako, eta elkarteetatik aterata hiri osoko eta osoaren festa bihurtu denez gero elkarrekin ospatzeko deia herritar guztiek jasotzen dutelako.

Halako eboluzioan festaren esklusibotasuna elkarteei eskuetatik itzuri zaien arren, bistan da oso protagonismo berezia berenganatzen dutela oraindik ere, Alde Zaharrekoek argi eta garbi, hantxe baitute egoitza elkarte eta danborrada askok. Danborrada urtetsu askoren sustatzaileak izateaz gain, jaiaren ekitaldi nagusien buru agertzen dira: Konstituzio plazako Igoera eta Jaitsiera. Beste ekitaldi batzuetan ere protagonismo berezia daukate; hala nola, eta orain interesatzen zaiguna, afarietan, eta kasu batzuetan bazkarietan.

Afariak eta bazkariak elkarte gastronomikoetan

XIX.aren bukaeran Unión Artesanak San Sebastian egunean ospatzen zuen bazkaria izaera ofizialekotzat har daiteke, bertan agintariek parte hartzen zuten eta. Beste elkarte batzuek, ordea, afariak lehenetsi zituzten, agintari edota pertsonalitateak eta guzti: Umore Onak, Euskal Billerak, Donosti Zarrak, Istingorrak, Gaztelupek. 1934tik aurrera Gaztelubide izan zen 19ko afarira Udala gonbidatu zuena, eta Istingorrak gauza bera egiten zuen 20ko bazkarira, 1971etik aurrera.

XX.eko 40ko hamarkadan, Gerra Zibilak eragindako etenaldiaren ondoren, danborradak ateratzen hasi zirenean, egunkariek berriro izan zituzten hizpide elkarteetan egindako bazkari edo afari "klasikoak". Prentsak albiste bihurtzeko arrazoietako bat da gizartearen pertsonaia ospetsuak izaten zirela mahaikide. Luze-luzea da otordu ofizial haietan elkarteetako sukaldaritzaren dohain goxoak disfrutatu zituzten hiriko, probintziako, estatuko, nazioarteko agintarien eta pertsonaien zerrenda: alkateak, gobernadore zibilak, diputatuak, ministroak, enbaxadoreak, aktoreak, kantariak, zine-zuzendariak, eta abar. Halakoak, aldiz, ez ziren mugatzen San Sebastian bezperako afarietara edo eguneko bazkarietara joatera, eta elkarteetara afaltzera edo bazkaltzera berdin-berdin joaten ziren urteko beste egunetan ere. Izen asko eta asko elkarteen web guneetan aurki ditzakegu; joandako beste batzuen izenak, berriz, jadanik ez dira agertzen.

50.eko urteetatik aurrera agertu ziren emakume batzuk, beren gizonen bikote, elkarte batzuetan, batik bat elkarte berrietan edo tradizio demokratikoagokoetan; adibidez, Unión Artesanan (Estornés, 1998). Dena dela, horrek ez du esan nahi San Sebastian bezperako afarira joatea zeukatenik, Artesanan adibidez ez baitzuten 1978ra arte senarrekin mahaikide agertzerik izan (Gurpegi eta Sada, 2013: 60). Beste batzuetan oraindik orain debekatua dute sarbidea gau horretan.

Gerraren aurreko urteen eta 60ko hamarkadaren artean eboluzio bat gertatu zen, dudarik gabe, eta garaiko prentsak haren berri eman zuen, emakumeen presentzia nabaria baitzen elkarte eta jatetxeetan; hain zuzen, horrela deskribatzen zituen: "las más animadas y las que menos prisa tienen de volver a casa" (*La Voz de España*, 1966/01/20). 80koetan emakumeen presentzia afarietan oraindik izaten zen albiste-gai; adibidez, El Cangrejo elkartera bezperako afarira lehen aldiz joan zitezkeela esateko, eta Euskal Billerakoan, beste urteetan bezala, bazkideen andreak ere joango zirela gogoratzeko (*Diario Vasco*, 1981/01/18). Egia esan, baziren emakumeak lehenagotik oturuntza haietan parte hartzen zutenak: jakiak sukaldatzeko edo mahaiak atondu eta zerbitzatzeko kontratatutakoak. Alegia, ez zen berez emakumeen presentzia hutsa afaltiarrak nahigabetzen omen zituena, emakumeak mahaikide izatea baizik.

Antes de la guerra, las comidas y cenas eran única y típicamente en las sociedades: exclusivas para hombres. Las mujeres comenzaron a salir para no dejarles solos. (No hay que olvidar que las mujeres mandan hasta cuando obedecen -gehitu du kazetariak-*) Actualmente han conseguido llenar los restaurantes y las sociedades populares. Y son las más animadas y las que menos prisa tienen de volver a casa.* Casa Nicolasako Paco Urrestarazuk *La Voz de España* egunkarian (1966/01/20)

Afariek eta bazkariek berebiziko garrantzia izan dute festa sortu zenez geroztik. Batzuk apalak dira eta prentsaren oharkabean ospatzen dira, baina beste batzuek sona handia hartzen dute. Ziurrenik, Gaztelubideko afaria da arreta gehien erakartzen duena: elkartea Danborradan erreferente bat delako eta urte askoan bertan ospatu zelako, agintariak eta urteko Urrezko Danbordunak haraxe joaten ziren afaltzera.

Gaztelubideko afari polemikoa

Merezi du Gaztelubideko afaria xehero aztertzea, hantxe seinalatzen baitugu emakumeek Danborradan izan duten partaidetzaren beste mugarri bat. Mugarria 1987ko urtarrilean zutitu zen arren, bi urte behar izan zituen finkatzeko, afaltiar ofizialak María Cristina Hotelera eta gerora beste zenbait jatetxetara lekualdatzearekin batera.

1987an Urrezko Danborra Pilar Miró zinegileari entregatu zitzaion, Donostiako Zinemaldiak A kategoria berreskuratzearen aldeko lana eskertu nahian. Baina golardoak polemika latza zekarren herrestan: Gaztelubidek ez zion elkartearen egoitzako atea irekiko urte hartako Urrezko Danbordunari bertan afal zezan. Arrazoi bakarra: Pilar Miró, ez zegoen dudarik, emakumezkoa zen, eta emakumeek ez zuten haizu egun hartan eta ordu hartan elkartean sartzea.

Udalak berak ez baina elkarte anfitrioi batek antolatua zenez gero afari haren izaera ofiziala zalantzan jar baliteke ere, ez dago ukatzerik ofizialtasun zantzuak bazituela, gutxienez 1934tik aurrera agintariak (udalekoak eta bestelakoak) joaten zirelako, eta gerora Urrezko Danborra jasotakoak ere bai. Hain zuzen izaera ofiziala zuelako lehertu zen polemika, 1987an elkarteak Pilar Miró ez zela sartuko adierazi orduko, eta hala jaso zuten orduko egunkariek. “Zergatik ez du Pilar Mirók Gaztelubiden afaltzen?”, galdetzen zuen Koro Garmendia legebiltzarkideak *Diario Vascon* argitaratutako eskutitzean (1987/01/18). “Badirudi Donostiako Udalak ahaztu duela herritar guztien ordezkari jardun behar duela, eta emakumeak asko garela”, argudiatzen zuen.

Hain zuzen gizartearen ordezkariak zirelako, Udalbatzak eta oro har joandako agintariek askoz ere kritika gehiago jaso zuten, ezen ez elkarte anfitrioiak berak. Orduko alkatea (Ramon Labaien), Gipuzkoako diputatu nagusia (Imanol Murua) eta lehendakaria (Jose Antonio Ardanza) eta Kulturako eta Lurralde Antolakuntzako sailburua, besteak beste, joan ziren. Ez dakigu afari ofizialtzat har zitekeen, baina bai hiriko, lurraldeko eta autonomia erkidegoko buruak egon zirela bertan.

Mirók Arzac jatetxean afaldu zuen, Pilar Larraina alkateordearekin, Maria Clotilde Andonegi alkatearen andrearekin, Diego Galán orduko Zinemaldiaren zuzendariarekin eta Odón Elorza zinegotziarekin. Gaztelubideko afaria bezain ofiziala, baina maila apalagoko ordezkariekin eta festaren gertaleku eta eginkizun ospetsuenenetako batetik at. Pilarrek galdu zuena saldak, angulek, azpizunak eta hostorezko tartak osatutako menua baino gehiago izan zen.

Polemika garratza izanagatik, hurrengo alkatea, Xabier Albistur, ez zen kikildu eta soziedade hartara joaten jarraitu zuen. Orduan gatazka, munta gutxiagokoa apika ez baina bai desberdina izan zen, zeren eta 1988ko Urrezko Danborduna gizonezko bat izan baitzen, Iñaki Gabilondo. Gauzak ez zeuden bare, baina. Urte hartan, urtarrilaren 18ko *Diario Vascon*, 66 emakumek sinatutako ohar bat argitaratu zen, lehendakariari, lehendakariordeari, diputatu nagusiari eta alkateari zuzenduta, non jakinarazten zitzaien Udalbatzako lau zinegotzik, emakume izategatik ez beste ezerengatik, ez zutela sartzerik afarian, elkarteak ezarritako debekuak zirela eta. Testuak hala jarraitzen zuen: "halako bazterkeria argi eta garbi zentzuzko arrazoimenari nardagarri, indarrean dauden legeen erabat aurkako, eta donostiar eta euskaldun guztien sentimenduen laidogarri dela pentsatzen dugunez, eta beraz hautetsiak bertaratuz gero halako bazterkeria berretsi eta eskandaluz zilegi egingo lukeelakoan", erregutzen zien, "demokraziaren eta berdintasunaren izenean", ez zitezela joan afari hartara, ez behinik behin ordezkatzen zuten kargudun gisa (*Diario Vasco* 1988/01/18). Sinatzaileen artean baziren askotariko kargu politikoak (zinegotziak, diputatuak, europarlamentarioak, hainbat alderditako politikariak, baita sailburu bat ere), kulturaren mundukoez eta kazetariez aparte.

Albistur alkatea jakitun zen aho zorrotzeko labana zela, eta gaia Plenoan jorratzeko aukera ere planteatu zuen, prentsak jaso zuenez, "Udalaren jarrera datozen urteetarako finkatzea" premiazkoa zelakoan. Alkateak ez entzuna egin zion Emakumearen zinegotzi ordezkari Rosa Belloren eskaerari (Gurpegui eta Sada, 2013: 80) eta txintxo joan zen Gaztelubideko afarira, urte hartan Gipuzkoako diputatu nagusia eta Eusko Jaurlaritzako sailburu bat lagun zituela. Albisturrek zioenez, "elkarteko presidentearen gonbidapen pertsonal bat jasoa zuenez, leuntasunez eta bertaratuko ziren beste agintarien begirunez onetsi zuen" (*Diario Vasco*, 1988/01/19). Azken pasarte honek behin eta berriro bere buruari eragiten dion sorgin-gurpilaren argudioa dirudi.



Carta a Amparitxu...

Querida Amparitxu, la poeta o poetisa, amiga, amor y musa del poeta. A ti que atendiste el teléfono con solicitud, a ti que abrazaste a Gabriel Múgica, es decir a Gabriel Celaya, tu amigo, amor y ¿musa? y le anunciaste que en tu pueblo adoptivo se acordaban de ti, que habían decidido darte el Tambor de Oro exponiéndose a que fuera menos conocido que un tal Toshac o cualquier otro, que tus donostiarras querían verlo el 19 de enero y abrazarlo, que...

Querida Amparitxu, tal vez no sepas que ese día en que tanta ilusión pones ese 19 de enero de música y juerga en tu Donostia, que esperas pasar con tu Gabriel inseparable, tal vez no recuerdes que ese día te separarán de Gabriel y te mandarán a cenar sola a casa o que, a lo sumo, te buscarán a la señora de alguno para tirarte con ella al desvío y quitarte de encima.

Siento tener que comunicártelo, siento tener que empañar tu felicidad: «Cuantas lamentaciones ante el muro/coronado de pálidas almenas...»

Idoia Estornés Zubizarreta
(San Sebastián)

15. Idoia Estornésen eskutitza Anparitxuri. Iturria: *Diario Vasco*, 1984/01/14

Beste urtebete pasa behar izan zuen gauzak aldatzeko. 1989an, poeta baten eskutik, hobeto esanda, haren andrearenetik, aldatu zen. "Anparitxu gabe ni ez noa". Hala laburbil litezke Gabriel Celayaren hitzak, bere Urrezko Danborra Gaztelubiden ospatzen bazuen ondoan bere andre eta laguna ez zuela izango jakitean. Polemikarik pizteko asmorik gabe, baina halako egunean elkarrekin afaltzeko zuten tradizioari eusteko asmo irmoz, Gabrielek eta Anparitxuk hiri zabal (edo behintzat zabalago) baten alde asko egin zuten keinu harekin, beren tradizioari eusteko beste tradizio bat, emakumeak festaren ekitaldirik mamitsuenetako batetik baztertzen zituena, hautsi zutelako. "Nik ez nuen amolatu nahi", deklaratu zuen Anparitxuk. Harrez geroztik, afaria ez da Gaztelubiden ospatzen.

Azaldu beharra dago aldaketa hura presaka egin zela, eta Celayak andrearekin afaltzeko borondatea azaldu ondoren. Hogeita lau orduko tartean planak aldatu beharrak nolabaiteko nahasketa eragin zuen komunikabideetan. Celaya Gaztelubideren gonbidapenari itzuri zitzaionez geroztik, bai berak bai alkateak Unión Artesanarena onetsi zuten; nahiz eta geroago Sociedad Gastronómica delakoa egokiagotzat jo zen, azkenean afaria María Cristina Hotelean ospatu zen. Harat-honat ibili beharrak adierazten du afariaren egoitza aldatzeko aukera ez zutela oraindik barneratua garaiko agintariek. Ezbairik gabe, emakumezko politikari batzuen presioak ere eragina izan zuen premiazko ebazpen hartan.

1971tik 2005era arte beste elkarte bat izan da, Antiguoko Istingorra, urtarrilaren 20ko bazkaria Urrezko Danbordunarekin ospatzen duena. Beren web gunean erreparorik gabe deitzen dute "San Sebastian eguneko Bazkari Ofiziala". Gizonezkoen elkarte bat den arren, Urrezko Danborra jaso duten emakumeek zein beste gonbidatu emakumezkoek ere problemarik batere

gabe jo izan dute egoitzara. Halatan, bada, bai Pilar Miró bai Anparitxu inolako polemikarik gabe sartu ziren. Egia esatera, Gaztelubideko afari hura emakumeek sarbide duten egun eta orduetan izan balitz, eztabaida hau guztia ekidin ahal izango zatekeen. Istingorrak zorte ona izan du, emakumeek ez baitute egunero bertako atea zabalik aurkitzen ahal.

Kontua da polemika haren ondotik ordezkari politikoek zuhurrago jokatzen dutela eta nekez ikusten ahal direla elkarte baztertzaileetan, ez behintzat ordezkari gisa dihardutelarik. Eta hala da legeak eta instituzioek bermatutako bi arrazoirengatik.

2004an, Gipuzkoako Batzarretako Aralar eta Ezker Batua taldekoek orduko diputatu nagusia, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Gaztelubiden afarian egotea salatu zuten, "onartezina delako erakunde publiko bateko buru gorenak" parte hartzea "ekitaldi baztertzaile" batean, haren presentziaz "babestu" egiten zuelako bazterkeria. Ez arauzko proposamen bat egin zuten "Batzar Nagusietako ordezkariek, beren ordezkari gorena buru zutela, berriro ekitaldi baztertzaileetan parte ez hartzeko konpromisoa har zezaten, bazterkeriaren zioa zeinahi dela ere" (aralar.net, 2004/01/22). Batzar Nagusiek onetsi egin zuten instituzioen ordezkarien beren presentziaz ekitaldi baztertzaileak ez bermatzeko proposamena. Geroago, Txabarrik barkamena eskatu zuen, "sentsibilitateak zauritzeagatik" (Gurpegui eta Sada, 2012: 112).

2005ean, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea onetsi zen, goian aipatu bezala, "sexuarengatiko baztertzaile" den aktibitate orotan parte hartzea debekatzen diena euskal administrazio publikoaren ordezkariei.

Danborradan bai, afarian ez

Plater konbinatua: arrautza frijituak patatekin eta oilasko bularkia entsaladarekin, gehi postrea, kafea eta ardoa. Guztira, 12 euro. Hauxe da Gaztelubideko danborradan parte hartzear zeuden Mari Carmen Gude, Carmen Zubeldia, Pepi Moreno, Ana Rekondo, Maribel Jiménez, Juana Mari Olano, Maite Bergara, Olga Bergara, Rosa Pérez, Naroa García, Usoa San Román eta Yolanda Uranga emakumeen San Sebastian bezperako menua, banderaren Igoera ofizialean parte hartuko zuten eta. 2006. urtea zen. Haientzat egun handia izan zen... Afaria, berriz, jo eta pasakoa.

Gertakarien kontakizunak dioskunez, abagunearen halabeharrak Gaztelubideko danborrarien kide emakume haiexek paratu zituen. "Duela astebete bilera tentsu batean Gaztelubideko bazkideek hartu zuten erabakia ahotik ahora ibili da arestion. Udaletxean alkatearekin eta hiru zinegotzirekin bilera bat egin ondoren, elkarteko danbor- eta upel-joleek erabaki zuten,

aldeko botoak 39, aurkakoak 25 eta abstentzio bakarra izan zirela, desfilean emakumezkoak onestea suila jotzeko, hau da, urketariz, dagokien upel koniko eta guzti", 2006ko urtarrilaren 17ko *Diario Vascoko* artikuluan kontatzen zuenez. Orduko hartarako, Artzak Ortzeok elkarteko danborradako urketariak hautatu zituzten. Ziur aski, erabaki hartan zerikusi handia izan zuen Intxaurrondoko danborrada hark zeukan danbor nagusia Gaztelubideko bazkide ere izanak. Erabakia Igoera baino bi egun lehenago baizik ez zen ezagutarazi.

Horrela ulertu behar da plater konbinatua afaltzea, nortzuk eta mugarri bat protagonizatzear zeuden urketari historiko haiek, non eta protagonismo handia duen danborrada baten elkarteko afaritik at. Arrazoia: haiek ere, ezbairik gabe, emakumeak ziren, eta emakumeek ezin dira elkarte horretan sartu egun horretan eta ordu horretan, ezta sikiera komunera joateko ere. Egoera bitxia zen, gero, urketari haiek ataka estutik ateratzeko mesedea egiten ziotelako Gaztelubideri. Hala diosku, behintzat, haietako batek: "mesedea haiek guri egin baligute bezala jokatu zuten; eta benetan ez ginen gu geure burua eskaini genuenak, haiek gure bila etorri baizik". Egun batzuk geroago, astegun batean, Gaztelubideko bazkideek, esker ona azaltzeko asmoz, bazkari bat haiei beste inori eskaini zieten... soziedadea hutsik zegoela. Zer dela eta emakumeak eta gizonak banantzeko tema hori?

Eta zer inporta du, bada, afari batera gonbidatua egoteak ala ez? Gaztelubiden Urrezko Danbordunaren omenez egiten zen afariaren kasuan, goian aipatutako 66 sinatzaileek argudioak argi samar agertu zituztenez, gainera legeak berretsita, ez du merezi errepikatzea. Baina... zer nolako esanahia hartzen du geroxeago emakume haiek abegikor gonbidatzen dituen elkartearen beraren afarira, aldiz, ez gonbidatzea? Ez da hau kasu bakan eta isolatu bat. Gizonezkoen elkarteei atxikitako beste danborrada batzuetan ere gauza bera gertatzen da, elkarrizketatutako batzuek esan digutenez. Danborradan bai, baina afarian ez.

Janaren inguruan bizi den herri gurean, aldiro ospatzen diren mahaikidetasunaren erritualetatik norbait baztertzea ez da huskeria. Izan ere, horixe da nagusiki, erituala, beste ezeren gainetik ondorio bat erdiesteko xedez egiten delako: bertaratzen direnen artean loturak sortzea, zilegitasuna ematea edota indartzea, norbanakoak komunitate bateko kide bilakatzea, gainerakoengandik bereizi egiten diren bitartean; hots, ez daudenak baztertzen diren bitartean. Jakina, bakoitzak badu nahi duena afaltzera gonbidatzeko eskubidea, nola ez. Baina horrek ez dio ukatzen edo gutxiagotzen esangura debekuari. Zer pentsatuko genuke soziedade batek, edo besterik gabe lagun talde batek, beren afarietan beltzei beltz izateagatik sarrera debekatuko balie? Gonbidatzeko erabakia haiei dagokie, baina halako irizpideak asko esango liguke gainerakooi. Are larriago litzateke lagunarte batek ez baina inolako jarduera publikoa duen erakunde batek egingo balu, eta hori da Donostiako elkarte gastronomikoen kasua San Sebastian egunean edo bezperan. Eta alde

ederra dago partikularren erabakiaren eta proiekzio publikoko erakundeen ebazpenen artean.

Danborradan ospatzen diren afarien eta bazkarien kasuan, norbait baztertzeak esanahi berezia hartzen du. Esan dugun bezala, afariak edo bazkariak berebiziko garrantzia dauka egun horretan, danborradako partaideentzat ez ezik, baita familientzat eta koadrilentzat ere. Denen programetan badago mahiaren inguruan eseri eta jateko une bat, eta parte-hartzaile zein izan daitekeen eta zein ez aldatu egiten da danborrada batetik bestera; eta horrek talde bakoitza definitzen du. Batzuetan, danborradan parte hartu behar dutenak baino ez daude gonbidatuta; besteetan, baita bazkideak ere; besteetan kanpotik etorritakoak, baita, elkarte maskulino batzuetan, bazkideen andreak ere; elkarte maskulinoei atxikitako danborrada misto batzuetan, danborradako gizonezko kideek, gehi beste bazkideek eta kanpotik etorritako batzuek ere parte har dezakete, denak gizon izanez gero. Aldaera gehiago badago, egon ere, baina azken finean ideia argi dago.

Konbinaketa horietatik guztietatik, deigarriena da bertako danborrari emakumezkoak ametitzen ez dituena, are deigarriago bazkide ez den gizonezko gonbidaturik ametitzen baditu. Afaria festaren munta handiko alderdi bat izaki, emakumeak danborrada-kide izanda, haiekin festaren ibilbidea partekatuta, afaritik at uzteak argi eta garbi adierazten du azken finean partaide bai baina ez erabateko partaide direla. Behin elkarte maskulino baterako parte hartu zuen emakume batek honako aburu hau plazaratu zuen bazterketaz: "Danborradari distira emateko balio dut, eta zuekin afaltzeko ez? Ni zuek bezain ongi hezia naiz, zuek bezain txukun agertzen naiz, edo are gehiago".

"Danborradan bai, baina afarian, ez". Honek esan nahi du taldearen mugak markatzen eta definitzen ari direla, eta emakumeak kanpo geratzen direla. Emaitza, danborradetan jotzen duten emakume batzuek taberna batean plater konbinatu bat edo ogitarteko bat afaltzen dutela, danborradako gizonezko kideek itsaskizko tinbala, onddo-krema, xapoa labean panadera patatekin, txahal azpizuna goarnizioarekin, esnegain eta kremazko hostopila eta izozkia bezalako jaki goxoak dastatzen dituzten bitartean. Halakoetan zerbaitek huts egiten du.

Berdintsu gertatzen zaie musika-bandaren kideei. Kontratatzen dituzten danborradetako elkarteak maskulinoak direnean eta egun horretan emakumeek sartzerik ez dutenean, bandakoek tabernan afaltzen dute, kide gizonezkoek gozatzen duten bitartean elkarteek ezaugarri duten abegikortasun demokratikoaz.

Festa eta afaria bereiz ditzakegu? Lehenengoan emakumeak baztertzeak ez al dakar bigarrenean duten partaidetza nolabait baliogabetzea edo beheratzea? Bazterkeriaren eraginez menuen arteko aldea ez al da festan eta hedaduraz pertsona zenbaiten irudimenean duten aldearen isla? Mistoa al da afaritik emakumeak baztertzen dituen danborrada bat? Berriro esan beharra dago: ospakizun baten baitan, afaria tripa-zorroa betetzea baino askoz gehiago da:

mahaikideek elkar ezagutzen eta elkar onesten duten erritual bat. Nekez litzateke San Sebastian jaia orain ezagutzen duguna, dagokion afaririk edo bazkaririk gabe; jaiak dirauen hogeita lau orduetan, jakia partekatzen duten tartea pertsonen arteko harremanak estutzeko eta indartzeko egokiera da.

Horregatik, afaria hiri osoan ospatzen da, festaren ezinbesteko osagai izaki. Soziedadeak eta elkarteak ez ezik, koadrilak, klubak, familiak, lagunarteak biltzen dira, batzuetan egun horretan baino ez, laguntasuna, adiskidetasuna, senidetasuna ospatzeko eta berresteko asmoz, bildu ere, lehengo loturak estutzeko edo harreman berriak sortzeko xedez. Baina bezperako afariak iristear dagoen festarako energiak pilatzeko ere balio du.

Marijoxetarrak non dira?

XIX. mendetik aurrera, joxemaritarra izan da donostiarra esateko modu herrikoi bat (ikus, adibidez, Sada, 1977: 120). 1884ko *El Urumea* aldizkariak dioenez, San Sebastian Martxak berak bazuen gerora galdu den bertsioa: "Joshemaritar zahar eta gazte, Joshemari emiakin nahaste"; alegia, emakumeak festara erakartzeko gonbitea bai (eta ez da gutxi), baina festaren protagonismoa gizonengan islatzen zuena.

Euskara bera ere, bere ofizialtasun faltan eta normalizatu gabeko hainbat grafiatan, erabili izan da donostiartasun jator eta petoaren adierazgarri. Eta halakoetan, maiztxo, gizonezkoarena da protagonismo publikoa: horra hor, erdarazko testuetan txertaturik ere, "herriko seme" hitz bakar bihurtuta barra-barra erabiltzen zen terminoa, edo "Juan Donostiarra" bezalako izen-deiturak, edozein donostiar (gizonezko) aipatzearren...

Adibidez, galtzen ari omen ziren:

> *el humor, la alegría ruidosa que hacía brotar las carcajadas y los 'irrintzis' de hombres sesudos ante una gracia infantil, hecha por un comerciante o un obrero, por un alto empleado o sereno, por el mismo alcalde de la ciudad...* (Sada, 1977: 131)

Horrexegatik, ahozko bat-batekotasun jatorra adierazi nahian, hika agertzen da, bertso eta kantetan. Hika? Toka, hobeki esan. Interklasismoaz (ikus, adibidez, goikoa) edota adinaz ("Guazen, guazen mutilak" 1891n, in Sada, 1977: 55) egin litezkeen bestelako gogoetez aparte, kalean protagonistak gizonezkoak diren seinale: "Hemen dek soka-muturra", Sánchez Irureren poemaren izenburua, 1904an argitaratua (Sada, 1977: 88). Halako kontzepzioa, egunkariaren beraren izenean ez ezik, honako lerroburu honetan ere primeran laburbiltzen da, euskaraz eta erdaraz: *Viva donostiarrac! ¡Bejun day zubela mutillac!*. Eta segituan, "Hurra por los de San Sebastián" (guk azpimarratua, *El Guipuzcoano*, 1890eko abenduaren 3an).

Eta, elkarteetan ere, jakina, jatortasuna ez ezik, gizontasuna ere nagusi... eta euskara ere bai, ahozkoan eta izenean bai behintzat: Intxaurrondon 1921ean sortu zen elkarteak "Artzak Ortzeok" du izena. Gerra aurreko Donostian, "Ahí está, cógelo" bezain ezinezkoa zen "Har ezan, hor zegon" elkarte baten izena, eta ez grafia batuarengatik. Danborrada maskulinoa zela? Jakina, kalean protagonismoa maskulinoa zelako. Baina, hala ere... ezer ez da betiko. Eta emakumeak gero eta ageriago agertzen hasi ziren kalean; hortaz, baita Danborradan ere.

4. atala

Urtarrilak 20, gaueko hamabietan. Igoera

San Sebastian bezpera da, urtarrilak 19 ditu eta ilun dago. Hautematen da hiri osoa emozioari eusten ari zaiola. Balkoietan, plazetan, kaleetan dena da zuri eta urdin. Etxe, jatetxe, taberna, erakusleiho ia guztietan danborrak eta bestelako osagai danborrariak apaingarri daude. Egunaren ikonografia eta donostiartasunaren sinboloak nonahi aurkitzen dira, festarako gonbitea eginez. Gaua da eta hotz dago, beharbada euria ari du, suilka ari du, ari ere; baina jendea kalean da eta emozioa dario. Milaka lagun zain daude, irrikatan, berehala, bandera igo orduko, hasiko den Danborradaz gozatzeko.

Alde Zaharrean, Konstituzio plaza mukuru dago, bete-betea, festaren hasiera ofiziala adierazten duen ekitaldia bertatik bertara gozatu nahi duten jendez gainezka. Jaia hiriko auzo guztietaraino hedatzen bada ere, nahiz eta musika eta desfileak hogeita lau orduz barreiatu, Konstituzio plazako hasiera-ekitaldi hau eta erlojuak hamabiak jotzen dituen unea oso bereziak dira, enblematikoak. Gogo eta desira bizi honen guztiaren adierazgarri, 2013an banderaren Igoera eta Jaitsiera zuzenean ikusteko zozketara bi mila lagun baino gehiago apuntatu zirela, herritarrei ekitaldiok Udaletxe izandako erakineko balkoi batetik ikusteko aukera eskaini zitzaielarik.

Milaka begi ari dira bandera igoko den fatxadari begira. Dena prest dago. Pintxo-pintxo jantzita, erlojuak hamabiak jotzen dituen bitartean arnasari eutsita, danborrak eta upelak erne daude, San Sebastian Martxa jotzen hasteko seinalea noiz emango. Eta orduan, koordinazio perfektuan, festaren himnoaren lehen konpasei heldu diete: "Bagera, gu ere bai, gu beti pozez, beti alai, beti alai". Bandera goian ari da kulunka. Milaka lagun kantari ari dira, oilo-ipurdiz, bat baino gehiago negarra begian, Sarriegiren musikaren erritmoan mugitzen diren bitartean, oholtzako danborradari oholtxo biribilekin eta makilatxoekin laguntzen diotelarik. Euforiak eztanda egin du.

Gaur egun ia auzo guztietan hasten da San Sebastian eguna hamabietan bandera igota; baina Konstituzio plazakoa berezia da, besteak beste ofiziala delako, bandera igotzen duena alkatea da eta. Sarriegiren musika jotzeko ardura duen danborrada Gaztelubide elkarte gastronomikoarena da.

Gaztelubiderena Danborradaren jatorrian zeudenen arteko bat ez den arren, bai dago lotua gaur egun Igoera deitzen den ekitaldiarekin. 1934an Konstituzio plazatik hurbil sortutako elkarte honen danborrada, afaldu ondoren, Parte Zaharreko kaleetan barrena zihoan, eta banderaren Igoera ofizialarekin bat egin zuen, ekitaldia girotu eta alaitu zuelarik. Festa eguna adierazteko banderaren Igoera 1924an hasi zen, baina orduan udal enplegatu batek egiten zuen, inolako zeremoniarik gabe. 1934an Gaztelubide izan zuen lagun, eta halaxe hasi zen orain ezagutzen dugun Igoeraren historia. 1935etik aurrera alkatea ere bertan zen, eta halaxe ofizialdu zen (elkarrizketa Javier Sadari *El Países*n, 2008/01/19). Denboraren poderioz, tradizio bilakatu zen, "Igoera", orain duen esanahi eta

ofizialtasunarekin. Horregatik geratu dira ekitaldi hau eta Gaztelubideren danborrada loturik.

Konstituzio plazako Igoerak oro har ezaugarri nagusiak urteetan zehar mantendu baditu ere, egia da, halaber, aldaketa batzuk ere txertatu direla, herritarrengan eta festarengan gertatu direnen isla. Gizartea, festa bera eta festa bizitzeko erak izugarri aldatu dira, eta emakumeen partaidetza da aldaketa nagusietariko bat, Igoeran ere antzematen dena.

Ekitaldi enblematiko bat

Hau Alde Zaharrean gertatzen den arren, Gaztelubide Alde Zaharreko beste danborrada bat baizik ez den arren, Konstituzio plazako Igoerak, nolabait, hiri osoa ordezkatzen duen ekitaldia da. Ez da harrigarri, bada, ekitaldia protagonizatzen duen danborradak esanahi berezi bat hartzea. Gaztelubideko danbor nagusiak elkarrizketan kontatu bezala, abiarazleak izatean datza ekitaldia protagonizatzeko "pribilegioa". Pribilegioa ez ezik, "erantzukizuna" ere bada, elkarte gastronomikotik askoz harago doan kolektibo baten ordezkari dihardutelako. Igoeran jokatzen duen papera dela eta, Gaztelubidek badu festan toki nabaria; hortaz, ez da harrigarri danbor nagusiak berea beste danborradak baino esanguratsuagoa dela ondorioztatzea: "Udal buruhandien artean Gaztelubideko sukaldaria eta danbor-jolea daude. Mundu guztiaren errespetu osoz, danborrada hutsa baino gehiago gera; alegia, historia baten parte bat gera, eta jende pila baten identifikazio askoren parte bat gera".

16. Gaztelubideko buruhandia. Argazkia: Xabier Kerexeta

Alde Zaharra da Danborrada jaiotzen ikusi zuen auzoa; izan ere, orduan hiria huraxe baizik ez zen, hartara mugatzen zen harresi barruan zegoen kaleartea. Beste auzoekin ez bezala, donostiar guztiek Alde Zaharra beraiena ere badela sentitzen dutela esan dezakegu: hiriaren muin eta mamia da, erreferentziazko tokia, tabernak, zinemak, merkatuak, saltokiak direla-eta, sozializatzeko gune bat. Bertakoentzat beren auzoa, baina gainerakoentzat hiri osoaren bilgunea, kokalekuarengatik, historiarengatik, berezko ezaugarriengatik. Hiria kanpotar bati erakutsiko bagenio, ia ezinezkoa litzateke hemen ez geratzea. Eta hain zuzen Konstituzio plaza espazio publikoaren bilgunea da, bertan laburbiltzen direlako botere politikoa, garapen eta esanahi historikoa, jai giroko hainbat ekitaldiren eszenatokia. Eta jakina, Danborradaren ekitaldi mamitsuenak ere hementxe kristalizatzen dira. Plaza hau eta festa elkarri atxikita daude, badirudi elkarrengandik ezin askatu eta bereizteko moduan.

Hortaz, plaza nukleoaren nukleoa dela ondoriozta liteke. Eta Igoeraren ekitaldia, Danborradaren irudi publikoaren ikonoa, jaiari buruz lau haizeetara zabaldu diren milaka estanparen artean hedatuena, denen artean ezbaitik gabe nagusitu dena. Urteak dira Konstituzio plazako Igoeraren ekitaldiaren difusioa, hiritik urrunago, gaur egun mundu osoraino, zuzenean egiten dela. 1963an lehen aldiz transmititu ziren Sarriegiren doinuak, Gaztelubidek Igoeran jota, Radio Nacional de Españan; hortaz, Estatu osoko bazter guztietaraino. Hiru urte geroago Televisión Españolari Igoera transmititzeko eskatu zitzaion, eta harrez geroztik, gero eta gehiago, telebistaz ematen da hainbat komunikabidetan. Orain, Interneti eta sare sozialei esker, difusioa askoz ere zabalagoa da. Adibidez, mundu osoko euskal etxeetan era sinkronizatuan eskaintzen da, eta Donostiako bandera igo ahala beste hainbat tokitan ere igotzen da, jatorrizkoari Interneten bidez jarraiki. Konstituzio plaza, beraz, Euskal Herriko jai nagusietariko baten proiekzio publikoaren eszenatokia ez ezik, "donostiartasuna" bizitzeko, adierazteko edota berresteko gunea da.

Danborradan, Donostiarekin bat egiteko identifikazioa hainbat eratara indartzen da. Nagusietarikoa da jaiak hiria ordezkatzen eta irudikatzen duela, hiria den bezala, edo nahi genukeen bezala, imajinatzen edo maite dugun bezala agertzen duen heinean. Eta hala da, besteak beste, benetan den baino, nahi genukeen gizarte baten eszenaratzea delako festa; hots, hiria, bertako gizartea nolakoa den, nolako balioak aintzatesten dituen, nolako hierarkiek egituratzen dituen erakusten ditu. Gatazkak ere islatzen ditu, ez baikara beti ados jartzen herritar guztiok eta batbederak bete behar dugun tokiari buruz. Handiak izan, txikiak izan, berezkoak izan, behartuak izan, kalapitatsuak izan, isilak izan, gatazken ondoriozko aldaketek egokitzen dute festa, irudikatzen duen gizartearen eta haren bilakabidearen arabera. Horrexegatik, esan liteke festaren historia azalera moduko bat dela, azalera horrexetan gertatutako aldaketak nola edo hala agertzen direlako. Garai bakoitzak dituen balioak, harremanak, ideiak, printzipio nagusiak islatu eta adierazi egiten dira festa bizitzeko eta antolatzeko moduetan. Konstituzio plazako Igoera eta Jaitsiera ekitaldiak adibide galantak

dira. Haietan atzeman daitezke halako “eszenaratzearen” gakoak, Donostia eta bere festa diren bezala izatea ahalbidetzen dutenak.

Udaletxe Zaharreko balkoira begira

Igoeran aurkitzen ditugu eszenaratzean parte hartzen duten bi protagonista motak. Batetik, festatik beretik datorkien garrantzia edo esanahia duten pertsonaiak, festaz at egiten dutena zernahi dela ere. Alegia, danborradan ezein rol jokatzen dutenak (urketariak, sukaldariak, soldaduak, banderadunak, eta abar), aginte-postuak betetzen dituztenek protagonismo berezia dutela (danbor nagusiak, upel kaboak, urketari nagusiak). Bestetik, hirian betetzen duten postuarengatik edo ordezkatzen dutenarengatik festan toki berezia hartzen dutenak: agintariak edo figura publikoak. Pertsonalitateek esanahi eta balio bereziak eransten dizkiete beraiek partaide diren ekitaldiei.

Alkatea ezinbesteko figura da ekitaldiotan. Alkateak igotzen eta jaisten du bandera, aldamenean bestelako pertsonalitateak dituela: diputatu nagusia, lehendakaria, zinegotziak, Eusko Legebiltzarreko ordezkariak edota botere publikoko beste figurak. Hiriaren ordezkari gorena delako dago hor alkatea, Danborrada hiriaren festa izaki. Igoeraren ekitaldian ordezkaritza instituzionala izateak elkarrekiko areagotze-efektua du, zeren eta festari maila ofiziala berresten zaion era berean, agintariei ere agintaritza aitortzen ari baitzaie, hantxe daudenez gero.

Hori bai, alkatearen eta agintarien presentzia Igoeran ez da beti erreplikarik gabea izan. Konstituzio plaza protesta ugariren lekuko izan da, hain zuzen agintariek ordezkatzen zutenaren aurka azaltzearren. 1975ean, Igoeran, alkatearen kontrako ziztuak entzun ziren, eta hurrengo urtean, Franko hil berria zela, areagotu ziren protestak eta aldarrikapenak. Gogora dezagun 80ko hamarkadan arrautzak jaurtitzen zitzaizkiela agintariei, hainbeste, ezen babesteko zirak janzten baitzituzten. Donostiaren ordezkaritza gobernari zenbaiten esku zegoela, hainbat sektore sozialek bere arbuioa adierazten zuen.

Danborradak Konstituzio plazan gauzatzen dituen ekitaldiak zenbait aldarrikapen edo kontsigna komunikatzeko erabili izan dira: hainbat gai politiko edo soziali buruzko pankartak, banderak, kartelak, irudiak paratzen dituzte herritar batzuek. Denboran zehar kontsignak eta gaiak, eta haien adierazpideak, aldatu egin dira; baina orain kontua da mezuak paratzea nahiz haien kontra agertzea, zentsuratzea, erreprimitzea edo arautzea praktika arruntak direla, eta horrexek adierazten digu espazio eta denbora hori esanguratsua delako baliatzen dutela zenbait pertsonak eta taldek hainbat arazori buruz jarduteko.

17. Aldarrikapen feminista Konstituzio plazan, 2013/01/19. Argazkia: Luz Maceira

Gizartearentzat esanguratsuak diren protagonisten artean, alkateaz gain, Udaletxe Zaharreko balkoian ateratzen direnek arrazoi oso desberdinengatik izan dezakete protagonismoa Donostian: nortasun kolektiboaren sinbolo bihurtutakoak izan daitezke, hala nola Urrezko Danbordunak edo Real Sociedadeko futbolariak; hiriarentzat garrantzizko harremanak dituzten gonbidatuak, hala nola beste herrialdeetako ordezkaritza politiko edo instituzionaletako gonbidatuak; eta, gero eta gehiago, agerrarazten dituzten balio hiriarentzako esanguratsuengatik protagonismo berezia eman nahi zaien pertsonak edo organismoen ordezkariak. Eta hain zuzen, balkoietan antzematen da gehienbat Danborradan eta orokorrean emakumeen ikusgaitasuna areagotu dela eta aldaketak gertatu direla adierazteko mugarri bat: banderak igotzen eta jaisten diren balkoietan hasi zen Udala lehen urratsak ematen emakumeek merezitako ikusgaitasuna eta ezagutza ofiziala izan zitzaten. Eta hala abiarazi zen festaren baitan genero berdintasuneranzko prozesua.

Mugarria 1998an izan zen, Donostiako Orfeoiaren emakumeek banderaren Igoera ofizialaren ekitaldia protagonizatu zutelarik. Orduko alkateak, Odón Elorzak, bere tokia utzita, erdiko balkoian egoteko ohorea eskaini zien. Urteetan eta urteetan nola edo hala behin eta berriro festan emakumeen presentzia eta hiritartasunaren ezagutza handitzeko eskatu zuten ahotsei Udalak emandako erantzuna izan zen. Hala zabaldu zen norantza hartan abiatzeko bidea, harrez geroztik behin baino gehiagotan agertu baitira emakumeak ekitaldian. Hortaz, gonbidapenik ez zutelako inolako ikusgaitasunik ez izatetik nolabaiteko presentzia izaterako etapa berri bati ekin zitzaion.

18. Donostiako Orfeoiko emakumeak bandera igoeran. Iturria: *El Diario Vasco*, 1998/01/21

Emakume protagonistak Igoeraren ekintza ofizialean:
- Mari Carmen Mercero eta María Jesús Muñoz Baroja, Donostiako Orfeoikoak, 1998an.
- Ainhoa Arteta, Urrezko Danborduna, 1999an.
- Ainhoa Beola, Berdintasun zinegotzia, 2011n.
- Belén Aizpuru, Maribi Alonso, María José Calvo, Beatriz Cartón, Lourdes Etxeberria eta Lourdes Irazusta, Kresalako danborradakoak, 2013an.

2013an beste mugarri bat identifikatu dugu: Kresalako urketariek ikurrina igo zuten. Emakume haiek izan ziren 1980ko Danborradaren aitzindariak, Kresala lehendabiziko danborrada misto bihurtu zenean. Danborradan emakumeen partaidetzak lortua duten eta aitortu beharra zegoen finkatzearen adierazgarri nabaria zen balkoian agertu izana. Juan Karlos Izagirre alkateak gonbidatu zituen, sinbolismo handiko ekitaldi batean protagonista ager zitezen; izan ere, euskal nortasunaren sinbolo den ikurrinaren igoerak bazuen esanahi garrantzitsua hirian.

Jaian ere hezurmamitu zen bandera harengan adierazitako borroka eta aldarrikapen asko, demokraziaranzko trantsizioaren garaitik aurrera. 1976ko Danborradan, anartean galarazia zegoen ikurrina bat eta preso politikoen amnistiaren aldeko pankarta bat plazaren beste aldean paratu zelako, poliziak karga bat egin zuen. 1977an, jaiaren bezperatan legalizatu zen Espainiar Estatuan ikurrina, eta Igoeran jendeak bandera zuri-gorri-berdez bete zuen plaza. 1979an Euskal Autonomia Erkidegoko bandera ofizialtzat hartu eta 1981ean espainiar bandera igotzeari utzi zitzaion. Askoz geroago, festan parte hartzen duten bost mila emakume baino gehiagoren ordezkari, Kresalaren danborradako sei emakumek igo zuten ikurrina, “berdintasunaren aldeko aurrerapenak”

ezagutaraztearren (*Noticias de Gipuzkoa*, 2013/01/20). Demokraziaren eta zuzentasunaren aldeko bi borroka batu eta balioetsi ziren.

19.1 + 19.2. Kresalako aitzindariak 2013ko banderaren igoeran. Argazkia: Luz Maceira

Oholtzari begira

Itzul gaitezen plazako oholtzara, hortxe ari baitira danborradak jaiaren musikak jotzen; hortxe ere eszenaratzen da gizartea, bere protagonistekin, balioekin eta gatazkekin, beste maila batean eta bestela adierazten badira ere. Kontuan hartu beharra dago festak iraun bitartean denbora gehienean barrutiko danborradek erabil dezaketela oholtza, baina gaueko orduetan apenas dagoela txanda hartzerik, hain ordu estua dute eta. Horrez gain, Igoeran eta Jaitsieran esparru mugatua da. Jakina da ezein danborradak ez daukala ekitaldi horietan jotzerik, Sarriegiren musika jotzeko Gaztelubide edo Unión Artesana bezain prestatuta egonda ere; orain arte behintzat horiek biek baino ez dute egin. Badirudi inertzia hutsa dela "pribilegioari" eusteko arrazoi bakarra, betidaniko zerbait delakoan; hala aitortzen du behinik behin Gaztelubidek berak.

Elkarrizketatu ditugun askoren pertzepzioan danborrada beterano horiei dagokie ekitaldiok protagonizatzea, edo behintzat barneratua dute hor eta orduan egotea dela biei egokitzen zaien "txokoa". Igoera eta Jaitsiera instituzionaldu zirenez geroztik hortxe egon direlako irabazi dute postu hori, eta horri dagokion prestigioa. Hor ere, bada, Danborradaren beste alderdietan bezala, beteranotasuna da lehenesten den irizpidea, funtzio hori betetzeko. Ez dirudi beste danborradek kuestionatu dietenik, ez behintzat publikoki. Beste danborradek pozarren eta harro-harro betetzen dituzte beren auzoetan dituzten funtzioak eta espazioak. Konpainia bakoitzak badaki hiriko bazter guztietan ospatzen ari den festaren partaide dela, eta denen elkarbizitza baketsuaren alde jokatzen dute. "Istilurik" gabeko danborzaletasun hau eta

ospatzeko beste moduekiko tolerantzia gailendu egiten zaizkio danborrada batzuen protagonismoarekiko eta darizkien balioekiko ager litezkeen jarrera kritikoen agerpenari.

Gaztelubide izan da urteetan eta urteetan banderaren Igoeraren protagonista bakarra, eta gogora dezagun 2006 arte maskulinoa izan dela. Hala zen artean emakumeek ezin zuten ekitaldian parte hartu eta beraz hari atxikitako prestigio sozialaz gozatu. Hortaz, ekitaldi ofizialean parte aktiborik izan ezean, Danborradaren irudi publikotik at geratzen ziren. Urte gutxi batzuetan egoera erabat aldatu da. Mugarri eta gertakari batzuek ekarri dituzte aldaketa txiki edo handi horiek, betiere festaren bilakaeraren berdintasuneranzko bideak aurrera egin dezan.

Emakumeak oholtzan

1998an ofizialdu zen zuri-urdina Donostiako bandera gisa, eta hilabete batzuk geroago erabaki zen 1999ko Danborradan, "banderaren omenez", Igoeraren ekitaldia beste danborradetako ordezkariei zabaltzea. Hala, bada, Gaztelubidekoei beste 76 gizon-emakume batu zitzaizkien, bana danborradako. Jaiari ekiteko berritasun hark ate bat ireki zion oholtzan emakumeen partaidetzari. Jada ez ziren mugatzen plazan ikusle sutsu edo balkoitik begira noizbehinkako gonbidatu ofizial izatera, eta oholtzan jotzen ziharduten. Hona hemen beste mugarri bat: urte hartan, lehen aldiz Danborradaren historian, emakume batzuek beren musika-tresnak entzunarazi zituzten plazako oholtzan.

"Banderaren omenaldia" udal gobernuaren estrategia bat izan zen oholtzan emakume danborrariak egotea ahalbidetzearren, hartara Danborradan emakumeen burrunbadak zilegiztatu eta ikusgai, eta entzungai, paratuta. Orduan 76 danborrada zeuden, eta ez dago jakiterik zenbat emakume bertaratu ziren egun hartan -ez eta beste urteetan ere, baina bai orain partaidetza parekide samarra dela-. Bai da jakina harrez geroztik ekitaldi ofizial hura ofizialki ere denena dela. 1999tik aurrera, Gaztelubidek partekatu egiten du espazioa beste danborradetako gizon-emakumeekin; hori bai, oholtzaren hiru laurdenak danborrada beteranoak bere ditu.

Urteak beharko ziren beste aldaketa esanguratsu bat lortu arte. Mugarri berria 2006an finkatu zen, Gaztelubidek eta Unión Artesanak, hurrenez hurren Igoeraren eta Jaitsieraren arduradun izaki, emakumeei sarrera egin baitzieten beren danborradetan. Hortaz, Konstituzio plazako Igoeran beste danborradetako emakume bakanek emakume bakarrak izateari utzi zioten. Zeren eta bi danborrada enblematikoek, jaiaren ekitaldi nagusietan nagusi zirenek, misto bihurtuta urketariak gehitu baitzituzten. Emakumeen presentzia eta protagonismoa handitu egin da Danborradan.

"Emakumearen debutak Igoeran eta Jaitsieran dezibelio askotan handitu du albistearen maila. Emakumeen partaidetzak, beste konpainietan eta urte askoan diskrezioz eta lasaitasunez egin denak, oraingo honetan normaltasunaren langak gainditu eta tradizioa dardarka jarri du", zioen *Diario Vascok* (2006/01/15). Ohar hark erakusten du nolako pisua duten Gaztelubidek eta Unión Artesanak donostiar gizartean. Emakumeen partaidetza urtetik urtera emendatzen ari bazen ere (ordurako danborraden %75ek bazituzten emakumezkoak beren lerroetan), badirudi festa ez zela misto bilakatu beste biek emakumeak onartu arte, edo orduantxe egin zutela "debuta" oholtzan, 1998az geroztik urtero beste danborraden ordezkari zihoazen danbor-jole guztiak gizonezkoak izan balira bezala. Zergatik da sekulako albistea, danborrada mistoek urteak zituztela, beste pare batean ere emakumeek parte hartzea? Zergatik da "diskretua, lasaia" emakumeen kopuru handia, bai banakoena, bai danborradena, eta beste bi danborradetan ere emakumeek parte hartzen dutelako jarri da dardarka tradizioa? Erantzuna izan daiteke muga bat gainditu dela, harrez geroztik pisu berezia, zama sinbolikoa eta nolabaiteko ofizialtasuna duten danborradetan emakumeek parte hartzen dutelako. Horrexek berak adierazten du nolako garrantzia duen emakumeak bertan egoteak edo ez egoteak.

Emakumeek Gaztelubiden edo Artesanan -kasu bakoitzak bere eginbidea izan duelako- parte hartzeko arrazoiak edota zailtasunak arakatu beharrean, prentsa-oharrak balio digu konturarazteko haietan emakume jotzaileak "onesteko" prozesua agudoago gauzatzearen zergatia Udalak luzatu zien eskakizuna izan zela, banderaren Igoera eta Jaitsiera ofizialetan emakumeen partaidetza azkartzeko ahalegin instituzional batean, defendatu edo sustatu nahi diren balioak, kasu honetan berdintasuna, festan ere isla daitezen. Gizartearen aldaketei soraio agertu ez diren soziedade bietako bazkide batzuek ordurako jorratzea nahi zuten gaia izanda ere, ukaezina da emakumezkoak integratzeko prozesua arinago egin zela udal agintariek esku hartu zutelako. Eta esan beharra dago feministen eta berdintasunaren aldeko zenbait sektore sozialen lehenagotiko aldarrikapenak biltzen zirela udal esku-hartze haren baitan.

Konpainia femenino berrien txertatzea bestelako arazorik gabe egin zen, eguna ospatzeko eta festaz gozatzeko asmoa nagusituta. Hala ere, nolabaiteko tentsioa eta polemika nozitu zen, batik bat Danborradaren aurreko egunetan. Gatazkak bi alderdi zituen: emakumeen partaidetza bera batetik, eta Udalaren papera bestetik, haren aldetiko eskabidea "presiotzat" eta "mehatxutzat" jo baitzuen zenbaitek. Gaztelubideren inguruko norbaitek esandakoak ederki islatzen du egoerak zenbaiti eragin zion sentimendua: "bazkideak Udalaren aldetik erabaki bat hartzera behartuta, bultzatuta sentitu dira, eta hori ez da batere gustukoa izan" (*Diario Vasco*, 2006/01/15). Une hartan, Udalaren esku-hartzea prentsa-ohar batzuek "dekretukadatzat" hartuta (*Diario Vasco*, 2006/01/15), giroa berotu omen zen. Udalaren ekimen hura batzuek zein bestetzuek nola hartu zuten aparte utzita, egia da Konstituzio plazan diharduten danborrada bietan egindako barne-eztabaidak azkenean ahalbidetu zuela, Udalaren ustezko

enbidoa onartuta, emakumeak bertan egotea. Ez dago dudarik aldatzeko gogoak nola edo hala kutsatu egin zituela soziedade biak, eta hantxe izan zutela aldaketa islatzeko parada.

Tentsioz edo tentsiorik gabe, kontua da Igoeran eta Jaitsieran emakumeak integratzeko prozesua abian zela. Elkarte biek hautatu zuten modua hauxe izan zen: urketari talde bat sartzea, hartara bazkideen senideei, edo bazkideek gonbidatutakoei, dei eginda. Lehendabiziko urtean, aldiz, Gaztelubideren kasuan, erabakia premiaz hartu zenez gero, beren konpainia osatzeko denbora faltaz, 2004tik mistoa zen Artzak Ortzeok elkartearen danborradako hamabi urketari izan ziren Gaztelubideren danborradan desfilatu eta haiekin batera taularatu zirenak. Gonbidatutako hamabi urketariek aktiboki parte hartu zuten festaren hasiera formalean, hots, horrenbeste zabaltzen den eta horrenbesteko esanahi duen Igoeraren irudian. Ofizialki, "hiritartasunaren eta demokraziaren eredu" bilakatzen duen izaera erdietsi zuen festa donostiarrak, orduko gobernu-taldearen hitzetan (*Diario Vasco*, 2006/01/11). Alegia, gizartearen irudi eguneratuago bat erakutsi zuen festak.

LAS MUJERES PARTICIPAN POR PRIMERA VEZ EN LA IZADA DE LA BANDERA DONOSTIARRA

YOLANDA URANGA/ Aguadora en la izada

"ES UNA SENSACIÓN ESPECIAL, PORQUE LAS MUJERES LUCHAMOS PARA TOCAR Y NO SÓLO PARA MIRAR"

20. Iturria: *Emakume eta eskubidea*, 11. zb, 2006ko urtarrila-martxoa

2007an pixka bat gehiago aurreratu zen emakumeak ofizialki integratzeko prozesua, Gaztelubideren danborradak bere urketari-konpainiarekin protagonizatu zuenean Igoera. Zozketaz hautatutako hamabi emakume ziren, urte hartan beren senar, seme, neba edo bestelako senideekin festaren hasiera ofiziala partekatzeko zortea izan zutenak, denak elkarrekin Konstituzioko oholtzan Sarriegiren musikak jo eta jo. Prentsak "tradizio berri baten aitzindariak" bataiatu zituen (*Diario Vasco*, 2007/01/16). Jende frankoren lan eta ahaleginari esker ofizialki "aitzindari", dena esatera. Eta konpainia bat inauguratu orduko besteei bide eginda utzi behar zutenak, postua ez baitute iraunkorra, urtero halabeharrak hautatutako emakumeek okupatuko dutena baizik. Harrez geroztik, postuen kopurua eta beraz zorionekoena poliki-poliki handitu da, eta gaur egun 30 lagun dira.

Gaztelubideko urketarien konpainia 2007an:
Aitziber Echegaray Maidagan, Ana Asín Terol, Barda Marco Eguiguren, Ainhoa Olasagasti Ezeiza, Mertxe Oteo, Susana Pertica Etxabarri, Mari Carmen Hernández, Amaia Munilla Núñez, Marta Aldanondo Garaizabal, Karina Fernández Arruti, Beatriz Rezusta Sagasti eta Blanca Cabrera Egaña

Emakumeak zuzendari

Azkenean badago beste mugarri bat, Igoeran eta Jaitsieran dauden danborradetan beste figura bat ezarrita: urketari nagusiarena, urketariak zuzentzen dituenarena. Konstituzio plazako oholtzan figura hau gehituta, beste urrats bat eman da emakumeen erabateko partaidetzaren alde. Urketarien eta agintaritza-postuetan izan dezaketen protagonismoa areagotzen duelako, eta Gaztelubiden upel nagusi deitzen denaren pareko ezagutza aitortzen zaiolako.

2012an, huraxe izan zen Danborradaren berritasun handia: Konstituzio plazan Ainhoa Olasagasti Gaztelubideko urketari nagusia eta Unión Artesanak gonbidatutako Estitxu Eceiza urketari nagusiak aritu ziren. Berriro ere, aldaketaren eragilea udal gobernua izan zen. "Emakumeak protagonismo handiagoa berenganatzen ari dira, kalean ez ezik, oholtzetan ere bai, makila eskuan hartu eta zuzendari, boterearen jabe", Festen ordezkari Nerea Txapartegiren hitzetan (***Gara***, 2012/01/19).

2013an, urketari nagusiak 30 kide izateraino handitua zen konpainia zuzendu zuen, eta bertan zegoen publikoak, harri eta zur baina atseginez, ikusi zuen urketariak zuzentzeko maila txikia utzi eta danbor nagusiaren erdiguneraino joan zela, eta handik zuzendu zuela pare bat aldiz danborrada osoa. "Mendik" eta Ainhoak, danbor eta urketari nagusiek dantza txiki bati ere heldu zioten halako batean, kidetasunaren eta festan elkarrekin gozatutako alaitasunaren

adierazgarri. Emakumeen partaidetza eta protagonismoa aurrera doa. Zein izango da hurrengo mugarria?

21. Gaztelubideko urketarien konpainia Konstituzio plazako oholtzan, Igoeran, 2013/01/20. Argazkia: Luz Maceira

5. atala

Urtarrilak 20.
Gau osoan harat-honat

Gauerdia jo eta berehala, behin bandera igota, bai Konstituzio plazan bai Donostiako beste hainbat tokitan, danborradak desfilatzeari ekiten diote. Lokalaren kanpoaldean edo aldez aurretik erabakitako beste toki batean bildu eta abiatzen dira. Alde Zaharrean, Erdialdean, Amaran, Loiolako Erriberetan, Grosen, Antiguo eta Ibaetan, Altza-Intxaurrondon, eta Egian, Loiolan eta Martutenen, danborradak auzoetako ibilbide guztietan dabiltza beren danbor eta upelekin, eta Sarriegiren musikaz hanpatzen dituzte plazak, elizak, arkupeak, kale handiak eta txikiak, ataripeak, lorategiak, parkeak... elkartzeko modua ematen duten espazio guztiak betez.

Danborrada bakoitzak ibilbidea egiteko auzo bat -bere auzoa- eta ordutegi bat dauka, eta aldez aurretik erabakitako bideari ekiten dio. Hogeita lau orduz danborradak atera, bizi, sentitu egiten dira kaleetan. Ez dira denak ordu berean abiatzen, ez ordu berean bukatzen ere. Etengabe topa daiteke bata ez bada bestea, eta noiz edo noiz batzuek elkar topo egin eta elkarrekin jotzen dute pieza bat edo beste. Izan ere, desfilatzen duten bitartean jotzen duten arren, batzuetan auzoko toki esanguratsu batzuetan gelditu eta bertan ere jotzen dute.

Danborradak dira festa artikulatzen dutenak. Azken hamarkadotan, izugarri handitu dira kopuruan: 1980an 20, 1990an 47 eta 2013an 125. Elkarrengandik bereiz eta independente jokatuagatik, danborradek beren gainetik dagoen zera bat eratzen dute: Danborrada. Halatan, bada, jaiaren hasierako garaietatik, danborraden artean harreman mota bi hauek ezartzen dira: kalean bertan ematen dena eta, ez hain aspaldikoa, esparru instituzionalduago batean ematen dena.

Araututako jaia eta araututako gizartea

80ko hamarkadan danborraden ugaltzea hain zen nabarmena ezen ETZak azaldu baitzuen haiek guztiak koordinatzeko gai izan zitekeen egitura tekniko baten beharra, denen ibilbideak eta bakoitzaren ordutegia programa baten arabera txertatuko baziren. Hala, bada, 1998an, orduko danborradek eta ETZak -gerora haren ordez Donostia Kulturako Donostia Festak departamenduak- ezarri zuten oraindik orain indarrean dirauen festa koordinatzeko eta antolatzeko protokoloa. Danborradak antolatzeko tenorean, bada, hiria zazpi barrutitan banatu da, eta bakoitzaren barruan ibiltzen dira bertako danborradak. Horiez gain, modu piramidalean ezartzen du haien arteko koordinazio-sistema: danborrada guztiek hautatzen dute lagun bana, barrutiko bileretan ordezkari doana; era berean, barruti guztiek, beren ordezkarien artean, hautatzen dute delegatu bana, Departamenduko bileretara doana; horrela, bada, zazpi delegatuok batzorde bat osatzen dute udal arduradunekin batera.

Harritu behar gintuzkeen arren, ez gaitu harritzen koordinazio esparru horietan emakumezkoen partaidetza eskasak. Barrutiko bileretan danborraden ordezkari emakumeak egon badaude ere, orain arte behinik behin ez dago

emakumerik piramidearen gailurrean, barrutien delegatuen batzordean. Adibidez, Amarako barrutian emakumezko ordezkariak lau baino ez dira, guztira hamahiru ordezkari izaki; Altzakoan desoreka are handiago da, emakume bakarra baitago hamaika danborraden artean, eta Alde Zaharrean ez dago bakar bat ere. Beraz, ondoriozta dezakegu emakumeek, oraingoz, oso protagonismo gutxi dutela ebazpenak hartzen diren eta oro har festa arautzen den eremuetan.

Alegia, badago danborradak koordinatzeko eta haiei dagozkien ebazpen inportanteak hartzeko erakunde eta sistema bat, non barrutien delegazioek eta udal ordezkaritzak parte hartzen duten. Halako erakundeak gatazkak kudeatzeko eta ahal dela elkarrizketen bidez konpontzeko balio du, nor bere barrutiko danborrada guztien izenean mintzatzen da eta. Esan beharrik ere ez dago adosten dituzten gai guztiek bat etorri behar dutela indarrean dagoen Danborradaren araudiarekin.

Auzoetan, barruti bakoitzeko danborradak beren artean koordinatzen dira, barrutiko batzorde delakoetan. Haietan denei dagozkien gaiak jorratzen dira, bai eta geroago komunikabideetara hedatuko diren ekitaldien programak definitzen ere. Nahiz eta batzordeotan teorian inolako kontrol edo botere edo pribilegiorik duen inor ez dagoen, badirudi kasu batzuetan beteranotasuna argudiatzen dela hain finkatuak ez dauden ahotsak isilarazteko:

> *Guk barrutiko danborraden bilerak egiten ditugunean, badaude, nik deitzen ditudan "bibotedunen" danborradak, haiek mintzatzen eta haien artean antolatzen baitira, eta danborrada gazteagoak edo bestelakoak ordezkatzen ditugunoi, bada, tira, pixka bat gutxiesten gaituzte.*

Parte Zaharra da danborradetan auzorik dentsoena. Agian horregatik, aspaldi honetan hor sortu da problema gehien danborrada berrien onarpenaren inguruan. Hala, bada, barruti horretako batzordeak birritan eragotzi du bertako kaleetan danborrada berriak ibiltzerik. Lehendabizi, 2010ean Txirritako Txuriurdinak danborrada Alde Zaharreko kaleetan irtetea galarazi zuenez, azkenean Larratxoko kaleetan egin behar izan zuen. Bigarren eragozpen saioa Sheshenarena danborradari ezartzekoa izan da, arrakastarik gabe, ordea, Donostia Festak sailak ontzat eman zuelako auzoan jo zezan, eta 2013an lehen aldiz desfilatu zuen. Bigarren kasuon, barrutiko danborrada askok argudiatu zuten baldintza formalak betetzea ez zela nahikoa auzoan danborrada bat ateratzeko, zeren eta, delegatuen bileran ziotenez, "festaren esentziaren eta kulturaren tradizio eta preserbazio printzipioekin ez baitatoz bat" (Helduen Danborradako Delegatuen Bileraren Aktak, 2012/11/21). Halako argudioak arriskutsuak ere izan daitezke, haien interpretazioak aho biko labanarena egin dezakeelako, nolabait (beste festetan egin bezala) eta darabiltzatenen helburuak ere ez du zertan zintzoa izan.

Orain hemen harira datorkiguna da badaudela organo batzuk non danborradek, elkarren artean koordinatu ez ezik, festa egituratzen duten muntazko

ebazpenak ere hartzen dituzten. Hau berez ez da eragozpen bat, aitzitik ere: hortxe kudeatzen eta konpontzen dira gatazkak, elkarrizketaren bidez, konpondu ere, bertan hitz egiten dutenez gero barrutietako ordezkarien izenean doazen delegatuek. Barrutietako batzordeen kasuan berdintsu gertatzen da, danborrada guztien ordezkapena dutelako, eta hau ere aintzat hartzeko moduko zerbait da. Alabaina, argi utzi behar da hemen negoziatzen dena baimen huts bat ematea ala ez baino gehiago dela, espazio eta baliabide publikoak zeinen eskura eta nola jartzen diren ere eztabaidatzen da eta. Hala bada, albait gardentasun eta partaidetza demokratikoena bermatu behar litzateke.

Halako organoetan parte hartzen ez dutenek, ziur aski, ez dituzte oso kontuan hartuko, eta festaz gozatzen dutenean pentsatu ere ez dute egingo nor edo nortzuk diren erabakiak hartzen dituztenak. Hau, berriz, saihestezina da espero badugu festak balio batzuk agertzea edo ez agertzea, tartean berdintasunarena. Eta gogoeta hori eginez gero, alde horretatik antolakuntza maingu geratzen dela aitortu behar.

Deskoordinazioa dela, desinformazioa dela, dena dela, kontua da danborrada batzuetako partaideek ez dutela ongi ezagutzen nola funtzionatzen duen ordezkaritza-sistemak, berrien artean bereziki; hortaz, ez dute parte hartu beren barrutiko ordezkaria hautatzen diren hauteskundeetan. Halaber, beste batzuek ez dute nork bere burua ordezkari aurkezteko mekanismoen berri, eta beraz askok ez dute planteatu ere egiten aurkeztea. Edo ordezkaria hautatzearen eskuduntza zuzendaritzaren baitan da, eta bertan emakumerik ez egotea oso litekeena da... Halako organoetan dinamika zenbait nagusitzea kezkagarria izan daiteke, demokratikoki funtzionatzeko tenorean gabeziak gerta daitezkeen heinean: opakotasuna, “beti bezala” egitearen indarra, edo “beti berdinak” -hots, elkarrizketatutako batek “bibotedunak” deituak- agertuta protagonismoa bereganatzea, eta abar.

Elkarrekin egon, elkarrekin bizi, botere hartu eta botere eman

Kaleetan dabiltzan bitartean, eta prestakuntzaren aurreko hilabeteetan, danborrada guztiek beren arteko harremanak ezartzen dituzte, zuzenean edo zeharka, estu edo laxo, sakon edo azaleko, eta hein handi batean idatzi gabeko kode moduko baten bidez arautzen dira. Kode horrek errazten du, arau ofizialetik at, festa behar bezala egin dadin; eta errespetatu egiten da, batik bat, elkarrekin egoteko jarrera gailentzen delako; izan ere, eginaren eginez hainbat jardunbide eta ohitura finkatu da, besteak beste, praktikoak ere badirelako.

Danborrada bakoitzak bere ordutegi eta ibilbidea duenez gero, danborrada berriek beren ibilbidea erabakitzeko aukera gutxi dute, ia batere, geratzen den

hutsunean moldatu behar dute eta. Hau areagotu egiten da danborrada asko dauden barrutietan, Alde Zaharrean bereziki. Behin esleituta, eta hasieran bestelako ibilbide edota ordutegia nahiago zela aitortuagatik ere, ez da aldaketak egiteko joerarik izaten. Txirritakoa Txuriurdinak amore eman behar izan zuen Parte Zaharrean desfilatzeko asmoan, eta Larratxoko kaleetan egitea onartu zuen. Hori bai, urte gutxiren buruan, haien kide bati egindako elkarrizketan jasotzen denez, ez luke ibilbidea "ezeren truke" aldatuko.

Barneratua dago, festa behar bezala egingo bada, denborak eta lekuak errespetatu behar direla. Logika horren arabera, danborrada bakoitzak "bere" tokia onartzen du, harik eta finkatzen den eta ia jabe bilakatzen den arte. Hainbesteraino da ezen "inbasiotzat" hartuko bailitzateke beste talde bati esleitutako denbora edo espazioa okupatzea. Horrela uler liteke desfilatzera goizeko hiruretan edo bostetan, hots, desordutan ateratzea eta hala eta guztiz ere danborrada horientzat "beren momentu handia" izatea.

Ustez gatazkarik gabe, talde berriek esleitutako ordutegi eta ibilbideak zergatik onartzen -edo moldatzeko moduak aurkitzen- dituzten hobeto ulertuko bada, gogoratu beharra dago beteranotasunak nolabait maila bat gorago ematen duelako kontu hori. Zaila da, zaila denez, danborradak neurtzea edo alderatzea, denak eta batbedera garrantzizkoak direlako, zein bere erara. Esan beharrik ez dago bakoitzarentzat parte hartzen duen edo nolabaiteko lotura duen danborrada dela inportanteena. Baina, hala eta guztiz ere, bakoitzak garrantzia emateko dituen irizpideez gain, gizartean eragina duen sektore zabal baten iritziz badaude toki nabari batzuk, eta, okupatzen duten tokiarengatik, danborrada batzuen estatusa gorago dago gizartean. Estatus berezi hori badagoela onartzeko zailtasunak izaten badira ere, ahapetik bai aitortzen da aldeak badaudela danborraden artean, eta batzuk besteak baino inportanteagoak direla. Usteak, ñabardurak, aburuak, iritziak hamaika dira; baina, oro har, antzinakotasuna da toki "berezi" hori adierazten duten faktoreetako bat. Urteen kopuruari jaian, batez ere haren jatorrian, izan duen eragina eta lortu duen ikusgaitasun eta protagonismoa gehitzen bazaizkio, are goragoko estatusa ezagutu ohi zaio; baina interesgarriena zaigu antzinakotasuna dela, beste ezeren gainean, danborraden arteko harremanetan gailentzen den irizpidea.

Faktore horiek guztien onarpenaz, idatzi gabeko kode bat eratu da, danborradek errespetatzen dutena eta hein handi batean haien arteko harreman hierarkiko andana arautuko dituena. Zeren eta, Danborrada festa herrikoi eta oso parte-hartzailea izanagatik ere, hierarkiak egon baitaude. Horren onarpenak eta garrantziak ulertarazten du festak irauten duen bitartean bestelako afinitateak edo interesak alboraturik, parentesi artean geratzea, eta danborraden arteko errespetuaren arabera baino ez jokatzea.

Ez dago danborradarik beste batekin, baztertzailea delako edota haren pentsamolde edo jokabideekin bat egiten ez delako, harremanak izateari uko

egiten dionik. Elkarte edo lagunarte sustatzailearen idealak edo printzipioak at uzten dira. Halako logika da gatazkak edo ika-mika zuzenak saihestu eta bakoitzak bere parte hartzeko modua bilatzea ahalbidetu duena.

Baina errespetu edo "egiten uzte" hori ez da beti aldebikoa izan emakumeen onarpenaz edo partaidetzaz ari bagara. Dena den, jasotzerik izan dugu gatazka egoera bakarrak danborrada tradizionalista zenbaitek emakumeen festaratzeko aukera arbuiatu dutenenak dira. Ez da alderantzikorik inoiz eman.

Egia da halako desadostasunek aspaldi utzi ziotela istiluak sortzeari, eta bakoitzak bere golkorako gordetzen dituela harekiko aburuak. Gaur egun danborradak karerik kale dabiltza modu harmoniatsuan eta koordinazioan, eta hala da hartarako arauak badaudelako, esplizituak zein tazituak, gerta litezken egonezak albait gehien murrizten dituztenak. Alta, hobetzeko modua beti egoten dela ezin uka.

22. Ibilbidea Erdialdean barrena, 2013/01/20. Argazkia: Luz Maceira

Kaleetan desfilatzea

Danborradaren ezaugarri berezigarri nabariena da hilaren 20ak dituen hogeita lau orduetan danborrariek kaleak hartzen dituztela. Hirian barrena Sarriegiren musika jo eta jo doazelarik, ez da harrigarri danborradek elkar topo egitea. Hala gertatzen denean, beteranoenari eman ohi zaio bide; areago, hark jo dezan uzten zaio, musika-tresnak isilaraziz. Elkarrizketatu batek esan duenez: "Bai errespetatu behar da, bada, danborrada bat jotzen baldin badator, urteengatik edo, edo denbora bat jotzen aritu delako, bada zu ezin zara tartean sartu eta doinua eten. Alegia, isiltasun hori errespetatu behar diozu".

Baina kaleetan desfilatzean geldialdiak ere egin ohi dira. Normalean beste danborraden egoitzetan, tabernetan, edo elizetan, plazetan, parketan edo auzoan berezitzat edo behintzat danborradak patxadaz eta luzimenduz jotzeko egokitzat diren tokietan gelditzen dira: espazio zabalak, akustika onekoak edo sarbide errazekoak izaten dira.

Atseden hartzeko, indarberritzeko edo solasean egoteko geldialdiak ere badaude; baina orain jo egiten den geldialdiez ari gara. Batzuk arrazoi praktiko edo logistiko hutsez (toki zabal batean, esaterako) egiten diren arren, nabaritu beharra dago askotxo motibo sozial edo erritualengatik egiten direla, beste talde edo pertsona zehatzen ezagutzaz edo omenez egiten diren heinean. Danborrada ia guztiek egiten dute halakorik, esaterako, beste danborrada baten egoitzan gelditzen direlarik. Elkarrizketatutako batek esan bezala, "geldialdi guztiak zerbaitengatik egiten ditugu".

Toki berezi edo enblematiko batean gelditzean, normalena da besteak "harrera egitera ateratzea", alegia, elkarrekiko egintza izatea. Harrera jasotzea, besteek "gauzak ateratzea", hau da, "abegi on" egitea edariekin edota janariekin, danborradari ongi etorria egiteko modu bat, danborren jaia (edota auzokidetasuna) partekatzera eta areagotzera datozenei eskainitako kortesia bat.

"Abegi egitea eta abegi jasotzea" izaten zen, eta oraindik izaten da, ibilbidearen geldialdien eta danborraden arteko harremanen gakoetako bat. Izan ere, beste aldetik, bisitatuko diren erakundean "zain daude", eta danborradarik gabeko erakundeek, ikastetxeak izan, zaharren egoitzak izan, kafetegiak, tabernak edo bestelako elkarteak izan, jaiaren partaide izateko eta danborradari auzokotzat -eta auzoa donostiar- sentiarazteko modua bilatuko dute. Jaki eta mama goxo asko edo gutxi, keinu mota bat edo beste, zernahi ondare elkartrukatuta, danborraden -edo danborraden eta bestelako erakundeen- arteko topaketak elkarrekikotasuna eta bestearekiko aitortza sinbolizatzen du. Bisitariak, bere aldetik, egin dezakeen opari ederrenaz eskertzen du losintxa: martxa bat edo gehiago jota.

Beste danborraden egoitzak bisitatzea ohiko jarduna izaten da. Bisitatzen diren danborraden egoitzekin izan daitezke harreman estuak, errespetua adieraztekoak, edo besterik gabe "bizilagunak" direlako: "ibilbidean da", "ondoan dago", edo elkarreragina aspaldi handian sortu eta urteetan eutsi zaio. Hala eginda, danborrada biek elkarri begiratu eta elkarrekiko bermea berresten dute, biek ala biek festaren protagonistak, Danborradaren, hiriko eta hiriaren partaideak izaki. Auzoan danborraden egoitza asko badago, edo behintzat beterano bat baldin badago, gainerakoek honen egoitza hautatuko dute geldialdia egiteko tokitzat, beteranoak "inportanteak" direlakoan, nahiz eta haiekin bestelako harreman zuzenik ez izan. Derrigorrezko agurra dirudi, aitortza moduko bat, keinu horrek erantzunik jaso gabe ere.

Txubillo Anastasiorenean gelditzen da, aitabitxiarena egin ziolako errespetatzen duen eta harreman ona duen danborrada izaki, nahiz eta gelditzen diren orduak harrera egiteko inor ez dagoen. Ez da kasu bakarra; beste danborrada batzuek ere joko dute atea itxia duten egoitza zenbaiten parean, harreman hurbila baldin badute. Beste batzuetan, adibidez Groseko Bera Berak, "auzoko soziedade inportanteen aurrean gelditu eta joko dute nahi eta nahi ez", haien artean inolako lotura zuzenik edo harreman hurbilik egon gabe ere. Kasu bakan batzuetan, oso beterano edo protagonista izanagatik, elkarte zenbaitekin inolako elkarreragin edo interesik ez delako, halako keinuak desagertu egin dira.

Elkarrekiko agurtzak eta ezagutzak goia jotzen dute danborrada batzuk errepertorioaren pieza bat edo beste elkarrekin jotzeko biltzen direnean. Halakoetan, danbor nagusiek makila elkartrukatzeko joera izaten da, batak edota besteak talde osoa zuzen dezan. Keinu horren bidez, danborrada zuzentzeko eta beraz postu berezi hori eskaintzeko ohorea partekatzen da, kidetasunaren adierazgarri. Baina gerta liteke danborrada zuzentzeko pribilegioa beste danbor nagusi batengan ez izatea, baizik eta festaren barruan protagonismo berezia duelako edo nabarmendu nahi den erakunde edo balio baten ordezkaria delako omendu nahi den beste norbaitengan. Keinuak norbaiti agintaritzako edo prestigiozko postua eskaintzea dakarrenez, emakume bati eskaintzen zaionean, danbor nagusi izan ez izan, berebiziko esanahia helarazten du, emakumeek Danborradan parte hartzeko eskubidea ez ezik, bertan garrantziko postuak ere merezi dituztela aitortzen duen heinean; eta, esana dago, oso gutxitan gertatzen da hori. Elkarrizketatutako Danbor Nagusietako batek dio ibilbidean auzoko danborrada batzuk bateratu zirela, eta berak bi emakumeri utzi ziela bere danborrada zuzentzen:

> *Egoki iruditu zait, lehen aldiz bi danborrada zuzentzen ari ziren bi neska zirelako, haiei zuzentzen uztea, une horrexetan zer sentitzen den jakin dezaten, hortxe egon behar baita zer sentitzen den jakiteko. [...] Bi arrazoirengatik emozionatu nintzen... lehenik, hasiberriak zirelako, eta nik ederki dakit zer*

sentitzen den norbaiti uzten zaionean, ederki dakit noraino disfruta daitekeen.

Keinuen eta praktiken unibertso oso horrek -elkarri bide eman, beste danborrada entzuteko jotzeari utzi, pieza bat edo gehiago elkarrekin jo, danbor nagusiak edo makilak partekatu, bisitatu eta harrera egin, omendu...- betiere jai giroko erritualen bidez, danborrada desberdinen ezagutza, onespena, bai eta mirespena ere sinbolizatzen du. Baina, talde guztiak berdin ezagutzen, onesten, miresten al dira Danborradaren baitan?

Hona hemen, danborradek daukaten estatus desberdinen eta taldeentzat elkarrekikotasun keinuek duten balioaren argigarri, prentsa-ohar zenbait; hala nola, urtero-urtero Unión Artesanak Amarako Donosti Berriri egiten dion bisitaren berri ematen diguna. Elkarte dekanoak 1957an irteteko ordua gaur egungo gauerdikora aldatu zuen arte, ohikoa zuen geldialdi bat egitea Amarako elkartearen egoitzan, eta ohiko bihurtu zen tokiko prentsak kontatzea. Eta albiste zen danborrada enblematikoenetako batek, agertze hutsarekin, bereizi egiten zuelako orduan berrienetako bat zena. Bisita hark talde berria onetsi eta integratu egiten zuen Danborradan. Irakurri ere irakurri dugu duela gutxi publikoki desenkusatu dela danborrada bat beste bati egoitzako atea ireki ez ziolako, keinu hartan problema logistikoak beste arrazoirik ez zegoela adieraziz:

> *Lagun Garbiak danborradako batzorde eta elkarteko zuzendaritzak barkamena eskaini nahi diote, eta huts handi hura berdintzeko asmoa agertu, 20ko gauean Groseko soziedaderik beteranoena, Umore Ona, egoitzara hurbildu zitzaigularik beren emanaldiaz goxatzera. Ohitura da gure elkarteen artean bisitari guztiei abegi egitea, arreta eta edaria eskainita; baina huts bat gertatu zen antolakuntzan eta ez genuen ateratzerik izan Umore Onari merezi duen bezalako ezagutza eta abegi egitera. Hona hemen nahi gabeko akatsaren aitortza, eta halako egoerak saihesteko neurriak hartzeko gure asmo sendoa* (*Diario Vasco*, 2010/01/28).

Bistan da bisitatutako elkarteak beste taldeari harrera ez egiteko arrazoiak argi eta garbi agertzeko desioa, interpretazio okerrik egin ez dadin. Ez dugu ahaztu behar ateak ixteko kasu batzuen arrazoia ez dela logistika hutsa, danborrada bati muzin egitea baizik. Izan ere, danborraden arteko harremanetan alderdi baikorra eta taldeen arteko onespen eta sinpatiazko keinuak nagusi diren arren, muzin egiteko ekitaldiak ere izan dira; adibidez, Sheshenarenari halakoak egiteko mehatxua agertu zuten Alde Zaharreko danborrada zenbaitek, protesta gisa, 2013an (*Diario Vasco*, 13/01/19), eta, jakina, Kresalari 1980ri egin zizkioten ezentzunak eta ezikusiak.

Ateak ireki ala itxi lehendabiziko danborrada mistoari?

1980ko urtarrilaren 20an, goizeko zazpietan, lehen aldiz emakume batzuk irten ziren kalerik kale Sarriegiren musika interpretatzen ari zirela, apain jantzi eta danborrada baten partaide. 25 urketari batu zitzaizkien danbor-jole eta upeldunen lerroei, ia 4.000 sukaldari eta soldadu artean (*La Voz de España*, 1980/01/19). Kresala elkartetik atera zen lehendabiziko konpainia mistoak mugarriarena egin du Danborradaren historian. Suilak jo eta jo, goizaren lehen argitan zihoazen Alde Zaharrean lehendabiziko urketari haiek. Sekulako aurrerapausoa emakumeek donostiarren festa handian aktiboki eta berdintasunez parte har zezaten. Mugarria, haatik, ez zen ika-mikarik gabe eraiki.

Lehen ibilbidean zehar, danborrada mistoak itxi-itxiak topatu zituen Alde Zaharreko soziedade batzuen ateak. Ez zuen ordutegiak zerikusirik, aurreko urteetan gizonezkoen Kresalaren danborradari bai egina ziotelako harrera beroa. Zakarkeriazko keinu bat zen, elkarte haiek emakume suildunen partaidetzari egiten zioten ukoa nabarimen adierazi nahi zuena, tradizionalki gizonek baino egiten ez zutena aldarrikatzearren.

Ez omen zitzaien askorik axola emakumezkoen janzkera eta justifikazio historikoa, areago, mitikoa, bilatu izana parte hartzeko; desfilatzeko Udalaren baimena lortu izana, hain gutxi. Hogeita sei soziedade gastronomikok "tradizioa" zerabilten hitzetik hortzera, partaidetzaren aurka azaltzeko (hemen azaltzen da argi eta garbi halako argudioen erabilpena, goian aipatzen genuena). Tradizionalistenek eta gizonen esklusibazko protagonismoaren garaia joana zela pentsatzen zutenek bazuten eztabaidagairik. Alde biek beren jarrerak defenditzen zituzten:

> *Donostiako soziedade herrikoiek gure desadostasunik behinena agertzen dugu Kresala elkarteak San Sebastian egunean helduen danborrada misto bat ateratzeko asmoaren aurrean. Aldebakarreko jarrera hau orain arte danborradek agertutako tradizioaren aurkakoa dela uste dugu, eta hartaz baliatzen dela mistifikatzeko. Donostiako herriaren tradizioak errespeturik handiena merezi duelakoan gaude* (*Deia Gipuzkoa*, 1980/01/15).

Veintiséis sociedades populares, contra la tamborrada femenina

Veintiséis sociedades populares han hecho público un escrito en el que muestran su disconformidad con la participación de una compañía femenina dentro de la tamborrada de Kresala, el día de San Sebastián.

El escrito dice lo siguiente:

"Las sociedades populares de San Sebastián mostramos nuestra disconformidad absoluta ante la postura de la sociedad Kresala de sacar una tamborrada mixta de mayores el día de San Sebastián. Consideramos que esta postura unilateral va contra la tradición llevada por las tamborradas hasta ahora, además de aprovecharse de ella para mixtificarla. Creemos que la tradición del pueblo de San Sebastián es merecedora del máximo respeto".

Firman las siguientes sociedades: Vasconia Gure Txokoa, Amaikak-Bat, Donosti Gain, Ategorrieta, Kondarrak, Esperanza, Olagorra, Donosti, Aizepe, Koñoyetan, Lagun Artea, Istingorra, Euskal-Billera, Ur Kirolak, Eiztari-Etxea, Konportari, Gaztelubide, Ilunpe, Goi-Alde, Peña Taurina Antiguo, Itxas-Gain, Zubi-Gain, Herrera, Gaztelupe y Peña Anastasio.

● *Señalan que va contra la tradición.*

CAT: No comment

Nos hemos puesto en contacto con el CAT, donde se nos ha señalado que no va a haber posicionamiento sobre el tema: "Todas las opiniones son muy respetables, pero nosotros ni entramos ni salimos en el tema. De todos modos, creemos que no debe estropearse el ambiente donostiarra por un tema como este".

23. Danborrada mistoaren aurkako soziedadeen eskutitza. Iturria: *Deia*, 1980/01/15

> *Irten behar genuen. Erabakia genuen, nornahik zernahi eginagatik ere. Eskubide berbera genuela uste genuen eta ez gintuen ezerk ere atzeraraziko. [...] Tradizioak herriek egiten dituzte, eta herriak gizonek eta emakumeek osatzen dituzte. Tradizioek, baita folklorikoek ere, eboluzionatu egiten dute eta gure jai herrikoietan gero eta presentzia eta partaidetza handiagoa dute emakumeek. Tradizioak aldatu behar badira, denen onurarako egiten da. Zaila da pribilegio eta protagonismoari amore ematea. Izan ere, lehenago Danborrada itxitako esparrutzat zuten donostiar asko eta askori parte hartzeko aukera zabaldu zitzaien* (Kresala, data gabe, argitaragabe).

Beren burua tradizio mugiezinaren gordezale izendaturik-edo Alde Zaharreko soziedade batzuek konpainia mistoari "ate-danbatekoz" muzin egin zioten arren, aitzindari gazteek ez zioten tematzeari utzi, eta Kresalako danborradak urtarrilaren 20 hartako goizeko zazpiak eta laurdenetan ekin zion ibilbideari: "Danborradak hiru ordu iraun zuen, zehatz-mehatz, eta publikoak begi onez ikusi zuen emakumeen presentziaren berrikuntza. Ziztu bakan batzuk (jostaketan ziruditenak) irteeran eta komentario ozen pare bat Abenidan. Baina hura hutsaren hurrengoa zen goizaleek (eta batez ere gaupaseroek) Kresalako danborradari, emakumeak eta guzti, eskaini zizkioten txalo zaparraden aldean" (*Deia Gipuzkoa*, 1980/01/22).

Hala, bada, liskar giro hartan, goian aipatu ditugun keinuak bestela erabilita, kontrako esanahia azaltzeko mezua helarazi zuten; hain zuzen ere, "ateak ixtea" irudikatu zuten, edonon eta edonoiz esanguratsua bada ere, Danborradarenean are esanguratsuago gertatzen zena. Halatan, garbi baino garbiago adierazi zuten irmo eusten ziotela festaren protagonista hutsak izateko pribilegioari, ordura arte gizonezkoek beste inork ez zuen hari, eta Donostiako emakumeekin batera partekatzearen guztiz kontra zeudela. Danborrada eraberritu haren zilegitasuna aitortzeari uko egiten zioten, erabat, ezin hartu zutelarik, upeldunen artean emakumeak tartekatu zituelako, besteak bezalakotzat, besteen berdintzat.

Urte hartatik aurrera, aldiz, emakumeen partaidetza aktiboak ez dio handitzeari utzi, gero eta danborrada gehiagotan, eta oro har Danborradan, mugimendu geldiezinean. Aurkako korronte bat egon bazegoen ere, aitortu beharra dago aldeko jarrera ere bazegoela, gizartea aldatzen ari zela, eta, harekin batera, jaia ulertzeko era. Danborrada misto berriak ez ezik, danborraden arteko ezagutza-keinuak, eta herritarren aldetiko ongietorriak auzoetako kaleetan, festa egiteko modu berria indartzen ari zirenak: "Danborradan emakumeek parte hartuta, tradizioa primeran mantentzen da, indartu eta guzti, nik uste. Pixka bat aldatu genuena gizartea bera izan zen, eta haren baitan ematen diren kontzepzio erreakzionarioak. Hau beti izaten da aurrerapauso bat...", zioen Cristina Belokik (*La Voz de España*, 1980/01/18).

Emakumeek Danborradaren historian izan duten pasarte honek eragiten digun gogoeta honako hau da: beharrezkoa izan zela haustura bat orduko festaren botere faktikoekin zirenekiko -garai hartan ez zegoen gaur egun dagoen antolakuntza-. Zorionez, egoera hobetu da. Hala ere, oraindik orain lan egin beharra dago erabakiak hatzeko moduan daudenek ez dezaten oztopa festa berdintasunaren parametroen baitan gauzatzea, edo hobeto, hartara lagun dezaten.

30 urte luzeren ondoren, gero eta emakume gehiago joaten dira kalerik kale, plazarik plaza, auzoetan, Donostiako bazter guztietan arradaka. Lehen aldiz aitzindariek kaleetan zehar abiatzea erabaki zutenez geroztik, ate asko zabalik dago, bai eta 1980ko hartan itxita geratu ziren asko ere. Hori berri ona da, berri ona denez.

6. atala

Urtarrilak 20. Ibilbideak egunsentitik gaueko azken ordura arte

Hilaren 20ko goizeko zazpietan bildu da Antiguoko Gazte Danborrada diana jotzera. Espaloietan, publikoa -gaztea, gaupaseroa- jauzika ari da konpasean, jai giroan, parrandan, martxan... Danbor nagusiak bi martxa zuzendu eta gero makila neska bati pasa dio, hori ere soldaduz jantzita, eta harekin txandaka dabil zuzendari lanetan. Biek ala biek 26 urte dituzte eta 30 bete orduko danborrada utzi beharko dute; horregatik, geratzen zaizkien urte apurretan rola partekatzea erabaki dute. Danborrarien uniforme gorri-urdin dotorea daramate. Emakumeek gonatxo zuri bat ere janzten dute galtzen gainean, eta larruz forratutako gorroa. Upel kaboarena emakumezko batek egiten du, gizonak sukaldariz eta emakumeak urketariz zuzentzen dituela, konpainiak danborrada ixten duelarik.

Egun osoan aurkitzen dira bitasun ospetsuan oinarritutako danborradak kalean gora eta kalean behera joan-etorrietan joka; izan ere, Danborradak kaleen okupazio publikoa eta intentsiboa dakar. Auzo gutxi eta eguneko ordu gutxi dira isilik egoten direnak. Danborrek ez dute hotsa mututuko San Sebastian eguneko azken orduko azken segundoetaraino. Goizak aurrera egin ahala, gaupaseroen ordez senideek, bizilagunek, adiskideek hartzen dituzte espaloiak kaleetan doazen danborrada askori laguntzeko; zain daude, halako tokitik noiz pasako; edo musikaz gozatu egiten dute gerizperen batean.

Publikoaren begiradapean, danborradak kalerik kale dabiltza, egitekoa albait hoberen egin nahian, ibili ere. Kide guztiak ahal duten onena ematen saiatzen dira; alabaina, ez da gauza bera espero desfilea osatzen duten rol guztiengandik. Rol bakoitzarengandik espero dena ez da berdina izaten, eta diferentzia horietan generoak kutsatutako igurikipenak isla daitezke, edo behintzat praktikan islatu egiten dira; areago, sarritan arau tazituak badaude, emakumeek eta gizonek integratzeko eta parte hartzeko moduari eragiten diotenak.



6. Taula. Danborradako desfileetan aurki daitezkeen konbinazio batzuk.

Zer espero da emakume (danborrari) batengandik?

Ia-ia, danborradak adina parte-hartze modu aurki dezakete emakumeek; baina danborrada askotan iraun diraute emakumeen berdintasunezko partaidetza mugatzen edo oztopatzen duten moduak. Zorionez, badira gizonek eta emakumeek musika-tresna berdinak jotzen eta postu berberak okupatzen dituzten formazioak ere. Beste batzuetan, aldiz, emakumeek bereizitako konpainia bat eratzen dute, non kopurua betiere gizonezkoena baino gutxiagokoa den;

eta beste batzuetan, gaur egun gutxitan, banderadun edota kantinera beste rolik ez dute izaten emakumeek.

Banderadunarena adibide ona da rol zehatz batzuei omen dagokienaz espero dena aztertzeko. Gaur egun, lehenago aipatu bezala, emakumeentzako postu bat izan ohi da, emakume gazte, sarri gaztetxoentzako, nahiz eta, Danborradari dagokion orotan bezala, salbuespenik ere baden. Normalean, beren danborradako beste emakumeengandik bereizten duen uniformea jantzi ohi du, salbuespenak salbuespen. Elkarrizketatutako batek dioen bezala, "badirudi beti bandera daramanak begien gustagarri izan behar duela, eta ederra bada, hobe!".

25. Ibilbideetan gastadoreek lagundutako banderaduna. Argazkia: Savina Lafita

Banderadunak bere funtzioa betetzea espero da; alegia, bere danborradak bereizgarri duen bandera inarrosiz ibilbideen buru doalarik, interpretatzen duten bitartean dantza egin dezala, kideak eta publikoa girotzearren. Hala ulertzen du behintzat elkarrizketatu genuen banderadun batek: "Aurrean egon behar duzu, dantzan egon behar duzu, ikusi behar zaituzte, erdi-erdian egon behar duzu, hor aurrean. [...] Zure presentzia inposatu behar duzu: 'tokia utzi behar didazu, banderarekin nago eta', leku zabalagoa egin behar dizute". Jakina, hori guztia irribarre zabalaz egitea espero da harengandik.

Danborrada batzuetan, upeldunen artean puru bat erretzen ari den gizonik topa liteke, nahiz eta, apika, araudiaren arabera aproposena ez izan. Eta inor ez da harritzen eskuan edalontzia daramatelako, edo gorroaren barruan botila ezkutatzen dutelako, edo atorra zuri-zurian -edo soldadu jantzi dotorean- gordetako petaka atera eta eskuz esku dabilelako, gorputza ez ezik giroa ere berotzeko gailuak dira eta. Horrela, edari alkoholdunen, kearen eta arrada

burrunbatsuen erdian, konpainiak kaleetan aurrera doaz; soldaduak serioago, sukaldariak alaiago. Irudi horiek bat etortzen dira gizonekin eta betetzen dituzten rolekin, baina nekezago emakumeenekin.

Zeren eta, emakumeak danborradan agertzea gero eta arruntagoa den arren, oraindik orain bestelako jarrerak espero baitira haiengandik. Postu berbera okupatuagatik ere, sexuen arteko aldeak badaudela, edo egon beharko luketela, oraindik ere nagusi da askoren pentsaeran. Haien jarrera gogorrago epaitzen da, elkarrizketatutako batek esandakoaren ariora: "dibertitzeko edo zurrut egiteko tenorean, emakumeei seriotasun handiagoa eskatzen zaie, eta emakume mozkor bat ikustea gizon bat baino okerragoa delako ustea zabala da".

Elkarrizketatutako emakume batzuek esan zutenez, emakumeei omen darien seriotasunak "arduraren bestelako zentzu bat" dakarkie, "gizonak baino txintxoagoak izatea", eta "zentratuagoak". Jakina da emakumeen irudian kontraesanak eta paradoxak mukuru pilatzen direla. Hortaz, horrelako pertzepzioaren ondoan arras bestelakoa ere aurkitzen dugu, festa girotzea eta sozializatzea gizonek baino hobeto egiten dutelakoa. Elkarrizketatutako askok esaten dute emakumeak "saltseroak" eta "parte-hartzaileak" direla; hau da, gizonena baino partaidetza aktiboagoa, dinamikoagoa dela haiena. Afarian, adibidez, emakumeek dantza, jauzi eta kantu egiten dute, gizonak eserita jan-edanean dauden bitartean, batek esaten zuenez.

Ildo beretik jarraituta, emakume formalago eta aktiboagoaren pertzepzioaren parean, edo horrekin batera, oso gai ere ez zaiela antzematen: duda izaten da zenbait zeregin gauzatzeko edo rol batzuk, zuzendaritzakoak batik bat, betetzeko gaitasuna ote duten. Horrelako pertzepzioaren ondorioz, emakume batek danborrada bat zuzentzen duenean, gizonek egin ohi dutenean baino zorrotzago aztertua izan ohi da.

Elkarrizketatutako emakumezko danbor nagusi baten hitzetatik ondorioztatzen da begi zorrotzagoz epaitzen dela emakume baten zuzendari lana gizon batena baino: "Jendeak xeheago behatzen nau emakumea naizelako. Nola ez naizen mutila, danbor nagusiarena egiten dudanean, bada, ea ongi ala gaizki egiten ote dudan. Honela begiratzen didate: 'ea zer moduz egiten duen' esanez bezala". Zentzu bera dute "emakumea izateko, zeinen ongi zuzentzen duen!" bezalako komentarioek.

Dena den, elkarrizketatu genuen gizonezko baten aburuz, sexuak ez du zerikusirik ongi zuzentzearekin: zuzentzen jakitea, gehiago da, "odolean eramaten den zerbait", eta postu hori betetzeko garrantzizkoena "ez da emakume edo gizon, ona izatea baizik, erritmoaren zentzua, musikarako belarri ona izatea. Ez du sexuarekin zerikusirik batere". Danborrarien familia bateko emakumezko danbor nagusi baten kasuan, "herentziatik datorkiola" entzun dugu. Halako komentarioek bi gauza adierazten dizkigute: batetik, emakumeak gizonak bezain kapazak direla zuzentzeko; bestetik, halako gauzei buruz oraindik orain

azalpenak eman beharra badagoela, danborrada zuzentzen jakitea pertsonen sexuari dagokion zerbait balitz bezala.

Kontua da emakumeen gaitasunei, ezaugarriei edo agertu beharreko jokabideei buruzko ideiek bat egiten dutela Danborradan bete beharko omen luketen rol eta tokienekin. Talde bakoitzak bere erara integratu ditu emakumeak, zer egin dezaketen eta non egon daitezkeen erabaki du. Halatan, bada, danborrada guztiek ez dute planteatzen emakumeek eta gizonek berdintasunez parte har dezaketenik; izan ere, batzuek oso kopuru mugatuan eta zeregin mugatuetan txertatu dituzte emakumeak, edota gizonengandik bereiz, postu eta toki zehatzetan. Azkenik, azpimarratu behar dago, ezein danborradak bere burua sexistatzat hartzen ez badu ere, berdintasunaren aurka dagoela inoiz adieraziko ez balu ere, oraindik bizirik dirauela "emakumeak ongi daude, baina ez nire danborradan" laburbil litekeen ideiak. Edo, elkarrizketatutako gizon batek, txantxetan esanagatik esan egin zuen bezala: "gero eta gehiago izango dira, gauza guztietan bezala, eta azkenean emakume gehiago izango dira gizonak baino, toki guztietan bezala, eta agintzen, gainera!" Holako komentarioak, non beldur moduko bat txantxaz mozorrotzen den, arruntak dira.

Ez da inoiz inongo danborradan gizonen bazterketa planteatu auzo zehatz batetik etortzeagatik, edo sorterriz kanpokoa izateagatik, edo jatorri etniko eta larruazalaren kolorearengatik, edo adinarengatik (behin heldua izanez gero) edo bestelako ezaugarriengatik, gizon direlako hain gutxi! Zergatik behar luke ezein danborradak, bada, nolabait kontrolatu eta zaindu hiriko festan hiriko biztanleen erdiaren partaidetza, emakumeena? Zergatik harritu behar luke haiek zuzen eta txukun jarduteko duten gaitasunak? Zergatik sortuko luke inolako beldurrik haien presentzia normalizatuak, hots, rol guztietan eta toki guztietan jarduteak?

Ziur aski, orain kaleetan banderak inarrosten, upelak, suilak, danborrak jotzen eta noiz edo noiz danborradak zuzentzen dituzten emakumeak ikusten dituzten neska-mutilek bestelako pertzepzio bat izango dute. Haien esperientzia duela hamarkada pare bateko neska-mutilek izan zutena ez bezalakoa da, eta gero eta gutxiago egingo zaie deigarri emakumeak agertzea hau eta hori eta hura egiten, eta rolei atxikitako igurikipenak ere aldatu egingo dira; izan ere, jadanik aldatu egin dira.

Emakumeak publikoan

Danborradaren barruan ez ezik, emakumeen partaidetzak publiko gisa ere izan du eboluzioa, eta ez nolanahikoa. Gaur egun inork ez luke galdetuko zenbat neskato, neska eta emakume irten den kalera danborradak ikustera, edo afaltzera, edo lagunartean egotera. Alabaina, ikusle gisa ere deigarri egiten zen emakumeen partaidetza.

LA VOZ DE ESPAÑA — 20-I-1966

BRILLANTE JORNADA DE AMISTAD ENTRE CATALANES Y DONOSTIARRAS EN LA VISPERA DE SAN SEBASTIAN

Extraordinaria animación en la tradicional tamborrada

Los que no vieron la tamborrada

26. *La Voz de España*, 1966/01/20

Kronika batean emakumeak danborradan parte hartzen hasteari "irrupzio" zeritzoten: "era sola y exclusivamente para los hombres (...) pero poco a poco fue filtrándose la mujer con esa su reconocida habilidad para situarse" (*La Voz de España*, 1957/01/20). Eta hori, publiko gisa ari zela! Dena den, gutxienez XX.eko 80ko hamarkadaz geroztik, festaz gozatzen duten koadrilen eta familien partaide dira emakumeak, eta kalean dabiltza lasai asko danbor soinuei txalo eginda. Denboraren poderioz publikoa bera ere gero eta zabalago eta gero eta anitzago delako.

Danborradaren jatorrietatik, emakumeak kalean egoten ziren, lehenik, sokamuturrari begira; geroago, festa aldatu eta osatu ahala, baita Sarriegiren

doinuei adi ere. Frankismoa izan zen emakumeen irteerak eta oro har partaidetza publikorako aukerak murriztu eta mugatu zituena. Harrez geroztik urte asko iragan dira eta gizartea eta festa ikaragarri aldatu dira. Emakumeak gaur egun festaren partaide aktiboa dira, baita publiko gisa ere.

Ez da atzendu behar danborradak, kalez kale dabiltzalarik, ez doazela parranda hutsean, zentzu sakonago bat ere badutela. Jai egiteaz gain, danborradek eginkizun bat betetzen dute auzoan, eta gainerako herritarrekiko harremanak estutzen dituzte. Danborrada publikoak ere parte hartzen duen antzezpen bat, eszenaratze bat eta erritualtze bat delako, esanahi sozial mamitsua duelako.

Publiko mota, eta kopurua, denetarikoa da, tokiaren eta orduaren arabera. Alde Zaharra bete-betea egon ohi da, auzo gero eta urrutiagoetan gero eta jende gutxiago aurkitzen den bitartean. Ordutegiak ere eragin handia du, eta ordu batzuetan, Alde Zaharrean eta Erdialdean ere, kale ia hutsak topatzen dituzte danborradek. Batzuetan publiko zabala eta sarria da, batez ere danborrada oso sustraituak edo baliabide ugarikoak edo "geldialdi bereziak" ikusteko. Beste batzuetan, publikoa ia halabeharrez topatzen da danborradarekin. Nolanahi dela ere, danborradek ez dute amore ematen. Kideek, ongi pasatzeaz gain, funtzio bat betetzen dute auzoan. Elkarrizketatutako batek esan zuen bezala: "Inportanteena jotzea da". Eta jotzea "auzoari bizitasuna ematea" da, hiriko festan integratzea.

Jendetza izan, lagun bakanak izan, publikoaren eta danborraden artean hainbat harreman mota ezartzen da: elkarri animoak eman, elkarri lagundu, estimua sentitu, auzo bereko eta hiri bereko kide gisa identifikatu. Asmoa da "jendeak disfrutatzea", "herriak festaz gozatzea"... Elkarrizketatu ditugun danborrarien artean horrelako komentarioak ugariak dira. Horren trukean, hauxe espero dute: "jendeak begirunez edukitzea", "ongi ikusiak", areago, "miretsiak" izatea, merezimenduak, seriotasuna, eusteko gaitasuna, ezaugarriak edo berezitasunak, auzoa girotzeko ekarpena, jendeari eskaintzen dioten errepertorioa eta zabaltzen duten alaitasuna aintzat hartzea.

Emakumeen partaidetzaren eboluzioa, baita publiko gisa ere, gure gizartearen aldaketen isla dira; hain zuzen, danborradek, eta bertan emakumeek, hiritartasuna, "auzokidetasuna" egiteko duten balioarena. Hamarkadak dira honezkero teoria feministaren baitako eztabaidek jorratu dutela espazio publikoen eraikuntzan emakumeek duten garrantzia, gizartean haien integrazioa eta partaide gisa jokatzen duten papera neurtzeko balio duen heinean.

Danborradek auzotasuna eratzen dute

Espazio publikoa fisikoki okupatzen duen festa bat da Danborrada, bere soinuekin batera poza eta koloreak hiriko bazter guztietaraino hedatzen dituelako;

baina sinbolikoki eta sozialki ere okupatzen du espazio publikoa. Espazio publikoa okupatu eta eraikitzeko prozesuaren eta danborraden arteko lotura ulertzearren, jakin behar da danborradek auzokoetako sare sozialak dinamizatzen dituztela, gehienetan bizilagunen arteko dinamika batean eratzen direlako, festa bitartean ez ezik, baita lehenago eta geroago ere. San Sebastian egunean bertan auzoa girotzen dute: "bizia ematen diote", "jendea biltzen dute", "paseatzera ateratzen direnen zirkulazioa" bideratzen dute, elkar topatu eta agurtu egiten dutelako, elkarrizketatutako batzuek esandakoaren arabera. Areago, beste batzuek diotenez, "auzoan giroa sortzen" laguntzen dute, harremanetarako eta nortasuna partekatzeko espazioak eraiki ahala, auzoan eta auzotik "taldea osatu" ahala: "danborradarengatik agurtzen zara auzoko jendearekin, igual lehenago ezagutu ere ez zenuen jendearekin. Auzoa egiten du". Danborrada jaioberri baten kasua adierazgarria da, oso:

> *Danborrada Loiolako Erriberako Auzo Elkartearena da, eta nola auzo berria zen eta hemen denak berriak ginen, bada, 2009an Auzo Elkarteko jendeak pentsatu zuen danborrada bat jartzea, batez ere pixka bat integratzeko. Ze... zu auzo batean bizi zara eta zeure familia daukazu; baina auzo honetan denak gara berriak.*

Danborradaren bidez instalazioen edota zerbitzu publikoen erabilera ere zabaldu zen, eta horrek lagundu egiten du sustraitzen, espazio publikoak bere egiten errazten duen heinean: "entsaiatzen dugun kultur etxea geure egiten dugu", elkarrizketatutako batek esaten zuen bezala.

27. Ikastetxe baten belaunaldiarteko danborrada bat patioan joka, auzoko kaleetara abiatu aurretik, 2013/01/20. Argazkia: Xabier Kerexeta

Danborrada bakoitzak egiten duen ibilbidea bera ere inportantea da, danborrariek elkarrizketetan behin eta berriro azaltzen zutenez: "batu" egiten du, "integratu". Toki batean edo bestean "buelta bat ematea" hainbat motiborengatik

egiten da: “hila geratu den zona bat animatzea”, “auzoko bazter guztietaraino ailegatzea”, “auzoko parte batzuk integratzea ibilbide berriak eginda”. Honek guztiak berebiziko garrantzia du; adibidez, auzoa bitan banatzen duen saihesbidea zeharkatzen du Amara Berriko danborradak, batzuetan kuestionatu izan den auzoaren batasun bat indartu nahian. Beste auzo batzuetan danborraden ibilbideak alderdi zehatz batzuetan pilatu dira; horregatik, danborraririk gabeko zona batzuek animatzeak balio handia du, eta hala egiten du, adibidez, Bera Berako danborradak.

Badago batzeko beste era bat ere; esaterako, nolabait itxita edo hiriko festatik at geratzen diren toki batzuk bisitatuta: ospitaleak, erlijiosoen ikastetxeak edo zaharren egoitzak eta antzeko instituzioak. Kasu askotan barruan jotzen da, kaleko burrunbada barneratzeko asmotan, bertan daudenek ere bat egin dezaten festarekin eta hiriarekin, bazter egotetik mamian egotera iraganaraziz.

Jai inklusibo bat hiri inklusibo batentzat

Festak ordena soziala antzeztu eta, nolabait esateagatik, berreditatu egiten du. Orain arte, baiezta daiteke donostiar gizartearen parte handi batek, hain zuzen Donostia Festak departamenduaren erroldan izenemandako danborradetan parte hartzen dutenek, elkarbizitza errazten duten halako harremana eta jokabideak markatzen dituzten arauak betetzeko asmoa agertzen dutela. Goian esan bezala, danborraden artean “ez dago istiluak sortzeko gogorik”, alderantziz baizik, elkarrekin egotearen alde egiten da; eta hori ere antolakuntza sozial bat, herritarren jarraibide bat, indartzeko modu bat da.

Gero eta gehiago, gizartearen hainbat eragile ahalegindu dira Donostia espazio sozial berdinzale eta barneratzaile gisa erakusten. Lehen, danborradek patroiaren eguna ongintza-ekitaldiak eta antzekoak egiteko baliatzen zuten. XX.eko 60ko hamarkadan, Zorroagako Miserikordia Etxeko neska-mutilak donostiar familien etxeetan bazkaltzera gonbidatuak ziren, Haur Danborradaren ondoren. Elkartasun nahia ez da desagertu, eta gaur egun danborrada askok gizartekintzari loturiko ekimenak gauzatzen dituzte; hala nola diru-bilketak, kausa zenbaiten babesa, sentiberatasuna areagotzeko kanpainak, gizarteratzeko ekintza bereziak, eta abar. Adibide pare bat: San Rafael Itsuen Ikastetxeak 2011n diru-dohaintza bat jaso zuen urtero hara jotzera joaten den danborradako kideen bitartekaritzaz; 2013an, Erdialdeko Danborraden Elkarteak laguntza atondu zuen Dravet sindromeak jotako pertsonen alde.

Eskaut Giaren danborradak “izaera sozialeko” zentro zenbaitetan geldialdiak egiten ditu. “Danborradek, behintzat jatorrian, elkarteen egoitzetan geldialdiak egiteko ohitura badute, gureak GKEen ibilbidea egiten du”, azaltzen zuten danborrada haren antolatzaileetako bik duela urte batzuk (*Diario Vasco*, 2007/01/10). Izan ere, danborrada hau izan zen gurpildun aulkian doazenak

integratzen lehenak. Ezbairik gabe, berdintasuna eta integrazioa praktikara daraman taldearen eredu dugu, eta harro aitortzen dute: "gurea da misto sortu den eta ezgaitasun psikiko edota fisikoak dituztenak baztertu ez dituen lehen danborrada. Mundu guztiari zabalik dago" (*Diario Vasco*, 2007/01/10).

Danborrada batzuk ahalegintzen dira zabaltzen eta lehenago bertako lerroen artean egoterik ez zuten pertsonei leku egiten. Halatan, festa mundu guztiarentzat irekitzen ez ezik, hiriaren aniztasuna jaian irudikatzen ere laguntzen dute. Irekiera honek ekarri du, adibidez, beste nazionalitateetako kideak txertatzea, gazte danborradak sortzea, belaunaldiartekoak, jubilatuenak, gorrenak, edo bestelako gaitasunak dituztenekin lanean diharduten erakundeekin harremanak ezartzea, ahal duten neurrian festan parte har dezaten. Esan beharrik ere ez dago duela mende erdiko danborradetako kideen artean ez zegoela gaur egungo aniztasunik.

Garrantzi soziala duten pertsona edo erakundeei hiriak eta oro har gizarteak eskaintzen dizkieten omenaldiak eta sariak irekiera- eta inklusio-perspektiba berrien adierazle dira. "Arrats" elkarteak, 2011n Hiritar Merezimenduaren domina jaso zuelarik, adierazi zuenez, ez zuen saria espero: "ikusezinak, inork begiratzen ez dion jendea; hala nola, presoak, prostitutak, etorkinak eta gizartetik bazter geratzeko arriskua duten beste taldeak" artatzen dituztelako (*Diario Vasco*, 2011/01/18). Domina eskuratzeak inklusioaren alde lan egindako lanarengatik herritarren esker ona jasotzea esan nahi zuen. Halakoen bidez indartzen du hiri batek bere baitan bizi diren talde eta pertsona orori toki bat bermatzen dion hiriaren irudia.

Bistan da emakumeen partaidetza eta berdintasun printzipioa berebiziko adibidea direla festa eta hiri barneratzaile bat erdiesteko herritarrak egiten ari diren eginahalean. Emakumeek gero eta espazio zabalagoa, gero eta ezagutza gehiago dute bertan. Danborradetan eta ekitaldi ofizialetan nabarmendu egiten da emakumearen figura, bai garrantzizko pertsonaia gisa gonbidatuta, bai omenaldiak eskainita, bai protagonismo handiagoko rol edo espazioak haientzat propio zabalduta. Ildo beretik, elkarrizketatutako batzuek esan zuten oso ongi sentitu zirela Konstituzio plazako Igoeran eta Jaitsieran urketari nagusien jardunaz emakumeek lortutako presentzia eta ezagutza ofiziala zela eta:

> *(Konstituzio plazakoa) nik telebistan ikusten dut, eta aurten gustatu zitzaidan, gainera, Urketari Nagusia zuzentzen egotea. Eta gero asko gustatu zitzaidan danbor nagusiarekin egin zuen dantza. Gustatu, bai, gustatu zitzaidan!*

Ekitaldi hauek guztiek hiria eta hiritartasuna eraikitzen dituzte. Mundu osoa sartzen den hiria da, denek elkarrekin partekatzen duten zerbait daukana, denak toki berekoak direla sentiarazten duena. Herritarrek, hiritarrek, gizon-emakumeek eraikitzen duten hiria, hariak lotuz, sareak ehunduz. Nola izango

da, bada, munta gutxiko kontua emakumeek danborradan eta beraz hirigintzan zeharo eta osotasunez parte hartzea ala ez?

7. atala

Urtarrilak 20, eguerdiko hamabietan. Haur Danborrada

Hilak 20 ditu, ia eguerdia da. Hamabiak noiz joko irrikatan dago jende asko, urduri. Azken ukituak uniforme, morrioi, goante, mantal, kasakei... dena txukun eta apain. Etorkizunerako argazkiak egin eta azken begirada zerura: euria egingo du? Izan ere, horixe du etsai zaharrena eta okerrena artillari britainiarrek, Frantziar Inperioko Guardiaren granadariek, mikeleteek, Gipuzkoako batailoiek, Alemaniako husarrek eta beste hainbatek osatutako armada txiki handi honek. Urtero borrokatzen dute urtarrilaren 20an, eta noiz edo noiz amore eman eta erretiran borroka-tokia utzi behar izan duten arren, aurten berriro daude tropak euriari bataila irabazteko eta garaile ateratzeko prest, hartara gogoa, entusiasmoa eta ilusioa dituztela armarik onenak.

Horrela hasten da milaka neska-mutil donostiarren egun handia, Haur Danborrada. Horrela da orain, eta aspaldi, belaunaldi asko baitira umetan gozatu dutenak, duela 80 urte baino gehiago abiarazi zenez geroztik. Helduen danborradan ez bezala, han talde bakoitza independentea eta bere kasa baitabil bere auzoan, haurrenean konpainia guztiak batu egiten dira ekitaldi handi bakarrean, Alderdi Ederren, Erdialdeko kaleetan barrena elkarrekin desfilatzeko. Koordinatua dago, bada, antolamendu bakarrean, eta duela gutxi arte janzkera militarrak baizik ez ziren baimentzen, hainbat soldadu-konpainiatan, gaur egun 50 baino gehiago. Multzo erraldoiaren zuzendari, danbor nagusi bat, ohorezko beste hainbat kargurekin batera ikastetxeetan zozketaz neska-mutilen artean hautatua.

Ekitaldiaren abiapuntuan, Udaletxeko erdialdeko balkoira igotzen dira figura gailen horietako batzuk: jenerala, laguntzailea, Easo Ederra, damak eta danbor nagusia. Handik agurtuko dituzte alkatea eta partaide guztiak. Eguerdian, danbor nagusiak San Sebastian Martxa zuzenduta, danborren oihartzunak espazioa betetzen du. XXI. mendeko Danborrada da, jatorrian abiatu zen hura ez bezalakoa.

Lehenengo Haur Danborrada 1927ko urtarrilaren 20an atera zen, Euskal Billeraren eta orduko presidente Mauricio Etxanizen eskutik. Lehendabiziko urte haietan parte hartu zuten gehienak bazkideen seme-alabak eta Parte Zaharrekoak ziren, eta handik berehala zabaldu zen parte hartzeko aukera auzoko beste umeei, elkartearekin harremanik izan gabe ere. Gerra Zibilaren ondoriozko etenaldiaren ondoren, 1943an berriro ateratzeari ekin zion, salbuespenak izan arren; adibidez 1945ean, "egiteko baimena eskatu ez zutelako", 1950ean "antolatzaileen borondateaz beste arrazoiengatik" (*La Voz de España*, 1950/01/20), edo eguraldiarengatik. Salbuespenak salbuespen, urterik urte, San Sebastian eguneko hogeita lau orduen erdigunean, herritar gazteenek bat egiten dute ospakizunarekin jo eta jo.

Euskal Billeraren danborrada txikia protagonismoa irabazten eta jaien barruan garrantzizko ekitaldietan parte hartzen ari bazen ere, 1960an garaiko prentsak argi eta garbi uzten zuenez, "jasa" galtzen ari zen, hots, dotorezia,

denboraren poderioz uniformeak maiztuak zeuden eta. ETZaren laguntzari esker, distira irabazi zuen berriro ere: "Y en estrecha colaboración de ambas entidades se quiere dotar a la tamborrada infantil de Euskal-Billera no sólo de la brillantez que antaño tuvo, sino superarla en cuanto sea posible" (*La Voz de España*, 1960/01/19). Hortaz, urte hartan danborrarien kopurua bikoiztu egin zen, 40 izatetik 80 izatera iragan baitzen, eta zaldizkoak ere batu zitzaizkion desfileari, Donostiako Real Sociedad Hipicaren laguntzaz.

Aldi berean, garaiko prentsak adierazten zuen Danborradan hiriko haur "guztiak" ordezkatuak egoteko desioa, eta "hartara, San Martzial Alardearen antzera, Danborradan ikastetxe bakoitzak bere konpainia izatea nahi dugu" (*La Voz de España*, 1960/01/19). Harrez geroztik, ikastetxeen laguntzaz konpainiak sortu zituzten, eta Haur Danborrada nabarmen handitu zen partaideen kopuruan. Gizarteak hazkunde hura begi onez ikusi zuela lekuko, erakundeek eta partikularrek dohaintzaz emandako diru-laguntzaz ordaindu zen uniformeen gastua. 60ko hamarkadaren bukaeran, haurren desfilea, jaiaren ikusgarrienetako eta koloretsuenetako bat izateaz gain, igurikipen handien sortzen zutenetako bat ere bazen.

Non dira neskak?

Historia labur honetan argitu beharra dago Haur Danborrada mutikoen esparrua zela. Zergatik? Erantzun oso bat emateko, alor batzuk luze-zabal jorratu behar dira.

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da Haur Danborradak helduenak baino askoz eite eta egitura militarragoa hartu eta garatu zuela. Javier Sadaren hitzetan, "lehendabizikoa hala izan zelako da hain militarra", zeren eta, kronistak dioenez, Euskal Billerako hasierako danborrada hartan umeek jantzi zituzten arropak itxura militarrekoak izan baitziren, eta apainduraren apainduraz frantsesen uniforme bilakatu zituzten. Handik aurrera, hurrengo konpainiek ordura arte izandako eredu bakar hura imitatu zuten; areago, janzkera militarrari egindako proposamen alternatibo bat edo beste atzera bota zen (2013/05/15eko elkarrizketa).

Azalpen hau alboratu gabe ere, kontuan hartu behar da garai hartako errealitate sozialak nolako eragina izan zezakeen Haur Danborradan, batik bat 1960-1961etik aurrera ikastetxeen partaidetzaz handitzen hasi zenez geroztik. Nekez ahantz daiteke Danborrada hura frankismoan jaio zela; hots, hark ezarritako gizarte oso hierarkiko eta tradizionalean. Hierarkia bizimoduaren maila guztietan hautematen ahal zen, jakina hezkuntzaren esparruan, baina baita jaiarenean ere. Gogora dezagun frankismoaren hezkuntza eredua oso-oso diziplina gogorrekoa zela eta hezkidetza ezabatuta Lehen Hezkuntzatik aurrera neska-mutilak bereizten zituela, Unibertsitatean izan ezik. 1945eko oinarrizko

lehen hezkuntzaren erreformaren arabera, neskentzat hezkuntzak planteatzen zituen ikasgaiak etxearen eremurako egokiak ziren, mutilak bizimodu publikorako hezten ziren bitartean. Jakina, hezkuntza mota hura gizonen eta emakumeen arteko banaketak eta bereizketak indartzen zituen testuinguru zabalago batean ulertu behar da. Azken finean, diktadura militar baten gobernuak ezarritako gizarte bat zen.

Halako giroan, ez zen harrigarri Haur Danborradari zerion kutsu militarra ez kuestionatzea; areago, erregimenaren aldeko agintariek atseginez onartzen eta sustatzen zuten. Era berean, ez da harrigarri nesken presentzia hutsaren hurrengoa izatea, mutilek betetzen zituzten rolen aldean oso eginkizun pasiboan jarduten baitzuten. Neska donostiar guztien ordezkari bakarrak Easo Ederra bere damekin eta konpainia bakoitza laguntzen zuten kantinerak ziren. Mutilek, berriz, festa egiten zuten, kalez kale uniforme distiratsuz danborrak entzunarazten zituztelarik.

Haur Danborradaren eite martziala, janzkeran, formazioan eta kargu militarren txertaketan ez ezik, antolamenduan ere antzematen da. 1973an egunkari batean agertutako artikulu batean haurren desfilerako jarraibide eta arauak argitaratu ziren, eta merezi du erabilitako hizkerari erreparatzea, militar samarra da eta:

> *Debe enseñarse también a los participantes en la Tamborrada a obedecer las órdenes de firme, descanso, izquierda, derecha, media vuelta, al objeto de que se puedan colocar las formaciones en los lugares adecuados. La voz ejecutiva al objeto de unificarse será siempre la de "AR"* (*Diario Vasco,* 1973/01/19).

Halaber, aurreko entseguetarako, konpainien formaziorako, janzkerarako eta Jeneralak formazio osoari egingo dion errebistarako arau sorta ematen du. Nesken partaidetzari dagokionez, argi eta garbi zehazten ditu haien kopurua, papera eta adina:

> *4. Cada compañía no podrá llevar más de siete cantineras. Se recalca especialmente esta recomendación ya que no se permitirá la salida en la tamborrada de las cantineras que excedan de ese número.*
>
> *5. Se recomienda con especial interés que las cantineras deberán ser más pequeñas de lo que habitualmente vienen saliendo* (*Diario Vasco,* 1973/01/19).

Jarraibide hauek ederki islatzen dute neskek desfilearen baitan behar zuten tokia azaltzeko interesa, eta nolako trabak jartzen zizkieten beste rolik okupatzeko. Baina, era berean, hain zuzen danborrarien partaidetzari eta antolakuntzari mugak jartzeko beharrak besterik ere islatzen du: gauzak aldatzen hasiak zirela. Izan ere, hasieratik ikastetxeek sustengatzen zuten Danborrada hark

nola edo hala moldatu behar izan zuen hezkuntzan ematen ari ziren aldaketen ariora: hezkidetza eskoletara itzuli zen 1970ean, eta ikastetxe mistoak ugaldu eta Danborradan parte hartu ahala, Haur Danborradan ere neskak integratzen hasi ziren.

Sadaren hitzetan, Haur Danborradan ez zen baimentzen nesken presentzia, egon bazeuden arren. Nahiz eta desfilean errebista egin, besteak beste haien presentzia kontrolatzeko, ikastetxeek lortzen zuten "oharkabean" txerta zitezen. Debekua ez zegoen idatzia, baina praktikan funtzionatzen zuen, idatzia zegoena kantineren papera, kopurua eta adina mugatzeko araudia zelako. Hala eta guztiz ere, denboraren poderioz soldadu gisa sartu ere sartu ziren. Udalaren diru-laguntza berenganatzearren, ez zuten aitortzen hala jokatzen zutela, neskak sartzen zituztenei ukatzen zitzaien eta. Hala, bada, debeku hark indarrean zirauen azken urteetan, -80ko hamarkadaren erdialdera arte-, nesken integrazioa modu ez ofizialean eta arian-arian egiten ari zen, aurka zeudenak boteredun postuetatik desagertu ahala (2013/05/15 elkarrizketa). Eta, jakina, gero eta neska, guraso eta irakasle gehiago inkorporazioaren alde agertu ahala.

Neskek danborrei oihartzun eragiten diete

Ezbairik gabe, neska danborrarien partaidetza zabala mugarri bat izan zen. 1985eko festarako baimen hura lortuta ere, oraindik neskak zirela disimulatu behar, 1984ko azaroaren 7an ETZaren Junta Zuzentzaileak egindako bileran jaso zen bezalaxe:

> *La Junta aprueba se ensaye en este año la propuesta hecha por los centros escolares en el sentido de aceptar la participación de las niñas siempre que se oculten detalles distintivos de su sexo (pelo largo y pendientes).*

Sagrario Arrizabalagak eta Lourdes Odriozolak 2004an egindako txostenean ageri denez, urte hartarako ezagunak ziren neskak soldadu gisa ateratzen zituzten konpainiak: San Alberto Magno, Reina Mª Cristina, Santo Tomas lizeoa, eta Ekintza, Mariaren Bihotza, Zurriola eta Jakintza ikastolak. Datu zehatzik ez badago ere, pentsatzekoa da lehenago "gordeketan" edo arauz kanpo parte hartua zutelako arautu zela orduan nesken presentzia.

Garrantzizko beste aldaketa bat izan zen ile luzea eta belarritakoak "ezkutatzeko" beharra bertan behera geratu izana, nesken partaidetzari beste muga bat kentzea suposatu zuelako. Hura ere lehenago praktikan gauzatua zen, bai eta gero Danborrada funtzionatzeko eta antolatzeko arau ez esplizituetan ere. Ez dago garbi, ordea, nola gertatu zen trantsizio hura. Elkarrizketatutako andereño batek hala gogoratzen du:

"Neskek neska zirela disimulatu behar zuten: belarritakorik gabe, ilea bilduta... eta EKZn inauteri bat zela, ezin zela, behin eta berriro esanagatik [...] soldaduz joatea onartzen genuela, denak berdin, azken finean disfraz bat zelako; baina zergatik ezkutatu behar zuten neskak zirela? Ikastetxeko estandartea zeramanak ere mutila izan behar, ezin neska izan... eta abar. Harik eta urte batean, ibilbidean zihoazela, Hernani kalean, danborradaren batzordeko bat –zehatzago, bi– neskei gorroa altxatzen eta ilea askatzen hasi ziren arte. Eta halaxe lortu genuen neskak neska, ezkutatu beharrik gabe, ateratzea behingoz! Baimen ofizialik ematen ez zigutenez, bada, hartu egin genuen! Nolabait, erronka bat izan zen, EKZkoei, orduko arduradunari esatea bezala: 'orain, nahi baduzu, zoaz eta zuk atera itzazu neskak, mundu guztiaren aurrean. Erretira itzazu danborradatik!'. Eta modurik errazenean eta zalaparta handirik gabe, poliki-poliki, hasi ginen banderadun neska ateratzen, eta beno, ikastetxe guztiak, guztiak, gehitu ziren".

Sekulako aurrerapausua izanagatik, ez dago erregistraturik, ez dago zehatz datatzerik noiz hasi ziren malguago jokatzen nesken partaidetzaren alorrean. Idoia Estornések ederki aipatzen du funtsezko mugarriak oharkabean pasarazteko "joera donostiar" hau, Danborradan emakumeei dagokienez behin baino gehiagotan egiaztatu duguna: "elizan beloa eramateari noiz utzi zitzaion ahaztea bezalako zerbait da. Badakite Vaticano II.aren Kontzilioan izan zela, inguru hartan, baina inork ez du zehatz gogoratzen... baina agudo gauzatu zen" (2013/05/28ko elkarrizketa). Behin lehen pausu hura emanda, besteak eman ziren: 1987an, lehen aldiz zuzendu zuen neska batek bere ikastetxeko danborrada: Eunate Eizagirrek, hain zuzen Axular Lizeoa desfilean integratu zelarik (*Diario Vasco*, 1987/01/20).

28. Eunate Eizagirre, Axular Lizeoko danborradaren zuzendari.
Iturria: *Diario Vasco*, 1987/01/20

Hiru hamarkada iragan dira lehen neskak ofizialki danbor joka parte hartzen hasi zirenetik, soldadu jantzietan "gorderik", eta urteen poderioz gero eta protagonismo handiagoa hartu dute, hau ukaezina da. Azken aurrerapenetako bat izan da konpainia fundatzailea, Euskal Billera, misto egin dela 2004an. Gaur egun bitxia bada ere, elkarte horretako neska dekanoa, kantinerez eta Easo Ederrez gain, kapitain bat izan zen: Laura Idigoras, 1936an; baina harrez geroztik ez zuen neskarik lerrokatu danborradan. Hona hemen Danborradak, baita Haurrenak ere, frankismoaren garaian nozitu behar izan zuen inboluzioaren beste adibide bat.

Nesken presentziaren nagusigoaren frogagarri, horra kopuruak, dagoeneko gehiengo dira eta. Donostia Kulturaren datuen arabera, 2013ko Haur Danborradan nesken portzentajea %53,51koa da, eta %44,49koa mutilena, 4.766 lagun dituen desfile batean. Ez dago dudatzerik neskek aurrera egin dutela posizioetan eta beren lurraldea irabazi zutela.

Danborrada ez ofizialak

Gizartearen aldaketak islatu egiten dira, Haur Danborradaren eboluzioan ez ezik, baita beste haur danborrada zenbaiten sorkuntzan ere. Sortzeko garaian araudia betetzen ez zutelako edo bestelako arrazoiengatik, desfile ofizialetik at eta beraz Udalaren festa programatik kanpo geratzen ziren; oso talde desberdinen kezkei eta interesei erantzuna ematen zieten, baina.

1957an bat izan zen, Ibaetakoa, auzoan barrena zebilena eta hamar urteren buruan desagertu zena, nahiz eta nolabait berriro agertu zen geroago, 1968an sortutako Antiguoko danborradan. Azken honek ere gorabeherak izan zituen, baliabiderik ezean, eta 80ko urteetara arte ez zen formalizatu, eta hazteari ekin. Haurrenaren itxura baino gehiago helduena zuelako, ez zuen desfile ofizialean parte hartzerik; alegia, bazituen sukaldariz jantzitako umeak, bai eta haurrek osatutako musika banda ere.

Beste bat Altzakoa da, lehendabizikoz 1978an desfilatu zuena. Konstatatua dago neskek ere parte hartzen zutela, gonadun janzkera militarraz. Danborrada hura sortzeko argudioen artean, esaten zen ume asko ezin zela hiri-erdialderaino joan "Danborrada tradizionala ikustera, haien gurasoentzat laneguna da eta" (*La Voz de España*, 1978/01/19). Alegia, distantzia geografikoak eta arazo logistikoak konpontzeko jo zela auzoko danborrada bat osatuta, ordutegi erosoan ere atera zitekeena.

Eta beste bat Los Ángeles ikastetxekoa da, 1984an berritasun bat gehitu zuena, urketarien konpainia bat, Kresalako heldu aitzindarien harira:

Las niñas aguaderas (sic) que llevarán herradas en la mano, van a unirse a la música de los tambores y barriles en este año 1984. Fuentes de los padres de familia del centro escolar señalaban, que es a causa de esta misma figura de las aguaderas, por lo que no han podido incluirse en la parada general de los pequeños a medio día de la jornada patronal (*Diario Vasco*, 1984/01/18).

Alde Zaharreko danborrada hark bere balio eta sinesmenei heltzen zien: "Ikastola mistoa da eta neskek danborra jotzen ateratzeko gogo bizia adierazten zuten, mutilez jantzita izan beharrik gabe", zioten 1985eko urtarrilean egunkari batean argitaratutako artikulu batean (*Egin*, 1985/01/19). Hainbat urtetan eztabaidan jardun zuten ETZarekin, "discriminación a la mujer en las tamborradas donostiarras" (*Diario Vasco*, 1986/01/16) argudiatuta. Hasieran "ez ofiziala" ez baina desfile ofizialean parte hartzeko asmoa bazuen ere, 1963 eta 1978 bitartean egin bezala, soldaduz, urketariz, sukaldariz eta kantinerez jantzitako 135 umek osatutako konpainia berrituak aurka topatu zuen ETZren menean zegoen Danborradaren Batzordea. Hark zioen Haur Danborradaren oinarrietan gehienez ere 80 kide ametitzen zirela konpainiako, eta neskek ezin zutela kantinerarena edo soldaduarena beste uniformerik jantzi. Esan ere esan zuen programa ofizialean parte hartzeak Los Ángelesek betetzen ez zuen ordutegi eta ibilbidea errespetatzea zekarrela.

Batzuen eta besteen argudioez haraindi, interesgarria da azpimarratzea bigarren urterako jada aipatzen zela danborrada haren "arrakasta biribila publikoaren eta kritikaren aldetik", eta prentsan antzematen da, poliki-poliki, izaera "ez ofizialari" ez baina Danborradaren "preludioa" izateari erreparatzen zitzaiola, festan toki berariazko hura baloratuz. Eta are esanguratsuago da neskei parte hartzeko beste aukera batzuk zabaldu zizkiela.

29. Jakintza Ikastolako haur danborrada Antiguo auzoan, 2013/01/20.
Argazkia: Margaret Bullen

Badira eskolekin lotura duten arren ofizialak ez diren edota desfile ofizialean ez ezik bere auzoan ere ateratzen beste danborrada batzuk; hala nola, Katalina Erausokoa, bezperan desfilatzen duena, Amarako kaleetan; Jakintzakoa, Antiguokoetan; Zurriola eta Axular ikastoletakoak. Eta badago bestelako taldeekin, baita elkarte gastronomikoekin ere, lotutakorik; adibidez, Gaztelubide Txiki. Nahiz eta danborrada horietako asko oso-oso formalizatuak egon, edo Gaztelubide bezalako "instituzional" bati atxikiak, praktikan Haur Danborrada deitzen dugun desfile ofizialetik kanpo geratzen dira, bestelako janzkerak eta figurak txertatzen dituztelako, zein bere auzoan ibiltzen delako, ofizialaz ateko ordutegietan aritzen direlako, adin desberdinetako partaideak edo kopuru handiagoak onartzen dituztelako, eta jakina, bere garaian neskak ere ametitzen zituztelako, anartean debekatua zegoela. "Ez ofizial" sortu zirenetako batzuk bai txertatu dira desfile ofizialean, bestelako ekintza "ez ofizialak" egin ez egin; baina beste batzuek at geratzea nahiago izan dute, eta ez dira gutxi: 2013. urtean, 2.234 neska-mutil ibili ziren kalez kale halako "danborrada txikietan" (*El País*, 2013/01/14).

30. Urketarien konpainia Haur Danborradan, 2013/01/20. Argazkia: Savina Lafita

Haur Danborradaren ohorezko karguak

Haur Danborradaren oraingo araudiak honako ohorezko kargu hauek izendaten ditu: Easo Ederra eta bere damak, Jenerala eta bere Laguntzailea, aginduen kornetin-jolea eta danbor nagusia. Haien artean, danbor nagusiak protagonismo berezia du, berak zuzentzen baititu Udaletxeko terrazatik desfilean parte hartuko duten neska-mutil guztiak, Sarriegiren musika jotzen dutelarik.

31. Saioa Iranzo danbor nagusia. Iturria: *Diario Vasco*, 1995/01/21

1995ean, San José de Calasanz ikastetxeko Saioa Iranzo hautatu zuten danbor nagusi, neska bat lehendabizikoz, eta harrez geroztik neskek zein mutilek bete ditzakete Easo Ederrarena eta bere damena ez beste ohorezko kargu guztiak. Urte hartan, beste neska batzuk ere izan ziren danbor nagusi, zein bere ikastetxean; lehenagotik ere bai, baina harrez geroztik askoz normalago bihurtu zen. Hainbesteraino normaldu ezen La Asunción ikastetxeko Vanessa danbor nagusiaren aburuz eta urte gutxiko esperientziaz, "no daba ninguna importancia a que una chica dirigiera al Colegio. `En la Tamborrada no hay machismo`" (1995/01/20). Alabaina, 2013ra arte neskak ez ziren izan Jenerala eta Laguntzailea, Sara Huegun eta Sara Ochoa hurrenez hurren (*El País*, 2013/01/14). Motel bada motel, behin pausua emanda, badirudi gaur egun neskek eta mutilek berdin joka ditzaketela pertsonaia guztiak Haur Danborradan. Haatik, ez da horrela. Badaude mutilek antzezten ez dituzten ohorezko pertsonaiak: hauxe da karrozan doazen figura nagusien kasua[1].

Easo Ederra eta bere damak, neskak baizik ez dira, oraingoz behintzat. Zergatik gordetzen dira oraindik orain neskentzako figura esklusiboak? Horretarako, Easo Ederraren pertsonaiaren eboluzioari erreparatu behar zaio. Javier Sadak dioenez, aspaldi handian "inauterietako erregina" bat hautatu ohi zen: neska gazte liraina, hiria ordezkatu eta bere presentzia hutsez Donostiaren kultur edo promoziorako ekitaldiak laguntzen zituena. Halatan, bada, Euskal Billera elkarteak lehendabiziko haur danborrada antolatu zuenean, figura hura Easo Ederra izatera egokitu zuen, karroza eta guzti, eta hala mantendu da, aldaketak aldaketa, haurren desfilean (2013/05/15 elkarrizketa). Gazte "panpox" haiek lehiaketa modukoetan aukeratzen ziren, eta Euskal Billerak urte haietan antolatzen zituen oturuntzetan ere parte hartzen zuten. 1968an, Easo Ederra

1 Idazlan honen zuzenketetan gehitutako oharra: 2014an bi mutil batu dira, XIX. mende hasierako hiritarren ordezkari (*Diario Vasco*, 2014/01/17)

neskatila bat izatera pasa zen, aurreko lehiaketatik at, eta hala mantendu da, apaingarri, Danborradaren gainerako figuretatik bereiz samar:

> *La Bella Easo, Amaia Urretabizkaia, tomó el mando, y recordando a sus huestes la responsabilidad y el honor inherentes a los ropajes y tambores que llevaban, pidió orden y concierto. Tras un "¡Gora Donosti!" de la Bella Easo (espléndida en su vestido azul y blanco y muy sonriente), tomó el mando el General* (*Diario Vasco*, 2001/01/21).

Aipu horrek erakusten du nolako funtzioa betetzen duen, eta ez da ahaztu behar, gazte izan, ume izan, Easo Ederraren balioak edertasunari, jatortasunari eta dotoreziari atxikita agertzen direla. Jakina, halako dohainak ez dira gaur egun ezinbesteko baldintza, eta orain askoz demokratikoagoa da, bestelako irizpidez hautatua: zozketan esleitutako ikastetxearen gain geratzen da. Hala eta guztiz ere, badario oraindik lehengokoaren kutsua, Easo Ederrak eta damek, beren kapak, koroak eta guzti, betetzen duten eginkizuna estetiko hutsa baita, Danborradaren logika militar edo musikalaz at, zeharo at. "Miss" bailiran, irribarretsu agurtzen dute idulki batetik. Aintzat hartuta nolako jatorria eta eboluzioa izan duen Danborradak; alegia, mutilen bizkar uzten zituela militartasuna eta hierarkia eta haiei darizkien balioak, zentzukoa da pentsatzea Easo Ederra mantendu dela hain zuzen balio "femeninoak" ordezkatzen zituelako, alde maskulinoa berdindu edo osatu nahian. Beraz, garaiko genero-ereduak islatu ez ezik, indartu egiten ziren halako irudikapenekin. Urteetan eta urteetan prentsa-oharrek laburtzen dutenaren arabera, alkateak "bandak ezartzen zizkien Easo Ederrari eta haren Ohorezko Damei, eta dominak Jeneralari eta Danborradako Laguntzaileari", danbor nagusiak zuzentzeko makila jasotzen zuen bitartean (Donostiako Udala, 2011/01/18). Bandak, dominak eta makila, ezbairik gabe, osagai arrunt desberdinak dira, materialki eta batik bat sinbolikoki.

Testuinguru horretan, azpimarratzekoa da beste mugarri bat, 2012. urtean gertatua, Donostia Festak sailaren aldetiko ekimenez karroza eraldatu eta bertan beste figurak txertatu zirenekoa. Easo Ederraren Karroza izatetik, figura hura bere Ohorezko Damekin batera joateaz gain, "Danborradaren pertsonaiak ordezkatzeko Karroza" izatera pasa da, hiria suntsitu eta berreraiki zen garaiko pertsonaiak txertatu zaizkiolarik. Iruleak, batelariak, inudeak eta urketariak, eta segur aski etorkizunean pertsonaia maskulinoak, hala nola sukaldariak, arrantzaleak, alkatea eta beste, Easo Ederrari protagonismoa apalesten hasteko modu progresibotzat hartzen da, ez baitio oraindik ere ihes egiterik "miss" irudipenari. Horrez gain, emakumeak ikusgai jartzeaz aparte Donostiako bizimodu sozialaren irudi zabalago bat eskaintzeko xedea ere betetzen du berritasunak, Udalaren festetarako teknikariak dioenez (2013/11/26ko elkarrizketa). Ildo berean egindako beste aldaketa bat da alkateak ez zizkiela ezarri "bandak Easo Ederrari eta Ohorezko Damei, aurrekoetan bezala" (*Diario Vasco*, 2012/01/19).

Karrozaren barruko ohorezko pertsonaien eraldaketak mugimendu esanguratsua adierazten duen arren, zenbat eta norantz aurreratzen den aztertu beharko da. Prentsan ez da islatu inolako eztabaidarik aldaketari buruz, eta ibilbide laburra duenez gero goiz da jakiteko nola jaso duten danborrariek.

32. Haur Danborradako Karroza 2013an. Argazkia: Savina Lafita

Badago beste rol femenino bat Haur Danborradan: urketariarena. Los Ángelesen danborradarekin izandako polemikaren ondoren, ia bi hamarkada iragan dira neskak urketari jantzita irten ahal izateko desfile ofizialean. 2003an ETZak figura hori baimendu zuen, Orixe Ikastolaren proposamena onetsi zuelarik. Harrez geroztik, ikastetxe askok konbinatzen dituzte soldaduak eta urketariak beren konpainietan.

Harrobi handia

Ez dago ukatzerik haurren danborradak, ofizialak izan, independenteak izan, haiek direla festak denboran aurrera egiteko duen harrobirik onena. Jadanik belaunaldi asko dira beren herriko nortasun-errito nagusian parte hartu dutenak. Ikerketa honetan elkarrizketatutako askok, Danborrada "sentimendu" bat dela azaltzen dute, ez dute definitzeko hitz hoberik aurkitzen. Azken hamarkadotan belaunaldiz belaunaldi pasarazi den sentimendua. Horretan zerikusi handia du familiaren eragina, baina baita, eta maiz biak loturik, eskola ere.

Elkarrizketatutako bati, txikitan ere irteteko gogorik ote zuen galdetu zitzaionean, hala erantzun zuen: "Bai, bai! Beno, donostiar guztiek bezala, nik uste, ez? Ez dakit zergatik, baina guztioi gustatzen zaigu danborra jotzea". Haren semeak "badaki kantatzen zuzentzen, jotzen, dena, eta hori lau urte dituela!". Izan ere, "tripatik atera baino lehen ere" Danborradan zegoen: "ginekologoari

galdetu nion ia atera nintekeen (Danborradan) eta esan zidan: `Oso fuerte jotzen ez duzun bitartean, zeure burua gai ikusten baduzu eta gogoa baldin baduzu, bada, atera'. Leher egina bukatu nuen, baina ondo!".

Danborradaren bitartez, jai girotik askoz harago doazen balioak helarazten dira; besteak beste, gizarte integrazioa eta kohesioa dira azpimarragarriak. Adibidez, Altzako haur danborrada sortu zenekoa, kontuan hartuta ume askoren familiak kanpotarrak zirela jatorriz, garrantzizkotzat jotzen zen festan txertatzea, "gure ohitura eta jaietan sartzen eta ezagutzen" hastearren (*La Voz de España*, 1978/01/19). Ideia horrek bizi-bizirik dirau, eta elkarrizketan sarritan aurkitzen dugu donostiartasunaren eta danborzaletasunaren arteko lotura hertsia; ez halabeharrez, komunikabideek "pasioa", "harrotasuna", "tira handia" bezalako esapideak darabiltzate. Horren lekuko, alkate desberdinek Udaletxeko balkoitik urtarrilaren 20ro eskaintzen zizkieten hitz beroak, edo aspaldi honetan 19ro esaten dituztenak, Haur Danborradaren aurkezpen ofiziala dela eta. Duela gutxi, Odón Elorza alkate ohiak gogoratzen zuen: "Danborrada denok batzen gaituen festa da eta, bakeaz eta adiskidetasunaz mintzo, danbor eta upel joka doa kalerik kale" (Donostiako Udala, 2011/01/18). 2013an, "Bihar Donostiaren enbaxadoreak izango zarete Euskadin eta munduan" zioen Juan Karlos Izagirre alkateak (*Diario Vasco* 2013/01/20), hiriarekiko identifikazioa indartzeko asmotan.

Harrobi efektu honi esker ulertzen da 80ko urteetan sortu ziren helduen danborren ugaltzea, bi hamarkada lehenago hasiak baitziren fundatzaile edo behintzat parte-hartzaile haiek umetan desfilatzen. Javier Sadak dioenez, "helduen danborradak *boom* bat, jauzi handi bat eman zuen 80ko urteetan, lehenengo haurren belaunaldi hura heldu egin zen garaian" (13/05/15eko elkarrizketa). Are inportanteagoa izan zen haurren konpainian neska danborrariak txertatu izana gerora emakumeek, gazte edo heldu samar, jarraipena eman ziezaioten danborradarekiko atxikimenduari; zeren eta gero eta gehiago baitira helduen danborradetan parte hartzen ari direnak, hartara lehengo danborradak misto bilakarazi edota berriak sortzen dituztela.

Hala azaldu zuen Luisa Etxenike idazleak, 2013an Herritar Merezimenduaren domina eskuratu zuelarik:

> *Y ahora mismo, en vísperas de la fiesta de San Sebastián, veo a la niña que fui y que, como no podía salir en la tamborrada tocando el tambor –entonces las niñas sólo teníamos reservados los escasos y mucho menos apetecibles puestos de cantinera- empezaba ya a construir la convicción de que la cultura no puede existir fuera de la igualdad; ni la condición ciudadana cumplirse verdaderamente fuera de una participación activa en la vida pública* (*Diario Vasco,* 2013/01/21).

Milaka neska-mutikok desfilatzen dute ondo-ondoan, lerroz lerro elkarrekin Donostia osoan barrena danbor eta upel joka. Hiriko eta hiriaren festa handian, protagonismoa partekatzen dute.

33. Ikasten. 2013/01/20. Argazkia: Luz Maceira

Hamabiak: ordu magikoak

Hamabietatik hamabietara hamabietan barrena: halabeharrez bete-betean asmatu zuen egokitzapen koreografikoa

Jai informal bat errito bihurtzeko bidean ez da nolanahiko kontua identifikazio kolektiboa. Horretarako, norberak barru-barrutik sentitzen duenak bat egin behar du komunitateko kide gehienek elkarrekin partekatzen duten zera esplikaezin horrekin. Eta bai, oso gauza zaila da norberak azaltzea, bakoitzak bere osagai pertsonal eta familiarrak ere barne sartzen dituelako.

Baina bai, azal daiteke, osagai koreografikoak eta haien eboluzioa aztertuta, garaian garaiko testuinguru historiko eta sozialari ere erreparatzen zaiola. Izan ere, osagaiak apika halabeharrez sortu ziren, baina denboraren poderioz identifikatzaile bilaka daitezke: kolore zenbait, soinu zenbait, janzkera zenbait... bai eta denboraren eta espazioaren banaketa ere, jai/erritoaren ezinbesteko partaide baitira. Herriz herri aldatu egiten diren elementuok, guztiok ez badira guztiz gehienok, jai giroko errito guztietan behin eta berriro agertzen dira. Hain daude sakon barneratuak ezen sarritan bizi dituztenak ez baitira zehatz identifikatzeko gauza ere; baina egon badaude. Donostiarrentzat txuri-urdin esatea ez da kolore pare bat aipatzea. Donostiarrentzat gauerdi, eguerdi eta gauerdi esatea, edo hogeita lau ordu esatea, ez da ezer berezirik... non eta urtarrilaren 20an kokatzen ez badira. Orduan, aldiz, eguneroko denboraz at geratzen den tarte bat da, erlijiorik gabe ere sakratutzat jo dezakeguna, tarte horrexetan laburbiltzen delako, eta azalerazten, donostiartasuna.

Eta hori ere, Danborradaren beste hainbat ezaugarri bezala, halabeharrez sortu zen. Lagun taldeetatik eta gero soziedadeetatik sortu zirenez, elkarte bakoitzak bere bandera paratzen zuen beretzako zen erritual batean. Udalak ere bandera paratzen zuen, santu patroiaren eguna izaki. 1934an, Gaztelubide elkarte sortu berriak danborrada bat antolatu eta afalondoan arratseko hamabietan Konstituzio plazara joatea erabaki zuen. Eta berez bi ekimen desberdin zirenak, danborrada batek San Sebastian Martxa jotzea eta bandera altxatzea, batu egin ziren, espazio eta ordu berean egin zirelako. Udaletxeko banderaren jaitsiera 20ko gauerdian egiten zen... alegia, udal langile batek jaisten zuen, hasieran inolako zeremoniarik gabe, gerora Udalaren Txistulari Bandarekin.

1940an bi danborrada ateratzea baino ez zen baimendu: Gaztelubide ohiko orduan, 19ko gaueko hamabiak laurden gutxitan, eta Artesana bere ohiko orduan, 20an, goizeko zazpietan. Bazegoen oraindik Danborradaren "benetako" ordua goizeko bostak zirela zioenik, soka-muturraren iragarle, baina hainbat ordutan, baita gauez ere, saiatu ondoren, haiexek ziren tradizionalak.

Gerra ondoren Danborradari ekin zitzaionean Gaztelubidek jarraitu egin zuen toki berean, baita 1945ean Udaletxea Alderdi Ederreko lehengo Kasinora lekualdatu zenean ere. Zergatik ez? Bi ekimen desberdin ziren. Areago, 40ko urteetan Danborrada Alderdi Ederren ospatzeko saiorik egin zen, baina ez zuen arrakastarik lortu. Poliki-poliki, gerra aurreko beste danborradak gehitzen hasi ziren, zein bere ibilbidean, bai eta berri batzuk sortzen ere. Euskal Billera saiatu zen banderaren jaitsiera laguntzera joaten 1944an, baina orduan ez zitzaion baimendu (Gurpegui eta Sada, 2012: 43).

1957an, ordea, bandera jaisteko ekimenari distira eman nahian, alkateak eskatu zion Artesanari goizeko zazpietan atera beharrean gauez atera zedila, eta hala hasi zen. Artesanakoen aldatzeko argudioa? Bezperako afarietan andreak ere parte hartzen hasi zirenez geroztik gaupasa egiteari askok luzeegi zeritzola eta, tradizioan galtzen zutena ikusgarritasunean irabazten zutelakoan:

> *Por otra parte, la costumbre de antaño de acudir hombres solos a las cenas, poco a poco, ha ido cambiando: ahora la mayoría son matrimonios, lo que hace que la gente se retire antes, no quedando espectadores para la Tamborrada matinal. Lo que perdemos en tradición, lo ganamos en la satisfacción que produce al mayor esplendor de las fiestas* (Sada, 1977: 192).

Kontua da tradizioaren aldaketa onartzeak praktikan areagotu egin zuela jadanik indartzen hasitako erritualtze-prozesua, eta berritasuna berehala tradizionalizatu zen, hainbeste ezen harrez geroztik banderaren igoera eta jaitsiera bi mugarri mugiezin bilakatu baitira: Igoera eta Jaitsiera.

Era berean, Danborrada dela-eta, Udalaren eta soziedadeen arteko harreman aspaldikoa (diru-laguntzak, afariak...) estutu egin zen, eta praktikan, elkarte pribatuek antolatua izanagatik, Udalarekin koreografia partekatzeak (batak, herritar guztien bandera Udaletxe izandakoan zabaldu edo jasota; besteek, San Sebastian Martxa jota) Danborrada donostiar guztien jaitzat hartzea zekarren. Donostiartasun osoa donostiarren parte oso txiki batek ordezkatzeak ekar zitzakeen tentsioak, paradoxikoki, gutxi izan dira. Seguruenik hura guztia gaur egungo irizpide demokratikoak pentsaezinak ere ziruditen frankismoaren garaian gertatzeak ulertarazten du tentsiorik eza, eta 20 urteren buruan jaian ez zen kuestionatzen finkatutako "bi elkarteen pribilejio" hura. Dena den, ez da paradoxa bakarra, kontuan hartuta Elizak ez zuela Danborradan inolako parte hartzen, nahiz eta Euskal Herriko urteroko jai tradizional ia guztiak santu edo

Amabirjina baten omenez egiten diren, erritoak eta guzti. Non eta santu baten izena duen hirian. Noiz eta frankismo betean.

Espazioen eta denboren banaketan, donostiarrek bere egin zuten bi mugarrien arteko denbora, eta elkarte bakoitzak bere protagonismoa bilatu du, beste ordu bat lehenetsiz, edo orduak errespetatuz zeinek bere bandera bere lokalean altxatu eta beheratuz, "bere" espazioan, ekimen pribatuago edo "auzoko" bihurtutakoan. Zeren eta espazioen banaketan ere hierarkia badago: kontzentrikoki, Konstituzio plazatik Parte Zaharrera, Erdialde-Amara-Gros-Antiguora, Egia-Loiola-Intxaurrondo-Ibaetara, Bidebieta-Altza-Martutene-Añorgara... Auzoko festez gain, eta modu desberdinetan, donostiartasunak hainbat adierazpen ditu: mundu globalizatu honetan, Argentinako Necoecheatik hango orduan jarraitzen dute Konstituzio plazakoa. Eta une berean, loiolatarrak loiolatarrago edo Añorgakoak añorgatarrago sentiaraz dezakeen zeremonia xume (alegia, ez mediatiko) baina beraientzat berdin hunkigarria egiten da. Hain zuzen, eta beharbada beste paradoxa batean, kanporako proiekziorik ez duelako, beraiena ez beste inorena sentitzen dute, eta ez kanpora egindako ikuskizuna. Mikroerrito modukotzat har genitzake danborradek, zeinek bere eremuan, sortzen duten ekimen sorta, non elkartea eta bere ingurua, gehienbat auzoa (Donostiako auzo ofiziala izan, inguruko etxadia izan), bere buruarekin identifikatzen den eta urteroko erritoaz bere burua iraunarazten duen denboran eta espazioan, inguratzen direnak kide dituelarik. Danborrada, definizioz, kolektiboa delako.

1999tik aurrera, hain zuzen udalerriko "benetako" banderaren berrikuntza zela eta, Konstituzio plazara gainerako danborradak gonbidatu izanak badu zerikusirik donostiartasun sentimendua errito nagusian irudikatu nahian. Jakina, eta horrexegatik, errito nagusia delako, bertan emakumeei ere leku eman nahiarekin ere izan zuen zerikusirik (Gurpegui eta Sada, 2012: 103). Harago ere bazihoan: auzoak ere Donostia direlako irudikapena helarazi nahi zien bertakoei eta kanpokoei. Baina erritoaren nagusigoa hamabi-hamabi zikloan finkatu bada ere, haren itzalpean sortutako erritoek ere hartu dute protagonismorik, eta askok ez dute Konstituzio plazan egoteko beharrik sentitzen, donostiartasun intimoago bat auzoan bertan sentitzen dutelako, nork bere orduan eta tokian.

Sortzen den erritoa pertsonala, familiarra, lagunartekoa edota auzokoa delarik ere, beti egongo da hogeita lau orduko denboraren baitan sortua, inoiz baino donostiarragoa den horretan kokatua, edo haren aiduru prestatutako afari eta gainerakoak bezperan. Hainbesterakoa da ezen donostiartasunari esklusiban eskainitako pasarte horretan ofizialki Sarriegiren musikak baino ezin baitira jo, berriro ere -eta geroagoko sakralizazioaren ezaugarri-, halabeharrez sortutako harreman baten ondorioz, Sarriegiren musika guztiak ez zirelako Danborradarakoak, ez eta Danborradarako musika guztiak Sarriegirenak ere (Ansorenak elkarrizketan dioenez). Baina identifikazioen jokoan historiak ekar ditzakeen ñabardurak, musikaren historiarenak izanda ere, nekez uztartzen dira argudio oso soil eta errazekin, herri-pertzepzioan "pentsatu beharrik gabeko logikaz" txertatzen

diren sentimenduekin. Adibidez, antzinako martxa, Bigarren Mendeurrena dela eta 2013an berreskuratutakoa, entseguetan "berria" izendatzen zuten. Noiz arte?

Eta beste hamabiak: eguerdia

Erritotik erritora, hogeita lau orduko tartea luze, omen, eta, berriro ere, aldez aurretik egon bazegoen tradizio bat erabat berrituta, erritoa biribildu egin zen, berriro ere ordutegiaren magiaz sorgindurik: Haur Danborradak hamabietan atera behar zuen, jaiaren osotasuna biribilduko bazuen. Espazioa, ordea, ezin berdina izan. Danborrada bai, baina danborrada guztiak desfile bakarrean batzen dituena. Udaletxe parean bai, baina Udaletxe berrian, eta bilkura, Alderdi Ederreko espazio zabalagoan; baita ere, desfilatzeko zabalago, Erdialdeko kaleak, ez Parte Zaharreko estuak.

Haur Danborradak ere ezagutu ditu aldaketak, eta horietan genero kontuarenak ez dira inondik inora hutsalak. Baina ordutegia hain dago hertsiki itsatsia ezen ezaugarri hori mugitzeak egun osoko egitaraua mugitzea lekarkeela baitirudi. Espazioan bai izan da aldaketarik, logistikaren beharrak bultzatuta; baina ez hasierako eszenategian, abiapuntua Udaletxearekin lotzea ez baita, donostiartasunaz ari garela, munta gutxiko xehetasuna, zilegitasun-iturburu baizik: handik dihardute dute ohorezko karguek, handik agurtzen ditu alkateak, ikastetxeek eta Euskal Billera delakoak antolatu baina instituzionala den ekitaldian.



8. atala

Urtarrilak 20, eguerdian. Urrezko Danborraren entrega

Jende andana hurbildu da Udaletxeko ateetaraino. Urrezko Danborra entregatzeko zeremonian parte hartu nahi dute, eta donostiar gizarteak omentzen dituen pertsona edo instituzioak babestu nahi dituzte beren presentziaz eta txaloez. Udaletxeko Pleno Aretoa bete-beterik dago, orratz bat ere ez litzateke sartuko: udal agintari eta pertsonalitateekin batera herritarrak pilatzen dira, senideak, adiskideak. Emozioz gainezka dago festaren beste une hau ere.

Urrezko Danborra hiriak ematen duen golardorik nagusietarikoa da, eta hain zuzen San Sebastian egunean ematen du, Haur Danborradak kaleetan zehar desfilatzen duen bitartean. 1967an ezarri zenez geroztik, asko dira alkatearen eskutik saria jaso dutenak, danborrez eta upelez inguratutako zeremonia solemne eta hunkigarrian, jaso ere. Helburua hauxe du: "eguneroko lanarekin, ibilbide eta proiekzio profesionalarekin edo beste zerbaitekin Donostiak kanpo aldera ematen duen itxura on eta erakargarria sendotzen nabarmen eta aktiboki lagundu duen pertsona fisiko nahiz juridikoari, laguntzeko modua turismo ahalmena handitzea, Donostia ezagutzeko bidea ematea, kanpora ematen duen itxura sendotzea edo beste herrialde, hiri, erakunde eta pertsona batzuekiko ezagupen eta laguntasun harremanak sustatzea izanik ere" (Ohore eta Goraipamenen Araudiaren 33. artikulua).

Hasieratik eman diren 78 Urrezko Danborren artean, pertsonaia "Txit Gorenen" artean badago denetarik: dukeak, ministro ohiak, enbaxadoreak, kontsulak, udatiar ospetsuak, sendagileak, alkateak, idazleak, kazetariak, kirolariak, politikariak, piroteknikoak, arkitektoak, aktoreak, poetak, sukaldariak, enpresariak eta kantariak. Erakunde batzuk ere sarituak izan dira, kirol arlokoak batik bat; hala nola, Ingalaterrako Atletismo Federazioa, Tour de France Elkartea, Behobia-Donostia lasterketaren antolatzaile Fortuna kluba, Donostiako Klasikoa. Erakundeen artean ere badaude Tarbe hiria, Chillida Leku Museoa, La Oreja de Van Gogh musika-taldea. 78etatik, bada, erakundeentzat 7 izan dira.

Gainerako saridunen artean, gehien-gehienak gizonezkoak izan dira. Izan ere, Urrezko Danborra eskuratu dutenen artean, 6 baino ez dira emakumeak. Hau da, gizonezkoen %91,5aren aldean, %8,5 baizik ez.

Hiritar Merezimenduaren domina da Udalak ezartzen duen beste golardoetako bat, eta hilaren 19an egiten du, bestea bezain zeremonia solemne eta hunkigarrian. Domina hauen bitartez saritu nahi dira "udalerriari zerbitzu ohiz kanpoko eta bikainak ematen dizkioten lagunei, goraipatu beharreko ahalegin eta merezimenduen jabe direlako" (Ohore eta Sarien Araudiaren 29. artikulua). 1986tik hona 135 domina ezarri dira: 46, askotariko erakundeei; 70, gizonezkoei, eta 19, emakumezkoei. Alegia, erakundeak albo batean utzita, sarituen %78 gizonezkoak dira, eta %21 emakumezkoak.

1967	Manuel Vastos
	Miguel de Echarri
	Guy Petit
	Guillermo Cebrián
1968	Miguel Ángel García-Lomas
	Luis Martín Pinillos
	Juan Ignacio Luca de Tena
1969	Víctor Ruiz Iriarte
	Ian Latto
1970	Castro Pires de Lumi
	Manuel Rózpide
1971	José Luis Pérez
	José Álvarez de las Asturias
1972	Josefina Carabias
	Alfonso Sánchez
1973	Mariano Fernández Zúmel
	Mariano Horno
1974	Rafael Frühbeck De Burgos
	Luis Estévez
1975	Marcelino Oreja
	Enrique Aldamir
1976	José Manuel Goyeneche
	Rafael Cavero
1977	Mariano Calabuig
	Paul Barrière
	Vicente Echegaray
1978	Luis Coronel de Palma
	Benito Castejón
1979	Carmen Usobiaga
	Julio Caro Baroja
	Paul Dutournier
1980	Armin Kleinen
	Jesus Lopategi
	Tarbe hiria
1981	Ingalaterrako Atletismo Federazioa
	Xavier Domingo
1982	Mario Igual
	Pello Aramburu
1983	Giorgio Tononi
	Oriol Bohigas

1984	Hutsik
1985	Alfredo Landa
1986	Robert Laxalt
1987	Pilar Miró
	Beltrán Alfonso Osorio y Díez de Rivera
1988	Iñaki Gabilondo
1989	Gabriel Celaya
1990	Emil Zatopek
	Francisco Ramos
1991	Antton Lafont
	Marino Lejarreta
1992	Luis Irizar
1993	José María Odriozola
	Tour de France elkartea
1994	Xabier Oliver Conti
	Miguel Atutxa
1995	Justo Segura
	Carmelo Urza
1996	Antonio Mercero
	Araceli González Campa
	Fernando Argenta
1997	Alfredo Di Stéfano
	Felipe E. Muguruza
1998	Elías Querejeta
	Javier Gil de Biedma
1999	Ainhoa Arteta
2000	José María Olazábal
2001	Diego Galán
2002	Ricardo Echepare
2003	Hutsik
2004	Chillida Leku
2005	Martín Berasategui
2006	Iñigo Argomaniz
2007	Pedro Abrego
2008	Cristina Garmendia
2009	Iñigo Olaizola
2010	La Oreja de Van Gogh
2011	Xabi Alonso
2012	CD Fortuna KE
2013	Donostiako Klasikoa

Emakumeak Entitateak Hutsik Gizonak

2. Taula. Urrezko danbordun pertsonak eta erakundeak. Geuk elaboratutako taula

Hiritar Merezimenduaren dominek Urrezko Danborrarena ez bezalako izaera dute. Herritarrengandik hurbilago daude eta zeregin laudagarriak saritzen dira: hainbat kolektibori eskainitako elkartasuna edo laguntza, kulturaren, kirolaren, euskararen, berdintasunaren, eta abarren aldeko sustapena. Golardo hau jasotzen dutenak ez dira bereziki ospetsuak, edo behintzat ez da hori saritzen dena, egiten duten ongintza zehatz bat baizik. Urrezko Danborrarenean, berriz, pertsonalitate asko aurkitzen dugu, hein handi batean ezagutza handikoak edo boteretsuak direlako hautatuta: Urrezko Danborrak hiriaren irudiaren hedapenaren aldeko lana saritzen du, eta hori nekez egin daiteke gutxieneko maila jasoa izan gabe.

Dena den, sari desberdinak izanagatik, Danborra eta Dominak, dagozkien araudiek diotenez, hiriaren aldekotzat hartzen diren pertsona edo erakunde zenbaiten ekimenak goraipatzeko bideak dira. Eta hiriaren aldekotzat hartzeak esan nahi du, adibidez, ekarpen ekonomiko hutsa baino areagoko ekarpena egiten dutela. Haien helburua, aipatua edo aipatu gabea, hiriarenak ere omen diren pertsona edo erakunde horien balioak saritzea da. Horrexegatik ere, hautagaitza batzuek ez dute aurrera egiten. Beti izan ohi da hautagaitzak aukeratzeko irizpideak kritikatzen dituenik, noizbehinka ironia handiz, halako ohorea "bestelako" balioak sustatzen dituztenei esleitzeko proposamenak egitean. Adibidez, Facebooketik abiatutako ekimen batek Rebeca Linares aktore porno donostiarra proposatzen zuen 2012ko Urrezko Danborrerako, hiriaren izena mailarik gorenera eraman duela argudiatuta, horixe baita Danborra eskuratzeko eskakizun nagusia. Ze Esatek taldeak kanta bat dedikatu zuen hautagaitza haren alde (eitb.com, 2011/12/12).

1986	José Mª Aguirre Gonzalo
	Jesús Mª Alkain Martikorena
	José Mª Arana Ajubita
	Luis Miguel Arconada Echarrl
	Ignacio Barriola Irigoyen
	Manuel Mugica Echart
	Carlos Santamaría Ansa
1987	Antton Ayestarán Picabea
	Ignacio Eizaguirre Arregui
	Javier Sada Angera
	José Sarasa Ayerbe
	Javier Urquia Zaldua
1990	Manuel Cendoia Isasa
	José Mª Ferrer Chapartegui
1991	Pilar Olascoaga Arrate
1992	Gizakia Helburu
	Antonio Sierra Valgañón
	Tomas Pérez Pérez
	Luis Pedro Peña Santiago
	Juan Mª Peña Ibañez
	Hilari Pagazartundua
	José Luis Munoa Roig
	Manuel Matxain Ezpelta
	Cristina Cuesta Gorostidi
1993	Miren Azkarate Villar
	Felix Gabilondo Arakistain
	Pablo García Azpillaga
	Evaristo Gonzalez Landa
	Olegario Iturralde Bujanda
	Rafael Puignao Fernández Aransgui
1994	Ikusiko langileen kolektiboa
	Xabier Aizarna Azula
	Luis de Maria y Lafaja
1994	Iñaki Ibero Telletxea
	María Semperena Zubillaga
	Angelita Martínez Gil
1995	Francisco Aranz Darras
	Manu Arrue Atxalandabaso
	Faustina Carril Arocena
	Josetxo Mayor Mateo
	Mariano Larrandia Moral
1996	SOS Balkanes
	Atzegi
	Asociación de Cultura Musical
	Ibon Sarasola Errazquin
	Miguel Capa Elola
1997	J. Ignacio Ansorena Miner
	Amaya Bontigui Zubiaurre
	Plácido Eceiza Yarza
	José Mª Zapirain Maritxalar
	Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartea
	Aspace
	Dordoka Kirol Elkartea
1998	Mari Ayestaran Amunarriz
	Francisco Pizarro
	Eugenio Tamayo
	Xose Antonio Vilaboa Barreiro
	Sahararen Lagunen Elkartea
	Kresala Elkartea
	Gureak Taldea
1999	Vicente Zaragueta
	Gipuzkoako Artisten Elkartea
	San Telmo Museoaren Lagunak
	Goizaldi
2000	Gipuzkoako Argazkilari Elkartea
	Loiolatarra Elkartea
2000	Luz Díez Montes Miranda
	Afodesa
	Antiguoko Pilotazaleok Elkartea
2001	Agipad
	Club Vasco de Camping
	Zaintza Paliatiboen Elkartea
	Miguel Mari Echevarren
	Aterpe Boluntarioen kolektiboa
2002	Lagun liburu-denda
	Euskadiko Filmategia
	Miguel Vidaurre
	José Manuel Azkue
	Alberto García Hinosa
2003	Club Fortuna K.E.
	San Jose Ikastetxea
	Gautena
	Mari Carmen Guimerans
	Imanol Olaizola
2004	Mariasun Landa
	DYA
	Gehitu
	Erizaintza Eskola
	Peli Egaña
2005	Rafael Munoa
	Javier Padrini
	Intxaurrondoko Talde Gastronomikoa
	José Yaben
	Teresa Cormenzana,
2006	Siervas de María
	Mari Carmen Ganzarain
	Evaristo Ayestaran
	Manterola liburu-denda
	César Pérez
2007	Richard Oribe
	Agustín Unzurrunzaga
	Sor María Luisa Antón
	Xabier Muñoz
	Concha Chaos
2008	Ademgi
	Kalapie
	Verdini Dantza Taldea
	Carlos Benito Gomez
	Lourdes Oñederra
2009	Bera Bera Kirol Elkartea
	As. Amigos del Camino Santiago
	Gros Xake Taldea
	Esteban Erizondo
	Juan Antonio Antero
2010	Mintza Laguna
	José Luis Fernandez
	Iñaki Fernandez
	Fermin Muñoz
	Lilatoia
2011	Miguel Tardáguila
	Gipuzkoako Dantzaren Profesionalen elkartea
	Félix Pérez Carrasco
	Arrats Elkartea
2012	Andresa Porgugal
	Ramon Saizarbitoria
	Joaquín Pérez Iriarte
	Peter J. Brown
	Hospitalidad de Lourdes
2013	José Luis Álvarez Enparantza, Txillardegi
	Jaime Caballero
	Luisa Etxenike
	Donostiako Ospitale-Unibertsitateko Neonatologia Unitatea
	Txontxongilo Taldea

Emakumeak · Entitateak · Hutsik · Feminizatutako entitateak · Gizonak

3. Taula. Hiritar merezimenduaren dominadun pertsonak eta erakundeak. Geuk elaboratutako taula

Udala da sari hauen bien emailea, eta beraz Udala da azken finean ezagutza hori azken bururaino daramana, halatan bada saridunak ordezkatzen dituen balioak sustatzen eta areagotzen dituena. Irizpideak oso orokorrak eta beraz interpretagarriak direnez, denboraren poderioz moldatu, egokitu, aldatu egin dira; alegia, ez dira beti balio berberak aintzat hartu, aitzitik ere. Ziurrenik, frankismoaren garaian Urrezko Danborra jaso zuten pertsona asko gaur ez ziren hautagai ere izatera iritsiko. Datu hau aintzat hartzeko modukoa da: ohore egin zaien pertsona edo erakundeen bitartez hiriak bere egiten dituen balioak, sustatzen eta saritzen dituenak, ez dira finkoak, higiezinak, garaian garaikoak baizik.

Urrezko Danborra berez 1967 arte sortu ez bazen ere, aurrekariek ederki erakusten dute aitortza ofizialak ez zirela beste gabe ematen, orduan boterea bereganatzen zutenen ideologiaren arabera baizik, eta seguruenik garai hartan propaganda egiteko xedea ere izango zuten. Urtarrilaren 20a halako ekitaldiak ospatzeko egun aproposa zelakoan, XX.eko 50eko urteetan hasi ziren orduko erregimenari atxikitako agintariak ohoratzeko ekintzak, haiexek baitziren halakoetarako aukera gehien zutenak. Esaterako, 1955ean, alkateak, Juan Pagolak, "Encomienda de la Orden del Mérito Civil" delakoa jaso zuen gobernadore zibilaren eskutik, Kanpo Arazoetako ministroaren izenean. 1956an, berriz, alkatea izan zen "Encomienda de la Orden Cisneros" probintziako Falangeren inspektore Jose Manuel Usandizagari eman ziona (Gurpegui eta Sada, 2013: 46).

1979ko apirilaz geroztik udalak demokratikoki hautatzen dira, eta udalbatzak osatzen dituztenen interesen eta ideologien arabera ematen dira sariak, ezin bestela izan. Udalbatzek, zorionez, aniztasuna dute ezaugarri nagusi, eta horrexegatik ez dira beti bat etortzen hautagaitzak adosteko tenorean. ETZak helarazten dizkio Udalari Urrezko Danborraren hautagaiak, eta oro har gatazkarik gabe onesten dira; baina noiz edo noiz bestela gertatzen da. Behin saria esleitu gabe geratu zen, eta hain zuzen udal batzarkideak ez zirelako ados jarri balioetsi nahi ziren irizpideetan; hau da, zerekin edo norekin identifikatu nahi zen hiria. 1984an, Albako duke-dukesen hautagaitza aurkeztu eta plenoan atzera egotzi zen. Ezbairik gabe, arrazoi politikoak izan ziren arbuioa eragin zutenak: aristokrazia ez goraipatzeko jarrera. Badirudi mundu guztiak ez zuela begi onez ikusten espainiar aristokraziak irudikatzea hiriak goretsi nahi zituen balioak.

Azken finean, sari hauen xedea, hirian egun berean egiten diren hainbat ekitaldirena bezala, balio eta hierarkia batzuk zilegitasunez janztea da, baliook ordezkatzen dituzten pertsonak edo erakundeak identifikatu eta aitortuta. Nolabait, desio dugun eta definitu eta sustatu nahi dugun hiria irudikatzeko modu bat da, eta hiriaren baliotzat nahi ditugun horiexek txerta daitezen herritarren artean ere, falangerenak izan, elkartasunarenak izan.

Eta honek galdera bat dakar berez: hau honela bada, zergatik dira honen gutxi sariok jaso dituzten emakumeak?



4. taula. Saritutako emakume eta gizonezkoen urrezko danborraren eboluzioa 1967-2013. Geuk elaboratutako taula

Saritutako emakumeak

Itzul gaitezen une batez ohoratutako emakume eta gizonengana. Urrezko Danborra eskuratu duten emakumeak orain arte behinik behin sei baino ez dira; gizonak, ordea, hirurogei. Hiritar Merezimenduko dominetan, berdintsu: 19 emakume eta 70 gizon. Hauetan, Urrezko Danborrarena baino maila apalagoko aitortzan, emakumezkoen proportzioa altuxeagoa da. Nolanahi ere, eta halako

aitortzen bidez pertsonen balioa, ekarpena eta oro har ordezkatzen duena saritzen dela jakintzat badugu, galdera honako hau da: hain gutxi al dira halako aitortza merezi duten emakumeak? Edo, bestela galdetuta, emakumeek ez al dituzte ordezkatzen saritu nahi diren balioak? Kontu hauek aztertzeko, hautagaitzak aukeratzeko irizpideen arabera egin behar da, baina, batez ere, irizpideak ezartzen dituzten kutsu ideologikoen arabera.

Nekez espero genezakeen udal frankistek aintzat hartzea berdintasun irizpiderik izendapenak egiteko tenorean. Hala ere, 1979ko apirileko udal hauteskundeak baino lehen, hamahiru urteko tartean, bi emakumek jaso zuten Urrezko Danborra: Josefina Carabias (1972) kazetari eta idazle ezagunak, "Donostiako edertasunak goresteagatik" (*La Voz de España*, 1972/01/19), eta Mari Carmen Usobiagak (1979), estatubatuar ikasleentzako udako ikastaroen sustatzaile nagusia izaki. Demokrazia iritsi zen, baina ez harekin berdintasuna, eta 1987arte ez zen beste emakume bat etorri Urrezko Danborra hartzera: Pilar Miró, 1985. urtera arte Zinematografiako zuzendaria, Radio Televisión Españolako zuzendari nagusia (1986-1989) eta zinegilea. Bederatzi urte geroago (1996) beste emakume bat topatzen dugu: Araceli González, Radio Nacional de España Radio 1eko *Clásicos Populares* programaren zuzendari eta aurkezlea. Hiru urte geroago (1999), Ainhoa Arteta sopranoak jaso zuen. Beste bederatzi urte itxoin behar izan zen Cristina Garmendia (2008) biologo, enpresari eta Berrikuntzako ministroa saritu zuten arte. Oraingoz, azken Urrezko Danbordun emakumezkoa da; alegia, 4, demokraziako 34 urtetan.

Saritutako emakumeen eta urteen batez bestekoa egiten badugu, bada, Trantsizioaren aurreko udalek ondorengoek baino maizago saritu zituztela ondorioztatu beharra dago: lehenek, 2 emakume 13 urtetan; bigarrenek, berriz, 4 baino ez 34 urtetan.

Hiritar Merezimenduaren dominak 1986an ezarri ziren, eta emakume bati esleitu zitzaion lehena Pilar Olascoaga Arrateri emandakoa izan zen, 1991n. Domina eman den 26 zeremonietan 135 ale banatu dira: 70 gizonezkori, 46 erakunderi eta 19 emakumeri. 10 aldiz, ez zen emakume bakar bat ere ohoratutakoen artean. Birritan baino ez zen ospatu gizonezkorik gabe. Behin ere ez da gertatu bi emakumek baino gehiagok jaso izana urte berean domina. 14 aldiz hiru gizon edo gehiago izan ziren zeremonia berean domina jaso zutenak, bost 1992ean eta zazpi 1986an. Badirudi hemen ere ez dutela emakumeek gizonezkoek bezainbeste merezimendu egiten, emaitzak kontuan hartuta behintzat...

Aipagarria da gero eta gehiago erakundeak aitortzea dela Merezimenduaren dominen joera, eta zentzu horretan sexuen arteko orekarena alboratuko litzateke. Baina urruti dago, urruti dagoenez, oreka, saritutako erakundeen kopurua oraindik orain jaso duten gizonena baino dezente baxuagoa da eta (46, 70en aldean).

Nabarmen utzi behar da erakundeen artean batzuen izaera, nolabait esateagatik, femenino samarra dela eta hortaz desoreka berdintzen lagundu dutela: San Jose ikastetxea (Karitate Alabena); Erizaintza Kolegioa, oso lanbide feminizatua; Mariaren Zerbitzariena; Donostia Ospitaleko Neonatologiako Zerbitzua, erabat ez baina oso eremu feminizatua. Bereziki nabarmendu nahi dugu hemen kasu bat, femeninoa ez ezik feminista ere badelako saritutako erakundea, edo, kasu honetan, gertakizuna: Lilatoi delakoa. Domina hau mugarri bat izan da, ezbairik gabe, Danborradan emakumezkoen partaidetzan, sari banaketaren alorrean behinik behin.

24. Ainhoa Arteta, Odón Elorza alkatearen eskutik Urrezko Danborra jasotzen ari dela: Iturria: *Diario Vasco*, 1999/01/19



5. Taula: merezimenduaren dominadun emakumeak, gizonak eta erakundeak. Geuk elaboratutako taula

Izan ere, 2009an ezagutarazi nahi izan zen gertakizun haren balioa, emakumeen eta gizonen arteko aldarrikapenaz egindako lana: berdintasunaren balioa lehen aldiz izan zen saritua dominaz. Izendapena iragartzeko, hala mintzatu zen Udala, bere webean adierazi zuenez (www.donostia.org):

> *Donostiako Lilatoia sexuak parekatzeko errebindikazioan aitzindari izan zen emakume talde batek sustatu zuen duela bi hamarkada. Lehen edizioan, 125 lasterkarik hartu zuten parte. Azken Lilatoian, berriz, 1.300 parte-hartzaile izan ziren.*
>
> *Lilatoiari esker, Donostia emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren hiriburu bihurtzen da urtero, eta Donostiako Udala, berriz, pertsona guztien eskubideekin konprometitutako herritarren ordezkari* (18/12/2009).

Hortaz, sariak eskertu nahi zuen, emakumeen artean kirola sustatzea ez ezik, baita sexuen arteko berdintasunaren sendotzea ere. Eta, batik bat, adierazi nahi zuen hiriak bere egiten duela Lilatoiak ordezkatzen duen balio nagusietarikoa: berdintasuna.

Ontzat ematen badugu emakumeen ekarpenak gizonezkoenak bezain merezimenduzkoak direla eta hiriak bere egiten dituen balioak ordezkatzeko tenorean emakumeak gizonezkoak bezainbeste direla, orduan ondoriozta liteke emakumeak ez direla sarritan gogoan izaten hautagaiak proposatzeko tenorean, horixe dela arazoa. Horrela balitz, konponbidea bilatu beharko litzaioke hautagaien erkaketan "galtzaile" ateratzen direnen aldeko neurriak hartu eta tartea berdintzeko, egoera berean egonda eskubide bera izanik ere, orain ez baitute tratu berbera jasotzen.

Argudia liteke, bai, saritutako emakume gehiago ez dagoela hautagai emakumezkoak ere gehiago izan ez direlako, halakoetarako hautagaien zerrendetara proposamen herrikoien bitartez ere irits daitezkeen arren. Alegia, herritarrei zabalik dagoen sistema bati esker egiten baldin badira proposamenak, ondorioztatu behar litzateke herritarrengandik ez dela sortu emakume gehiagori saririk emateko aukera... ala ba al dago besterik? Hautatzeko ez bada behintzat proposatzeko sistema zabal eta garden dirudien honek badu, ordea, hutsik: hari buruz dagoen ezjakintasuna orokorra dela. Seinalatutako epe baten barruan edonork ezein udal errolda-zerrendatan hautagaitzarik proposa lezakeen arren, oso jende gutxi da hori horrela dela dakiena, ez baldin bada mugitzen behinik behin zenbait esparrutan, danborrarienetan bereziki.

Bestalde, udalak urrats berri bat eman zuen emakumeen presentzia ez anekdotikoa eta ez testigantza hutsekoa bermatze aldera: Unión Artesanarekin adostu zuen urketarietako batek izan zezan "paper protagonista Urrezko Danborraren entrega ekitaldian, Danbor Nagusiaren maila berean" (*Diario Vasco*, 2012/01/14). Unión Artesanaren danborradak jotzen du urtero ekitaldian, eta

2012an Estitxu Eceiza urketari nagusiaren zuzendaritzapean egin zuen. Akordio berberean adostu zen Estitxu Jaitsieran ere egotea eta danbor nagusiarekin batera zuzentzea danborrarien errepertorioa. Estitxu Eceiza Peña Anastasioko emakumezkoen danborradako urketari nagusia da, eta fundatzailearen biloba.

Sari eta omenaldi batzuk

Udala ez da omenaldiak eta balioespenak egiteko gaitasuna duen bakarra. San Sebastian egunean kaleetan zehar jo eta jo aritzeaz gain, danborrada askok omenaldiak ospatzen dituzte, sariak emanda, intsigniak ezarrita, oroigarrizko plakak desestalita... zenbait pertsona edota erakunderi egindako ekarpena eskertu eta aitortu nahian. Hortaz, nolabaiteko lotura duten pertsona edo erakundeen bitartez, danborrada bakoitzak bere dituen balioak plazaratzen ditu. Kontuan hartu behar dugu alderantziz ere azter daitekeela; alegia, erakunde askorentzat danborrada dela beren proiekzio publikoa adierazteko modua, bere idiosinkrasia agertzeko bidea. Beraz, proiekzio horiek zehazteko beste era bat dira halako egunean egiten diren sari eta omenaldiak, haien bitartez atxikiak zaizkion balioak agerrarazten dituzten heinean.

Danborradek ematen eta ospatzen dituzten sariak eta omenaldiak hainbeste dira ezen zerrenda egitea ikaragarri zaila baita; besteak beste, urtetik urtera hedatu den ohitura delako eta haietako asko dokumentatu ere egiten ez direlako. Badirudi Euskal Billera dela halako ekitaldiak egiten aurrena. 1943an egin zen halako omenaldietan lehendabizikoa, Otamendi anaiei, Madrilen bertakotutako lau ingeniariri, hain zuzen. Donostiar "enbaxadorearena" egiten zutenei omen egitea zen helburua (Gurpegui eta Sada, 2013: 41). Urteen poderioz, zenbait lagun omentzeko ideia sustraitu egin zen beste danborrada askotan, eta gaur egun gutxi dira beren programetan halakoak txertatzen ez dituztenak.

Ekitaldi hauetako batzuek sekulako oihartzuna izaten dute hedabideetan, batik bat urte luzeetako ibilbidea duten soziedadeek edo bereziki aipatzen diren danborradek egiten dituztenek. Prentsan maizenik agertzen direnen artean aurkitzen ditugu, besteak beste, Gaztelubideren Urrezko Upela, Gizartearen Urrezko Perrexila, Euskal Billeraren Urrezko Makila, Peña Anastasioren Manolo Mújica, Unión Artesanaren Zilarrezko Suila, Kresalaren Urrezko Suila. Eta halako golardoak jasotzen dituztenen artean, oso izen ezagunak topatzen ditugu maiz; hala nola, Donostiako Orfeoia, Alfredo Landa aktorea, Real Sociedad, Martin Berasategi sukaldaria, eta kulturaren, politikaren, kirolaren, ekonomiaren eta gastronomiaren munduetako beste hainbat. Ekitaldiek "kutsu" edota "bumeran" efektua izan ohi dute: omendutakoaren prestigioak erakunde omengilea kutsatzen du, lehenaren prestigioa, omenaldia jaso orduko, areagotu egiten den heinean. Hala, bada, elkarte batzuek beren kapital soziala delakoa handitu

egiten dute ospetsu kopuru handia dutelako, eta omenduek ere gehitu egiten diote jasotako saria beren kapital sozialari.

Sarritan ikusten dugu izen berberak agertzen direla sari desberdinetan, sari batek beste bat erakarriko balu bezala. Eta elkarren arteko aitortzen biribil bitxi samarrak ere ikusten ditugu; adibidez, danborrada batek pertsona edo talde bat omendu eta, era berean, omendutakoak omen egin dion danborradari ere omen egiten dionekoa. Biribil delakoa ohoreak elkartrukatzeko zirkuitu zabalago bat bihur daiteke, elkarri egindako danborradak hiruzpalau izan daitezke eta.

Prestigioaz eta ospeaz gain, ia danborrada guztiek baliatzen dute eguna halako ezagutzak egiteko, handikiro edo xume. Askotan, danborradan hainbat denbora (mende laurdena, mende erdia...) parte hartu dutenen aldeko omenaldi soila izaten da, edo urtean hildakoei, edo antolakuntzan modu berezian lagundu duen norbaiti. Halakoetan ekitaldia izan daiteke afari bat, aurresku bat, edo, hildakoen aldekoetan, isilune bat, edo bestelako adierazpen bat. Omentzeko beste era bat danborrada bateko kideak beste danborrada batean parte hartzera gonbidatzea izan daiteke: banderaren Igoera dela, pieza batzuk jotzea edo zuzentzea dela, auzoko kaleetan desfilatzea dela.

Beste batzuetan omenaldiek bereziki nabarmendu nahi dutena da pertsona edo erakunde batzuek auzoari, auzoko jaiei, danborradari berari, edo hiriari egindako ekarpena: elkarte bati, kultur etxe bati, ikastola bati, baita, adibidez, festaren doinuek osatutako danborradaren CD baten argitalpena diruz babestu duen auzoko supermerkatuari ere. Besteetan, erakunde antolatzailearentzat pertsona zenbaitek duten esanahia ezagutarazteko modu bat da. Halakoetan ekitaldiak arranditsuagoak izan daitezke, eta ikus dezakegu intsignia bat, plaka bat edo antzeko zerbait entregatzen dela. Goian aipatutakoez gain, beste asko aurkitzen ditugu, zein bere danborradaren tradizioan sustraiturik: Amara Berrik Ohorezko Zapia eskaintzen du; Istingorrak, Benta Berriko Farola; Antiguoko danborradak, Ohorezko Artilleroaren izendapena; Amaratarrak, Txokolatezko Danborra; Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialaren danborradak, Dekanoaren Zapia; Intxaur Txikik, Urrezko Intxaurrondoa; Unibertsitateko Danborradak, Unibertsitateko Danborra, eta abar. Denetariko elkarteek, kultur zentroek, danborradek, auzoko edo taldearentzako pertsona hurbilek zein garrantzizkoek omenaldiak jasotzen dituzte hilaren 20an.

Ekitaldia apala izan, arranditsua izan, omendutako lagunek toki berezia hartzen dute Danborradaren egunean, erakundean, auzoan edo hirian, egun bakarrean baino ez bada ere. Ezagutzaren eta nolabait prestigioaren mapan kokarazten dituzte, bada.

Danborrada gehienek egiten dituzten omenaldi barnekoi horiei buruz prentsan agertzen diren datuak urriak izaten dira eta, tamalez, maizen jasotzen diren berriak ez dira izaten elkarte berdinzaleenak. Askotan elkarte maskulinoenak dira, nahiz eta orain haien danborradak mistoak izan; hots,

emakumeek halako ekitaldietan protagonismoa izateko edo halako erabakiak hartzen diren batzordeetan egoteko aukera gutxi dutenenak. Hortaz, soziedade gastronomikoetan bazkideei egiten zaizkien omenaldietan emakumeen presentzia hutsaren hurrengoa da, eta oso murritza eta berri samarra gainerakoetan. Badago salbuespenik, bai eta elkarte maskulinoetan omendutako emakumerik ere; hala nola, Paquita Mendizabal, Gaztelubideko amabitxi, Gaztelubideren Ohorezko Urketari tituludun plaka eta Urrezko Suilaren intsignia jaso zuena, 2006an; Loli Aomedo, Gizartearen Urrezko Perrexila jaso zuena, elkartean sukaldari egindako lanarengatik (afarira afaltzera joaterik izan ote zuen, jakin behar).

Omendutako beste emakume batzuk

Omenaldiak egiten dituzten danborradak dezente dira, eta Donostiako danborradei nola edo hala loturiko emakumeak ere bai, dagoeneko; beraz gero eta gehiago dira nolabaiteko sariak eta esker on sinbolikook jasotzen dituztenak. Egia da omenaldiotan alargun asko agertzen direla, berez zuzenean omenduta ez baina senarra zenaren ordez joandakoak; baina beste askotan beraiek dira benetako protagonistak.

Ezbairik gabe, badira hemen aipatzen direnak baino gehiago; baina prentsan agertutako adibide batzuk aipatu nahi ditugu, askotariko kasuak izan daitezkeela agerrarazte aldera: Luisa Zubizarreta, emandako laguntzarengatik 1968an Ibaetako danborradak oroigarrizko plaka bat eman ziona; presoen amak, Senideek 1996an omenduak; Mari Carmen Alonso eta Ainhoa Aldaz, Intxaurrondo auzoko arrain-saltzaileak, 2010an omenduak, Irurak danborradak urtero egiten baitio halako aitortza bizilagunetako bati, auzoaren alde egindako lanarengatik; Cristina López, Peña Anastasiok aitortu nahi baitzion Pasai Antxoko danborradari egindako ekarpena, 2013an. Jakin ere badakigu Unibertsitateko Danborradak lau emakumeri eskaini diola Unibertsitateko Danborra: Pilar Elgoibarri (2004), Maite Errori (2007), Arantza Tapiari (2008) eta Carmen de las Cuevasi (2012). Hauez gain, mugarritzat ditugu lehen urketariek jaso dituzten ezagutzak.

Kresalako lehen emakumeak atera zirenean soziedade batzuek ateak itxi zizkieten arren, haien presentzia, oro har onetsia ez ezik, ospatua ere izan da. Honek frogatzen du nolako aldaketa handia ezagutu duen festak emakumeen partaidetzaz ari garela. Horrexegatik mugarritzat dugu emakume haiek jaso zuten lehen omenaldia, lehendabizikoz atera eta 25 urtera. Esan beharra dago ez zela omenaldi bakarra izan, sorta bat baizik: elkarteko egoitzan egin zen afariaz gain (esanguratsua da, gero, hartara joan zela orduko Emakunderen zuzendaria, Txaro Arteaga), Udaletxean ere harrera berezia egin zitzaien (Kresala elkarteak berak hala eskatuta), eta danborraden batzordeak bazkari antolatu zien, hartara propio antolatutako argazki lehiaketa eta guzti.

Era berean, 2007an, beste aitzindari batzuek, Antiguoko Gazte Danborradakoek, antzeko ohoreak jaso zituzten danborradan sartu zireneko 25. urtebetetzea ospatzeko. Batzordeak antolatu zien omenaldian izena, danborradaren armarria eta 1983-2007 datak zeramatzan zapi bana eman zitzaien opari, Antiguoko soziedadeek eta Kresalak eskainitako plakez aparte. Istingorra elkartean ospatu zen bazkarian Antiguoko soziedade guztiak eta hiriko beste zenbait erakunde eta pertsonalitate gonbidatuta zeuden (*Diario Vasco*, 2007/01/17).

Udalak ere bilatu ditu emakumeei omen egiteko modu alternatiboak, goian aipatutako golardo instituzionalez aparte. Horietako bat da, hori ere goian esan da, Konstituzio plazan bandera igotzeko tenorean protagonismoko toki ikusgarria eskaintzea. Baita bestelako espazio eta ekitaldi instituzionaletan ere; adibidez, Danborrada baino egun batzuk lehenago, Victoria Eugenia antzokian Haur Danborrada aurkezteko jaialdi bat antolatzen da. Bertan, urteko karguak aurkezteaz gain, sona handiko pertsonalitateek edo erakundeek ere parte hartzen dute. Omenaldi bat izan gabe ere, ezagutza mota bat da, eta hor, gero eta nabarmenago, emakumeen presentzia agertzen da. 2010ean, besteak beste, La Oreja de Van Gogh, Real Sociedad futbol taldeko jokalari batzuk, emakumezkoen selekzioko bi jokalari eta emakumezkoen Akaba Bera Bera eskubaloi taldeko kide guztiak egon ziren. Baina 2013. urtea bereziki eskaini zitzaien emakumeei, hain zuzen emakumezko kirolariei, esklusiban: Donosti Gimnasia Erritmikako Klubeko alebinen taldeko kideak, Estatuan hainbat lehiaketaren irabazle; eta Real Sociedadeko belar gaineko hockey emakumezkoen taldea, halako aitortza merezi zuen kirol ibilbide baten protagonistak izaki.

9. atala

Urtarrilak 20, gaueko hamabietan. Jaitsiera

Hilak 20, gauerdian, hamabiak joka ari direla, Banderaren Jaitsierak adierazten du San Sebastian eguneko jai-ekitaldien burutzea eta ixtea. Orduantxe Konstituzio plazan irudikatzen dena ez da, bada, hogeita lau orduz zabaldu den banderaren erretira hutsa, baizik eta kolektiboki ospatu den festa oso baten eta haren baitan jai giroan ospatu diren ekitaldi guztien bukaera. Igoera bezala, Jaitsiera ekitaldi solemne bat da, festaren denbora sakratua ixteko ahalmena duenez gero, eta beraz Igoeraren pisu identitario bera dauka. Izan ere, zeremoniaren egitura ia berdina da, danborrada oholtzan joka, alkatea eta gonbidatuak balkoian eta jendetza plazan daudela.

Gaur egun jai-erituala burutzen duen Jaitsierak arian-arian irabazi du sona, 1957an Unión Artesanaren danborradak, hiriko urtetsuenak, Juan Pagola Birebén alkatearen ekitaldi hura protagonizatzeko gonbitea onartu zuenez geroztik. Zeren eta ordura arte Banderaren Jaitsiera ez baina banderaren jaitsiera bat, interes handirik pizten ez zuen ekintza baitzen. Halaxe, bada, Artesanak ohiko ordutegia, hilaren 20an goizeko zazpietakoa, bertan behera utzi eta gauekoaren alde egin zuen, festa Konstituzio plazan burutzeko. Gaur egun, ohituraren poderioz, Unión Artesanak zeharo errotu du bere paper protagonista festaren bukaeran, Gaztelubidek Igoeran duenaren antzera.

Igoera eta Jaitsiera festaren ekitaldi nagusitzat har daitezkeen arren, hasiera eta bukaera adierazten duten heinean, badago bien artean alderik. Lehenik eta behin, Jaitsierak ez dauka Igoeraren ofizialtasun berbera. Pertsonalitate publiko batzuk, alkatea barne, bertaratzen badira ere, ez da formalki derrigorrezkoa. Bestetik, urtetik urtera gero eta jende gehiago joaten bada ere, oraindik orain gutxiago da hasierakora doana baino. Publiko hori gehienbat bertakoa da, kanpotik jende gutxiago dator, eta nolabait Igoera baino "etxekoagotzat" hartzen da. Gainera, 21eko lehen minututik aurrera jaiak jarraitu bai, baina era informalean jarraitzen du, adibidez Sarriegirenak ez diren doinuak jota; bezperako azken orduek badute "aurre-errito" kutsua.

Dena den, Igoera bezain mediatikoa izan gabe ere, Jaitsierak badu balio sinboliko, enblematiko eta ofizial handia, eta beraz bertan irudikatzen dena esanguratsua da oso. Urtarrilaren 20ko gaueko hamabietan, Konstituzio plazako oholtzak begirada guztiak erakartzen dituenez, bertan emakumeak egotea edo ez egotea ez da xehetasun anekdotiko bat, berebiziko esanahia duen zerbait baizik.

34. Jaitsiera Konstituzio plazan, 2013/01/20. Argazkia: Xabier Kerexeta

Urketari Nagusi bat Konstituzio plazako oholtzan

> *Todas las miradas estaban puestas en esa mujer que dirigió junto a Ibiriku a los fornidos tamborreros, a los alegres barriles y a las 22 aguadoras de la Artesana en el amplio repertorio interpretado en el tablado de la Consti. Estitxu Eceiza, Aguadora Mayor de la tamborrada Anastasio femenina, tuvo este honor. La Unión Artesana le invitó en homenaje a la tamborrada de su sociedad, Anastasio, que este año cumple 50 años* (*Diario Vasco,* 2012/01/21).

Halaxe deskribatu zuen *Diario Vascok* 2012ko San Sebastian festaren burutzea, lehen aldiz igo zelarik emakumezko bat Konstituzioko oholtzara, Unión Artesanako sukaldariak eta urketariak zuzentzera bandera jaisteko ekitaldian: gizonak sendo edo alai... eta emakumeentzat ohore, ordura arte izan ez zutena. Albistearen protagonista Estitxu Eceiza zen, Peña Anastasioren emakumezkoen danborradako danbor nagusia. Eceizak onartu egin zuen danborrada beteranoaren zuzendaritzak egindako gonbitea, bere urketariak zuzentzekoa, betiere lehenago zuzendaritzak berak udal gobernuak egina zion gonbitea, aginte postuetan emakumeen partaidetza ikusgai paratzekoa, onartu eta gero.

35. Estitxu Eceiza Jaitsieran. Iturria: *Diario Vasco*, 2012/01/21

Urtebete geroago beste emakume batek jokatu zuen paper bera Unión Artesanan. Gurutze Egia zen, Santo Tomas Lizeoko haur danborradaren ardura hartu eta 33 urtez antolatu ez ezik desfile ofizialean neskak danbor eta upel joka ateratzearen alde ere lan egindako emakumea. Elkartearekin lotura estua du, antolatzen zituen neska-mutiko askoren aitak bazkideak izaki. Orain bazuen oholtzara zuzentzera igotzeko "pribilegioa". Ez zuen inoiz pentsatuko, haatik, jole gisa parte hartzea, urketari nagusi gisa hain gutxi. "Momentua inpresionantea izan zen. Egia esan, oholtzara igotzea festaren partaide bezala inpresionantea izan zen. Danborrari guztiak zuzentzea -ia denak ezagutzen baititut-, ba, hunkigarria zen, eta oso urduri... ia-ia histeriko nengoen!", komentatu zuen protagonistak gure elkarrizketetako batean.

Hogeita lau ordu lehenago, beste emakume batek, Ainhoa Olasagastik, protagonizatu zuen Konstituzio plazako Igoeran Gaztelubideren danborradako urketarien konpainia zuzentzeko mugarri historikoa. Baina emakume bat zuzendari paratzeko ekimena ez zen halabeharrez sortu, Udalak bultzatuta baizik, ahalegin berezia egin baitzuen danborrada horiek biek ekitaldi publikoetan, oholtzetan ez ezik protagonismo berezia zuten tokietan ere, eite berdinzaleagoak ager zitzaten. Gaztelubideko emakume batzuek kontatu digutenez, tartean Ainhoa Olasagastik berak, Udaletik Konstituzio plazan gutxienez pieza batean zuzendari emakume bat txertatzeko iradokizuna jaso orduko, Gaztelubidek jada erabakia zuen berritasuna gehitzea, iraunkor, gainera: urketari talde osoa zuzenduko zuen emakume bat, sukaldariak zuzentzen dituen upel nagusiaren parekoa.

Unión Artesanaren danborradak, aldiz, ez zuen aldez aurretik planeatua, eta horregatik laguntza eskatu zion Peña Anastasioreneko urketari nagusiari. Gaztelubidek ez bezala, talde osoaren aginterako bi piezatan zuzendari eta protagonista izateko emakumea bere lerroetan bilatu baitzuen, eginkizun berbererako Artesanak taldeaz kanpoko emakume bat gonbidatzea deliberatu zuen. 2013an planteamendu bera aplikatu zuen, Gurutze Egia urketari nagusi izateko gonbidatu zuelarik. Ziur, keinu hori festan inplikazio handia izan duten emakumeei omen egiteko modu bat dela ondoriozta daiteke, Jaitsieraren ekitaldian protagonista izatera gonbidatuak direnez gero. Baina hain zuzen ere

ohorezko izaerak berak salatzen du salbuespena dela. “Nik Unión Artesanarekin dudan harreman bakarra umeen bitartekoa da. Lan egiten dudan ikastolan 30 urtez egon naizelako danborradaren arduraduna izan naiz, eta ume pilak aita Unión Artesanakoa zuten. Eta, beno, Unión Artesanako jende mordoa ezagutu dut eta aurten beraiek gonbidatu ninduten. Niri ez zegokidan...”, dio Gurutze Egiak elkarrizketa batean. Aipagarria da, bada, danbor nagusiaren kargua betetzen duena taldearen baitan bere gaitasun eta lanez irabazitakoa izan ohi dela; Artesanako urketari nagusia, ordea, behin behineko zerbait da, gizonezkoek osatutako batzorde baten menean geratzen den erabaki bat.

Gaztelubideren eta Artesanaren danborradek berdintasunaren alde beren borondatez eta bakoitzak bere erara aldaketak egin zitzaten tokiko botereak agertutako temak ez du pentsarazi behar halakoak asmo instituzional hutsez eragindakoak izan direnik. Izan ere, beste danborrada batzuek beren gisaz eta gogoz berenganatu dituzte halako aldaketak. Modu isilagoan, alegia, oihartzun mediatiko handirik gabe, askoz lehenagotik izan dituzte danborrada batzuek emakumezko danbor nagusiak edo upel kaboak. Lehendabiziko danbor nagusia Amaia Revuelta da, Eskaut Giakoa, 1996an. Bera Bera kirol klubaren danborradak, 2009an sortu orduko, bi emakume ditu zuzendari: Aitziber Aranburu, danborrarien buru, eta Raquel Olaizola upel-joleen buru. Amara Zaharreko jubilatuen Jatorra Klubeko danborradak ere, 1998an sortu orduko, emakume bat izan zuen danbor nagusi: Maria Pilar Arroniz. Hona hemen beste adibide bat, non emakumeek hasieratik ardura eta prestigio goreneko postuak bete dituzten: Amaratarra danborrada, Manolo Múgica Gaztelubideko kide ospetsuaren biloba Irene Múgica duena danbor nagusi, taldea 2007an estreinazkoz plazaratu zenetik.

37. Jatorra danborrada, danbor nagusia buru duela. Iturria: *Irutxulo*, 1998/01/20.

Hauek adibide batzuk baino ez dira, beren kabuz San Sebastian egunean berdintasunezko formak aurkeztearen alde egin duten danborradak azaltzearren. Orduan, galdera da: danborrada inklusiboak han-hemenka lan handirik gabe topatzen ahal baditugu, zergatik halako saioak eta ahaleginak Unión Artesanak eta Gaztelubidek ere berdintasunaren aldeko pausuak eman ditzaten? Aurreko ataletan komentatu bezala, danborrada hauek biek zentraltasuna okupatzen dutelako hiriko festan; hots, herritar guztiek bere egiten duten Igoera eta Jaitsiera ekitaldien tokian eta denboran.

Ekimen hura ez zen keinu bakartu bat, Udalaren ekintza positiboen politikaren barruko plan baten baitakoa baizik, San Sebastian festan ere berdintasuna erdiesteko xedez. Ikus dezagun nolako ibilbidea izan duten neurri hauek eta nolako emaitza izan duten danborrarien giroan.

Diru-laguntzen pizgarria eta berdintasunari buruzko eztabaida

1997az geroztik 2005eko Berdintasun Legera arte Donostiako Udalak berdintasun gaietan bultzatu dituen plan desberdinen arabera, festen sailak hainbat estrategia gauzatu du hiriko jaietan parekidetasunezko partaidetza lortzeko bidean. Batzuetan, halako neurriek nolabaiteko ezinegona eragin dute, batez ere Danborradaren baitan egoera pribilegiatua duten eta polemika komunikabideetara eramateko gaitasuna duten sektore batzuen artean. Ekimen estrategiko horiek izan dira, batetik, ekitaldi ofizialetan ari diren danborradekin (Igoeran Gaztelubide eta Jaitsieran Artesana) negoziazioetan jardutea, berdintasun printzipioak barnera ditzaten; negoziazio horien ondorioz agertu dira emakumeak ekitaldietan, lehenik jole, gero baita agintari ere, goiko ataletan kontatu bezala. Bestetik, neurri orokorragoak ere hartu dira, danborradei diru-laguntzak emateko baldintzetan berdintasun-irizpideak txertatzea bereziki. Ikus dezagun neurrion bilakabidea.

1998an, Udal gobernuaren batzordeak danborradentzako diru-languntzetarako irizpide berriak onetsi zituen, eta ETZak martxoan berretsi. Diru-laguntza bikoiztua (urtebetez baino ez) ematea ebatzi zen, “soilki misto sortzen ziren danborrada berriei, bai eta ordura arte maskulino hutsak izanda ere emakumeak gainerako kideen baldintza berdinetan txertatzea erabakitzen zuten danborradei”. Hain zuzen, 2002an diru-laguntzetarako oinarriek xedea zehatz azaltzen zuten: “San Sebastian egunean parte hartzen duten danborrada desberdinetan emakumearen partaidetza sustatzea”.

Pentsatzekoa da ekimen pizgarri horiek emaitza positiboak izan zituztela. Horixe salatzen dute behinik behin ETZren eta barrutietako delegatuen arteko aktek (2000 ondotikoak baino ez dugu aztertzerik izan): bertan ondorioztatzen

da nola urtetik urtera talde batzuek agertzen zuten misto bilakatzeko asmoa, beren erregistroa modifikatu eta aurrekontuan gehikuntza erdietsi ahal izateko.

DANBORRADA MISTORAKO EBOLUZIOA



7. Taula. Danborrada mistorako eboluzioa. Geuk elaboratutako taula

Esan bezala, politika hark danborrada batzuk erremindu zituen, gehienak Alde Zaharreko eta Erdialdeko elkarteei atxikitakoak, emakumeen partaidetza Danborradan sustatzea festa ordura arte egin zen bezala eraldatzea zelakoan. Neurri haiek Udalaren inposiziotzat zeuzkaten.

Alabaina, Udalaren erantzuna gero eta irmoagoa zen, instituzio publikoek festetan ere genero bazterketak erroizteko lanean jardun behar dutelakoan, bai behintzat eskumeneko dituzten gaietan, hau da, finantziazioaren kudeaketan. Udaletik, bada, gizartean desberdinkeriarik sortzen edo iraunarazten ez zuen aurrekontu publiko bat kudeatzearen alde egiten zuten.

Halatan, bada, 2008an ebatzi zen behin betiko ukatzea diru-laguntzak danborra edo upela joz emakumeen partaidetza ametitzen ez zuten taldeei. Urte hartatik aurrera, diru-laguntzen emakidarako oinarrietan argitaratzen den irizpidea bat dator 2005ean Euskal Autonomia Erkidegoan onetsitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Legearekin, hauxe baitio 24, 2. artikuluan: “Euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei”. Haren arabera, bada, diru-laguntzak eskuratu ahal izateko, gizon-emakumeek osatutako danborrada izan behar, eta zuzenean misto sortzen dutenek bikoitza jasoko dute; 1’5, berriz, misto izatera pasatzen diren maskulinoek. Diru-laguntzen oinarriek zehazten dute, zalantzari inolako tarterik egin gabe, “osaera mistoko danborradatzat hartuko dela, emakumeek eta gizonek berdintasunez parte hartuz gero”.

Modifikazio hura lehenik komunikabideei jakinarazi omen zitzaienez, Danborradaren barrutietako ordezkari batzuek errieta egin zioten orduko Kultura eta Festetako zinegotzi Ramon Etxezarretari. Sortu zuen ezinegona Udalaren Festen Unitatearen eta ordezkarien arteko bileraren aktan jasota geratu zen, bai eta oinarri berriei buruzko zalantza batzuk ere: zer zen zehazki danborrada misto bat? Zein zen emakumeen gutxieneko kopurua, eta nolako postuetan, danborrada bat mistotzat jotzeko? Erantzunak hala zioen: "danborrada bat mistotzat jo daiteke bertan parte hartu nahi duen edozein emakumek gizonezkoen baldintza berberetan egin baldin badezake; hau da, danbor-jole, upel-jole, upel kabo, danbor nagusi, urketari gisa". Halaber, aukera hura islatu beharko zen eskabidea aurkezten zuen taldearen araudian eta frogagarri geratu behar zuen haien jardunean. Era berean, bilera hartan adostu zen, negoziazio luze baten ondoren, danborrada bat mistotzat jotzeko emakumeen gutxieneko kopurua hamabi kide izango zela.

Akta haren eta diru-laguntzetarako oinarrien arabera, danborrada bat mistotzat hartzen da non eta emakumeek eta gizonek baldintza berdinetan parte hartzen baldin badute. Jarraibide hau, ordea, ez zen zorrotz bete hasieratik, ez behintzat orduko Kultura zinegotziak mistotzat zer ulertzen zuen aintzat hartzen badugu. "Mistotzat" hartutako danborrada askotan parte hartzeko bide bakarra suila edo upela jotzea zen, eta bestelako partaidetza moduak, edota rol guztietarako sarbideak (danborrak, danbor nagusia, upel kaboa), bai eta erabakitzeko organoetan egoteko aukerak ere, at gera zekizkiekeen. Horrek esan nahi du gaur egun mistoak direlakoan diru-laguntzak kobratzen dituzten danborrada askok ez dutela betetzen "gizonezkoen baldintza berberetan egin dezaketelakoa". Erabateko inklusioranzko aurrerabideak direla kontuan hartuta ere, kontuan ere hartu behar dugu ez dela gauza bera misto izatea eta berdintasunezkoa izatea, lerroetan nola edo hala emakumeak txertatzea eta berdintasunez parte hartzea. Azkenean danborrada mistotzat hartzeko praktikan gailendu zen irizpidea izan zen joka gehitu ziren emakumeen kopurua, gainerako nolakotasunak alboratuta, berdintasunez ari garelarik berebizikoak izan arren.

Nahiz eta udal ebazpen hura ez zen eraman azken muturreraino, hura gertatu zenean danborrada batzuek Udal jarrera gaitzetsi zuten, 2008ko urriaren 22an "Danborrada askatasunez" izeneko manifestu bat sinatu eta plazaratuta. Agiri hartan ziotenez, berdintasunaren alde omen ziharduten, baina inposiziorik gabe izanez gero; alegia, gauzak "naturaltasunez" gerta zitezen nahi zuten, ordura arte gertatu bezala, haien ustetan, "danborradan gune asko daudelako, non pertsonek beren tokia aurki dezaketen". Halaber, danborradek askatasuna behar zutela defendatzen zuten, bakoitzak erabakitzeko nork parte har dezakeen bere taldearen baitan, inolako polemikarik edo aurkakotasunik sortu gabe, zeren eta "jai honek hori du ederra, orain arte askatasunez egin dela, bakoitza bere nortasunez, bai gure arteko ezberdintasunak baita helburu komunak garbi edukiz, baina beti elkarrekiko errespetuaz". Ez dago soberan gogora ekartzea hogei urte atzerago, Kresalaren danborradak "askatasunez"

erabaki zuenean emakumeak gehitzea, askatasunaren aldeko danborrada haietako zazpik (beste batzuk anartean sortu gabe zeuden) arbuiatu ziotela ekimen hura; hain zuzen, prentsan eskutitz bat argitaratuta errefusa publikoki erakutsi eta desfilean ateak itxi ez ezik, saiatu ere saiatu ziren Udalak debeka ziezaion parte hartzeko baimena.

2008an, aldiz, talde sinatzaileek honako hau argudiatzen zuten: "danborraden oraingo osaketa, kontuan hartuz tradizioa eta jaiarekiko maitasuna, egokia eta beharrezkoa izateaz gain, aniztasun eta berezitasun hau babestua behar du izan", zeren eta, lehendabiziko artikuluan zehazten duenari jarraiki (udal) "arautegi honen helburua tradizioa eta danborradak ospatzeko prestigioa zaintzea da". Deklarazio haien bitartez, talde sinatzaileek kuestionatzen zuten Udalak hartutako jarrera, araudia betetzen ez zuena, omen, eta gizabanakoen eta taldeen eskubideak eta herri-tradizioen biziraupena aurrez aurre paratzeko eztabaida bat zabaldu zuten.

Komunikatuaren 20 danborrada sinatzaileen zerrenda:

Aizepe, Amigos del Europa, Anastasio (femeninoa, gazteena eta senior gizonezkoena), Baso Etxea, Cantábrico, Catedral Centenario, Euskal Billera, Gizartea, Itxas Gain, Kainoieta, Kondarrak, La Espiga, Los Corcones, Mons, Ondar Gain, Antonio Bar, Umore Ona eta Zubi Gain.

Ez dezagun ahantz orduko hartan eztabaidatzen ari zena ez zela dirulaguntzen emakidarako irizpideak baizik, talde maskulinoak laguntzetatik at utziko zituena. Udalak ez zuen behin ere planteatu legea zorrozki betearazi eta festan parte-hartzea debekatzerik. Diru-laguntzarik gabe ere, danborrada haiek berdin-berdin zituzten bermatuak ordutegiak eta ibilbideak, instituzioek talde guztiei berdin eskaintzen zien babes logistikoaz gain. Kritika haiek aztertzeko tenorean besterik ere kontuan hartu behar dugu: danborrada haietako askok uste dutela Udalak emandako diru-laguntzak, beti ongi etorriak izan arren, ez direla iristen, ezta hurrik ere, gastuak berdintzera. Hala adierazi dute elkarrizketatutako guztiek. Orduan, bada, zerk mindu zituen benetan talde haiek? Apika, dirulaguntza publikoen erretirari buruzko eztabaidak beste bat ezkutatzen zuen, askoz delikatuagoa, danborrada zenbaiten zilegitasunari buruzkoa.

Jaitsiera misto egin da... eta Danborrada, berdinzaleago?

2005eko uztailean, Unión Artesanako danborrari batzuek elkarteko zuzendaritzari emakumeek danborradan partaide izateko aukera proposatu zioten. Proposamena onetsi egin zen: 2006ko urtarrilaren 20an Jaitsieran

emakumeek suilak joko zituzten, festan emakumeen partaidetzak beste mugarri bat finkatzen zuela.

Unión Artesanako urketarien zerrenda 2006an:

Idoia Yeregui, Eli Arregui, Visi Anguera, Eva Sendero, Eva Lazkanotegi, Idoia Ruiz de Egino, Arantza Egia, Arantza Cruzado, Malen Vecino, Amparo Urbieta, Asun Maisterrena, Oihane Garikano, Arantxa Cruzado, Yeyes San Martín eta Kati Ballesteros.

Gaztelubiden antzeko prozesu bat gauzatu zuten, Igoeraren atalean azaldu dugun bezala. Kontua da 2006. urtean festaren ekitaldirik inportanteenak, hunkigarrienak eta enblematikoenak protagonizatzen dituzten bi danborradek emakumeei toki egin zietela, historian lehen aldiz. Gogora dezagun ekimenen atzean Udala ere bazegoela.

Komunikabideek txalotu egin zuten emakumeen partaidetza Konstituzio plazan, Danborradan emakumeen partaidetzari buruz behiala piztutako polemikak atzean utzita. Alabaina, mundu guztiak ez zuen gogotsu ospatu aldaketa. Urte hartako festaren aurreko egunetan, Bilgune Feminista kolektiboak zabaldutako prentsa-komunikatuan kuestionatu egiten zuen Danborradan zegoen sexismoa bertan behera uzten zuenik Konstituzio plazako ekitaldietan emakumeek izandako partaidetzak, urketari izatera mugatuta (*Gara*, 2006/01/19). Lehenagoko egoeraren aldean aurrerapenak lortuagatik ere, Danborrada benetan berdinzaleago bat ez zen burutua.

Kolektibo feministak kritikatzen zuen emakumeen partaidetzarako negoziazioak "Udalaren eta zenbait soziedaderen artean egosi izana", emakumeen beren iritzia aintzat hartu gabe (*Diario Vasco* 2006/01/19). Egia esatera, komunikabideei erreparatuta behintzat, adostutako aldaketa batik bat "kaballeroen arteko paktua" izan zela ondoriozta liteke.

Era berean, Berdintasun Legea nolako paradoxaz zerabilten plazaratzen zuten, legeak ez zuelako baimentzen esku-hartzerik erakunde pribatuetan, danborrada baztertzaileen antolatzaileak elkarte pribatuak izanagatik ere. Hala, bada, galdetzen zuten "nola utz dezakeen Udalak elkarte pribatuen esku herritarren jaien antolakuntza" (*Diario Vasco* 2006/01/19). Azpimarratu ere azpimarratzen zuten Konstituzio plazako ekitaldi ofizialak protagonizatzen dituztenak baino askoz danborrada berdinzaleagoak badaudela, eta haietako batzuk emakumeek eta gizonek berdintasunez osatu dituztela 20 urte luzetan.

Nabarmendu behar da, emakumeen partaidetzari dagokionez, prentsan apenas aurkitzen dela Danborradan aldaketak egiteko aldarrikapen-ekitaldien berri ematen zuen albisterik. Aurreko komunikatuaz gain, prentsara bidalitako gutun batzuk dira aurkitu ditugun aurrekari bakarrak. Hona hemen oihartzun

handiena lortu zutenak: Koro Garmendia legebiltzarkideak 1987an argitaratua, 66 emakumek ordezkari politikoei 1988an luzatutakoa, Idoia Estornések 1989an idatzitakoa eta Aralarren eta Ezker Batuaren kexua 2004an, eta den-denak Gaztelubideko afari polemikoei buruz ziharduten. Udalak eman zituen pausuak emateko bestelako presiorik jasan bazuen, oro har gizartean hedatzen hasitako berdintasun-kultura aldetikoa zatekeen, klase politikoraino iritsita, behintzat Donostiako klase politikoraino, baina ez, beste festa batzuetan bezala, mugimendu kolektibo batetik.

Edonola ere, Bilguneren aldarrikapena salbuespen bat den arren, ederki ohartarazten digu alderdi korapilatsu samarrak badirela, Danborradaz eta emakumeen partaidetzaz ari garelarik. Aipatzen duten guztitik, hona hemen komunikatuan plazaratutako azken gogoeta, bereziki interesgarria zaiguna: badaude, egon, emakumeek eta gizonek berdintasunez parte hartzen duten beste danborradak, festaren ekitaldi nagusiak protagonizatzen dituztenak baino xumeagoak betiere. Besteak beste, Bera Beraren danborrada: haren Jaitsiera Konstituzio plazan ikusten dugunaren oso bestelakoa da.

36. Bera Bera danborradaren Jaitsiera, 2013/01/20. Argazkia: Savina Lafita

Gros auzoan, Bera Bera kirol klubaren danborrada Manteoko kiroldegira heldu da, kalerik kale orduak joka eman eta gero. Danbor nagusiak, Aitziber Aranburuk, danbor-joleak eta upeldunak zuzentzen ditu, eta ibilbidea abiatutako toki berberera gidatu du taldea. Behin pabilioira iritsita, sukaldariek eta eskoziar soldaduek bi lerro osatu eta pasabide bat egin diete txarangakoei. Bost ordu daramate etenik gabe jotzen eta festa bukatzear dago. Bost minutu falta dira hamabiak jotzeko, danbor- eta upel-joleak, gastadoreak eta banderadunak pistaren erdian kokatu dira. Hamabiak puntu-puntuan, eta bakoitza dagokion tokian dago. Hasi bezain pintxo eta dotore, taldekideek Sarriegiren azkena jotzen dute. Milaka ikusle ez baina agian bai ehun bat; bandera ofizialik ez, bakarra

baizik: Bera Bera danborradarena, bukatu orduko gordeko dena. Jaitsiera honetan urketaririk ez, emakumeek upela edo danborra jotzen dutelako, sukaldariz edo eskoziarrez jantzita, jo ere. Doinua bukatu eta denek kapeluak eranzten dituzte; hunkiturik, biribilean jarri eta elkarri besarkadaka ari dira, oihuka, makilatxoez bandako musikariak upaka, oraindik ez baitiote jotzeari utzi. "Arrakastatsua izan da, oso", diote gora eta gora. Hauxe dute "beren Jaitsiera".

Akabo da aurtengo San Sebastian jaia, baina batzuentzat gaua luzea da, luzea denez, eta urtea ere bai. Danborra edo upela ateratzeko aukera gehiago izango dute zernahi ospatzeko, lagunartean, auzoan, hirian.

10. atala

Urtarrilaren 20tik harago

Jaia urtarrilaren 20arekin batera bukatzen bada ere, hobeto esanda, erritozko jaia (parranda hutsak oraindik luze jo dezake ordu txikietan), Danborrada, nolabait, urte osoan luzatzen da. Nola edo hala, danborradek edo antolatzen dituzten erakundeek bizirik mantentzen dituzte sare eta nortasun danborrariak, eta batzuetan musika-tresnak ere joarazten dituzte.

Danborradetako kideak elkartu ohi dira, urtarrilaren 20tik egun edo aste batzuetara, ospakizun egitera. Batzuetan, bezperetan edo egun berean egin beharreko prestakuntzek edo joan-etorriek ez dute tartetik uzten patxadaz biltzeko edo urteko omenduei behar bezalako festa egiteko. Danborrada batzuek duten espazio eskasak edo bestelako mugek ez dute ahalbidetzen mundu guztia batera biltzea. Hori da, esaterako, Gaztelubideko urketarien kasua, ez baitute parte hartzen San Sebastian bezperako afarian gainerako danborrariekin, gizonezko danbor- eta upel-joleekin batera. Baina, betiere segregazioari men, haietako batek esaten zuen bezala, "bazkari bat prestatzen digute urketari guztioi. Neskok soziedade osoa okupatzen dugu. Eta gainera hiru gizonen artean prestatzen digute bazkaria eta mutilik ezin bazkaltzera etorri!".

Era berean, "aparteko" danborradak ere antola daitezke, kalean jotzen eta desfilatzen duten konpainiek osatuta, erakunderen edo elkarteren batek urtebetetze bat ospatzen duenean adibidez.

Bestelako bilerak ere antolatzen dituzte, batik bat danborraden batzorde antolatzaileek, festaren nondik norakoak aztertzeko edota hurrengorako prestaketa-lanei ekiteko. Batzorde batzuk hilero biltzen dira; beste batzuk, bakanago. Baina jardunbidea ez dute egun bakarrera mugatzen, eta ezbairik gabe sarriago biltzen dira data hurbildu ahala, aurreko urtearen bukaeratik hasi eta urtarrilean nabarmen. Festa antolatzeak eta danborrada bat mantentzeak hilabetetako kudeaketa-lanak dakartza. Gainera, Udalaren Festak sailak urtearen erdialdean egiten du bilera baterako deialdia, eta bertan parte hartzen dute zazpi barrutien ordez batzorde antolatzailea osatzen duten delegatuek, joan deneko Danborradaren ebaluazioa egiteko eta, behar izanez gero, baita hurrengorako ebazpenak hartzeko ere.

Auzo harremanei eustea

Are inportanteago iruditzen zaigu danborrada antolatzeko eta baliabideak lortzeko auzotarren arteko sareak hedatzen direla, eginkizun koreografiko hutsez gain. Danborrarien erakunde edo talde askok dirua lortzeko ekitaldiak antolatzen dituzte; hala nola, zozketak, feriak eta bestelakoak. Pertsonek, auzoek, elkartasun-taldeek lankidetzarako, solidaritaterako eta partaidetzarako harremanak ezartzen dituzte danborrariekin: jaietara joanda, salgai dituzten produktuak erosita, ekintzaren bat diruz lagunduta edota haren antolaketan parte hartuta. Danborradek ere zuzenean jo dezakete auzoko instituzio edo saltokietara

laguntza bila; adibidez, tresnak eta uniformeak gordetzeko edo entseguak egiteko lokal eske. Hortaz, danborrada, bizilagunen arteko harremanetarako eragile gisa, ez da ahitzen urtarrilaren 20an.

Adibide bat jartzearren: Txirritako Txuriurdinak peñak antolatutako "Garagardo Festak" honako helburu hauek zituen: "auzoa dinamizatzea eta napoleondar jantziak erosteko dirua biltzea, 2010. urteaz geroztik gure danborrada auzoan irteten delako urtarrilaren 20an arratsaldeko bost eta erdietan. Gainera, nahikoa etekin lortuz gero, dirua Larratxoko eta Herrerako festetarako ere erabiliko dugu, dirua auzoan bertan geratzea nahi dugulako". *Diario Vascoko* albisteak zioenez, honako asmo hau ere zeukaten: "Herrera eta Larratxo gainerako donostiarrei ezagutaraztea", "jendeak gogoan izan ez dezan duela urte batzuk izan genuen ospe txarra, eta donostiar guztiak hurbil daitezen gurera, aspaldi honetan ingurua ikaragarri hobetu da eta" (*Diario Vasco*, 2012/05/15). Argi dago danborraden eta auzoen arteko harremanak norabide eta joan-etorri anitzekoak direla, eta ugariak, ez noizbehinkakoak.

Danborradek hirigintza mota honetako dinamiketan duten partaidetzak beste alderdirik ere izan dezake: danborraden elkarte zenbaitek udalaren eta bizilagunen arteko bitartekariarena egiten du auzoko beste gai batzuetan ere: zaborren kudeaketan, obra publikoetan, eta abarretan. Adibide bat: 2010etik aurrera Amarako danborradek auzoko foroetan parte hartzen dute, eta artekari lana egiten dute auzotarren eta instituzioen artean, udal gobernuaren aurrean ordezkariarena egiten duten heinean. Besteak beste, autobus geltokia, mugikortasun gaiak, oinezkoen guneak, bidegorria jorratzen dituzte (*Diario Vasco*, 2012/02/07).

38. Amara auzoan eskegitako pankarta. Argazkia: Luz Maceira

Donostiako gizartekintza-jardunbideak legitimatzea

Danborradek badute beren presentzia denboran luzatzeko beste modu bat: edonoiz gertatzen diren emanaldi askotarikoetan parte hartzea. Ekimen bereziak izan daitezke; hala nola, plaka baten ezarpena, eskultura baten desestaltzea plaza publiko batean, instituzio publiko edo pribatu baten bestelako ekintza bat. Sinbolismo edo izaera publiko gutxiagokoak ere izan daitezke, baina ez haatik esangura gutxikoak, auzoarentzat garrantzia duten erakundeei lotuak egonez gero, lagundu nahi den eskola bat dela, omendu nahi den auzotar peto bat dela, dena dela. Hiriko sukaldari sonaturen baten jatetxe berri baten irekieran ere ikus ditzakegu, eta, nola ez, elkarte gastronomikoen efemerideetan.

Behin baino gehiagotan bidali izan da danborradaren bat beste hiri edo herrialde batzuetara Donostiaren ordezkari, edo bi hirien arteko harremanari biziago eusteko asmoz. 2011n Wiesbaden hiriko inauterietan parte hartzeko zozketan hautatutako Santo Tomas Lizeoko danborradako bi kidek esaten zutenez, honako hau zuten eginkizun: "gure kultura eramatea eta senidetutako hiriarentzako garrantzi handiko festa bat partekatzea" (*Diario Vasco*, 2011/03/11).

Merezi du, bada, aztertzea emakumeak bertakotzen ala baztertzen ote diren ospakizun bat goresteko danborrada bati edo danborrarien figurei heltzen zaien ekinbide horietan. Beharbada, danborradak martxa batzuk jo edo kaleetan desfilatu egiten duen bitartean, ez da emakumeen gabezia sumatzen. Segur aski, kideen erdiak izan gabe ere, izan, izango dira. Alabaina, gerta daiteke elkarte batzuek, ekintza baten gorazarrean danborrarien figurei heltzen dietelarik, at uzten dituztela emakumeak. Halaxe gertatu zen Kaiarribaren trainerua itsasoratu zutenean. Hala dio hari buruzko berriak: "Gero eta maizago gertatzen da San Sebastian jaiaren bezperetan ekimenak sortzea. Oraingo honetan, hamabost danborradetako danbor nagusiek markatu zuten berea, kaira joan baitziren, zein bere janzkera ofizialaz jantzita, beren presentziaz eta, jakina, ordezkatzen duten danborradarenaz, Kai Arriba traineru donostiarra babestera" (*Diario Vasco*, 2010/01/17). Haien artean ez zegoen emakume bakar bat ere. Danbor nagusiak dira danborradetako agintari gorenak eta haiek bertaratzea zen bilatzen zena, ekitaldiaren aitapontekoarena egitera. Han ez zegoen danbor eta upel jotzerik, itzal handiko figurak baizik. Eta han ez zegoen emakumerik.

Udako danborradak

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi "udako danborradak". Danborrada batzuk beste jai batzuetan ere ateratzen dira: adibidez, San Inaziotan, Loiolako festetan, Loiolatarrak ez ezik, Groseko Umore Ona eta Alde Zaharreko Amaikak Bat elkarte gastronomikoek ere beren danborradak ateratzen dituzte kalera.

Amaran ere, Karmengo Amaren jaiak direla eta, antolatzen da danborrada bat. Urtaroarengatik, "udako danborradak" deitu ohi dira; baina, oro har, ez dira "Danborradatzat" jotzen, danbor soinuz ospatzen diren bestelako jaitzat baizik. Elkarrizketatutako batzuek diotenaren arabera, "jai giroa da nagusi"; alegia, informalagoa da, "beste era batekoa". Beste elkarrizketatu batek horrela laburbiltzen zuen: "Beste patxada batekin hartzen da; alegia, izan ere, janzkera ez da sukaldariarena, ez soldaduarena, ez ezer. Galtza zuri batzuk, polo zuri bat armarriarekin, txapela eta aire! listo! [...] Bai, egia da San Sebastian egunean solemneago dela". Danborrada horiek gehiago antolatzen dira auzo barruan, elkarte edo erakundeen baitan baino, eta ez da problemarik sortzen kopuru mugatua dela edo sarbidea dela.

Hain zuzen, hainbat danborradatako jendeak osatuak izaten dira. Hemen ez da identifikaziorik sortzen taldearekin, eta partaidetzan ere etenaldiak gerta daitezke: "jendea oporretan dago", batzuetan parte hartzen du eta beste batzuetan ez. Dudarik gabe, errituala baino, ludikoagoa da. Horrexegatik ongi bereizten da besteaz, eta bereizketak, alderaketak, indartu egiten du "benetakoaren" izaera sakratua: "danborrada Danborrada egunerako da". Urtarrileko girorik gabe, prestatzen duten erakundeen jarduera eta partaidetza aktiborik gabe, egun horretan jo beharreko errepertorio berezirik gabe, berezko figura horiek gabe, atzetik bultzaka datorren historiaren inertziaren indarrik gabe, urtarrilaren 20koari eusten dion instituzionaltzerik gabe, ospakizun hutseko hogeita lau orduko egun berezirik gabe, udako danborradak ez dira Danborradatzat hartzen.

Dena den, hori guztiagatik ere, udako danborradek dituzten ezaugarri horiexek zabaldu diete atea emakumeei hein handi batean hitz handiko Danborradan sar daitezen. Hain zuzen informalak eta malguak izaki, sartzeko mugarik edo oztoporik gabe, sortu orduko misto sortu dira: "badirudi hausten dutela... hau da, errazago hausten ahal dutela pixka bat tradizioekin, gogor oratzen gaituzten tradizio ditxosozko horiekin". Ez dago soberan errepikatzea "estatus gutxiagoko" danborrada hauetan emakumeek inolako trabarik gabe parte hartu dutela. Hiriarentzat berebiziko garrantzia duen eta sakon errotutako eta eratutako erritual astun baten pisurik gabe, berez duen ofizialtasunik gabe, arreta guztiak erakartzen dituen eszenatokirik gabe, inork ez die kuestionatu emakumeei jotzeko, ongi jotzeko gaitasuna. Janzkera baten edo beste baten egokitasunaz ere ez dihardu inork, ez estetikarenaz, ez akustikarenaz. Hots, danborradetan kideei, emakumeei bereziki, mugak jartzeko baliatu izan diren argudioak bazter geratzen dira udakoetan.

Hala eta guztiz ere, edo horrexegatik, udako danborradek ariketa eta ikasgai modura balio izan dute: batetik, emakume batzuek hauexetan ekin diotelako lehen aldiz danborradetan parte hartzeari; bestetik, berdintasunezko partaidetza posible dela aitortzera behartu dutelako.

Berdintasuneranzko mugarriak

1928-29	Emakumeak Danborradan, soldaduz jantzita edota danbor-jole.
1968	Ibaetako danborradaren omenaldia Luisa Zubizarretari.
1972	Urrezko Danborra Josefina Carabiasi.
1979	Urrezko Danborra Carmen Usobiagari.
1980	Misto egiten lehen danborrada, Kresalak urketariak gehituta.
1982	Sortzez berdintasunezkoa den lehen danborrada: Eskaut Gia.
1984	Nesken berdintasunezko partaidetza ofiziala Haur Danborradan. Lehendabiziko neska urketariak Los Ángeles Ikastetxeko danborradan, desfile ofizialetik at.
1987	Urrezko Danborra Pilar Miróri. Lehendabiziko neska danbor nagusi bere ikastetxeko danborradan, Axular Lizeoan.
1988	66 emakumeren salaketa publikoa agintariek Gaztelubiden afaltzearen aurka, emakumeak baztertzen direnez.
1989	Afari ofizialak, antolaketaz eta egoitzaz aldatuta, Gaztelubiden egiteari utzi dio. Lehendabiziko upel kaboa, Lourdes Etxeberria Kresalan.
1991	Lehendabizikoz Hiritar Merezimendurako Domina emakumezko bati, Pilar Olascoaga Arrateri.
1995	Lehendabiziko neska danbor nagusi Haur Danborradan: San José de Calasanzeko Saioa Iranzo.
1996	Lehendabiziko emakumezko danbor nagusi: Eskaut Giako Amaia Revuelta.
1998	Bi emakumek Bandera igo dute Konstituzio plazan: Donostiako Orfeoiko Mari Carmen Mercerok eta María Jesús Muñoz Barojak. Emakumezkoen lehendabiziko danborrada: Peña Anastasio. Danborrada mistoak sustatzeko lehendabiziko udal diru-laguntza.

1999	Urrezko Danborra Ainhoa Artetari.
	Lehendabiziko emakumeak Konstituzio plazako oholtzan Igoeran: hainbat danborradatako joleak dira. Danborraden erdiak baino ez dira maskulinoak, besteak mistoak dira, eta femenino bat.
2002	Helduen Danborradan, hiru maskulinoko, lau misto dira.
2003	Urketariaren figura gehitu da Haur Danborradan, Orixe Ikastolaren eskutik.
2004	Euskal Billerakoa, haurrenen arteko azken danborrada maskulinoa, misto egin da. Gipuzkoako Batzar Nagusiek onetsitako proposamenaren arabera, erakundeen ordezkariek 'ez dute beren presentziaz ekintza baztertzaileak bermatzerik'. Omenaldia Kresalako urketariei 25. urtebetetzean.
2005	Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Legea onetsi.
2006	Emakumezkoen konpainiak protagonista danborradetan Igoeran (Gaztelubidek Artzak Ortzeok-ekoak gonbidatuta) eta Jaitsieran (Unión Artesanak, bere konpainiakoak).
2007	Gaztelubide misto egin da, bere urketarien konpainia osatuta. Omenaldia Gazte Danborradako urketariei.
2008	Diru-laguntza ukatzen zaie danborrada maskulino edo baztertzaileei.
2010	Hiritar Merezimenduaren Domina Lilatoiari
2012	Lehendabiziko urketari nagusia Gaztelubiden (Ainhoa Olasagasti) eta Unión Artesanan (Estitxu Eceiza).
	Lehendabiziko neska jeneral-laguntzaile, Rosa Salegui Legarra.
2013	Kresalako urketariak Konstituzio plazako balkoiko Igoeran. Lehendabiziko neska jeneral Haur Danborradan: Sara Huegun Iturrioz.

5. taula: berdintasuneranzko mugarriak. Geuk elaboratutako taula

Azken gogoetak

Donostiako Danborradan emakumeek historikoki eta batik bat gaur egun duten partaidetzaren ibilbide honen amaieran, aurrerapen handiak aintzat hartu behar ditugu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, bai gizartean, bai festan bertan ere. Baina, aldi berean, aitortu beharra daukagu oraindik orain ibilbide luzea geratzen dela egiteko, eta orri hauek burutzeko, lorpenak ez ezik, eman beharreko pausuak ere agerian utzi nahi genituzke.

Festa oso gauza serioa da

Lehenik eta behin, argi eta garbi nabarmendu behar dugu festen garrantzia, bertan gizarte harremanak, kultur agerbideak eta arazo estrukturalak eszenaratzeko eginkizunak diren heinean. Ospakizunak jostari azaltzeko bide ematen du; baina, parrandaz harago, oso gauza serioak egoten dira jokoan. Eta baten batek besterik uste balu, festaren dimentsioari eta hedapenari errepara diezaiola, Donostian edo askoz urrunago zuzenean komunikabideen bitartez jarraitzen duen jendetzari galdegin diezaiola:

- Donostiako festen artean, Danborrada da nagusia, ezbairik gabe.
- Milaka eta milaka lagun mugiarazten ditu.
- Askoz gehiago dira telebistan zuzenean jarraitzen dutenak.
- Astetan eta astetan, espazio ikaragarri zabala betetzen du inprimatutako, ikus-entzunezko eta digitalizatutako komunikabideetan.
- Atzerriko euskal komunitateek ere ospatzen dute, eta gero eta gehiago mundu osora hedatzen.

Horrez gain, eta inportanteago, tokiko agintariak ere barne hartzen ditu, eta instituzioen arteko harremanak udalerritik harago daramatza. Hortaz, gizarte-egituraren osagai bilakatutako festa bat da:

- Hiriko eta hiriaren festa da, eta izaera instituzionala ere badu.
- Pertsonalitate publikoek eta agintariek parte hartzen dute.
- Baliabide publikoak baliatzen ditu.

Baina, ororen gainetik, hogeita lau orduko parrandatik askoz harago doa, eta toki bat betetzen du donostiar guztien eta batbederaren unibertso sinboliko eta afektuzkoan, nor bere auzo edo hiriarekin identifikatzeko tenorean. Aldi berean, gizarte harremanak birsortzen ditu, beren hierarkiak, desberdintasunak eta guzti, eta bakoitza "bere" tokian paratzen du, bai festan, bai bizitzan; baina era berean eraldaketa ere bideratzen ahal du:

- Komunitate bateko kide izatearen sentimendua piztu eta indartu egiten du.
- Ordena soziala ordezkatu eta legitimatzen duen era berean, kuestionatu eta eraldatu ere egiten du.

Aldaketak gizartean, aldaketak Danborradan

Festa eta eguneroko bizimodua, erabat bereiz dauden bi alor direla ematen duen arren, hertsiki lotuak daude. Beraz, batean aldatzen denak eragina izaten du bestean, eta alderantziz. Dena den, egia da aldaketak ez direla nahi eta nahi ez aldi berean edo berehala gertatzen, eta desfaseak gerta daitezkeela.
Festak duen mende eta erdian, bada, garrantzizko eraldaketak eman dira.

Izaera aldatu da:

- Erlijiosotik (aurreko fase batean) zibilera.
- Inauteriko konpartsatik donostiar nortasunaren festara.

Neurriz eta hedaduraz aldatu da:

- 6 danborrada izatetik 1910ean 125 izatera 2013an (128 2014an).
- Alde Zaharrean baino ez ospatzetik hiriko auzo guztietan festa egitera.

Partaidetza-mailan eta barneratzeko gaitasunean ere aldatu da:

- Helduek soilik desfilatzen zuten festatik haurrek eta gazteek ere parte hartzekora.
- Danborrada maskulino hutsak izatetik mistoak ere -eta gehiengoz- izatera, gizon-emakumeek osatuta.

Ez dago dudarik festa hau jatorritik, sortu orduko, errealitate dinamiko bat dela, etengabeko eraldaketan.

Alabaina, aldaketa hutsak ez du berdintasun gehiagorik bermatzen:

- Danborrada berri guztiak ez dira mistoak. 2013an geratzen diren maskulinotatik bederatzi, emakumeak Danborradan parte hartzen hasi eta gero sortu ziren.

Danborradak "berez" eboluzionatu al du?

Detektatu dugunez, emakumeen partaidetzaren eboluzioari buruzko pertzepzioak "naturaltzat", "berezkotzat" jotzen du prozesua. Era berean, sumatu dugu esku hartzeko saio oro desbideraketatzat edo inposiziotzat interpretatu izan dela, oraindik orain hala interpretatzen dela. Hala eta guztiz ere, egiaztatu ditugu:

- Ez dagoela "berezko" aldaketarik. Aldaketa oro pertsonen eraginaren eta erabakien emaitza dira, eta badute zerikusirik gizartearen beste arloetan ematen ari diren aldaketekin.

Hortaz, bistan da emakumeen partaidetza Danborradan Kresalaren proposamenarekin hasi zela (gerrak eta ondoko frankismoak etendako saioez gain, jakina), garai hartan emakumeen emantzipazio sozialaren islaz.

Eboluzioak "berezko" bidea jarraitu izan balu, emakumeen partaidetzaren aldeko Kresalaren proposamenak ez zukeen orduko hartan hainbesteko polemikarik piztuko, eta hala ere hautsak dezente harrotu zituen.

Gobernu-instituzioek esku hartu ez balute, emakumeen presentzia ez zatekeen orokortuko, eta ziurrenik oraindik ez lukete parte hartuko festaren une enblematikoetan.

Nagusitu da, bai, eboluzio "naturala" izan delako pertzepzioa: borrokarik, konkistarik, aurrerapen eta atzerakadarik gabea. Hala gertatu da, hein handi batean, emakumeen partaidetzaren mugarri asko ez zirelako bere garaian nabarmendu, hain gutxi gerora bildu eta agerrarazi:

- Horrexegatik da inportantea ahanzturatik atera eta oroitaraztea aldaketak eragin dituzten gatazkak edota negoziazioak, eta haietan inplikatutako taldeen ahaleginak.

Urketariak, estrategia handi bat

Urketariaren figura izan da, ezbairik gabe, emakumeei Danborradan sarbidea eman diena.

- Gero eta gehiago dira danborradak non emakumeek, urketariez gain, bestelako postuetan ere parte har dezaketen, eta batzuetan hori urketarien agerpenetik abiatu da.

Rol berri bat da, bada, herritarren artean berehala errotu dena:

- Parte hartzen duten emakumeen ia %40k urketari gisa dihardute.

Urketariak indartu du Danborrada ekinbide militar hutsa ez baina herrikoia delako ideia, eta beraz gizon hutsena ez baino gizon-emakumeena:

- Danborradaren iruditeria "historikoa" indartu du; hain zehatz, alderdi zibila areagotu, militarraren aldean.
- Emakumeek festan eta gizartean duten tokiaz eta partaidetzaz iruditeria berri bat sortu du.

Urketaria, irtenbide izatetik oztopo izatera?

Alabaina, halako figuraren presentziak oztopatu ere oztopatzen ahal du emakumeen partaidetza danborradetan:

- Emakumeen partaidetza rol horretara mugatzen denean, gainerakoetarako sarbidea ukatuta.
- Figura musika-tresna bakarrari lotzen zaionean, gainerakoetatik, batik bat danborretatik, urruntzen dituen heinean.
- Emakumeek beste postuetan parte hartzerik ez dutenean partaidetza parekidea zailagotzen da, urketarien kopurua beti delako soldadu edo upel-joleena baino gutxiago.
- Urketarien konpainia bereiziak sortzen direnean, argi eta garbi dakarrelako sexuaren araberako segregazioa.

Eta, era berean, figura, berez, ez delako agintari-postuetara atxikitakoetako bat; nahiz eta orain egon badauden urketari nagusiak:

- Baina batzuetan urketarien konpainia baino ez dute zuzentzen, eta ez beste konpainiak, eta horrek bereizketa indartzen du.
- Ez dute danbor nagusiaren maila bera erdiesten.

Dena den, honetan ere lehengo eredu zaharrak pitzatzen ari dira eta gero eta gehiago dira urketariz jantzitako emakumeek danbor nagusiarena egiten duten danborradak.

Neskak: konkista isila

Haur Danborrada harrobi handia da. Haur Danborradan parte hartzen duten neska-mutikoak festaren birusak kutsatuta daude, eta nekez "sendatuko dira" hazi eta handitu ahala, bertan parte hartzeko gogoak barruan bizirik jarraituko du eta.

- Ikastetxeak misto egin ahala, neskak ere parte hartzen hasi ziren Haur Danborradan. Eskolan zeudenez gero, ezinezkoa zen espazio bat ukatzea

mutikoen ondoan eta, arian-arian, oposizio handirik gabe, desfilean protagonismo handia eskuratu dute, gaur egun mutilak baino gehiago dira eta.
- Festaren hedapenak eta aspaldiko urteotan hainbeste danborrada berriren sorkuntzak dezente zor dio mutikoen -eta geroago neskatilen- lehen belaunaldi haiek ikastetxeen ordezkari Haur Danborradan parte hartu izanari, helduarora iristean askok eta askok parte hartzen jarraitu nahi izan dute eta.

Dena dela, agintari postuetara iritsi direnean izan ezik, nesken lerrokatze progresiboak apenas izan duen oihartzunik komunikabideetan:
- Berdintasuna ez da albiste: gutxi dira neskek Danborradan parte hartu izanaren berri emanda integrazioaren nolakoak ulertzeko bide eskaintzen duten agiriak; prentsan behintzat, gutxi idatzi da partaidetzaren eboluzioaren mugarri bihurtu diren aldaketei buruz.

Easo Ederrak bere karrozan eskaintzen duen emetasun-eredua, gutxienez, eztabaidagarria da. Hau nekez uka daitekeenez, haren esanahia hobetzeko eta aldatzeko ahaleginak egiten ari dira aspaldion.
- Haur Danborradako karrozan egin diren azken aldaketek berdintasuneranzko aurrerapena ekar dezakete. Figuretako batzuk aldatu dira, eta haientzat esanahi berri bat sortzeko bidean dira, beste zentzu bat ematearren; besteak beste, izaera pluralagoa bilatzen da, inauterienak baino gehiago hiriarenak diren balioak lehenetsi nahian.

Danborrada mistoa = berdintasunezkoa?

Bai dago argi, danborrada bati buruz ari garela, mistoa eta berdintasunezkoa ez direla biak bat. Gaur egun, danborraden %90 mistoak dira. Baina:
- Herena baino ez dira emakumezkoak; bestela esanda, ez dago parekotasunik.
- Oso danborrada gutxitan parte har dezakete emakumeek edozein postutan. Karguetarako sarbidea ez da beti berdina izaten gizon eta emakumeentzat, eta danborrada batzuetan baizik ez dira emakumeak berdintasunez postu guztietara iristen.
- Badira danborradak emakumeentzako plaza finkorik edo iraunkorrik ez dutenak. Emakumeak halabeharraren menean geratzen dira hurrengo urtean ateratzeko, eta haien partaidetza ez da egonkorra. Hauxe gertatzen da, preseski, oihartzun handieneko bietan.
- Oso gutxitan betetzen dituzte agintari postuak konpainietan.
- Emakumeak gutxitan egoten dira erabakitzeko esparruetan, danborrarien taldeen artean zuzendaritza-batzordeetan gizonezkoak baino gutxiago izaten baitira emakumezkoak.

- Badira danborradak zuzendaritza erabat maskulinoak dituztenak, eta ez dute onesten, ez eta etorkizunera aurreikusten ere, emakumeek bertan parte hartzerik.
- Emakume gutxi dira auzoko batzordeetan beren danborradaren ordezkari, eta barrutiko delegatu bakar bat ere ez da emakumezko udal batzordeko bileretan.
- Danborrada zenbaitetan, ohiko banderadun eta kantinerei batu zaizkien emakumeek duten eginkizun bakarra gizoneko danborrariei xanpaina edo makilatxoak eramatea da.
- Badira oraindik danborrada mistoak taldeko edo txarangako emakumezkoei afarira, afari handira, gonbidapenik luzatzen ez dietenak.
- Ez dago gizonik agintari postuetara, zuzendaritzara, ordezkaritzara sarbidea ukatzen zaionik.
- Komunikabideetan maizago agertzen diren danborradek ez dira berdinzaleenak izan ohi; areago, gehien agertzen diren batzuek, orain misto izanda ere, ez dituzte emakumeak berdintasunez hartzen, eta gizonezkoen soziedadeetatik datoz.

Danborrada parte-hartzailea = berdintasunezkoa?

Danborrada oso partaidetza handiko jaia da; haatik, oso hierarkikoa ere bai.

- Festa markatzen duen hierarkiarik nabarienetako bat, bai danborrada bakoitzean, bai oro har, beteranotasuna da.
- Horrek zailago egiten du alderdi askotan benetan demokratikoa izatea; adibidez, erabakiak hartzeko tenorean.
- Urketari nagusia txertatu izanak lagundu du gizon-emakumeen arteko oreka hurbilago egon dadin, figuren estatusari dagokionez. Hala ere, ez da ahaztu behar urketari nagusiak gehienez upel kaboaren maila duela, eta ez dagoela, bada, danbor nagusiaren parean.
- Konstituzio plazako oholtzan munta handiko aurrerapenak emanagatik ere, emakumeek jarraitzen dute gizonek baino toki gutxiago hartzen.
- Danborrada gero eta berdinzaleago egiteko udal neurriez ari garela, oraindik ez dago jakiterik norainoko erdiespena izango duten danborrarien artean; alegia, emakumeen eta gizonen artean berdintasunezko partaidetzari buruzko ebazpenetan eragina izateko gai diren ala ez.

Emakumeek ez al dute saririk merezi?

Hiriko jaian, ekitaldi ofizialetan, omenaldiak eta sariak ematen dira, emakidetarako irizpideetan gizonen eta emakumeen arteko orekarik ba ote dagoen inolako kezkarik gabe:

- Urrezko Danbordunen artean, %8,5 baino ez dira emakumezkoak.
- Hiritar Merezimenduaren Dominetan, %21 baino ez dira emakumezkoak.

Urrezko Danborrerako hautagaitzak herri ekimenez aurkeztea badagoen arren, jende gehienak ez du horren berri eta beraz ez du parte hartzen.

Danborrada: pribatua eta era berean publikoa

Arlo pribatuaren eta publikoaren arteko oposizioa faltsua da, danborrari-talde bakoitzari edota Danborradan duten partaidetzari dagokionez. Danborraden antolaketa erakunde pribatuen esku geratzen da, baina:

- Espazio publikoan ospatzen dira, eta udal egiturak eta zerbitzuak ere baliatzen dituzte.
- Finantzamendu publikoa jasotzen dute.
- Udal organo baten bidez koordinatzen dira.
- Instituzio publikoetako kargu ofizialek, alkateak bestak beste, parte hartzen dute.
- Hiri osoan ospatzen den jai bat da. Danborrada batean parte hartu ez hartu, hiriko eta hiriaren jaia da.

Beraz, berdintasun irizpideak ezarri behar dira, erakunde pribatuak at gera daitezkeelako aukera -bide batez esanda, oso diskutitzekoa- aintzat hartu gabe. Alegia, berdintasuna tartean dela, “bakoitzak nahi duena egin dezala” bezalako argudioak ezin dira ontzat hartu, ekitaldi publikoa, ofiziala eta hiritarra den heinean.

Danborrada, legetik at?

2005eko Berdintasun Legearen 24. artikuluan debekatu egiten da baztertzen duten elkarte eta organizazioei inolako laguntzarik ematea, eta 25. artikuluan debekatu egiten da ekitaldi baztertzaileak espazio publikoan egitea, baita izaera pribatukoak ere. Baina:

- Badira danborrada maskulino hutsak:
    - Bide publikoan desfilatzen dutenak, eta hartarako baimenaz gain, udal oholtzak eta beste egitura eta zerbitzuak baliatzen dituztenak.

    - Ibilbideak egiteko ordutegi eta leku “tradizionalak” errespetatu zaizkienak eta beraz festaren programa eta antolakuntza orokorraren partaide direnak.
    - Koordinazio kolektiboko espazioetan ez ezik, Udal Koordinazio organoan barrutiko delegatuak ere izan daitezkeen ordezkariak dituztenak.
- Badira mistoak direlako udal diru-laguntza jasotzen duten danborradak, baina berdintasunezkoak ez direnak.

Baina, bestetik, gero eta gehiago hartzen dira, legearen letra ez bada, behintzat espiritua betetzera jotzen duten neurriak:

- Agintariek jada ez dute parte hartzen, ez behinik behin agintari gisa, emakumeak debekatzen dituzten afarietan.
- Diru-laguntzen politikak pizgarriarena egin du danborrada maskulino asko misto izatera iragan daitezen.
- Udalaren esku-hartzeak, hainbat estrategia erabilita, emakumeek festan presentzia eta protagonismoa izan dezaten bultzatu du.
- Instituzio publikoen esku-hartzea funtsezkoa da eta izan da festa demokratizatzeko eta berdintasunerantz aurrera egiteko aldaketak gauza daitezen.

Historia ala mitoa?

Danborradari hari narratiboa ematen dion iturriaren mitoak ahalbidetu du, edo behintzat erraztu, emakumeen partaidetza, urketariaren figura dela-eta. Hala ere:

- Urketariaren figurak muga dezake, goian ikusi dugun bezala, emakumeen partaidetza.
- Oro har, tradizioa eta historia nahasi egiten direnez, orainaldiko pribilegiozko egoera zenbait legitimatzeko joerak agertu ohi dira, “historikoak” -hots, “betikoak”- direlakoan, gehienez ere gerra ondorengo frankismoarenak izaten diren arren.
- Halaber, folklorea errealitatetik, gaur egungo gizartetik at dagoen zerbait gisa aurkezteko joera ager daiteke, hain zuzen goian aipatutako pentsamoldearen harira.

Badirudi historia festaren formatua legitimatzeko argudio bat dela. Hala ere:

- Danborradak ez du historia belikoarekin zerikusirik; historia gerora erabili izan da, justifikazio gisa.
- Historia festaren oinarria benetan balitz ere, ezin liteke bazterkeria gauzatzeko aitzakiarik izan, zilegitasun-argudio bat delakoan.
- Ez dirudi pertsonaia maskulinoek zilegitasun historikorik behar dutenik; zergatik bai, bada, emakumezkoenak?

- Danborrada ez da egintza historiko baten antzezpena; baina hala balitz ere, ez luke justifikatuko emakumeei pertsonaia maskulinoak antzezteko debekurik.

Konklusio gisa

Kritika feministak berebiziko garrantzia ematen dio "berdintasun" kontzeptua egoki azaltzeari. Gizartearen oinarria izatea bilatzen den printzipio politiko bat da. Pertsona guztiak berdinak direla esaten denean ez da bilatzen nortasun berbera izan dezaten, identikoak izan daitezen, baizik eta berdintasunezko oinarri batetik abiatuta, pertsona edo talde sozial bakoitza besteen desberdin baina baliokide har dadin; alegia, diferentzia ez dadila desberdinkeria bilaka (Amorós, 2005).

Ukaezina da, Donostiako festari buruzko ikerlan honetan agerrarazi bezala, emakumeen partaidetza prozesu luzea izan dela, non mailaz maila berdintasunaren aldeko aurrerapenak egin diren. Alabaina, begien bistakotik haragoko begirada batek erakusten digu emakumeen kopuruaren emendatzeak ez dakarrela berez arazoa ebazterik, lana burutua dagoenik.

Egiteke daudenen artean, hona hemen inportanteena dela uste duguna: Danborradak utz diezaiola misto izateari behingoz berdinzale izan dadin; hau da, goian esan bezala, bere kideak, gizonak izan, emakumeak izan, baliokide izan daitezen. Helburu hau erdietsia izan dela esan ahal izango da, non eta emakumeek eta gizonek, berdin-berdin, ahotsa izateko eta entzunarazteko ahalmen berbera baldin badute, festa zuzenean edo zeharka osatzen duten ekintza guztietan egiteko, esku hartzeko, autoritate eta balio sinboliko bera izateko ahalmena baldin badute. Zeren eta, idazlan honek frogatzen duenez, oraindik ez baitago halakorik.

30 urte honetan lortutako aurrerapen guztiak gutxietsi gabe, aitortu beharra daukagu gaur egun ez dagoela oraindik orain emakumeen eta gizonen arteko orekarik. Berriro diogu: hau frogatzen da, zenbakitan baino gehiago, partaidetzaren kalitatean. Eta alderdi kualitatiboaren barruan, nabarmendu behar dugu emakumeen presentzia hutsaren hurrenagoa dela festa nolakoa izango den pentsatzen eta erabakitzen dutenen artean. Danborradak maskulino hutsa izateari utzi dion arren, erabaki handiak edo txikiak hartzen diren esparru guzti-guztietan emakumeak egotea oztopatzen duten zailtasun eta inertziek iraun diraute.

Halako erabakiak gizonezkoen alde eta emakumeen kaltetan hartzen badira ere, ez dira beti kuestionatzen. Gizon askok eroso asko gozatzen dituzte beren pribilegioak, kritikarik gabe. Eta emakume askok "ameto" ematen diote beren eskubideei uko egiteari, festan parte hartzeko modu desberdinez ari garela

(desfilatzea, jotzea, erabakitzea, protagonizatzea, ordezkatzea, etc.). Batzuen kritikarik eza zein besteen ukoa ez dira nahitaez jakinaren gainean egiten; jasotako egoera kuestionatu gabe, "gauzak diren bezala" onartzearen ondorio dira, "normala" denari aurre egiten ez zaion bezala.

Eta aitortuak edo gauzatuak ez diren eskubideen egoerak zuzentzea ez da gizartean "berez" gertatzen den zerbait. Hartara, aldarrikapen bat edo hausturaren bat behar da; adibidez, emakume "bihurri" batzuek haiengandik espero dena egiten ez dutenean, ezarritakoa kuestionatu eta zaharrari berritasun bat proposatzen diotenean. Hauxe da, esaterako, Kresalako emakumeen kasua: aurre egin zioten "normal", "beti hola izan da", "tradizional" omen zenari. Aitzindari haiek goretsi beharrean gaude, bai eta historian zehar izan diren beste asko ere, zentzu kritikoz utzi ziotelako ameto emateari, nahiz eta ordainetan "normaltasunaren" oztopoa gainditu behar izan zuten. Gaur egun gizon-emakume donostiarrak, baita orduan muzin egin ziotenak ere, gizarte berdinzaleago abantailez baliatzen dira.

Balio duten neurrian, finkatutako lorpenak interpretatu behar ditugu, eta oraindik egiteke dagoen bidea ere neurtu; baina festan berdintasun osoa erdiesteko bidean dauden arriskuak ere ezagutu eta kontuan izan behar ditugu. Emakumeen partaidetza enblematikotzat hartzea da arrisku horietako bat; hots, ekidin behar da haien presentzia kide gizonezkoen berdin eta baliokide direlako onetsi ez baina "kofradiaren sinbolo femeninoa" bihur daitezen, brankako maskaroi bat, enblema bat bihurtu gabe, Celia Amorósen hitzetan esanda (*ibid*.: 431-432). Halako zerbait gertatzen denean (emakumeren edo taldetxoren bat han-hemenka nabarmen), zenbaitentzat aski izan daiteke kontzientziak isilarazteko eta beraz ezarri beharreko berdintasunaren helburu legitimoak argi ez ikusteko.

Danborrada berdintasunezko festa delako adibidea eta behin betiko urratsa ezagutuko da emakumeek bertan egiten dutena, haren kalitatea edota egokitasuna, gizon batzuen baieztapen beharrik gabe gertatzen den egunean. Eta hau benetan lortuko bada, batzuen zein besteen eragina eta ahotsak erabat baliokideak izan beharko dute, kopuruan, presentzian, zilegitasunean, mailan, erabakitzeko ahalmenean, ospean. Hauxe lortzea, berdintasunezko Danborrada, donostiar gizarte osoaren esku dago.

Bibliografia

Liburuak, artikuluak eta txostenak

Aguirre, Rafael. 2006. *Las Sociedades Populares: Donostia 1870-2005*. Hiria Liburuak. Donostia.

Ansorena Miner, Jose Ignazio. "Donostia eta musika 1813 urtearen inguruan". Hemen eskuragarri: http://www.donostia.org/info/ciudadano/2013_reconstruir.nsf/vowebContenidosId/NT00000A2E? [2013/05/03an kontsultatua].

Arrizabalaga Marín, Sagrario eta Odriozola Oyarbide, Lourdes. 2004. *La Tamborrada infantil de Donostia* (1927-2004). Irun.

Donostiako Udala, Kutxa eta Donostia 2016. 2011. *50 urte konpainian: Donostiako haur danborradaren oroitzapenak, 1961-2011*. Donostia.

Azpiazu, Jose Antonio. 1995. *Mujeres vascas: sumisión y poder*. R & B Ediciones. Donostia.

Baroja, Pío.1972. *La leyenda de Jaun de Alzate*. Caro Raggio. Madrid.

Bengoechea, Javier. 1913: "Exposición histórica". In *Euskal-Erria, Revista Vascongada*.

Eitb. "La actriz porno Rebeca Linares, ¿Tambor de Oro 2012?". 12/12/2011. In http://www.eitb.com/es/noticias/sociedad/detalle/793064/la-actriz-porno-rebeca-linares-tambor-oro-2012/ [2013/11/05ean kontsultatua].

Emaku-ADDH. "Las mujeres participan por primera vez en la izada de la bandera donostiarra". *Emakume eta eskubidea*. 11. zb. 2006ko urtarrila-martxoa. 3. or.

Estornés, Idoia. 1998. "Las mujeres en la Tamborrada". In: *Enciclopedia Auñamendi*. Hemen eskuragarri: http://www.euskomedia.org/aunamendi/138985?ver=1

FARAPI. 2008. *Gipuzkoako lurralde historikoko jaiei buruzko azterketa, generoaren ikuspegitik*. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Kirol eta Kanpo Ekintzako Departamendua.

FARAPI. 2010. *"Elkarte Gastronomikoen Garrantzia eta Eragina Gizartean" Txosten Berezia*. Gasteiz. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsoria.

Gurpegui, Mikel eta Sada, Javier Mª. 2012. *Tamborrada/Danborrada*. ACC. Donostia.

Gorosabel, Pablo de. 1967. *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*. Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.

Iztueta, Juan Ignazio. 1824. *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira*. Donostia.

Loiolatarra Kirol Elkartea. 1999. *75. Urteurrena,* 1924-1999. Donostia.

Loiolatarra Kirol Elkartea. 2010. *50. urteurrena 1961-2010 Danborrada*. Donostia.

Loza Serrano, Silvia, Ruiz Torrado, María eta Tranche Iparragirre, Mertxe. *Historia de las mujeres en Irun (1931-1992).* Irungo Udala. 2011. Irun.

Maraña, Félix. 2004. *Rataplan. Danbor hotsa Donostian 1836-1936*. Zum Edizioak. Donostia.

Sada, Javier. 1977. *Dos siglos de Tamborrada*. Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala. Donostia.

Sada, Javier Mª. 2011. "La Tamborrada de San Sebastián". In *Enciclopedia Auñamendi*. Hemen eskuragarri: http://www.euskomedia.org/aunamendi/138985/139863

Unión Artesana. 2010. *140. UA*. Donostia.

Dokumentuak

EAEko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

Haur Danborradaren araudiak.

Helduen Danborradaren araudiak.

Helduen danborradei diru-laguntzak emateko oinarriak.

Danborradaren Txostena. 2013. Donostia Festak. Donostiako Udala.

Danborradaren Txostena. 2014. Donostia Festak. Donostiako Udala.

Helduen Danborradaren Barrutietako Delegatuen bileren aktak (2000-2013).

Helduen Danborradaren partaidetza datuak, Donostia Festak emanak (2000-2013).

Iturri hemerografikoak

Prentsa: *Deia. Diario Vasco. Egin. El País. Gara. La Voz de España. Noticias de Gipuzkoa. Irutxulo Hitza*.

Fototeka Kutxa: www.kutxateka.com

Sitografia

Aralar: www.aralar.net

Donostiako Udala: www.donostia.org

Donostia Festak: http://www.donostiakultura.com

EITB Euskal Irrati Telebista: http://www.eitb.com

Elkarte Gastronomikoak: http://www.sociedadesgastronomicas.com/

Donostiako Danborrada:

http://www.donostiasansebastian.com/tamborrada/

http://www.ingeba.org/liburua/donostia/62ssfies/623ssfies.htm

http://www.donostiasansebastian.com/tamborrada/historia.html

Donostiako Danborradaren facebook orria:
https://pt-pt.facebook.com/tamborrada

Oharra: zerrenda honetatik at geratu dira kontsultatutako danborrada askoren web eta facebook orri asko.

Esker onak

Biziki eskertzen dugu ikerketa hau egiteko 2013an ateak ireki dizkiguten danborrada guztien laguntza. Halaber, eskerrak ematen dizkiegu gurekin festaren poza, ezagutza edota ikuspuntua partekatu duten guztiei:

Danborradak: Amara Berri, Antiguako Gazteen Danborrada, Arrano Beltza, Artzak Ortzeok, Baso Etxea, Bera-Bera, Gizartea, Gaztelubide, Erriberatarrak, Kondarrak, Kresala, Loiolatarrak, Peña Anastasio, Presentación de María, Txirritako Txuriurdinak, Unión Artesana, eta Amara Berri Ikastetxe Publikoko danborrada eta San Ignacio Ikastetxeko danborrada.

Iñaki Albistur (Zapa), Aitziber Aranburu, Iratxe Aranburu, Idoia Arcelus Beti, Inés Arija, Aritz Arzelus, Jesús Ausejo, Tere Barrenetxea, Juantxo Bikandi, Marce Constanzo, Pilar Diez Mintegui, Gurutze Egia, Olatz Eceiza, Tasin Eceiza, Garbiñe Elizegi, Maitane Etxebeste, Isabel Fernández, Enkarni Genua, Enkarni Gómez, Juan Gómez, Manuel Gómez, Mikel González, Begoña Gorospe, Idoia Ibero, Josean Ibiriku, Lourdes Irazusta, Maribel Jiménez, Ruth Larreta, Izaskun Larruskain, Txelu Lomas, Ascensión Martínez, Pepi Moreno, Jose Ramón Mendizabal, Markel Ormazabal, Javier Oderiz, Ainhoa Olasagasti, Maite Olasagasti, Juanjo Pérez (Beltza), Ana Rekondo, Angel Rico, Ainhoa Ruiz de Arbulo, Begoña Sanz, Paz Simón, Iñaki Zubimendi.

Maria Jesus Torres, Idoia Estornés, José María Sada eta Jose Ignazio Ansorena, Donostiako historiaz edota festaz adituak direnez gero funtsezko informazioa helarazi baitigute.

Halaber, elkarrizketetan edota lantaldeetan parte hartu dutelako edo dokumentazioa eskura jarri digutelako ikerketa honetarako laguntza eman diguten guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, bai eta honako erakunde hauei ere: Donostia Festak Departamendua, Donostiako Emakumeen Etxea, Bilgune Feministe, Donostiako Piratak, *Diario Vasco*, Koldo Mitxelena Kulturgunea, Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegia, Bilboko Udal Liburutegiak.